

**LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUY**

**BAYONACO DIOCESACO  
BI-GARREN CATICHIMA**

EDIZIO KRITIKOA

**FR. LUIS VILLASANTE-K**

PRESTATUA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA - EUSKALTZAINDIA

BILBAO 1985

## LAVIEUXVILLE - HAROSTEGUY

Trátase de un Catecismo extenso que se publicó en Bayona en 1733 y que estuvo en vigor durante casi cien años en dicha diócesis. Se titula **Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima** (=Segundo Catecismo de la diócesis de Bayona). Como se colige ya por el título, hubo un primer Catecismo, mucho más breve, pero éste no parece necesario reeditararlo, porque de hecho está asumido en el segundo.

El autor, Pierre Guillaume de Lavieuxville, no es otro que el propio Obispo de Bayona, quien lo escribió en francés. Este Catecismo tuvo mucha aceptación y fue adoptado en diversas diócesis de Francia. Parece claro que una de las intenciones del Sr. Obispo al escribirlo fue contrarrestar la influencia jansenista que a la sazón era grande en la diócesis de Bayona.

Por orden del Sr. Obispo, este Catecismo fue traducido al vasco. Aunque en el libro no aparece el nombre del traductor vasco, éste debió de ser Gratien de Harosteguy, párroco de Sara. Los críticos de la literatura vasca reconocen que este catecismo está escrito en un vasco labortano muy hermoso y clásico. Para más datos bastará consultar los autores de bibliografía vasca (J. Vinson, Jon Bilbao, etc.) y los historiadores de la literatura en esta lengua. En la revista de la Academia **Euskera** (1982), p. 619 puede verse el artículo de Pierre Lafitte sobre este autor y su libro.

La nueva edición ha sido preparada por el P. Luis Villasante, Presidente de Euskaltzaindia. Viene enriquecida con una Introducción y un amplio Léxico.

La razón inmediata de haberse elegido este libro para su inclusión en la colección Lekukoak es que el P. Villasante conoce el texto inédito de la adaptación que de este Catecismo hizo al dialecto vizcaíno Juan Antonio de Moguel, pero que no llegó a imprimirse nunca. Después que aparezca el texto labortano se piensa editar también esta versión vizcaína. En el presente caso parecía obligado dar prioridad al texto labortano, ya que sobre éste se hizo la adaptación vizcaína.

La citada colección «Euskararen Lekukoak», de la que este libro formará parte, va publicando en ediciones puestas al día y enriquecidas con introducciones, notas y vocabularios, obras que se escribieron en cualquiera de los dialectos y variedades vascas, que hoy no están al alcance del público y que, por otra parte, como fuentes de lengua, parecen necesarias para un conocimiento profundizado del idioma vasco. Se trata de ediciones críticas, hechas con respeto escrupuloso al texto y avaloradas con los necesarios adminículos.

WR 6748



**BAYONACO DIOCESACO BIGARREN CATICHIMA**

Colección

**EUSKARAREN LEKUKOAK - 11**



PIERRE GUILLAUME DE LAVIEUXVILLE - HAROSTEGUY

**BAYONACO DIOCESACO  
BI-GARREN CATICHIMA  
(1733)**

**11**

Edizio kritikoa:

**FR. LUIS VILLASANTE-K**

prestatua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA - EUSKALTZAINDIA  
BILBAO 1985

Lavieuxville-Harosteguyren bir-argitarapen hau Gasteizko Udal txit pres-  
tuaren laguntzari esker atera da kalera.

Esta nueva edición de Lavieuxville-Harosteguy sale a luz gracias a la  
ayuda del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

© Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia  
Ribera, 6 - 48005 - Bilbao  
Imprime: Gráficas ESET - Vitoria-Gasteiz  
I. S. B. N.: 84-85479-34-3  
Depósito Legal: VI - 267 / 1985



# S A R R E R A

## I

### LAVIEUXVILLE-REN KATIXIMA ETA BERONEN EUSKAL ITZULPENAK

1963. urtean (Uztailak 5) hil zen Aita Aingeru Madariaga euskaltzalea, Oñatiko Bidaurreta-n kapeilau zegoela (1). Orduan Aita Pedro Arangurennek —Arantzazuko zuzendari baitzen— esan zidan: "Zoaz eta ikus ezazu ea zerbait baliozkorik utzi ote duen". Eta bai, haren gelan aurkitu eta jaso nuen euskal esku-iskribu bat. *Cristaubaren Icabidea edo Doctrina Cristiania* du izenburua. 14 orrialdedun hitzaurrea dakar, erdaraz. Hitzaurre horren aurreko orrialdean ohar hau dator: "Este libro recogí en Elgoibar. Debíó pertenecer a los PP. Franciscanos de aquel convento. Le entregué al P. Angel de Madariaga, OFM". Eta sinadura: Fr. Andrés de Ocerin-Jáuregui O.F.M. 1922.

Erdal hitzaurre horretan argi eta garbi esaten da esku iskribu horren mamia Baionan Apezpiku beneragarri baten aginduz irtenda-ko Katixima batetik hartua dela, nahiz eta hitzez-hitz eta gauza denetan ez dion hari jarraitzen. Baita ere esaten da baduela egileak asmoa Katixima hori gipuzkeraz ere jartzeko, liburu berbera hiru euskalkietan egon dadin.

---

(1) Aita Aingeru Madariaga bermeotarra zen, 1893an jaioa. Zenbait urte Ameriketara egina. Forua eta Bermeoko komentuetan Zuzendari izan zen. Euskal olerkaria. Uste dut Erizkizundiko lanetan ere parte hartu zuela.

Denborakin jakin ahal izan nuen zein zen Baionako Katixima hori: Lavieuxvilleren bigarren Katixima, Baionan 1733. urtean aterea. Honen itzulpena da bizkaierazko esku iskribu hori, nahiz eta beti orpoz-orpo ez dion segitzen.

Bizkaierazko itzulpenaren egilea nor den ere jakin ahal izan dut. Izan ere, Derio-n badago beste ale bat: bata besteakin konparatuz lan bera dela ikusten da, nahiz eta txikikeria batzuetan berdinak ez izan. Derioko honek ez du hitzaurrerik, baina badakar itzulariaren izena: Juan Antonio Mogel.

Horra, bada, beste lan bat, orain arte argitaragabea dena, eta Mogeli zor zaiona.

Mogelen lan hori "Euskararen Lekukoak" bilduman agertu behar zela bururatu zitzaidan; baina, bestalde, Mogelen iturria lapurtarra izanik, lehentasuna ez ote zitzaion honi zor? Lapurtarra lehenik eta gero bikaitarra agertzea ez ote zen bidezkoago, alegia? Eta hala erabaki dut. Izan ere, Lavieuxvilleren Katixima honek pisu eta itzal handia izan du gure literatur tradizioan, Baionako eliz barrutian anitz urtez testu bezala egon zenaz geroz; gainera, gaur aurkitu ezina da. Aski zaharra da, bestalde, XVIII. mendeko lehen erdikoa. Arrazoi guzti hauengatik merezi zuen Lavieuxvillek Lekukoetan egotea. Mitxelena jaunari ere egin nion kontsulta, eta baietz esan zidan.

Larramendiren (2) *Diccionario Trilingüe*-n (1745), hitzurreko XXXIV. orrialdean aurkitzen da ordura arte agertutako euskal liburu-zerrenda, eta, hain zuzen, berau da lehen tokian aipatzen duena:

1.º Dos Cathecismos, uno breve, que contiene solo el Texto, y otro más largo, que contiene la explicación de las quatro Partes del Texto: la de la primera 26 Lecciones: de la segunda 24, de la tercera 33, de la quarta 27, y además muchas prácticas Santas, exemplos, e Historias, que se citan de los Sagrados Libros. Es cosa muy selecta: hízolos imprimir en Bayona el Yllustrissimo Señor Don Pedro Guillelmo de Lavieuxville, Obispo de aquella Ciudad, cuya virtud, zelo y prudencia singular, no puedo alabar bastantemente. Imprimiéronse Año de 1733".

Iparraldeko euskal literaturan bilatzen hasiz gero, aurkituko dira segur aski Katixima honen arrastoak, hainbeste urtez irakatsia izan

---

(2) Aita Larramendi Baionan bizi izandu zen Mariana de Newburg erregina ohiaren aitorle zelarik. Iparraldeko euskal literatura aski ongi ezagutzeko aukera izan zuen, beraz.

zenez gero. Adibidez, Duhalderen *Meditacioneac* liburuan (Baiona 1809) bada aipamen bat bidenabar egin. Jesusen izen sainduaren letaniak direla eta, hau esaten du (77. orrialdean): "Egun oroz erran behar litezke beraz, gure catechimar goiceco othoitcean gomendatcen duen bezala".

"Gure catechima" hau Lavieuxvillerena da, noski. Letania horiei buruz mintzo da goizeko otoitza aipatzean (ikus gure argitalpena, 10. zenbakian) eta beroien testua azken aldean dator (213 zenbakian).

Arbelbideren *Igandea edo Jaunaren eguna* liburuan (Lille, 1895) kapitulu oso bat aurkitzen da, VI.a, hitzez-hitz Lavieuxvillegandik hartua (ikus 161-173 orrialdeak). Liburu berean, 152 orrialdean, beste aipamen bat egiten du katixima honetatik. Etab.

Mogelek estimu handitan izan zuela liburu hau esan beharrik ez dago, bizkaierara itzuli eta gipuzkerara ere egin nahi izan zuenez gero.

\* \* \*

Lavieuxville Apezpikuari eta haren Katiximari buruz txosten bat ekarri zuen P. Lafitte jaunak Euskaltzaindiko batzarrerara eta argitaraturik dago: "Pierre Guillaume de la Vieuxville (1682-1734)", *Euskera* (1982), 619-620.

Pierre Haristoy-ek ere atera zuen artikulu bat Baionako Diozesako buletinean (1894): "Monseigneur de La Vieuxville évêque de Bayonne et son testament". Haritschelhar jaunari eskerrak izan dut ezagutzeko aukera.

J. Vinson eta J. Bilbao ere mintzo dira Katixima honetzaz beren Bibliografietan.

Lavieuxville jauna ez zen euskalduna, noski. Nantes-ko kalonjeen buru zelarik, 1728an Baionako apezpikua izendatua izan zen eta hurrengo urtean etorri zen Baionara.

Ez luzarorako, zeren 1734. urtean hil baitzen. Halere, bi katiximen egile dugu: bat laburra haur ttipientzat; eta bestea, handia edo bigarrena deitzen dena, askoz zabalagoa (3). Hau da gaur argitaratzen duguna. Tituluan esaten da "lehenbico comunionea eguitera preparatcen diren haurrentzat" dela, baina kontuan eduki behar

---

(3) *Guiristinoen doctrina laburra* da lehenbizikoaren titulua; eta *Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima*, bigarrenarena. Lehenbizikoak 143 orrialde ditu; eta bigarrenak 467 orrialde.

da garai hartan 14/15 urterekin egiten zela lehen jaunartzea (4); bestela nekez konprenitzen da nola haur ttipiek buruan sar zezaketen hainbeste gauza.

Obra hau Lavieuvillek frantsesez egin zuen. Eta kideei hain ona iduritu zitzairen, non diozesa askotan testutzat hartu baitzuten (hala esan zidan Lafittek).

Lavieuville beraren aginduz euskarara itzuli eta Baionako eliz barrutiko euskal herrietan testutzat jarri zen.

\* \* \*

Nor izan zen euskal testuaren moldatzailea? Haristoy-ek, aipaberri dugun artikuluan, esaten du: "La traduction basque est attribuée à Gratien Harosteguy, prêtre gradué et curé de Sare".

Haristoy-ek berak egindako *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire* (t. I, p. 239) liburuan Sarako erretoeren zerrenda dator. Hara zer dioen Harosteguy-ri buruz:

"1729-1752, Gratien de Harosteguy, né vers 1695, gradué, nommé curé de Sare en Mars 1729, très estimé de son Evêque. On croit qu'il est le traducteur du Grand Catéchisme de La Vieuxville, rendu en très beau basque de Sare" (Lafitteren artikulutik hartua).

Dubarat eta Daranatz-en *Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne* obran ageri da noizpait Harosteguyren izena, baina beste arazo bategatik. Honela dio Lafittek: "Sarako apezek Axular-en egunetarik haste, Baionako kalonjeekin ukan zituzten diru-auzien kariatara".

Tamala da idazle honi buruz berri gehiago ez jakitea, zeren hark darabilen hizkera guztiz normalizatua, trebatua eta garden-gardena baita.

Bi euskal itzulpen ezagutu ditu, bada, Lavieuvilleren Katiximak: bata frantsesetik lapurdierara egin; eta hau, itxuren arabera, Sarako erretorea zen Graziano Harostegik egin da. Bestea, berriz, lapurdierazkotik bizkaierara, eta hau Juan Antonio Mogelek egin zuen (baina ez zen argitaratu).

Gure oraingo argitalpenean lapurdierazkoa ateratzen dugu soilki. Frantseseko testua ez dugu ikusterik izan, hartarako ahalegin edo entseiu batzuk egin baditugu ere (5).

---

(4) Lafitte jaunari zor diot xehetasun hau.

(5) E. Knörr jaunari eskerrak, frantses testuaren agerbide batzuk eskuratu ahal izan ditut. (Azken orduko oharra).

## II

### ORDUKO ELIZ-GIROARI BEGIRALDIA

Orain dela zenbait urte atera zigun Artetxek bere liburu sonatu hura: *Saint-Cyran* (Zarautzen, 1958. urtean; Col. Auñamendi 3). Liburu honek badu bigarren titulu bat: "De caracteriología vasca". Oker ez banaiz, frogatu nahi du euskaldunaren izakeran badela integristorako joera, eta beste argibide askoren artean, jansenismoarena izango litzateke bat.

Auzi horretan sartu gabe, guretzat kontua hau da: Lavieuxville Baionara apezpiku etorri zenean, Baionako apaizen artean —eta Baionan esatean hango eliz-barrutia esan nahi dut— jansenismoa oso sartua zela. Saint-Cyran baionesa zela ez dugu ahortzi behar.

"L'hérésie du jansenisme, la plus perfide de toutes" dio Haristoy jaunak (5).

Gauza bera esaten digu Arbelbidek: "Jansenistak, behin ere agertu diren heretikorik kaltegarrienak" (6).

Baina hemen haste-hastetik halako argitzapen bat egin behar dela uste dugu. L. Pérouas jaunak esan duen bezala, errazegi eta maizegi egozten dizkiogu Jansenismoari anitz ikusmolde, orduan kristau pentsakera orokorrean onarturik eta zabaldurik zeudenak, adibidez, gizonaren naturalezari buruzko pesimismoa (7). Horrelakorik bada gure liburuan ere, eta haatik jansenisten aurka zebilen.

André Druillet izan zen Lavieuxvilleren aurrekoa Baionako apezpikutegian; 1728. urtean hil zen, Ziburua eta Donibane Lohitzunen artean zegoen frantziskotarren komentuan.

---

(5) «Monseigneur de la Vieuxville évêque de Bayonne et son testament» (art. cit.).

(6) *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille 1895; 109 orrialdean.

(7) IKUS SAN LUIS MARIA GRIGNION DE MONTFORT, *Obras*; BAC 1984, Madrid, p. 39.

Druillet apezpiku hori, dirudienez, jansenisten aldekoa zen eta beronen oniritziak hauek indarra hartuz joan ziren Baionako eliz barrutiko apaizen artean.

Orduko gauzen egoera ulertzen laguntzeko zilegi izan bekit mugari antzo nabari diren zenbait gertakari gogoratzea. 1673. urtean A. Widenfelt-ek liburu bitxi bat ateratzen du: *Monita salutaria Beatae Virginis Mariae ad cultores suos indiscretos* (Andre Mariarenganako debozioaren kontra). Elizak berehala Index delakoan sar arazten du liburu hori. Ofizio Sainduak 1690. urtean Jansenisten "erru-reak" —gure Katiximaren hitzaz esateko— gaitzesten ditu; urte berean "Inter multiples" gutunaren bidez Galiako apezteriaren zenbait artikulu gaitzesten ditu. 1695. urtean berriz ere Erromak Index-ean sartzen du Sorbonako irakasle A. Maillet-en liburua: *De la dévotion à la sainte Vierge et du culte que lui est dû*. Badirudi mendekuzko erreazio bat izan zela Sorbonako Unibertsitateak 1696. urtean bere aldetik egin zuen gaitzespena, hots, Agredako seroraren liburuarena (*Mística Ciudad de Dios*).

Azkenik, Klemente XI. Aita Sainduak "Unigenitus" izeneko gutuna ateratzen du 1713. urtean P. Quesnel-en aburuak gaitzetsiz. Gaitzespen honek Frantzian eraiki zuen errauts-zirimola ez zen makala izan! Beronen kontra altxatu zirenetarik bat Baionako apezpiku Druillet izan zen.

Horiek hola, Lavieuxville jaunak bazuen katramilarik aski gauzak bere lekuan jartzeko. Zuhurtziaz eta bai kuraiez ere jokatu zen.

Lafittek esaten digu: "Apezpikua diosesan sartu bezain sarri, ibili zen herriz-herri apeztegiz apeztegi, berak bere begiz gauzen eta jendeen berri biltzeko. Ohartu zen apez askoren ez jakinaz eta katixima eskasaz. Gai ez zireneri debekatu zeien konfesatzea, predikatzea eta haurren eskolatzea. Buru-gogor batzuk gutun zigilatuz (lettres de cachet) urrun arazi zituen Eukal-Herriatik. Ordutik gogoan hartu zuen bi Katixima berri ager-araziko zituela, bata girixtino argituentzat, bertzea arruntentzat, bai frantsesez, bai euskaraz" (8).

Gure Katixima hau oharmen pixka batekin arakutzen duena aurki konturatzen da gauza batez: Jansenistek gaitzesten zituzten pratika on askoren alde agertzen dela; eta, alderantziz, haiek sostengatzen zituzten aburuak espresuki gaitzesten dituela (Jansenistak behin ere izendatu gabe, noski).

---

(8) Ikus *Euskera* (1982), 619.

Aski izango da adibide bat edo beste aipatzea :

Ama Birjinaganako debozioaren kontra mintzo direnak gaitzes-  
ten ditu (165 z.).

Umiltasunez edo beldurrez oso gutitan baizik jaunartzen ez di-  
renen jokaera ez du onartzen (134 z.).

Katiximan barna maiz mintzo da Eliz usuario askoren aspaldita-  
sunaz, segur aski usuario horien aurkako aburuak bazirelaketz.

Gizona ez dela libre gaizki egiteko baizik diotenez, zera esaten  
du : aburu hori Elizaz kondenatua dela (29 z.).

Espresuki esaten du graziazko egoera ez ziola Jainkoak gizonari  
zor (29 z.).

Erromako Aita Sainduaren nagusigoa azpimarratzen du. Ikus,  
esate baterako, noren zuzena den fedezko "questionen" jujatzea  
(37 z.).

Sainduen erlekiak ohoratzearen alde agertzen da (59 z.).

Eta abar.

### III

#### LAPURDIKO LITERATUR TRADIZIOAREN ILDOAN

Batzuk kexu dira Euskaltzaindiaz, batasun-arazoetan ez ote den  
Iparraldeari sobera atxikia. Baina ez dugu ahantzi behar berrehun urte  
goizago hasi zirela han euskaraz idazten, eta hori ez da ondorio gabe.  
Euskara batua moldatu nahi den une honetan literatur tradizioari kasu  
eman behar baldin bazaio —eta bistan da baietz—, gure literatur  
tradiziorik zaharrena eta jatorrena ezin dugu bazterrerara utzi.

Lavieuxvilleren Katixima Lapurdiko euskalkian dago. Haris-  
toy-ek esan digu Sarako euskara ederrean egina dela. Eta liburu hau  
baino ia ehun urte lehenago Axular-ek ere Sarako euskaran eman zi-  
gun bere *Gero* (Haatik ez da hortik segitzen bi-bion mintzaira gauza  
denetan berdina denik). Joanes Etxeberri Sarakoaren idazlanak ere,  
dirudienez, Lavieuxvilleren Katixima baino zenbait urte lehenago egi-  
nak dira, nahiz eta orduan ez ziren agertu.

Gorago esan dugu nola Mogelek bizkaierara itzuli zuen Lavieux-  
villeren Katixima, gero haren lana argitaragabe gelditu bazen ere.  
Lapurdiezko testua eta bizkaierazkoa elkar jotzen baditugu, ordea,  
laster nabarituko dugu aldea: Mogel aztamuka bezala dabil, eta

beharko ibili, bidea urratzen zebilen eta. Besteak, berriz, tresna ego-  
kitua eta trenpatua du.

Lavieuxvilleren Katixima anitz urtez irakatsia izan zen Baionako  
eliz barrutian —80 urtez edo—, hau da, Napoleonen denboran, eta  
beronen aginduz, beste Katixima bat Frantzia guztirako egin zen  
arte. Napoleon erori zenean, ordea, haren manuz jarritako Katixima  
Loison apezpikuak bazter arazi zuen eta Lavieuxvillerena jarri zen  
berriz ere; baina orain ez luzarorako, ezen 1824. urtean Astros-ena  
jartzen da (9).

Lavieuxvilleren Katiximak bizitze aski luzea izan du, bada. Gai-  
nera, Baionako diozesa guztian hau, eta ez besterik, irakatsi behar  
zen. Esan beharrik ez dago bere eragina izan duela, beraz, Katixima  
honek Lapurdiko euskalkiaren itzala eta ospea hedarazteko.

Jakina denez, Baionako elizbarrutiaren mugak orduan eta orain  
ez ziren berdinak. Nafarroa Behereko zati bat Akitzeko Apezpikutegi-  
koa zen; Zuberoa, berriz, Oloroekoa. Zernahi gisaz, Baionako dioze-  
sako mugetan euskalki bat baino gehiago zegoen orduan ere: Lapur-  
dikoaz landara, hor zen Nafarroa Beherekoa ere; baina denek ikasi  
behar zuten Katixima lapurdieraz zegoen egina. Era hortara liburu  
bat bera bazter denetan irakasten zelarik —Baionako elizaokak zirene-  
tan, behintzat—, horrek nahi-eta-ez bere larderia eman behar izan  
zion Lapurdiko euskarari idatzizko zereginetan erabilia izateko. Nahiz  
eta haurrak Nafarroa Behereko euskalkian mintzo, Lapurdikoan izaten  
ziran eskolatuak.

Hau notatzekoa da, zeren eta mende haietan Hegoaldean ez bai-  
ta horrelako batasunik. Baionako elizan Katixima bat bera irakatsi be-  
har zen leku denetan —agian gorago azaldu dugun Eliz-egoeragatik  
agindu zuen hori Lavieuxvillek—. Dena den, euskara idatziaren ba-  
tasunerako horrek bere bidea egin izan du. Hegoaldean, berriz, barreia-  
tze handia egon zen Katixima kontuan; kasik eskualde edo herri ba-  
koitzak zuen berea.

XVI, XVII eta XVIII. mendetako euskal liburu lapurtarrez ez  
goaz hemen xeheki mintzatzera. Horien berri jakin nahi duenak Eus-  
kal Literaturaren Historietara jotzea aski du.

Haatik, iragaitzaz izango bada ere, nahi dut aipatu Lavieuxville-  
ren Katixima egin zen garai hartan bertan (edo ondoko urteetan) La-

---

(9) Ikus VINSON, *Essai d'une Bibliographie de la langue basque*, «Ca-  
téchisme Empire», n. 171 ss. eta n. 191.



purdin burutu zen beste lan handi bat, nahiz eta orduan ez zen argitaratu (eta gero ere ez, osorik eta behar bezala, behintzat), hots, Haraneder eta beste zenbait apaizen artean euskarara itzulitako Testamentu Berri osoa. Lan honen kopia Uztaritzeko Seminarioan dago, eta esku iskribuak urte muga hau dakar: 1740.

#### IV

### GURE ARGITARAPENA

Lavieuxvilleren Katixima handia, hots, bigarrena, da guk argitaratzen duguna. Horretarako Donostian, Urquijoren liburutegian dagoen alea serokopiatu eta gero idazmakinez traskribatu zen, deusik aldatu gabe. Bertan ageri den ortografian ematen dugu, bada, testua.

Liburuaren testua zenbakitan partitu dugu letik 216raino, aipamenak errazkiago egin daitezten amoreakgatik. Bai Sarrera honetan eta bai atzekaldean doan hiztegiko aipamen guztiak ere bazterreko zenbaki horien arabera eginik daude. Ez dute, bada, orrialdeaz zer-ikusirik, bazterreko zenbakiekin baizik.

Orduko ortografian letrek zuten balioa aski ongi ezaguna zaigu. Alde horretatik ez dut uste esplikazio luzerik hemen eman behar denik. Gauzaren bat edo beste aipatuko dugu soilki:

"Ch" multzoak gaur "X" letraz adierazten dugun fonema seinatzen du. Adibidez: *chebe* = *xebe*. Ez beti, ordea. Esate baterako, *Zacheo* idazten duenean (132 z.), hor "K"ren balioa du bikote honek. Berdin *Antiochus* (41 z.) etab.

"X" letrak gaurko "TS" multzoaren balioa du. Esate baterako: *Arraxeco otboitça* (12 z.) = *Arratseco ottoitza*; *exemplu* (4 z.) = *etsenplu*. Hala ere, ez beti, ezen "TS" idazkera ere aurkitzen da gure liburuan: *jautsi* (31 z.), *huts* (36 z.), *irakhats* (38 z.), *aberats* (41 z.), *dohatsutasun* (117 z.), *ardietsi* (46 z.), *sinhetsi* (96 z.). Baina anitzetan fonema berbera "X"rekin adierazten du: *examinatu* (42 z.), *axeguín* (169 z.), *dohaxu* (43 z.), *exian* (155 z.), *mahax* (121 z.), *sinhexi* (58 z.).

Liburuan maiz agertzen dira orrialde-aipamenak, liburu beraren beste lekuetara dei eginez. Aipamen horiek zeuden bezala utzi ditugu, argitarapen berrira egokitu gabe.

## V

### TESTUARI BURUZ OHARRAK

1733ko edizioa bir-agertzen dugu, deus aldatu gabe. Beraz, han datorren guztia, eta datorren bezala, irakurleari ematea da gure xedea.

Baina edizio hartan badira noiztenka huts nabariak, eta bai dudazko pasarteak ere (hutsak diren edo ez diren garbi ez dakizkizunak). Horrelakoetan testua dagoen-dagoenean ematen dugu liburuan, ondoan *sic* kako artean ezarriz, eta atal honetan ustez egin behar diren zuzenketa edo oharrak egiten ditugu.

Hitz zuzendua edo oharreztatua zein tokitan aurkitzen den jakiteko, bazter-zenbakiez baliatzen gara. Adibidez, 20 z. Hogei zenbakia esan nahi du. Beraz, liburuaren zati edo puska horretan aurkitzen da delako pasarte edo hitza.

Zenbakiaren ondoren hitza ematen dugu liburuaren gorputzean datorren bezala, eta gero ikurra =, eta ondoren hitza zuzendua. Horrekin esan nahi da, alegia, hitza nola datorren liburuan eta nola zuzendu behar den.

Beste batzutan hutsa dela ez da garbi ageri, baina idazketa ohi ez bezalakoa delako aipatzen da sail honetan, beronen ondoan *sic* kako artean, besterik gabe, jarririk (10).

Azkenik, honako beste ohar hau ere egin behar dugu : hitz batzuk ez dira beti liburuan berdin idatzirik agertzen, galde-seinaleak eta maiuskulak erabiltzean ere badira hutsak. Guk (azken honetan izan ezik), ahal dela lehen edizioari orpoz-orpo segitzen diogu.

Hona hemen gure zuzenketa eta oharren zerrenda :

- 2 z. haurei = hurrei
- 4 z. difficultatec (sic)
- 5 z. Gasten = gazteen

---

(10) Haatik, liburuan barna datozen dudazko testu guztietan ez da beti (sic) delako hori jarri. (Azken orduko oharra).

- 6 z. Besperen = Bezperen
- 7 z. gabea = jabea
- 8 z. galdequinen = galdeguinen  
gal arrazten = gal arazten
- 9 z. haurec = haurrec  
aldisca = aldizca
- 13 z. onesco = onezco  
dorozquitçut = darozquitçut
- 14 z. Ezcoaraz = escoaraz  
Aigueru = Aingueru  
batdasun (sic)
- 15 z. Edireitan = Edireiten
- 16 z. ditustenean = dituztenean
- 17 z. artea = artean  
ikhasten eta (sic)  
eçagutcen cerbitçatcen (sic)
- 19 z. bildotz = bildots
- 26 z. garraitceco = garaitceco  
ahanstera = ahanztera
- 27 z. mundua = mundura
- 28 z. cerda = cer da  
Jaincoa = Jaincoac
- 33 z. Opione = Opinione  
gastetasuneco = gatzetasuneco
- 35 z. egunean = egunen  
norc ciren (sic)
- 37 z. minçadaitecin = minça daitecin
- 40 z. particulara = particularra
- 46 z. ezatuan = estatuan  
intercionera = intencionera
- 51 z. amodionaren = amodio onaren
- 52 z. Cer erran dire = Cer erran nahi dire
- 57 z. nitçaiçcon. Moiseri (Puntua ezabatu behar da)
- 58 z. ispituz = ispirituz
- 60 z. herthuteac = berthuteac  
gaichtoaric = gaichtotaric
- 61 z. guehienec = guehienic
- 65 z. irabasteco = irabazteco  
ditusten = dituzten

- 67 z. Denter. = Deuter.  
 inspiritualean (sic)  
 norbaitequi = norbaitequin
- 70 z. esconduen = ezconduen
- 71 z. hausi = hauci
- 73 z. dioscanac = diozcanac  
 ohoiça = ohoinça  
 içaitea = içaiten
- 74 z. errainten = erraiten
- 76 z. Esta = Ezta
- 77 z. Sacrilegio = sacrilego
- 79 z. artea = artean  
 barursen = barurcen  
 Eliça = Eliçac
- 80 z. erorcenden = erorcer den
- 81 z. Dicipulu = Dicipuluec
- 82 z. iracurcen cen (cen ezabatu)
- 83 z. hutz = huts
- 84 z. gaihtoiei = gaichtoei
- 85 z. emastea = emaztea  
 berrogo = berrogoi
- 89 z. samurrequiac = samurreguiac
- 90 z. axequin = axequin
- 91 z. othurrunça = othurunça
- 94 z. hutz = huts
- 96 z. utsi = utci
- 98 z. barariazco = berariazco
- 99 z. Popula = Populu
- 105 z. sainduitcen = saindutcen
- 107 z. detgogun = detçogun
- 109 z. intencioneac = intencionea
- 110 z. Aitabuchiac = Aitabutchiac
- 111 z. uraren = huraren (?)  
 bathajoac = bathajoarenac
- 115 z. beaz = beraz
- 119 z. cergatic = certaric (?)  
 cenbat = cenbait  
 concerbatzeco = conserbatceco
- 126 z. othoit = othoi

- 127 z. adoracionezco = adoracionezco  
130 z. cer = cerc  
138 z. ura = hura  
141 z. eternitateco = eternitateco  
143 z. baicitçaque = baicitçaque  
146 z. atentione = atencione  
148 z. Hur = Hura  
mercimendu için ahal = mercimendu için ahal eta  
150 z. satisfacecoac = satisfatcecoac  
151 z. obra eguiten = obrac eguiten (?)  
154 z. bat berceo = bat berceo (?)  
Ezdeçagu = Ezdeçagun  
gucia = gutia  
159 z. Othoıçaz = Othoıçaz  
160 z. Jaincori = Jaincoari  
162 z. icena gatic = icana gatic  
Jesu-Christo = Jesu-Christoc  
166 z. nombre (sic)  
179 z. çuten = çuen  
Othoitz bere = Othoitz bero  
181 z. Egiptoaren = Egiptoarren  
182 z. Sainduaran = Sainduaren  
185 z. ardiezteco = ardiesteco  
187 z. çegan = eman çegan  
189 z. phiztu = phizu  
190 z. gorphuçac = gorphuçac  
191 z. Egiptoaren = egiptoarren  
ordoan = orduan  
192 z. lekhubat = lekhu bat  
193 z. Mendecozte = Mendecoste  
Pentecozte = Pentecoste  
198 z. bederatsi = bederatci  
199 z. Hiritat = Hiritat  
200 z. irabastea = irabaztea  
esparança = esparança  
201 z. guere = guero  
202 z. uztez = ustez  
icena = icana  
203 z. Petri = Petric  
209 z. Eliça bere = Eliça bera

## VI

### HIZKUNTZARI BURUZ OHARRAK

Lavieuxvilleren Katixima honen hiztegia liburuaren atzekaldean ematen dugu. Morfosintaxiaz zer-ikusitu duten oharririk aski ere ematen da hiztegi horretan. Ez dugu, bada, atal hau gehiegi luzatu beharrik.

Gure Katiximan erdaratiko hitz asko dela begien bistan da. Joan mendeetako Katiximarik gehienetan gertatzen da hori. Badakigu nolako ahapaldiak egin zaizkien Katixima egile haiei. Jorratzaileok sinestarazi nahi digute irakurleak ezin ulert zezakeela liburuska haietan ageri den euskara. Ni nago euskaldun haiek ez zirela hain zozoak!

Hiztegia sarreerarik izan ez duten zenbait morfologi puntutara mugatuko gara hemen.

#### 1. IZENORDE PERTSONALAK

Mitxelena idatzi du: "Para no citar más que una de las supersticiones corrientes entre nosotros, entre quienes hoy prefieren escribir *nire* 'mi, mío', en vez de *nerre*, no faltan quienes piensan que *nire* no es solamente "más correcto", sino también "más antiguo" que *nerre*, puesto que su vocal tiene el apoyo del personal *ni* 'yo'. Esto puede parecer razonable, pero no es más que una suposición, que los documentos descartan radicalmente. Sin remontarnos demasiado en el pasado, vemos por los textos que todas las variedades vascas parecen haber conocido un posesivo *ene* 'mi, mío', que se contraponía a un intensivo o enfático cuya forma más generalizada es *neure* 'mi propio, de mí mismo', una de cuyas variedades es *nerre*. Donde *nerre* está hoy en uso tenemos, por lo tanto, una forma antigua, aunque usada fuera de su antiguo contexto; *nire*, en cambio, no es sino una formación analógica moderna construida sobre *ni* según el modelo *i: ire: gu: gure*, etc." (11).

---

(11) MICHELENA (LUIS). *Sobre el pasado de la lengua vasca*, p. 75-76.

Hona hemen liburuan aurkitu ditugun izenordeak.

- a) Lehen pertsonari dagozkionak :

Niri (30 z.)

Nitaz (147 z.)

Nere (14 z.)

Ene, enetçat, enez (ikus atzekaldeko hiztegia).

- b) Bigarren pertsonakoak :

Ceroni 3, 126

- c) Pluraleko lehen pertsonarenak :

Gu, guc 19, 31

Gutaz 24, 26

Gure 1, 14, 19, 31, guren (gureen) 186

Guretçat 14, 19, 24, 26, 31

Gure-ganaino 157

Guri 87, 189

Guere 3, 68, 83, 87, 124, 134, 182, 145

Gueretçat 98, 117

Gueroc 28, 42, 83, 106, 129, 168, 212

Gueronez 3, 160.

- d) Pluraleko bigarren pertsonarenak :

Ceboc 3

Askotan ikusten da gure Katiximan e-dun formek (guere) balio erreflexibo edo bihurkorra dutela, hots, perpausaren sujetoaz joko egiten dutela. Ikus, adibidez, *gueroc... guere* joko hori 83 zenbakian.

## 2. ERAKUSLEAK

Hemen uzta ugariagoa dugu.

- a) Lehen mailako Erakuslea : Hau, hunek

Hau 32, 158, 192

Hunen 2

Hunençat 89

Huntan 2, 18, 19, 33, 46, 57, 67, 146, 148, 197

Huntaraino 146

Huntaco 14, 19, 139

Huntarateco 69  
Huntacotz 14  
Huntaz 180

Pluralean :

Hauc 164  
Haüi 164  
Hauquin 69  
Hautan 34  
Hautarat 198  
Hautaz 5, 56

- b) Bigarren mailako Erakuslea : Hori, horrek  
Hori 3, 19, 22, 25, 31, 45  
Horiche 105  
Horren 152, 153  
Horrec 8  
Horrençat 148  
Horri 3, 138  
Hortara 3  
Hortacotz 198  
Hortan 3, 88  
Hortaz 9, 27, 58  
Horiec 55, 106
- c) Hirugarren mailako Erakuslea : Hura, hark  
Hura 16, 18, 21, 26, 28, 29, 32, 37, 44, 192  
(H)uraren 111  
Hurache 56, 106  
Haren 1, 19, 20, 17, 31, 32, 35, 36, 25, 147, 152, 171, 138  
Haren ganic 1  
Hari 18, 20, 21, 24, 29, 32, 38, 43  
Hartaco 6, 28, 76, 124, 133, 142, 147  
Hartacotz 8, 30  
Hartaracotz 1, 5, 13, 14, 17  
Hartara 3, 133, 140  
Harc 153  
Hartan 29, 25, 47, 171  
Hartarat 63, 70, 99  
Hartaric 25, 36, 39, 68, 78, 94, 116  
Hartaz 17, 28, 29, 43, 127, 139, 181, 182



Pluralean :

Hec 1, 2, 3, 9, 17, 20, 19, 22, 25, 26, 35, 36, 29, 174, 179, 182,  
190  
Hei 2, 8, 7, 10, 37, 46, 59, 92, 149  
Hequin (bai jabetasunezkoan eta bai sozietiboan ere) 1, 2, 3, 6,  
9, 26, 29, 34, 42, 37, 35, 27, 45, 80, 106  
Hequinçat 30, 42, 45, 170  
Hetacotz 78  
Hetan 22, 70  
Hetara 9, 53  
Hetarat 3, 194  
Hetaric 36, 37, 48, 80, 144, 151, 158, 193, 201  
Hetaricaco 156  
Hetaz 3, 24, 37, 42, 102, 131, 139

4. ZENBAIT ADITZ TRINKO

Ez da beti erraz liburuan ageri diren aditz-formak zein aditzi ezarri behar zaizkion erabakitzea. Nahi-eta-ez, batzutan aztamuka ibili behar.

*Eduki? Egoki? Eroki?*

Badira Lavieuxvilleren Katiximan aditz iragankor baten formak, esanahiari begiraturaz *eduki*-renak diruditenak; baina muinean batzutan *-du* dute, eta beste batzutan *-go-* edo *-ro-*. Bi aditz ote dira? Hona hemen adizkiok :

daducan 37  
baitçaducan 111  
dagocat 47  
dagozcaten 1  
baitagoca 146, 207  
dagozca 209  
dagocatenei 143  
dagocatenac 36, 37, 74  
dagocala 21  
baitaroca 7

### *Egon*

Aditz iragangaitza

Baditu nor formak eta bai nor-norikoak ere:

Dago 18, 28, 37

Gaudezque 3

gaudecinean 104

daudecinac 7

baitcegoen 191

cegoen 27

cegoeino 171

ceudecin 192

çaudecinei 182

cegoquejen 189

banagoque 28

dagote 156

baitagoco 133

dagoten 2

### *Eguin*

Aditz iragankorra.

Ahal badagui 72, 94, 156

Ahal badaquigu 94

Eguidaçu 12, 171

eztaquigula 62, 69

ezdaguegula 106

### *Ekharri*

Aditz iragankorra.

Dakharque 199

### *Eman*

Aditz iragankorra.

Iguçu 11

Indaçu 10

Indatçu 12

### *Erauntsi*

Aditz iragankorra.

baitaronsate 3

daronsaten 9, 69, 93, 94, 100  
daronsatenic 187  
daronsatela 107

Lavieuxville baino geroagoko idazleetan ere agertzen da aditz hau. Ikus Duhalderen *Meditacioneac* orrialde hauetan: 249, 257, 269, 275, 276; Arbelbideren *Igandea*, 99 orrialdean. Gure liburuko pasarteak ikusirik, esanahia gutigorabehera hau bide da: zerbaitekin zerikusi izan, erlazio izan. Ikus aditz hontaz Urquijo, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri*, p. LXI.

### *Etxeki*

Aditz iragangaitza.  
datcheco 3  
datchezconac 55  
baitatchezco 138

### *Ion* (Esan)

Aditz iragankorra.  
dioçu 20, 21, 104  
dioçun 28  
dioçuna 200  
dio 19  
dioçunean 34

### *Iraun*

Nork kasua eskatzen duen aditza  
dirau 199  
ezdirauenaz gueroz 153

### *Ethorri*

Aditz iragangaitza  
çato 13, 126

### *Jaquin*

Iragankorra  
daquiguna 39  
ezdaquitenac 133  
ezdaquitenei 99

*Jarraiqui*

Iragangaitza  
darrajoenaz gueroz 159

*Joan*

Iragangaitza  
dohan 70  
nohan 149, 171  
goacin 106

Ikusten denez, aditz trinkoen uzta ez da ugariegia. Garai hartan askoz ugariagoak ziren aditz hauek Bizkaiko euskalkian (12).

#### 4. ADITZ LAGUNTAILEAREN ZENBAIT FORMA

Ez dugu, inondik ere, aditz laguntzailearen forma guztiak jasotzeko asmorik. Zerbaitegatik notatzekoak direnak hartu ditugu. Parentesi arteko forma euskara batuko ordaina da.

badadi 156  
badarocu 146 (badigu)  
badeçagu 61  
baitarocu 162 (baitigu)  
baitarozquigute 183 (baitizkigute)  
baiteçaquegu 38 (baitiezaguke)  
baiteque 195 (baitaiteke)  
balu 24  
çajoen 32 (zaion)  
çajoten 2 (zaien)  
cioten 120 (zien)  
ciotenean 149 (zienean)  
ciozcan 149 (zizkion)  
daguiquegu 195 (dezakegu)  
daite 195  
daiteque 23

---

(12) Cf. AÑIBARRO, *Gramática Bascongada para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros, parte 3.ª, págs. 43-78; ASJU III (1969).*

daitequena 28  
daitezque 22  
daquizquegun 46 (dakizkiguken)  
darocu 1, 137, 180 (digu)  
darocun 22 (digun)  
darocuçu 211 (diguzu)  
darozquigu 208 (dizkigu)  
darozquigun 146 (dizkigun)  
darozquiguten 149 (dizkiguten)  
darozquitçut 12 (dizkitzut)  
darotçut 7 (dizut)  
darotçuet 4 (dizuet)  
deçagutçu 52 (iezazkiguzu)  
deçaque 24  
deçoquegu 72 (diezaiokegu)  
deçoquetegu 46 (diezaiekegu)  
deçoqueten 70 (diezaieketen)  
deçotegula 66 (diezaiegula)  
deçotegun 25 (diezaiegun)  
derauztegun 163 (dizkiegun)  
detçagun 22, 24, 29 (ditzagun)  
deçogun 29, 163 (diezaiogun)  
detçogun 22, 30 (diezazkiogun)  
dioscanac 73 (dizkionak)  
diote 118 (die)  
diotegu 146 (diegu)  
diotegularic 149 (diegularik)  
diozcate 118 (dizkie)  
diozcatenez 164 (dizkienez)  
dituzquen 146  
duquet 28  
duquetenen 1  
gaitecin 21 (gaitezen)  
gaiten 22, 34 (gaitezen)  
gaitezque 36  
gaizco 146 (gatzaizkio)  
gaquizcola 14 (gakizkiola)  
guineino 56  
laiteque 6, 19, 184

ledin 85  
licen 175  
lioquenac 94  
luquenac 144  
natçajote 128 (natzaie)  
tu 19, 24 (ditu)  
tugu 211 (ditugu)  
tuzten 212 (dituzten).

## VII

### BIBLIOGRAFIA

LAFITTE (PIERRE), «Pierre-Guillaume de la Vieuxville (1682-1734)», *Euskera* (1982), 619-620.

LARRAMENDI (MANUEL), *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin*; San Sebastián 1745.

VINSON (JULIEN), *Essai d'une Bibliographie de la langue basque*; Paris, 1891.

ARTECHE (JOSE DE), *Saint-Cyran. De caracteriologia vasca*. Colección Auñamendi 3; Zarauz, 1958.

MOREAU (ROLAND), *Histoire de l'ame basque*; Bordeaux 1970.

HARISTOY (P.), «Monseigneur de La Vieuxville évêque de Bayonne et son testament», *Bulletin du diocèse de Bayonne* (1894), 1-15.

HARISTOY (P.), *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire*, 3 vols.; Pau 1895-1899.

DUBARAT ET HARISTOY, *Etudes historiques et religieuses du diocèse de Bayonne*, 11 vols.; Pau 1892-1902.

DUBARAT ET DARANATZ, *Recherches sur la ville et sur l'église de Bayonne*, 3 vols.; Pau 1910-1929.

SAN LUIS MARIA GRIGNION DE MONTFORT, *Obras*, Biblioteca de Autores Cristianos 451; Madrid 1984.

AÑIBARRO (FR. PEDRO A. DE), *Gramática Bascongada para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros*. Edición preparada por Fr. Luis Villasante y publicada en el *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* III (1969).

MICHELENA (LUIS), *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Colección Auñamendi 36; San Sebastián 1964.

REMENTERIA (JOXE MD), «Euskal Kristau Ikasbideen historia laburra», in *Kristau Bidea*, Jakin, Oñati 1975; XVII-XXIV.

## VIII

### ESKERRAK EMANEZ

Eskerrak eman beharrea naiz :

Milagros Bidegain-i, Urquijo Liburutegiko Lavieuxvilleren alea utzi zidalako.

Maria Pilar Lasarte eta Maria Isabel Goikoetxeari, ale hura serokopiatu eta makinatu zutelako.

Arantzazuko Aita Andoni Arriandiagari, makinazko testua berikusi eta jatorrizkoarekin berdinkatu baitzuen.

J. Haritschelhar jaunari, P. Haristoyren artikulua ezagutzeko eta baliatzeko aukera eman baitzidan.

P. Lafitte jaunari bere oharrez eta jakitateaz aparteko modu batean argitu nauelako.

E. Knörr jaunari eskeini dizkidan laguntzengatik.

Ander Manterola jaunari, Derion dagoen Mogelen bizkaierazko alea ikusteko aukera eman zidalako.

J. J. Pujana jaunari, Eusko Legebiltzarreko liburutegian diren Lavieuxvilleren aleak arakatzeko parada eman baitzidan.

Eta azketik, Aita Pedro Arangureni, Lavieuxvilleren hiztegia prestatzen egin duen lan handiagatik.

FR. LUIS VILLASANTE

Arantzazun, 1984, Abuztuak 22





**BAYONACO DIOCESACO  
BI-GARREN CATICHIMA**

**LEHENBICICO COMUNIONEA  
EGUITERA PREPARATCEN DIREN HAURRENÇAT**

**P. Guillaume de Lavieuxville  
BAYONACO JAUN APHEZPICUAREN MANUZ IMPRIMATUA**

**HAREN DIOCESAN HAU CHOILQUI IRAKHASTECO**

**B A Y O N A N**

**P. FAUVET, ERREGUEREN ETA JAUN APHEZPICUAREN IMPRIMATÇAILEA  
BAITHAN, CARMESSETACO ALDEAN**

**M. DCC. XXX III.**



## ERREGUEREN PRIVILEGIOA

1 LUIS Jaincoaren graziaz Franciaco eta Nafarroaco Erreguec; Gure Conseiller maite eta lejal, gure Parlamentetaco Gortheac dagozcaten gendei, &c. Salutancia: PIARRES de LAVIEUXVILLE, Bayonaco Jaun Aphezpiguac gure Conseiluetaco Conseiller maite eta lejalac aditcera eman darocu gure Privilegioa behar duela bere Diocesan behar dituen liburuen imprima arazteco: Eta hartaracotz, Jaun Aphezpigu hari atsegin eguin nahiz, permetitcen diogu plazer duenari imprima araz detçon *Bere Diocesaren cerbitçuco behar dituen Breviario... Catichima, Ordenança... eta Instruccionc guciac*; eta hec sal araz detçon gure Erresuma gucian nahi duen beçanbatetan egundanic hamar urthez. Jaun Aphezpigu harc hautatcen duen Imprimatçaileaz bertce guciei debecatcen diotegu erran diren liburu hec edo hequin cenbait parte imprimatcea edo salcea cer nahi erreceluren azpian, non ezdu ten permissione berariazco bat isquiribuz Jaun Aphezpigu haren ganic edo haren dretchoa duquetenen ganic, hala imprimatucodiren liburuac confiscatceco, eta hirur mila liberaco amanda bat pagatceco penaren azpian. Parisen emana Errearoaren hirurean mila çazpi ehun eta hogoi eta bederatcian, eta gure Erregue denboraco hamalaurgarrean. Erreguec bere Conseiluan,

SAINSON

Erregistroan eçarria, &c. Sinatua, LE MERCIER, Syndic.

Jaun Aphezpiguac eman dio bere Privilegioa P. FAUVET bere Imprimatçaileari.

## BAYONACO JAUN APHEZPICUAREN MANAMENDUA

*Bere Diocesaco cerbitçucotz bigarren Catichimaren publicatceco*

- 2      PIARRES DE LAVIEUXVILLE, Jaincoaren graziaz eta Aita Sainduaren autoritatez Bayonaco Aphezpicuac: Errotor, Bicarior, Serora, Escola Nausi, Familiaco Buruçagui, eta berce gure Diocesan gazteriarî irakhasteco carga dutenei Salutancia eta Benediccionea.

ENE ANAJA MAITEAC, huna non aguercen darotçuegun bigarren Catichima, lehenbico Catichimaren publicatceco Manamenduan Erearoaren hogoian 1731. aguindu guinarotçuen. Instruitceco maneran higoaltasun bat eçarcea gatic Catichima haren irakhasteco ičan duçuen artac, Aitec eta Amec bere haurei hura ičan arazteco erakhutsi duten lehiac, eçagutcera emaiten darocute nolacoac içanen diren çuen aplicacionea eta hequin disposicione onac bigarren Catichima hau bere familia gucietan eta Diocesaco parte gucietan banatceco.

Baldin lehenbicoan minçatu bagara laburzqui guiristinotasuneco eguiez, haur chumen instruitceco minçatu behar cen beçala, orai eguia hec berac bigarren Catichima huntan chehequiago eta lucequiago eçarri ditugu, adin guehiago dutenec, eta Jaincoac ispiritu guehiago eman diotenei behar çutela uste ičan dugun beçanbat; hala gaztec causituco dute batean hec behar duten esnea, Jondoni Pauloc dioen beçala, eta Sendoec bercean hautsi çajoten oguia, janhari Sendoago bat eta hei hobequi dagoten bat beçala. Jainco handia, ceinaren gloria gatic choilqui emaiten baitugu obra hau arguitara, gure artharen azpian çuc eçarri ditutçun arimac salbaraci nahiz, heda çatçu othoi çure benediccionea abundantenac hunen gainera, ičan deçagun amoreac gatic consolacionea ikhusteco arçainac eta populuac bata bercearen lehia saindu batez hari direla Diocesa huntan gucian distiaraci nahiz Salbamenduco sciencia, ceinac choilqui mereci baitu hequin guticia eta

- I. P. lehia gucia, eta guiristinotasuneco eguiac ungui ikhasiric, *ičan daitecin bethi prest*, Jondoni Petric dioen beçala, *hequin sostengatcea gatic ibardestera bere baithan duten esperançaz arroçoin eta contu galdeguiten dioten guciei.*

3 Ezditugu hemen aiphatuco erearoaren hogoian 1731. gure Manamenduan eçarri ditugun arroçoinac, Catichimac eguinez populuen instruitceco artha çuei har araci nahiz, oraino hetaz orhoit çarete; bainan ecin gaudezque çuec exortatu gabe consideratceaz eguinbide hori eta obligacione hori dela cerbait ere maneraz Apheçaren eta Arçainaren içaite gucia, San Agustinen arabera, ecen, dio Doctor Saindu harc, baldin guiristino bagara, guere salbatceco gara hala; bainan içatu gara Apez ordenatuac eta Arçainçat eçarriac, guiristinoen salbatceco, arquitceco eta instruitceco: *habemus duo quaedam; unum*

L. de Past. c. I. *quòd christiani sumus; alterum quòd praepositi sumus. Illud quòd christiani sumus, propter nos est: quòd autem praepositi sumus, propter vos est. In eo quòd christiani sumus, attenditur utilitas nostra: in eo quòd praepositi sumus, non nisi vestra.* Cein nahi ona eta Saindua içan dadin beraz bercenez çuen bicitceco manera, baldin çuen carguaren azpian diren arimac instruitu gabe laçoqui egoiten baçarete, etçarete gutiago condenatuac içanen Jaincoaren jujamenduan; ecen han çuen arimac ihardetsico du çuen ardien arimez, eta Arçain soberanoac galdeguinen darotçue hequin odola, baldin hec ignoranciaz galcen badire: *Sanguinem ejus de manu tuâ requiram.* Eta ezbacindute ere eguinbide hortan baicic deusetan hutsic eguin, hori bera asquico da, çuen carguco eguinbide guciac huts eguin bacinituzte beçala jujatuac içaiteco.

Ecen instruccionea gabe berce çuen eguindura guciac alfer eta fruituric gabe guelditcen dire; eta Sacramenduac berac ere, direlaric arren, hain berce graciaren eta benediccionen ithurri ecin agortuzco batçuec, nondic emanen duten ecen cenbait probetchu, phoçoin bihurtuco dire populuençat, noiz ere instruccionearen bidez preparatuac içan gabez hetarat hurbilduco baitire edo behar diren disposicioneac gabe, edo disposicione gaichto batçuequin, ceinec causi aracico baitio- te bere condenacionea, bere eternitateco dohaxutasunaren segurança athera behar çuten lekhuari berean. Bainan instruitcen haritcen baldin baçarete, ceboc salbatuco çarete, eta halaber salbatuco tutçue çuec ençuten çaituztenac: eguindura horri datcheco Arçainen eta populuen salbamendua. Jondoni Pauloc erraiten cioen bere Thimothee maiteari: "hari çaitte tieso eguindura horietan; ecen horrela hariz ceroni

- I. Ti. salbатуco çара; baita çu ençuten çaituztenac ere": *Attende tibi &*  
 C. 4 *doctrinae, insta in illis: hoc enim faciens, & teipsum salvum facies,*  
 V. 16. *Eeos, qui te audiunt.* Çorigaitz enetçat, dio oraino Apostolu Saindu  
 harc, çorigaitz enetçat, baldin instruitcen haritcen ezbanaiç, ecen eguin-  
 I. Co bide hartara necesariozqui obligatua naiz: *Vae mihi est si non evan-*  
 C. 9 *gelisavero; necessitas enim mihi incumbit.* Horra, Ene Anaja Maiteac,  
 V. 16 cer den çuen vocacionea, çuen estatua, çuen eguinbidea; hortan dago  
 bereciçui Evangelioço Apheztasuna, çeren berçe eguinbide çuciec be-  
 re içaitetz hortara baitaronsate.

- 4 Othoizten çaituztet beraz Jondoni Paulo Apostoluarequin ba-  
 tean eta haren hitzcunça beraz, Jaincoaren aiticinean, eta biciac eta hi-  
 lac jujatuco dituen Jesu-Christo gure Jaunaren aiticinean, othoizten  
 çaituztet Jaun hura egun batez aguertu behar den gloriaren eta haren  
 erresumaren icenean, çuen salbamenduaren eta çuen anajen salbamen-  
 duaren icenean, aplica çaitetzte eta hari çaitetzte populuen instruitcen:  
 2. Ti. *Testificor coram Deo & Jesu-Christo, qui judicaturus est vivos & mor-*  
 C. 4. *tuos, per adventum ipsius & regnum ejus, praedicate verbum.* Eta  
 V. I. baldin hori asqui ezpada, manatcen darotçuet Jesu-Christo ganic erre-  
 & 2. cibitu dudan botherearen berthutez, eta Diocesa huntaco ordenancen  
 2. C eta populuen beharraren eta premiaren arabera, instruitcen hari çai-  
 c. 13 tezte arguitasun handi batequin, guiristinoen fedea arguitcea gatic,  
 v. 10 caritate handi batequin, gende simplen grosiertasunac jasaitea eta so-  
 fritcea gatic, perseveranciarequin eta bethi iraunez, lanari ukho ez  
 eguitea gatic. Ezdeçagun bada behinere adi arrancuraric, çuetaric ba-  
 tec ere bere negligenciaz edo laçoqueriaz utci duela Iganderic edo  
 besta egunic pasatçera, populuaren instruitcen eta Catichimaren egui-  
 ten cenbait denbora emplegatu gabe. *Praedicate verbum.* Eta baldin  
 cenbait aldiz lanaren dificultatec edo gaitztaşunac guibelatcen edo  
 gueldi arazten baçaituzte çuen bidean, har çaçue animo, orhoitcen  
 çaretelaric nolaco bozcarioa eta consolacionea içanen duçuen aguer-  
 ceaz jujamendu generalean mundu çuciaren aiticinean, gure arimen  
 Arçain soberanoaren aiticinean, çuec innocenciazco estatuan beguiratu  
 dituzquetçuen hain berçe haur maitez lagunduac, çuec hejara bildu  
 dituzquetçuen hain berçe ardiz lagunduac, çuec azquen fineraino un-  
 guian perseveraraci edo iraun araci dituzquetçuen justuez, eta çuen  
 inçruccionez penitenciarա itçul araci dituzquetçuen hain berçe bekha-  
 torosez lagunduac, ceinac errecompensaco egun handi hartan içanen  
 I. sa. baitire çuen khoroa eta çuen bozcarioa. Nolaco descansua içanen da  
 c. 8 çuençat orduan erran ahal içaitea Jaincoari: huna ni, eta Jaunac niri

v. 18 fidatu darozquidan haurrac. *Ecce ego, & pueri mei, quos dedit mihi Dominus.*

Col. Nolaco lehia çuen exempluac eztiote emanen Aitei eta Amei, eta Escola Nausiei, çuequin batean hec ere bere aldetic haritceco haur  
c. 2 gazten instruitcen, eta hetaz eguiten guiristino fermu batçuec, fedean  
v. 7 erroac ungui eguinac, misterioez instruituac, Jesu-Christoren eçagutçaz  
c. I. betheac, eta ethorquiçuneco bicitcearen esperançan eta eternitateco  
V. 23 ontasunen beguira fermu daudecinac.

5 HARTARACOTZ BADA, erraberritcen dugularic, behar bada ere, gure Manamendua erearoren hogoian emana 1731. ordenatcen diotegu gure Diocesaco Errotor, Bicario, Serora, Escola Nausi, eta generalqui haur gasten instruitcen hari diren edo ethorquiçunerat harico diren guciei, hei irakhats deçoten presenteco Catichima hau, eta gure manuz lehen imprimatu dena, haurrac gai diren beçanbat eta hequin adinaren arabera, eta hau segui deçaten gauça gucietan, hala hitzcunçan, nola maneran; nahi dugu hartaracotz segui detçaten Catichima hunen hastean eçarri ditugun abisuac, eta debecatcen diotegu hautaz berceric irakhastea; exortatcen ditugu Aitac eta Amac irakhats deçoten bere hurrei eta sehiei, eta iracur araz deçaten bere familietan: Manatcen diotegu Escola Nausiei hequin ganat Escolara dabilçan haurrac Catichima huntaz cerbitça arazteaz iracurcen ikhasteco. Eta içanen da gure presenteco Manamendua iracurria eta publicatua herrietaco pregarioetan. Ordenatcen diogu gure Promoturari içan deçan artha hunen executa arazteco. Bayonan emana Majatçaren hama-lau-rean, mila çazpi ehun eta hogoi eta hamabian.

† PIARRES, Bayonaco Aphezpicua, *Jaun Aphezpicuaren manuz.*  
SAINTPE, SEC.

## ABISUAC

*Catichimaren ungui eguiteco seguitu behar direnac*

- 6
1. Gure Manamenduan erran dugun beçala, Catichima eguiteco cargua dutenac edo guero içanen dutenac obligatuac dire Diocesa huntaco Catichimaz berkeric ez irakhastera. Içanen dute artha berec hura jaquiteco ossoqui, eta gogoz ikhasteco bederen explicatu behar duten leccionea eta berriz han aiphatu behar dutena, ausarquiago eta ederquiago han minçatçea gatic, eta liburura beha ez egoitea gatic haurrec hutsic eguiten duten aldi guciez. Halaric ere on da bethi liburua escuan idiquitcea cer guertha ere, hango hitcetatic deus ez aldatcea gatic.
  2. Catichimaren eguiteco lekhu bereciric eztenean, hartaco lek-huric hoberena da khorotic campoan Eliçan. Hartaco oren bat hautatu behar da, errachen dena lekhuon lekhuco guisa: ungui laiteque Catichima eguitea Besperen eta Completen artean, horrela larriac ere han hobequi egon laitezque aditcen; arroçoin hori bera dela causa, on laiteque Catichima eguitea goiceco Meçaren erdian, bi Meça erraiten diren herrietan.
  3. Catichima eguile bat baino guehiago diren lekhuon, eta hartaco haurric asqui denean, eguinen da Nescatchena Muthiletatic berechiric edo bercela arrimatuco dire ahalic hobequiena, Muthilac al-debatetic, Nescatchac berce aldetic, eta bien artean içanen da lekhu huts bat, Catichima eguilea han ibil dadin nahi duenean; menturaz hobe laiteque egon ledin bethi lekhu batean, hala haurrac prestutiago legozque haren beguien aiticnean.
  4. Haur bakhotchac behar du içan bere lekhu marcatua, errach-qui eçagutcea gatic hea nihor baden falta. Behar dire içan isquiribuz haur gucien icenac, bakhotchac bere erremarcarequin, hequin calitate onac edo gaichtoac eçagutcea gatic, eta jaquiteco noiz Confirmatu behar diren, eta noiz eguin behar duten lehenbico Comunionea.



5. Catichima bat baicic eguiten ez den herrietan, haur gaztenac eta gutienic daquitenac eçarri behar dire berech; on da lehenbico lekhu distingatu batean eçarcea bere errepueta onez eta bere modestiaz hala merecicen duten haurrac; eta halaber bercetaric berech beherago eçarcea solasen egonez, edo modestiaric gabe lagunac gaichtatcen hariz, edo berce cenbait huts eguinez hala mortificatcea mereci dutenac.

7 6. Catichima eguiten duena egon behar da seriostasun batean, eta denbora berean emetasun batean, haurrec maita eta errespeta deçaten amoreac gatic. Eta nola han Jesu-Christoren lekhu baitaroca, haren exemplua seguitu behar du, nihor bereci gabe behar du artha eta caritate aberatsençat beçala pobrençat ere orobat.

7. Haurrac cein bere lekhuetan arrimatu direnean, guciac belhaurinco jar araci behar dire, eta bati eraguin behar çajo othoiçça, hura içanen da gucien guiblean eta chutic, guciec adi deçaten, fitegui erran gabe. Guero bere lekhuetan direla guciac ceinaraciz behin, edo guehiagotan baldin gaizqui ceinatcen badire.

8. Othoiçça akhabatu denean eta Ispiritu Sainduaren lagunça galdetu denean, guciac cein bere lekhuetan modestqui jar araci behar dire. Etçajote utci behar Catichima escuan, hobequi adi eta ikhas deçaten amoreac gatic. Ichillic egin araci behar dire, eta habarrotsic aditcen badu, guelditu behar da hura ichil artean, goardia emanaz nor diren minço direnac hei cenbait penitencia emaiteco edo bere icenaz haguitz icendatuco tuela mehatchatceco; edo bercela interrogatuco tu jostetan hari direnac edo bercetara beira daudecinac, hei ahalqueria emaittea gatic, baldin ecin ihardets badeçaquete han erran diren gauen gainean.

9. Hastean lehenic erran araci behar çajote bortz edo sei Muthilei eta Nescatchei, leheneco Catichiman esplicatu cen gauça; guero bi hitcez erran behar du cein importanta den orai explicatcera dohana; eta ondoan galdeac eguin behar tu pausatuz eta clarqui, eta Diocesaco Catichiman diren hitz berez, guisa huntan. Galdeguinen darotçut: *Cer da Jaincoa?* Ihardestsico darotaçu: *Jaincoa da Ispiritu bat abala perfeta, Ceruaren eta Lurraren Creatçaillea, eta gauça gucien Jauna eta gabea.* Galdeguinen darotçut: *Cergatic erraiten duçu Jaincoa dela Ispiritu bat?* Ihardestsico darotaçu: *Ceren Jaincoac ezbaitu ez gorphutic, ez coloreric, ez figuraric edo molduraric, eta gure senuez ecin senti baiteçaquegu.*

10. Catichima eguiten duenac hirur alditarainocoan erran behar tu errepuesta berac, eta bethi hitz berez, artha hartuz errepuesta sobra betan ez erraiteco, haurren memoria sobera nekha deçan bel-durrez. Errepuestetan cenbait dificultate causitcen duenean, hec espliatu behar tu, adittcen dutenec concebi ahal detçaqueten beçala.

8 11. Ondoan gauça hec berac galdequinen diezcate hainitz haurrei, gauçaric errachenac galdetuz gutien daquitenei, eta hec ikhassi dituzqueten artean berkeric deus ez galdetuz. Eztire seguida batean interrogatu behar alderdi bateco bereco haurrac, bainan hobe da batean alde batecoac, bercean bercecoac aldizca interrogatcea, bethi goardia eman deçaten eta prest egon daitecin amoreac gatic. Haurrei deus galdetcen çajotenean, chutic egon behar dute. Hainitz minça araci behar dire, pausatuqui, clarqui eta ahalic gorenena. Batere ezta utci behar denbora luceguian deusic galdetu gabe, horrec gogoa gal arrazten diote, guciz ikhasteco gogo ona dutenei; deitu behar dire cein bere icenez, eta eztire utci behar batac berceari irakhastera cer ihardetsi behar duten; hala eguiten dutenac punitu behar dire; eztire utci behar gaizqui ihardesten dutenez trufatcera, handic ethorcen dire bruitac haurren artean; Catichima eguileac corregitu behar tu emetasun eta caritate handirequin eta hitz gaichtoric hei erran gabe; baldin punitcea mercei duen hutsic hurrec eguiten badute, belhaurinco egon araz detçaque Catichima eguiteco denbora aphur batez, edo eçar detçaque deus eztaquitenen edo modestia gabe daudecinen herroncan.

12. Haurrec gogoz daquizcatenean lehen eguin çaitzen galdeac, ensejatu behar da gogoz daquizcatenac hei ungui concebi araztera eta adi araztera, hartaracotz aldatuz galdetaco hitçac, eta hei berretuz cenbait galde berri, lehen ecin concebi cetçaquetenac ungui espliatcen dituztenac. Catichimaren akhabançan Catichima eguiten duenac behar du içan artha cenbait hitz on laburzqui erraiteco, bicioa higuin araz, eta Guiristinotasuneco barthuteac maita araz ahal detçaquetenac, han minçatu den gaucei uquitcen çaitzenac. Halacoac causituco tu leccio-ne guehienen ondoan eçarri ditugun pratiquetan.

13. Catichima eguileac informatu behar du hea haurrac maiz hurbilcen diren Sacramenduetara, eta lehenbico Comunionearen eguiteco preparatcen hari direnac abisatu behar tu cofesa daitecila Gariçumaren hastean, exortatcen tuelaric Cofesio general edo osso baten eguitera, eta hartacotz seinalatuco diote cofesatcera ethorri behar duten eguna eta orena.

14. Haurrac ez unhatcea gatic ezta lucegui egon behar Catichimaren eguiten, hiruroren laurden asqui dire ordinariozqui hartacotz. Catichima batean hobe da galde batçuec berac maiçago eguitea, ecen ez gauça sobra betan galdeguitea; haurrec gogo gucia galcen dute, hain berce gauça gogoan ecin hartuz.

9 15. Haurrec Catichimara ethorcea huts eguiten dutenean, edo bere faltaz deusic ikhasten ezdutenean, eta han modestiarequin eta prestuqui egoiten ezdirenean, hequin burasoac hortaz abisatu behar dire. Bainan eman behar çaizte laudorioac eta cenbait sari chume ungui ihardesten dutenei, eta behinere huts eguin gabe Catichimara ibilcen eta han prestuqui egoiten direnei. Sari hec Catichima eguitean gucien aiticnean eman behar çaizte, berce haurrec ere ikhasteco guticia har deçaten gatic.

16. Catichima akhabatcean on da Escritura Saindutic edo Autor onetatic atheraricaco cenbait Istorio contatcea, hec aditceaz haurec axeguin harcen dute, errachqui gogoan harcen tuzte, eta hec hobequi orhoit arazten tuzte han ikhasi dituzten gauceç. Leccione bakhotcharen ondoan marcatu dugu cein lekhatan Escritura Sainduan causituco diren hetara daronsaten Istorioac. Catichima akhabatu denean, haurrac belhaurinco jar araci behar dire, hetaric batec erranen du gora eta guciec aditcen dutela Catichima hunen lehenbico leccionen aiticnean den othoiçça. Guero haurrac ilkhico dire.

17. Haurrec ilkhitcean habarrotsic eguin ezdeçaten, hobe da lehenic cein bere lekhuetan jar daitecin alkhiaren gainean, guero alkhi bateco haurrac bata bercearen ondoan elkharrequin ilkhi daitecin, Sacramendu Sainduari agur eguinic, eta guero berce alkhietaoac aldisca ilkhi daitecin orobat, lehenic Muthilac, guero Nescatchac.

18. Catichimaren hastean eçarri tugu goiceco eta arraxeco othoiçça, hec aldizca erran araci behar dire Catichimaren hastean, haurrec ikhas detçaten amoreac gatic; exortatcen tugu Aitac eta Amac othoitz hec erran araz detçoten bere hurrei goicean ohetic jeiquitcean, eta arraxean oheracoan: haguitz ungui laiteque etheco guciec elkarrequin erraiten balituzte bere sehiequin batean, arraxean baderen, guciac orduan errachqui elkharren gana bil baitaitezque; bercela sehiac lanean unhatuac ohera maiz joaiten dire, Jaincoaz casic orhoitu ere gabe.

## GOICECO OTHOITÇA

### ETCHECO GUCIEC ELKHARREQUIN EGUIN BEHAR LUQUETENA

*Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren izenean. Halabiz*

- 10 *Orhoit gaitecin Jaincoaren aitcinean garela, eta adora deçagun Adoracionezco Acta batez.*

Jainco guciz botheretsua, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua, Jainco bat hirur presunetan, sinhestendut baçarela munduco lekhu gucietan, eta bereciqui orai hemen çarela, adoratcen çaitut errespetu eta humiltasun ahalic handienarequin, eçagutcen eta aithorcen dut eznai-cela gai çure aitcinean aguerceco, indaçu gracia othoitz hau eguiteco çure ohoretan eta ene salbamendutan.

Halabiz.

*Hemen nabi duenac erranen ditu Jesusen icen Sainduaren Letharinac. Esquer onezco Acta.*

Ene Jaincoa, esquerrac darozquitçut çuc ene Aita onac eguin darozquidatçun gracia guciez, eta bereciqui ceren eman nauçun mundura, ceren erosi nauçun çure Seme bakharraren odol preciautaren gostuz, ceren eguin nauçun çure Eliçaren ume, eta conserbatu ene bicitceco oren eta momentu guciez, eta bereciqui joan den gau huntan.

*Orhoit gaitecin bat bedera Jaincoac eguin darocun graciaz, ceren eman darocun egungo eguna eternitateco egumaren irabazteco: Orhoit gaitecin egun hau eman darocula gure salbamenduan trabailatceco; menturaz gure biciaren azquen eguna hau dela: Har deçagun beraz borondate fermu bat egun hau ungui emplegatceco, eta lehenago hilitceco ere bekkhatu mortal batez Jaincoa ofensatuco dugun baino.*

*Hemen egon behar da apher bat gogoetan, maizenic eguiten ditugun bekhatuez orhoitcen, eta hei ihes eguiteco gogo eta borondate on bat hartu behar da.*

*Galde deçagun gaurco bekhatuen barkhamendua.*

Ene Jaincoa, indaçu othoi atço arraxaz gueroz eguin ditudan hutsen eta bekhatuen barkhamendua.

11 *Ofri gaquizcon Jaincoari.*  
*Ofrimenduzco Acta.*

Ene Jaincoa, huna ene bihotça, ceina çure graciarequin batean hartu baititu borondate eta gogo onac, çure gana dakharzquet guciac, benedica çatçu, ene gogo on guciac atchic eta compli detçadan amoreac gatic çure ohoretan. Eguidaçu gracia çure borondate sainduaren eçagutceco, eta eguiçu eneaz placer duçuna; Ofritcen darozquitçut ene egungo gogoeta, phensamendu, hitz, obra, lan, pena eta sofricari guciac, emoçute othoi çure benediccione saindua. Bai ene Salbatçailea, ene eguin ahal guciac çure cerbitçuan emplegatceco borondate eta gogo on bat harcen dut, guciac çureac dire, guciac çure ganic heldu dire, eta guciac çure baithan eçarcen ditut çure lagunça sainduaren azpian.

*Erran detçagun Pater, Ave, eta Credo.*

1. Pater noster, qui es in Coelis;  
Sanctificetur nomen tuum;
2. Adveniat regnum tuum;
3. Fiat voluntas tua sicut in Coelo & in Terra;
4. Panem nostrum quotidianum da nobis hodiè;
5. Et dimitte nobis debita nostra, sicut & nos dimittimus debitoribus nostris;
6. Et ne nos inducas in tentationem;
7. Sed libera nos à malo. Amen.

1. Ave Maria gratiâ plena, Dominus tecum;
2. Benedicta tu in mulieribus, & benedictus Fructus ventris tui Jesus;
3. Sancta Maria Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus nunc & in horâ mortis nostrae. Amen.

1. Credo in Deum, Patrem omnipotentem, Creatorem Coeli & Hærrae;

2. Et in Jesum Christum Filium ejus unicum Dominum nostrum,
3. Qui conceptus est de Spiritu Sancto, natus ex Mariâ Virgine,
4. Passus sub Pontio Pilato, Crucifixus, mortuus, & sepultus,
5. Descendit ad inferos, tertiâ die resurrexit à mortuis,
6. Ascendit ad Coelos, sedet ad dexteram Dei Patris omnipotentis :
7. Indè venturus est judicare vivos & mortuos.
8. Credo in Spiritum sanctum.
9. Sanctam Ecclesiam Catholicam : Sanctorum Communionem :
10. Remissionem peccatorum :
11. Carnis Resurrectionem :
12. Vitam aeternam. Amen.

*Nabi duenac erranen ditu escoaraz. Pater noster.*

1. Gure Aita Ceruetan çarena erabil bedi sainduqui çure icena :
2. Ethor bedi çure erresuma :
3. Eguin bedi çure borondatea Ceruan beçala lurrian ere :
4. Iguçu egun gure eguneco oguia :
5. Eta barkha detçagutçu gure çorrac, guc gure gana çordun direnei barkhatcen derauztegun beçala :
6. Eta ez gaitçatçula utz tentamendutan erorcera ;
7. Aitcitic beguira gaitçatçu gaitcetic. Halabiz.

*Ave Maria.*

1. Agur Maria graciaz bethea, Jauna da çurequin,
2. Benedicatua çara emazten artean, eta benedicatua da çure sabeleco Fruitua Jesus.
3. Maria Saindua Jaincoaren Ama eguiçu othoitz gu bekhatorençat orai eta gure heriotceco orenean. Halabiz.

*Credo in Deum.*

- 12 1. Sinhesten dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan, Ceruaren eta Lurraren Creatçailan ;
2. Eta Jesu-Christo haren Seme bakar gure Jauna baithan,

3. Cein concebitu baitcen Ispiritu Sainduaren berthutez, sor-  
thu cen Maria Birgina ganic;
4. Pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian; gurutce-  
ficatu çuten, hil cen, eta ehorci çuten;
5. Jautsi cen Ifernuetara, hirur garren egunean jeiqui cen  
biciric hilen artetic;
6. Igan cen Ceruetara, jarria dago Jainco Aita bothere gucia  
duenaren escuinean.
7. Handic ethorrigo da bicien eta hilen jujatcera.
8. Sinhesten dut Ispiritu Saindua baithan;
9. Eliça Catholica Sainduan, Sainduen partaliertasunean;
10. Bekhatuen barkhamenduan;
11. Haraguiaren phiztean;
12. Bethiere iraunen duen bicitcean. Halabiz.

*Fedezco Acta.*

Ene Jaincoa, sinhesten ditut cinez eta fermuqui, Eliçac sinhesten eta irakhasten dituen gauça guciac, ceren çuc hari irakhaxiac baitire; eguidaçu othoi gracia sinheste hortan bicitceco eta hilceco.

*Esperançaçco Acta.*

Ene Jaincoa, esperança dut Jesu-Christo gure Jaunaren mereci-  
menduen berthutez emanen darotaçula egun batez çure Parabisuco  
Gloria saindua, eta mundu hunetan harat hedatceco behar ditudan  
gracia guciac, ceren çuc aguindu baitarozquigutçu, eta çu baitçara guci  
ona, eta çure hitçaren atchiquitceco leiala.

*Jaincoaren eta Guiristino lagunaren amudiozco Acta.*

Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciac eta gauça gucien gai-  
netic, ceren çu baitçara guciac maitagarria eta ahala perfeta; maite  
dut halaber nere laguna ene burua beçala çure amoreac gatic.

*Jaincoari galdeguin behar çaiçconen othoitça. Galdezco Acta.*

Ene Jaincoa, indatçu othoi bekhatu mortalic ez benialic eguin  
gabe egun hunen sainduqui iragaiteco behar ditudan gracia guciac,  
galdeguiten darozquitçut Jesu-Christo gure Jaunaren mercimenduen  
berthutez, eta hartaracotz ararteco emaiten darozquitçut Birgina Ma-  
ria Saindua, ene Aingeru Beguirale ona, ene Patroin Saindua, eta  
Parabisuco Saindu guciac. Halabiz.

## ARRAXECO OTHOITÇA

*Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren icenean. Halabiz.*

- 13 *Orhoit gaitecin Jaincoaren aitcinean garela, eta adora deçagun. Adoracionezco Acta.*

Jainco guciz botheretsua, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua, sinhesten dut çu causitcen çarela munduco lekhu gucietan, eta bereciqui orai hemen çarela, adoratcen çaitut errespetu eta humiltasun ahalarequin; eçagutcen eta aithorcen dut eznaicela gai çure aitciner a guerceco; eguidaçu gracia, othoitz hau eguiteco çure ohoretan eta ene salbamendutan. Halabiz.

*Hemen nahi duenac erranen tu Birgina Maria Sainduaren Letharinac. Esquer onesco Acta.*

Ene Jaincoa, esquerrac bihurcen dorozquitçut Jesu-Christo gure Jaunaz, ceren eman gaitutçun mundura, eta conserbatu egungo egunean, eta berce gure bicitceco egun gucietan; ceren eman darocuçun çure Seme maitea gure salbatceco; ceren sor araci eta hil araci duçun gure gatic; ceren hain maiz barkhatu darozquigutçun gure bekhatuac, eta çure Majestate dibinoac orainocoan eguin darozquigun gracia guciez: Othoizten çaitugu, Jauna, gracia berac hemendic harat guri eguiteaz, eta erraiten dugu hartaracotz.

*Hemen erran behar dire Pater noster, Ave Maria, eta Credo latinez edo escoaraz, goiceco othoitcean beçala.*

*Galde detçogun gure Jaunari bere gracia saindua eta Ispiritu Sainduaren arguiac, gure bekhatuen eçagutceco.*

Ene Salbatzaile dibinoac, adoratcen çaitugu gure Jugea beçala, ceinac egun batez jujatuco baicaitutçu; huna non gauden belhaurico lurreean jarriac çure oinetan erromes eta gaichtaguin batçuec beçala; othoizten çaitugu ahalic humiltasun handienarequin guri eçagut araz-



teaz eta higuin arazteaz gure bekhatuac, çuc ceronec eçagutcen eta higuincen ditutçun beçala.

Ispiritu Saindua, çato gure gana, çure argui sainduaz argui çatçu gure arimac, eta gorri çatçu eta bethe gure bihotçac çure amodio dibinoaren kharraz.

Examina gaitecin egun eguin ditugun bekhatu gucien gainean, Jaincoaren manamenduen eta Eliçacoen gainean, eta gure berce eguimbiden gainean, ea certan eguin dugun bekhatuic gogoz, hitcez, obraz, edo eguin behar guinituen unguiac ez eguinez, orhoitcen garelaric bereciqui maicenic eguiten ditugun bekhatuez.

*Hemen egon behar da aphaur bat ichilic, bekhatuez orhoitcen.*

#### 14 *Contricionezco Acta.*

Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagotçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic, ceren guciz ona çarelaric, ofensatu çaitudan, eta harcen dut borondate fermu bat, ez guehiago bekhatuic eguiteco çure graciarequin batean; halaber harcendut borondate nere bekhatu guciez osoqui cofesatceco, eta emanen çaitan penitenciarenen complitceco.

*Hemen erran behar da Confiteor Latinez edo Ezcoaraz.*

Confiteor Deo omnipotenti, Beatae Mariae semper Virgini, Beato Michaëli Archangelo, Beato Joanni Baptistae, Sanctis Apostolis Petro & Paulo, omnibus Sanctis, & tibi Pater; quia peccavi nimis cogitatione, verbo & opere, meâ culpâ, meâ culpâ, meâ maximâ culpâ. Ideò precor Beatam Mariam semper Virginem, Beatum Michaëlem Archangelum, Beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum, & Paulum, omnes Sanctos, & te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Misereatur nostri omnipotens Deus, & dimissis peccatis nostris perducatur nos ad vitam aeternam. Amen.

Indulgentiam, absolutionem & remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens & misericors Dominus. Amen.

*Confiteor Escoaraz.*

Confesatcen natçajo Jainco Aita bothere gucia duenari, Maria bethi Birgina Dohaxuari, Micaël Arcangelu Dohaxuari, Joannes Baptista Dohaxuari, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guciei, eta çuri, ene Aita, ceren eguin baitut sobera bekhatu gogoz, hitcez

eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz : hartaracotz othoitz eguiten diot Maria bethi Birgina Dohaxuari, Micaël Arcangelu Dohaxuari, Joannes Batista Dohaxuari, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guciei, eta çuri ene Aita, eguin dioçoçuen enetçat othoitz gure Jainco Jaunari.

Jainco bothere gucia duenari urrical gaquizcola, eta gure bekhatuac barkhaturic hel araz gaitçala bicitce eternalera. Halabiz.

Gure bekhatuen barkhamendua, absolucionea, eta erremissionea eman deçagula Jainco bothere gucia duenac eta misericordiaz be-theac. Halabiz.

*Eliçaco behar guciencat othoitz eguin deçagun.*

Jauna, conserba çaçu othoi çure Eliça, emoçute çure lagunça saindua gure Aita Sainduari; gure Jaun Aphezpicuari, gure Erregueri, haren Etcheco guciei, Erresuma huni, Diocesa huni, orai gu garen Etcheari. Jauna conberti çatçu bekhatorosac, conserba çatçu Justuac, barkha çoçute çure etsajei, emoçute bicitce eternala gure ungui eguillei, eta lagun çatçu bere arimaco eta gorphutceco behar gucietan gu hequinçat othoitz eguitera obligatuac garen guciac.

*Othoitçac eguin deçagun halaber gure abaïde, adisquide, ungui-eguille, eta berce arima joan diren guciencat.*

De profundis clamavi ad te Domine, Domine exaudi vocem meam.

Fiant aures tuae intendentes in vocem deprecationis meae.

Si iniquitates observaveris, Domine: Domine quis sustinebit?

Quia apud te propitiatio est; & propter legem tuam sustinui te, Domine.

Sustinuit anima mea in verbo ejus; speravit anima mea in Domino.

A custodiâ matutinâ usque ad noctem, speret Israël in Domino.

Quia apud Dominum misericordia; & copiosa apud eum redemptio.

Et ipse redimet Israël; ex omnibus iniquitabus ejus.

Requiem aeternam dona eis, Domine: & lux perpetua luceat eis.

V. A porta inferi.

R. Erue, Domine, animas eorum.

V. Domine exaudi orationem meam.


R. Et clamor meus ad te veniat.

BAYONACO  
DIOCESACO  
BI-GARREN  
CATICHIMA

LEHENBICICQ COMUNIONEA  
eguitera preparatcen diren Haurrençat.

P. GUILLAUME DE LAVIEUXVILLE  
Bayonaco Jaun Aphezpicuaren manuz  
imprimatua.

*Haren Diocesan hau choilqui irakhasceco.*



BAYONAN,  
P. FAUVET, Erregueren eta Jaun Aphez-  
picuaren Imprimatçzilea baithan,  
Carmesletaco aldean.

---

M. DCC. XXXIII.



# BAYONACO JAUN APHEZPICUAREN MANAMENDUA,

Bere Diocesaco cerbitçucotz bi-  
garren Catichimaren publicatceco.



*PARRES DE LA-  
VIEUXVILLE,  
Jaincoaren graziaz eta Aita  
Sainduaren autoritatez Ba-  
yonaco Apezpiciuac: Errotor,  
Bicario, Serora, Escola*

*Nausi, Familiaco Baruçagui, eta berce-  
gure Diocesac gazteriari irakbasteco cargua  
dutenei Salutancia eta Benediccionea.*

*E NE ANA 7 A MAITE AC,  
huna non aguerren darotçuegun bi-garren  
Cytichima, leberbico Catichimaren publi-  
catceco Manamenduan Ereatoaren hogoian  
1731. agundu guinarotçuen. Instruitceco  
maneran higoaltasun bat eçarcea catic Ca-  
sichima haren irakbasteco içan duçuen ar-  
sac, Aitec eta Ames bere hanrei hura içan*

*Oremus.*

Fidelium Deus omnium conditor & Redemptor, animabus famularumque tuarum remissionem cunctorum tribue peccatorum, ut indulgentiam, quam semper optaverunt, piis supplicationibus consequantur. Qui vivis & regnas Deus in saecula saeculorum. Amen.

V. Fidelium animae per misericordiam Dei Requiescant in pace. R. Amen.

Gure Aiguere beguirale onac, gure Patroin Sainduac, Parabisuco Saindu guciac eta bereciqui çu Birgina Saindua gure Ama ona, othoizten çaituztegu, har gaitçatçue, çuen lagunçaren azpian, beguira gaiçatçue gau huntaco nahigabe eta arriscu gaichto gucietaric, eta ardiex deçaguçue çuen othoitz onez ungui bicitceco, eta bide hartaz heriotce on baten eguiteco gracia.

*Ofri deçogun Jaincoari gaurco gure loa.*

Ene Jaincoa, ofritcen darotçugu gaur hartuco dugun errepausua, çuc cere baithan haren duçun errepausu eternalaren ohoretan, Jesu-Christo gure Salbatçaille dibinoac lurrian hartu duenaren haren heriotcearen, eta haren ehortzearen ohoretan.

Jesus dibinoa ofritcen darotçugu biharco gure iratçarcea, çure atçartasunen eta phizte Sainduaren ohoretan eta batdasunean: adoratcen ditugu çuc batean eta bercean içan ditutçun disposicione sainduac, eta hec beçalacoac içateco gracia galdeguiten darotçugu humiltasun handi batequin.

Çato ene Jesus dibinoa, çato gure gana eta bici çaite gure baithan mundu huntacotz eta eternitatecotz. Halabiz.

## BI-GARREN CATICHIMA

- 15 Lehenbico Comunionearen eguitera preparatzen diren Haurren-  
çat, laur partetan errepertitua.

### LEHENBICO PARTEAN

Causitzen dire guiristinotasuneco eguiac, Gorphutz Sainduaren  
errecibitceco joquin behar direnac.

### BI-GARREN PARTEAN

Dire guiristinotasuneco eguinbideac, eta bathajoac emaiten di-  
tuen obligacioneac.

### HIRUR-GARREN PARTEAN

Dire, Nola behar diren eguin edo complitu guiristinotasuneco  
eguinbideac eta obligacioneac.

### LAUR-GARREN PARTEAN

Edireitan da urtheco besta principaletacotz instruccione bat.

# BI-GARREN CATICHIMA

COMUNIATCERA PREPARATCEN DIREN HAURRENÇAT





## LEHENBICICO LECCIONEA

Catichima cer den, eta cein necesarioa den.

16 Galdea. *Cer da Catichima?*

*Ihardestea.* Catichima da instruccione familier edo chehe bat, ceinetan ikasten baita Jaincoaren eçagutcen eta haren cerbitçatcen.

G. *Cer irakhasten da Catichiman Jaincoaren eçagutcen eta cerbitçatcen ikhasteco?*

I. Han irakhasten da Guiristinoen leguea laburzqui.

G. *Cer da Guiristinoen leguea?*

I. Hura da Jesu-Christo gure Jaunac mundura jautsiric irakhatsi darocuna, eta Eliça Ama Sainduac haren icenean irakhasten darocuna.

G. *Eguinbide handia da eta premiazcoa Catichimarat ibilcea?*

I. Bai, haurrac, sehiac, eta Catichima eztaquitzen guciac harat ibilcera obligatuac dire.

G. *Haurrec eta Sehiac gaizqui ekuiten dute Catichimara ez joaiteaz, bere burasoec edo Nausiec harat igorcen ditustenean?*

I. Bai, ceren ezbaitituzte obeditzen, eta ceren ezbaitituzte ikhasten salbatcecotz eguin eta jaquin behar diren gauçac.

G. *Aitac eta Amac, Nausiac eta etheco Andreac obligatuac dire bere haurrac eta sehiac Catichimarat igorcera?*

I. Bai, eta baldin igorcen ezbaituzte, Jaincoa ofensatcen dute, ceren obligatuac baitire Catichima ungui ikhas araztera bere hurrei eta bere sehie.

17 G. *Cer pena dute mereci Catichima jaquin edo ikhasi nabi ezdutenec?*

I. Mereci dute mundu huntan Sacramenduric gabe egoitea, eta bercean seculaco Ifernua.

G. *Cer eguin behar çajote Catichima eztaquitenei heldu direnean cofesatcera, edo ezconcera, Aitabutchi edo Amabutchi içatera?*

- I. Etçajote cofesatcean eman behar Absolucioneric, eta eztire erre-cibitu behar ezconceco edo hauraren bathajaten, Catichima ikhasi duqueten artea; eta hartaracotz galdeguin behar çajote Catichima, eztaquitela beldur içaiteco denean.
- G. *Cer chederequin ibili behar da Catichimara?*
- I. Han ungui ikhasteco chede eta gogo on batequin.
- G. *Cergatic gara obligatuac Catichimez probetchatcera?*
- I. Ceren han emaiten diren instruccionez, eta gu probetchatcen ez-garenez, Jaincoari contu hersi bat errendatuco baitiogu.
- G. *Nola ibili behar da Catichimara?*
- I. Ardura behin ere huts eguin gabe, atencionerequin eta modestqui.
- G. *Catichimaren ondoan cer eguin behar da hartaz probetchatceco?*
- I. Han aditu direnac eguin behar dire, eta hec erran etchecho harat ecin joan direnei.

## PRATICAC

*Lehenbivicoric.* Estimü handi bat eguin behar dugu Catichimaz, han ikhasten eta dugunaz gueroz Jaincoaren eçagutcen cerbitçatcen.

*Bi-garrenecoric.* Lehenbivico Comunionea eguin dugun ondoan ere ibili behar gara Catichimara, bercei exemplü ona emaiteco, eta ikhasi ditugunac ez ahanzteco.

*Hirur-garrenecoric.* Catichimaco orenac edo ezquilac joiten duen beçain laster, gauça guciac utci behar dire, lehenbivicoetaric han causitceco.

*Laur-garrenecoric.* Han sarcean belhaurinco jarri behar da, eta Jaincoari galdetu han probetchatceco gracia.

## ISTORIOAC

Samuelen istorioa *Lib. I Reg. cap. 3.* Proverbioen liburuan, çuhurac bere gana deitzen tu haur guciac, Jaincoaren hitçaren oguiaz haztera, *cap. 9, v. 4 & 5.* hurrei eta larriei oihuz dagote, ethor daitecila haren ençutera, gauça handiac baituela erraiteco, *cap. 8. v. 6.* Birgina Maria Sainduac bere bihotcean alchatuac çagozcan, bere Seme Dibinoaz erraiten cituzten gauça guciac, *Luce cap. 2. v. 19.*

## BI-GARREN LECCIONEA

Guiristinoez, eta Guiristinoen seinaleaz.

- 18 G. *Guiristinoa çara?*  
I. Bai, Jaincoari esquer.
- G. *Cer da Guiristinoa?*  
I. Guiristinoa da, bathajatua içan delaric, Jesu-Christo gure Jaunaren leguearen azpian bici dena.
- G. *Certan dago Jesu-Christoren leguearen azpian bicitcea?*  
I. Hirur gaucetan. 1. Da, harc irakhatsi dituenac sinhestea. 2. Harc manatu dituen gauçac eguita. 3. Harc ordenatu dituen Sacramenduac errecibitcea.
- G. *Gracia handia da Guiristino içaitea?*  
I. Bai, hura da Jaincoac mundu huntan eguin ahal deçaquegun gracia handienetarik bat.
- G. *Cer da Gracia hura?*  
I. Hura da içaitea Jaincoaren Ume, Jesu-Christoren miembro, eta Ceruco primo.
- G. *Cein da Guiristinoaren seinalea?*  
I. Hura da Gurutcearen seinalea.
- G. *Nola eguiten da Gurutcearen seinalea?*  
I. Gurutcearen seinalea eguiten da, escu escuina emanic copetan, handic sabelean, guero ezquerreco sorbaldan, eta azquenic escuineco sorbaldan, erraiten delaric: Aitaren, eta Semearen eta Ispiritu Sainduaren icenean. Halabiz. Edo latinez: *In nomine Patris, & Filii, & Spiritûs Sancti. Amen.*

### PRATICAC

1. Guehiago estimatu behar dugu Guiristino içaitea, munduco berce cein nahi dohain eta calitate içaitea baino, San Luis Franciaco Erreguec eguiten çuen beçala.

2. Egunic eztugu huts eguin behar, Jaincoari eskuerrac eman gabe, ceren eguin darocun hain gracia handi bat, berce hanbati eguin eztiotena.

3. Ezgara behar ičan choilqui icenez Guiristino, bainan bici behar gara Guiristino guisa.

## ISTORIOAC

Contatu behar da Guiristino icenaren hastea, ceina lehenic eman baitcitçajen Guiristinoei Antiochaco Hirian, agueri den beçala Apostoluen Actetan, *cap.* 11. *v.* 26.

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 19 G. *Cer marcatcen edo errepresentatcen du Gurutcearen seinaleac?*  
I. Marcatcen tu gure Religioneo bi Misterio principalac.
- G. *Cein dire?*  
I. Trinitateco Misterioa, eta Jesu-Christoc eguin duen gure erospeneco.
- G. *Gurutcearen seinaleac nola marcatcen du Trinitateco Misterioa?*  
I. Jaincoaren hirur presunac deithuz, erranic icenean, eta ez icenentan; erakhustera emaiteco presuna hec Jainco bat direla, eta Jainco baten icenean ceinatcen garela.
- G. *Nola marcatcen du gure erospeneco Misterioa?*  
I. Gure gorputcean eguinez Gurutcearen figura eta seinalea, ceren Gurutcean hil baitcen Jesu-Christo gure erostea gatic.
- G. *Cein da Gurutcearen seinalearen berthutea?*  
I. Haren berthutea da Deabruen khasatcea, tentacionen khencea, eta Jaincoaren benedicionea heda araztea gure gainera eta guc eguiten ditugun gaucen gainera.
- G. *Noiz eguin behar da bereciqui Gurutcearen seinalea?*  
I. Eguin behar da lehenic goicean ohetic jeiquitcean. 2. Lanean hasteracoan. 3. Jateracoan. 4. Cenbait arriscu edo cenbait tentamendu dugunean. 5. Arraxean oheracoan.
- G. *Ceinatcean edo Gurutcearen seinalea eguitean maicenic eguiten diren butzac cein dire?*  
I. Lehena da, presaca ceinatcea, edo hitçac ungui trencatu eta erran gabe. 2. Da atencioneric eta debocioneric gabe ceinatcea.

G. *Ceinatceco usança çabarra da Guiristinoen artean?*

I. Tertulien sabantac, ceina bici baitcen Eliçaren lehenbico mendetan, dio haren denboran Guiristinoec eguiten çutela Gurutcearen seinalea, bere accione principalac hasi baino lehen; hala uste içaiteco da, pratica edo usança hori Apostoluetaric heldu dela.

G. *Cilbegui da ceinatcea edo Gurutcearen seinalea eguitea supersticionetacotz?*

I. Ez, hori laiteque bekhatu handi bat.

### PRATICAC

1. Gurutcearen seinalea eguin behar dugu errespetu eta fede handi batequin.

2. Maitatu behar dugu bicitce mortificatua, ceina marcatcen baitarocu Gurutceac.

3. Ceinatcen garenean orhoitu behar gara Jesu-Christo gureçat hil içan dela.

### ISTORIOAC

Letoinezco Suguea nola içan cen alchatua Desertuan *Numer. cap. 21 & Ev. S. Joan. cap. 3. v. 14.* Maraco urac baitciren khiretsac, Moysec harat etchatu çuen egurrac eztitu cituen *Exodi cap. 15. v. 25.* hala Gurutceaz orhoitceac eztitcen tu bicitce huntaco nahigabeac. Israelitec bere athetan eçarri çuten bildotz odolac beguiratu cituen Aingueru funditçaillea ganic, *Exodi cap. 12. v. 7.* guisa berean gure copetac Gurutcearen seinaleaz marcatuac direnean, beguiratcen gaituzte gure arimaco etsajetaric. Seinale huntaz, Thau (ceina baitcen letra bat) marcatuac etcirenac, içan ciren hil araciac *Ezech. cap. 9. v. 6,* halaber Gurutcearen seinaleaz marcatuac içanen eztirenac, içanen dire galduac; Gurutcearen seinalea içanen da ikharria bictoria handi batequin Jesu-Christoren aiticinean, jujamendu generaleco egunean. *Matth. cap. 24. v. 30.*



# LEHENBICICO PARTEA

CEINETAN CAUSITCEN BAITIRE GUIRISTINOTASUNECO EGUIAC





## LEHENBICICO LECCIONEA

Jaincoaz.

- 20 G. *Cer da Jaincoa?*  
I. Jaincoa da Ispiritu bat ahala perfeta, Ceruaren eta Lurraren Crea-  
tçaillea, eta gauça gucien jauna.  
G. *Cergatic dioçu Jaincoa dela Ispiritu bat?*  
I. Ceren Jaincoac ez baitu ez gorphutic, ez coloreric, ez figuraric  
edo molduraric, eta gure sensuez ecin eçagut edo asma baititeque.  
G. *Cergatic dioçu Jaincoa dela ahala perfeta?*  
I. Ceren Jaincoac baititu perfeccione guciac, eta haren perfeccio-  
nec ez baitute chederic edo mugarriric.  
G. *Cein dire Jaincoaren perfeccione principalac?*  
I. Hec dire, nihoren manuco ez içaitea, ontasuna edo ona içaitea,  
justicia, misericordia, saindurasuna, handitasuna, probidencia,  
eternitatea, &c.  
G. *Cer aditcen duçu nihoren manuco ez içaiteaz?*  
I. Aditcen dut, Jaincoa hain nausi dela gauça gucien, non ecin içan  
baitaiteque nihoren menean edo beharrear.  
G. *Cer erran nahi da haren ontasuna?*  
I. Erran nahi da, Jaincoa dela ungui gucien ithurria eta harc ungui  
eguiten dioela mundu guciari.
- 21 G. *Cergatic dioçu justua dela?*  
I. Ceren bat bedera errecompensatcen edo punitcen baitu, merecitu  
duenaren arabera.  
G. *Certan erakhustera emaiten du bere misericordia?*  
I. Erakhustera emaiten du, ceren guiçon guciac nahi baititu salba-  
tu, bekhatoros guciac deitzen baititu penitencia eguitera, eta bar-  
khatcen baitiote eguiazco penitencia eguiten dutenei, eta cinez  
conbertitcen direnei.  
G. *Certan da agueri Jaincoaren Justicia?*  
I. Bekhatua ecin maita baiteçaque eta ecin eguin bekhatu-  
ric, eta hu-  
ra baita berthute gucien Autora.

- G. *Cer aditcen duçu Jaincoaren handitasunaz?*
- I. Aditcen dut harc berac bethecten tuela Cerua eta Lurra, eta hura dela lekhu, gauça eta creatura gucietan.
- G. *Jaincoa lekhu gucietan denaz gueroz, cergatic eztugu guc ikhusten?*
- I. Ceren hura baita Ispiritu huts bat edo chahu bat, gorphutic gabecoa.
- G. *Guc Jaincoa ez ikhusia gatic arren, barc ikhusten gaitu gu?*
- I. Bai, harc ikhusten tu gauça guciac, aditcen tu guciac eta eçagutcen gure barneco gogoe tarainoco guciac.
- G. *Cer aditcen duçu Jaincoaren probidenciaz?*
- I. Aditcendut, Jaincoac artha dagocala creatura gucien conserbateaz, badaquizcala gauça guciac, ikhusten tuela guciac, eta deusic eztela guerthatcen haren nahiarequin baicic, edo harc permeturic baicic.
- G. *Cergatic dioçu Jaincoa eternala dela?*
- I. Ceren ezbaitu ičan egundaino hasteric, eta ezbaitu ičanen secular akhabançaric.

#### PRATICAC

1. Orhoit gaitecin maiz Jainco bat badela, adora deçagun bihotz onez, eta maita gauça gucien gainetic.
2. Beldurtasun guehiago behar dugu Jaincoaren aiticinean gaizqui eguiteaz, guiçon gucien aiticinean eguiteaz baino.
3. Imitatu behar dugu Jaincoa, hura beçala onac içanez, eta mundu guciari ungui eguinez.

#### ISTORIOAC

Jaincoaren aiticinean nola garen, Abrahamec cer ikhusi çuen *Gen. cap. 17. v. 1.* Susanaren istorioa *Daniel cap. 13. v. 23.* Probidenciaren gainean, Joseph saldua eta preso emana *Gen. cap. 37. 39 & 41.* gauça beraren gainean *S. Matth. cap. 6. v. 25 & seq.*

## BI-GARREN LECCIONEA

Trinitate Sainduaz.

- 22 G. *Badire hainitz Jainco?*  
I. Ez, ezta Jainco bat baicic, eta ecin iřan daitezque hainitz Jainco.
- G. *Badire hanitz presuna Jaincoa baithan?*  
I. Bai, badire hirur, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua.
- G. *Aita Jainco da?*  
I. Bai, Aita Jainco da.
- G. *Semea Jainco da?*  
I. Bai, Semea Jainco da.
- G. *Ispiritu Saindua Jainco da?*  
I. Bai, Ispiritu Saindua Jainco da.
- G. *Hirur Presuna hec hirur Jainco dira?*  
I. Ez, eztira hirurac Jainco bakhar bat bera baicic.
- G. *Cergatic hirur Presuna hec extire Jainco choil bat bera baicic?*  
I. Ceren ez baitute natura bat bera baicic, eta Jaincotasun bat bera baicic.
- G. *Nola deitzen duřu Misterio hori?*  
I. Trinitate Sainduco Misterioa.
- G. *Cer da Trinitate Saindua?*  
I. Trinitate Saindua da Jainco bakhar bat hirur presunetan, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua.
- G. *Hirur presuna hetan bada batere bercea baino handiagoric, řabarragoric, edo bothere guehiago duenic?*  
I. Ez, hirurac higoal dire gauća gucietan, ceren ez baitute hirurec natura bat bera baicic, eta Jaincotasun bat bera baicic.
- G. *Egüiřu fedezco Acta bat Trinitate Sainduco Misterioaren gainean.*  
I. Ene Jaincoa, sinhesten dut fermuqui, řu řarela Jainco bakhar bat hirur presunetan, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua; ceren řuc hala irakhatsi baitiořu Elića Ama Sainduari.

## PRATICAC

1. Adora detçagun maiz gogoz eta bihotcez Trinitate Sainduco hirur presunac.
2. Ceina gaiten gure lanen eta accionen hastean, eta hec ofri detçogun Trinitate Sainduari.
3. Esquerrac eman detçogun Jaincoari, ceren eçagut araci darocun Misterio handi hori.

## ISTORIOAC

Jesu-Christo gure Jaunaren Bathajoan nola aguertu ciren Trinitate Sainduco hirur presunac *Matth. cap. 3. v. 16 & 17. Luc. 3. v. 22.* Isaïas Profetac nola ikhusi cituen Seraphinac, hiruretan cantatcen çutelaric, Caindua, &c. *Isaïae 6. v. 2. & 3.*

## HIRUR-GARREN LECCIONEA

Munduaren creatceaz.

- 23 G. *Mundua bethidanic içatu da?*  
I. Ez, ezta Mundua bethidanic içatu.  
G. *Norc eguin eta creatu du Mundua?*  
I. Jaincoac.  
G. *Jaincoac certaric creatu du Mundua?*  
I. Creatu du ezdeusetaric.  
G. *Ezdeusetaric eguin daiteque cerbait?*  
I. Ez, Jaincoac baicic ezdeçaque nihorc ezdeusetaric eguin cerbait, eta hala eguitea deitcen da creatcea.  
G. *Jaincoac nola creatu du Mundua?*  
I. Creatu du bere hitz choilaz; hala, erran çuen, eguin bedi arguia, eta eguin cen arguia.  
G. *Jaincoac Mundua creatu çuen baino leben cer cen?*  
I. Etcen deusic, Jaincoa baicic.  
G. *Non cen Jaincoa, Mundua creatu çuen baino leben?*  
I. Bere baithan cen.

- 24 G. *Jaincoac Mundua creatu çuenean, haren beharric baçuen?*  
 I. Ez, Jaincoa berenez da perfeta, eta eztu creatura baten-ere beharric.
- G. *Cergatic creatu du bada Mundua?*  
 I. Gureçat ona içanez, eta gutaz adoratua içaiteco.
- G. *Norc gobernatcen, eta conserbatcen du Mundua?*  
 I. Jaincoac bere proibidenciaz, eta bere bothere guciz handiaz.
- G. *Jaincoac ezdeusetara bihur abal deçaque Mundua?*  
 I. Bai, instant batez ezdeusetara bihur leçaque, baldin nahi balu.
- G. *Jaincoac certaco creatu tu içarrac, aciendac, eta lurraren gainean diren gauça guciac?*  
 I. Nola Jaincoac bere cerbitçuco creatu baitu Guiçona, hala gauça hec guciac creatu tu Guiçonaren cerbitçuco.

#### PRATICAC

1. Jaincoaren alderateco eçagutça eta esquer handi batequin considera detçagun haren obra miragarriac, eta gure ganateco ontasuna, ceina bazter gucietaric gure beguien bistan agueri baita.

2. Esquerrac eman detçogun Jaincoari, ceren eguin dituen gureçat hainberce gauça, eta galde deçogun hetaz sainduqui cerbitçateco gracia.

#### ISTORIOAC

Contatu behar da Jaincoac nola creatu çuen Mundua, eta nola egorri çuen Dilubio edo Uholde generala, ceren harc guiçononçat creatu cituen gauça onez gaizqui cerbitçatcen baitciren haren ofensateco. *Gen. 1. & seq. cap. 6. & seq.* eta proibidenciaren gainean, Esther Errequinaren, eta Mardocheeren istorioa. *Esther cap. 4. & seq.*

## LAUR-GARREN LECCIONEA

Aingueruen creatceaz eta Deabruen erorceaz.

- 25 G. *Norc creatu tu Aingueruac?*  
I. Jaincoac.
- G. *Cer dire Aingueruac?*  
I. Aingueruac dire Ispiritu huts batçuec gorputhic gabeac, Jaincoac bere manuen eraguiteco creatu dituenac.
- G. *Cer estatutan Jaincoac creatu cituen Aingueruac?*  
I. Creatu cituen graciazco eta saindutasunezco estatuan.
- G. *Aingueru guciac iraun dute bethi graciazco eta saindutasunezco estatu hartan?*  
I. Ez guciac; batçuec iraun dute bethi estatu hartan, bainan berceac estatu hartaric erori ciren bere orguiluaz edo superbiotasunaz.
- G. *Nola deitcen dire graciazco estatuan iraun dutenac?*  
I. Hec deitcen dire Aingueru onac, edo choilqui Aingueruac.
- G. *Eta graciazco estatutic erori cirenac nola deitcen dira?*  
I. Hec deitcen dira Aingueru gaichtoac, edo maizago Deabruac edo Demonioac.
- G. *Cer eguin ciren Aingueru gaichtoac bekhatu eguin çuten ondoan?*  
I. Içan ciren Parabisutic khasatuac, eta Ifernurat etchatuac.
- G. *Cer hari dire Ifernuan?*  
I. Han sofrितcen tuzte eternitate gucico tormentac edo suplicioac, eta han hari behar dute bekhatorosen tormentatcen eta hei sofriz arazten.
- G. *Cer eguiten dute oraino?*  
I. Hari dire guiçonen tentatcen, eta hec bekhatura eror arazten.
- G. *Cer guisaz gudu edo borcha eguin abal deçoquegute Deabruaren tentacionei?*  
I. Othoitz eguinez, eta atçarriac egonez, Jesu-Christo gure Jaunac irakhatsi darocun beçala.

G. *Nolaz bada hori?*

I. Ceren othoitz eguinez ardiesten baititugu Jaincoa ganic graciac, tentacionei borcha eguiteco eta hequin garaitceco; eta atçariac egonez ihes eguiten baitiotegu Deabrua gure tentatceco baliatcen den okhasionei.

#### PRATICAC

1. Bekhatuaren beldur handi bat içaitea, Jaincoac Aingueruen baithan ere punitu duenaz gueroz.

2. Tentacionea heldu çaicunean, laster eguin deçagun berehala othoitcez Jaincoa gana.

3. Artha handirequin ihes eguin deçotegun Deabrua gure tentatceco baliatcen den okhasionei; halacoac dire, ostatuetan edo compainia gaichtoetan ibilcea, liburu gaichtoen iracurcea, &c.

#### ISTORIOAC

Aingueru gaichtoac *Isäiae*. 14. v. 12. & *seq. Apocalyp. cap. 12. v. 7 & seq. Job Saindua*, eta haren tentacioneac, *Lib. Job cap. 1. & seq.*

#### LECCIONE BERAREN SEGUIDA

Aingueru onez.

26 G. *Aingueruec badute gorphutic?*

I. Ez; ceren hec baitire Ispiritu hutsac.

G. *Nondic heldu da bada, gorphutcequin pintatcen baitituzte?*

I. Ceren maiz aguertu içan baitire gorphutcequin.

G. *Eta cergatic pintatcen tuzte hegalequin?*

I. Guri erakhustera emaiteco, cein laster eta agudoqui eguiten duten Jaincoac manatcen diotena.

G. *Aingueru gaichtoac eroriz gueroz cer estatutan dire Aingueru onac?*

I. Jaincoaren ikhustez goçatuz eternitate gucico dohaxu dire.

G. *Cer hari dira?*

I. Bethi hari dira Jaincoaren laudatcen, eta haren manuen eguiten.

- G. *Eztire deusic hari guretçat?*  
 I. Bai, Jaincoac eman diote gutaz artha içaiteco cargua.
- G. *Nola hori?*  
 I. Ceren Jaincoac eman baitarocu bakhotchari Aingueru bat gutaz artha duena.
- G. *Nola deitcen da gutaz artha duen Aingueru hura?*  
 I. Hura deitcen da Aingueru beguiralea.
- G. *Aingueru beguiraleac gutaz duen artha cer da?*  
 I. 1. Jaincoari gutaz othoitz eguiten dio. 2. Gure accione eta obra onac Jaincoari ofritcen diozca. 3. Deabruen contra defendatcen gaitu. 4. Arriscuetan laguncen gaitu.
- G. *Cein dire gure eguinbideac gure Aingueru beguiralen alderate-cotz?*  
 I. 1. Da, errespetu handi bat içaitea hequinçat, bethi hequin aitcinean ceren garen, eta hec ofensa detçaquenic deusic ez eguitea. 2. Da, eçagutça handi bat içaitea hec eguiten darozquiguten cerbitçu onençat. 3. Da, biciaren edo salbamenduaren arriscuric dugunean, hequin lagunçan fidancia osso bat içaitea.

## PRATICAC

1. Imita deçagun Aingueruec Deabruaren garraitceco duten artha eta animoa.
2. Hec Jaincoaren obeditceco duten lehia.
3. Enseja gaiten hec beçala behinere ez ahanstera Jaincoaren aitcinean garella bethi.
4. Galde deçagun hequin lagunça goiceco othoitcean; eta arraxecoan eman detçotegun esquerrac, gutaz içan duten artha onaz.

## ISTORIOAC

Jaincoac nola eman cioen bere populuari Aingueru bat guidari. *Exodi cap. 23. v. 20. & seq. Tobiasen istorioa cap. 5. v. 5 & cap. seq. Libri Tobiae. Judithen istorioa Judith cap. 13. v. 20. Danielis cap. 3. v. 29. Zachariae cap. 1. v. 12. Lib. 2. Machab. cap. 11. v. 6 & 8. Matthaei 18. v. 10. Actuum 10. v. 3. & seq. Hebraeor. cap. 1. v. 14.*



## BORZ-GARREN LECCIONEA

Guiçonaren creatceaz.

- 27 G. *Norc creatu gaitu eta eman mundura?*  
I. Jaincoac.  
G. *Certaco Jaincoac creatu gaitu eta eman mundua?*  
I. Haren eçagutceco, maitatceco, eta cerbitçatceco, eta bide hortaz bicitce eternalaren ardiesteco.  
G. *Cein ciren Jaincoac creatu cituen lehenbicico Guiçona eta Emaztea?*  
I. Hec ciren Adam eta Eva gure lehenbicico burasoac.  
G. *Cergatic hec deitcen tutçu gure lehenbicico burasoac?*  
I. Ceren hequin ganic ethorri baitire guiçon eta emaztequi guciac.  
G. *Certaric Jaincoac eguin çuen lehenbicico guiçonaren gorphutça?*  
I. Lurretic eguin çuen.  
G. *Eta haren arima?*  
I. Arima creatu çuen ez deusetaric, eta juntatu cioen Adamen gorphutçari.  
G. *Jaincoac certaric eguin çuen lehenbicico emaztearen gorphutça?*  
I. Adam lo cegoen denboran haren saihetsetic athera çuen saihets heçur batetic.  
G. *Eta haren arima?*  
I. Creatu çuen ezdeusetaric Adamen arima beçala.  
G. *Certan dago gure arimaren edertasuna?*  
I. Haren edertasuna da Jaincoaren imaginan eta haren idurian creatua içaitea.
- 28 G. *Certan da agueri Jaincoaren imaginan eta idurian creatua içan dela gure arima?*  
I. Ceren hura baita ispiritu bat ecin hil daitequena, Jaincoaren eçagutceco eta maitatceco gai dena.  
G. *Guiçona creatua içan denean Jaincoac eztio eman berce dohainic edo abantailic?*  
I. Bai, eman diozca arroçoina eta libertatea, ceinec alchatcen baitute berce creaturac baino gorago.

- G. *Nola eçagutcen da guiçonaren arroçoina?*
- I. Hura gai baita arroçoïn emaiteco eguiten dituen gauzez, eta baitaqui cergatic eguiten dituen.
- G. *Dioçun gauçaren eșpicatceco emaçu cenbait exemplu?*
- I. Huna cenbait; lanean hari naicenean, hari naiz alferric ez egoitea gatic, edo nere bicia irabaztea gatic: Catichimara heldu naicenean, heldu naiz nere religionearen eta leguearen ikhastea gatic; bekhatuari ihes eguiten diot, Jaincoaren desgogara ez eguitea gatic.
- G. *Cer da libertatea?*
- I. Libertatea da guc dugun indarra eta botherea edo ahala, eguiten ditugun gaucen eguiteco edo ez eguiteco gueroc hautatcen dugun beçala.
- G. *Eșplica çaçu orai erran duçuna?*
- I. Comparacionera, minça ahal naiteque, edo banagoque ichilic; gauça bat nahi duquet edo ezduquet nahi, neronec nola ere hautatcen baitut eta hala: horra libertatea.
- G. *Baduçu halaber ahala nabi duçunaren eguiteco çure salbamentuari uquitzen çizcon gacetan?*
- I. Bai, badut hartaco ahala eta indarra, bainan Jaincoaren gracia-  
ren lagunçarequin batean.

#### PRATICAC

1. Da, Jaincoari esquerrac emaita, ceren eman darocun arima bat haren maitatceco eta eternitate gucian hartaz goçatceco gai dena.
2. Da gure arroçoïnamentuaz eta gure libertateaz baliatcea edo cerbitçatcea Jaincoaren eçagutcen eta haren cerbitçatcen.
3. Jaincoa libertatea eman darocunean noren ere obedienciaren azpian eçarri baicaitu eta hei gogotic obediten usatcea.
4. Da, gure arroçoïnamentuan guti fidatcea, eta berceren arroçoïnetara eta sentimenduetara gogotic erorcea.
5. Da consideratcea guiçonac eztirela lur pusca bat baicic arima dunac, eta cein gauça gutiac garen ikhusiric, humiltasun handi baten içaita.

#### ISTORIOAC

Jaincoac nola creatu cituen Adam eta Eva, *Genesis cap. 1. & 2.*

## SEI-GARREN LECCIONEA

Adamen erorceaz, eta Bekhatu originalaz.

- 29 G. *Cer estatutan Jaincoac creatu cituen Adam eta Eva?*  
I. Graziazco eta Saindutasunezco estatuan.  
G. *Graziazco estatu hura Jaincoac çor cioten?*  
I. Ez, Jaincoac crea cetçaquen graciatic gabe eta bekhatuic gabe.  
G. *Dembora hainitcez irauin çuten graciatic eta Saindutasunezco estatu hartan?*  
I. Ez, creatuac içan cirenetic dembora laburric artean bekhatuan erori ciren.  
G. *Nola erori ciren bekhatuan?*  
I. Jaincoac debecatu cioten fruitutic janez.  
G. *Norc eraguin cioten bekhatua, eta Jaincoari ez obediteca ikharri cituen?*  
I. Deabruac, hec Dohaxu ikhustez çuen jelosiaz.  
G. *Cein içan dire hequin bekhatuaren ondoreac edo seguidac?*  
I. Bekhatu harc eguin içan tu dohacabe hec, eta hequin ondoco guciac.  
G. *Cer da dohacabetasun hura?*  
I. Bekhatu hartaz merecitu dute guciac Ifernua, eta hura gatic dire sujet heriotcera eta miseria suerte guciatara.  
G. *Etcen hilen guçona bekhatuic eguin ezbalu?*  
I. Ez, Adam eta haren ondoco guciac içanen ciren immortalac, erran nahi da, etciren behinere hilen baldin harc bekhatua eguin ez balu, eta dohacabetasun eta miseria halacoric batere gabe içanen ciren.  
G. *Adamen bekhatuac nola eguin tu dohacabe haren ume eta ondoco guciac?*  
I. Ceren guciac sortcen baitire bekhatu harequin berarequin, eta haren miseria berequin.  
G. *Beraz mundura heldu garenean cenbait bekhatuz cargatuac gara?*  
I. Bai, eta bekhatu hura deitzen da bekhatu originala, ceren heldu baitçaicu gure originatic edo ethorquitic.

- G. *Cein dire gure baithan bekhatu haren ondoreac?*
- I. Badire laur. 1. Da Jaincoaren eta gure eguinbiden ignorancia edo ez eçagutcea. 2. Da, concupiscencia, erran nahi da, guc gaizqui eguiteco dugun inclinacionea edo lehia. 3. Bicitce huntaco miseria guciac, eta hil behar içaitea. 4. Eternitate gucicotz damnatcea.
- G. *Guiçonac bekhatu eguitean galdu du bere libertatea?*
- I. Ez, libertatea ezta flacatua baicic içan bekhatauz.
- G. *Ezta beraz eguia erraitea, guiçona eztela libro gaizqui eguiteco baicic, eta eztela guehiago libro ungui eguiteco?*
- i. Ez, hori da proposicione bat Eliçaz condenatua.

#### PRATICAC

1. Penitenciatçat gogo onez har detcagun bekhatuac eman darozquigun miseria, escasia eta sofricari guciac.
2. Gaizquico dugun inclinacionea edo lehia garai deçagun bertutezco obrac eguinez; hala gormandiça garai deçagun barurtuz eta abstinenciaz, banitatea humilitatezco obrac eguinez.
3. Gure ignoranciarri erremedio eman deçogun gure eguinbideac estudiatur eta ikhasiz, eta conseilu hartu gabe gauça importantic batiere ez eguinez.

#### ISTORIOAC

Lehenbico guiçonac nola etçuen Jaincoa obeditu, eta haren bekhata nola içan cen punitua. *Genesis cap. 3.*

### ÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Cer estatutan cen mundua Jesu-Christo gure Salbatçailea ethorri baino lehen, eta gure erospenaz.

- 30 G. *Cer estatutan cen mundua Jesu-Christo gure Jauna mundura ethorri baino lehen?*
- I. Munduco gende guehienec eta casic guciac adoratcen cituzten Idolac, erran nahi da Jainco falsoac, eta bekhatuan pulunpatuac ciren.

- G. *Niborc etçuen adoratcen eguiazco Jaincoa?*  
 I. Bai, adoratcen çuten Juduec, eta Gentilen artean bici ciren cen-  
 bait bakharrec.
- G. *Jaincoac nola ilkhi araci ditu guiçonac bekhatutic?*  
 I. Hartacotz igorrific mundura Jesu-Christo bere Seme bakharra,  
 ceina hil baita Gurutcean guiçon gucien erosteco eta salbatceco.
- G. *Nola deitcen da Jesu-Christo gure Jaunac bere heriotceaz mere-  
 citu darocun gracia hori?*  
 I. Gure erospeneco gracia.
- G. *Cer da gure erospeneco gracia?*  
 I. Bekhatutic eta Ifernutic libratuac içaitea, eta Parabisuan dretcho  
 içaitea.
- G. *Guiçonac nola içan abal dira salbatuac Jesu-Christo mundura  
 ethorri baino lehen, eta hequinçat hil baino lehen.*  
 I. Jesu-Cristoren merecimenduen chedez Jaincoac emaiten ciozca-  
 ten graciën bidez.
- G. *Eguiçu fedezco Acta bat gure erospeneco Misterioaren gainean?*  
 I. O Jesus ene Salbatzailea, eguiazco Jaincoa, eta eguiazco guiçona,  
 sinhesten dut cinez eta fermuqui çu hil çarela, ni bekhatutic ilkhi  
 arazteco, ni Ifernutic libratceco, eta niri bicitce eternala mere-  
 citceco.

## PRATICAC

1. Eçagut eta aithor deçagun Jaincoa ahala ona dela, hainberce  
 maitatu gaituenaz gueroz, non bere Seme bakharra heriotcera libratu  
 baitu gure salbatceco.
2. Gueure buruac eçagutçaz eman detçogun Jaincoari ossoqui  
 eta partajatic gabe.
3. Gure bihotz guciáz maita deçagun Jesu-Christo, eta haren  
 merecimenduac gure gana hedaraz detçagun Sacramenduac maiz erre-  
 cibituz eta obra onac egüinez.

## ISTORIOAC

Jesu-Christo ethorri baino lehenagoco munduaren estatua. *Epist.  
 ad Rom. cap. 1. & 2. Gure erospena S. Matth. cap. 1. v. 21. S. Luc. cap.  
 1. v. 21. & seq. S. Joann. cap. 3. v. 16.*

## ÇORCI-GARREN LECCIONEA

Incarnacioneaz, eta Jesu-Christoren berce Misterioez.

- 31 G. *Jesu-Christo gure Jauna noiz aguertu da Lurrean?*  
I. Mundua creatu cenetic laur mila urtheren buruan edo inguruan, guehienec uste dutenez.
- G. *Nor da Jesu-Christo?*  
I. Jesu-Christo da Jaincoaren Semea, Trinitate sainduco bigarren presuna, guretçat guiçon eguin dena.
- G. *Jaincoaren Semea ezta bethi guiçon içatu?*  
I. Ez, bethi Jaincoa içan da, bainan ezta bethi guiçon içatu.
- G. *Jainco içaitetic guelditu da guiçon eguin denean?*  
I. Ez, dembora berean Jainco eta guiçon da, eta hala içanen da eternitate gucian.
- G. *Aita eta Ispiritu Saindua ez tire eguin guiçon Semea beçala?*  
I. Ez, ezta Semea baicic batere guiçon eguin.
- G. *Cer erran nahi da guiçon eguitea?*  
I. Erran nahi da, guc ditugun beçalaco gorphutz baten eta arima baten harcea.
- G. *Nola deitcen da Misterio hori?*  
I. Deitcen da Incarnacioneco Misterioa.
- G. *Cembat natura dire Jaincoaren Seme guiçon eguina baithan?*  
I. Badire bia, Jaincoaren natura eta guiçonarena.
- G. *Haren baithan cembat presuna dire?*  
I. Ezta bat baicic, ceina baita Jaincoaren Semearen presuna.
- G. *Jaincoaren Semea cergatic hain behera jautsi da, non guiçon eguin baita?*  
I. Lehenbiceroric, guiçon beçala sofriteco gai içatea gatic. Bi-garreneoric, bere dolore eta sofricari guciei Jainco beçala precio bat eta baliostasun bat emaita gatic infinitua, erran nahi da chederic gabea edo ahala handia.

## BEDERATCI-GARREN LECCIONEA

Gauça beraren seguida.

- 32 G. *Jaincoaren Semea non eguin da guizon?*  
I. Birgina Maria Gloriosaren Sabel sacratuan Ispiritu Sainduaren berthutez.
- G. *Ispiritu Sainduac certaric eguin çuen Jaincoaren Semearen gor-  
phutça?*  
I. Eguin çuen Ama Virginaren Odol garbienetic.
- G. *San Joseph ezta beraz Jesu-Christoren Aita?*  
I. Ez, Jesu-Christoc guizon beçala eztu Aitaric.
- G. *Cergatic bada San Joseph deitcen da haren Aita?*  
I. Lehenbicoric, ceren harc haci eta alchatu baitu. 2. Ceren hura baita haren Ama Birgina Maria Sainduaren Esposa.
- G. *Birgina Saindua Jaincoaren Semearen Ama eguin denean guel-  
ditu da Birgina Içaitetic?*  
I. Ez, guelditu da bethi Birgina.
- G. *Birgina Maria Saindua eguiazqui Jaincoaren Ama da?*  
I. Bai, ceren Jesu-Christo haren Semea Jainco eta guizon baita dem-  
bora berean.
- G. *Jaincoaren Semea cein egunez eguin da guizon?*  
I. Anunciacioneco egunean, ceina baita Marchoaren hogoi eta bor-  
tza.
- G. *Cein egunez sorthu cen?*  
I. Eguberri egunean, Abendoaren hogoi eta bortzean.
- G. *Cein egunez Circoncisatu çuten, eta eman cioten icena Jesus?*  
I. Sorthu cenic çortci-garren egunean, ceina deitcen baita Cir-  
concisioneco eguna, edo Urthaberri.
- G. *Cer erran nahi da icen hau, Jesus?*  
I. Erran nahi da Salbatçaillea.
- G. *Cer erran nahi da Christo, Jesusen icenari berretcen çajoen hitz  
hori?*  
I. Erran nahi da Gançutua eta Sacratua.

- G. *Cergatic dioçu Jesu-Christo dela Gançutua eta Sacratua?*  
 I. Ceren guïçon beçala bere ethorquia baitu Aphecetatic, Erreguetaric, eta Profetetaric, ceinac baitciren Jaincoari Gançutuac edo Sacratuac, eta ceren berac baititu calitate horiec guciac, Apez da, Erregue eta Profeta.
- G. *Nola içan da Gançutua edo Sacratua?*  
 I. Gracia haren arimara abundancia handian ethorriric.

## HAMAR-GARREN LECCIONEA

Gauça beraren seguida.

- 33 G. *Jesu-Christo gure Jauna cein egunez adoratu çuten Magoec edo hirur Erreguec?*  
 I. Trufania egunean, ceina deitcen baita berçela Erreguen eguna.
- G. *Cembat demboraz bici içan da mundu huntan?*  
 I. Opione comuna da bici içan dela hogoi eta hamahirur urthe baino guehicheago.
- G. *Nola bici içan da?*  
 I. Eraman du bicitce bat pobrea eta nequezcoa.
- G. *Cer eguiten çuen bere gastetasuneco urthetan?*  
 I. Obeditcen cituen bere burasoac, eta lanean haritcen cen san Josephquin.
- G. *Cer eguin du bere bicitceco azquen urthetan?*  
 I. Predicatu du Evangelioa.
- G. *Cein egunez hil cen?*  
 I. Hil cen Orcilare Sainduz.
- G. *Nola hil cen?*  
 I. Hil cen Gurutce baten gainean.
- G. *Cer aditcen duçu erraiten duçunean Jesus gure Jauna hil dela?*  
 I. Aditcen dut haren arima separatu edo bereci dela haren gorphutetic.
- G. *Gure Jaunaren gorphutça cer eguin çuten hura hil cenean?*  
 I. Gurutcetic khendu çuten, eta eçarri Thomba batean.
- G. *Jesu-Christo gure Jauna hil cenean, haren arima eta gorphutça separatu ciren Jaincotasunetic?*  
 I. Ez, Jaincotasunarequin bethi juntatuac guelditu ciren.



- G. *Gure Jaunac cergatic pairatu eta sofritu çuen heriotce bat hain cruela eta hain abalcagarria?*
- I. Bekhatutic eta Ifernutic gu erostea gatic.
- G. *Jesu-Christo, gure Jauna ezta hil Adamen bekhatuarençat baicic, ceinetan gu saribuac edo trabatuac baiquinen?*
- I. Bai, hil da halaber guiçonec eguin dituzten, eguiten dituzten, eta munduaren akhabançaraino eguinen dituzten bekhatu guciençat.

## HAMECA-GARREN LECCIONEA

Gauça beraren seguida.

- 34 G. *Gure Jauna Thomban egon da bethi?*
- I. Ez, handic ilkhi cen gloriosic, hil cenetic hirur-garren egunean.
- G. *Cein egunez phiztu cen Jesu-Christo gure Jauna?*
- I. Bazco egunean.
- G. *Cer aditcen duçu gure Jauna phiztu dela dioçunean?*
- I. Aditcen dut berriz hartu duela bicitce berri bat, ceinetaric ezbaिता guehiago hilen.
- G. *Cer eguin çuen gure Jaunac phiztu cen ondoan?*
- I. Mundu huntan egon cen berrogoi egunez bere Aphostoluei irakhasten, eta bere Eliçaren fincatcen.
- G. *Berrogoi egun hequin ondoan cer eguin cen?*
- I. Igan cen Cerura, eta han jarria dago bere Aitaren escuinean.
- G. *Cein egunez igan cen Ceruetara?*
- I. Jondoni Salbatorez.
- G. *Non da orai Jesu-Christo gure Jauna?*
- I. Jainco beçala lekhu gucietan da, eta guiçon beçala Ceruan da choilqui, eta Aldareco Sacramendu Sainduan.

### PRATICAC

1. Ohora detçagun Jesu-Christo gure Jaunaren misterio guciac Eliça Ama Sainduac duen Ispirituaren edo chedearen arabera.
2. Eliçac misterio hec ohoratcen tuen egunetan enseña gaiten eçagutça eta amodio handi baten içaitera Jesu-Christo gure Jaunarençat.

3. Jaun harc bere misterioetan exemplua eman darocun berthute cenbait imitatceco har deçagun; comparacionera haren caritatea, haren humiltasuna, haren paciencia, &c.

#### ISTORIOAC

Aitcineco leccione hautan esplicatu diren Jesu-Christo gure Jau-naren misterioen Istorioa causitu behar da Evangelioan bat banazca.

#### HAMABI-GARREN LECCIONEA

Eliça Ama Sainduaz.

- 35 G. *Cein da Jesu-Christo gure Jaunac Cerurat igan cen ondoan bere Apostoluei eta hequin presunetan bere Eliçari eguin cioten gracia particularra?*
- I. Igorri cioten Ispiritu Saindua, hitz eman çuen beçala.
- G. *Cein egunez igorri cioen Ispiritu Saindua bere Eliçari?*
- I. Mendecoste egunean, phiztu cenetic berrogoi eta hamar egunean buruan.
- G. *Gure Jaunac cergatic igorri cioen Ispiritu Saindua bere Eliçari?*
- I. Haren santificateco eta gobernatceco.
- G. *Cer da Eliça?*
- I. Eliça da fedea dutenen bilcuja, Arçain legitimoez gobernatua, aiticindari agueri den choil baten azpian, ceina baita gure Aita Saindua Jesu-Christoren lurreco Bicarioa.
- G. *Cein dire Arçain legitimo edo çucenezco hec?*
- I. Hec dire Jaun Aphezpicuac, ceinac Ispiritu Sainduaz eçarriac baitire Eliçaren gobernatceco. *Act. 20. 28.*
- 36 G. *Cenbat Eliça dire?*
- I. Ezta bat baicic, ceina baita Eliça Catolicoa, Apostolicoa eta Romanoa.
- G. *Eliça cergatic deitcen duçu Catolicoa?*
- I. Ceren mundu gucira hedatcen baita.
- G. *Cergatic deitcen da Apostolicoa?*
- I. Lehenbicoric, ceren hura gobernatcen duten Aita Saindua eta Aphezpicuac baitire Apostoluen ondoacoac, hequin plaça dagocate-

nac eta hetaric heldu direnac behin ere huts eguin gabe. Bi-garrenecoric, ceren Eliçac ez baitu irakhasen Apostoluen ganic errecibitu duen Doctrinaz berceeric.

G. *Cergatic deitzen da Romanoa?*

I. Ceren Erroman den Eliça baita berce Eliça gucien Ama eta buruçaguia.

G. *Salba gaitezque Eliça hartaric campoan?*

I. Ez, Eliça hartaric campoan ezta salbamenduric.

G. *Nor da Eliça Catolico, Apostolico eta Romanoaren aiticindaria?*

I. Jesu-Christo gure Jauna da Eliçaco aiticindari agueri eztena, eta haren azpian gure Aita Saindua da Eliçaco aiticindari agueri dena.

G. *Cer da gure Aita Saindua?*

I. Aita Saindua da lurrean Jesu-Christoren Bicariora, eta Eliçaco aiticindari agueri dena.

G. *Norc eguin edo fundatu du Eliça Catolicoa?*

I. Jesu-Christo gure Jaunac, eta haren manuaren azpian Apostoluec.

G. *Norc ciren Apostoluac?*

I. Hec ciren hamabi guison ontasunic eta talenturic gabeac, gure Jaunac Evangelioaren predicatceco hautatu cituenac.

## HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA

37 Gauça beraren seguida.

G. *Nor dire Apostoluen ondocoac eta hequin plaça dagocatenac?*

I. Hec dire Aphezpicuac legitimoqui ordenatuac direnac.

G. *Cein da Aphezpicuetaric lehena eta gucien aiticindaria?*

I. Hura da gure Aita Saindua.

G. *Norc eguin du Aita Saindua Aphezpicuen lehena eta aiticindaria?*

I. Jesu-Christoc eguin du Jondoni Petriren presunan.

G. *Certan dago lehena içaite edo aiticindaritasun hura?*

I. Ohorez eta juridiccionez guehiago içaitean.

G. *Noren çucena da fedezco questionen eta disciplinaco pontu importantenen jujatcea?*

I. Concilioac bilduac direnean hequina, eta Concilioric bilcen ezte-  
nean Aita Sainduarena eta Aphezpicuena.

- G. *Jujamendu hequin emaiteco escuric edo dretchoric extute Errotorec eta Aphez sabantec eta arguituec?*
- I. Ez, bainan hei dagote populuari irakhastea Aita Sainduac eta Aphezpicuec jujatu edo decidatu dutena.
- G. *Eliçac bethi iraun içan du Jesu-Christoc fundatu çuenaz gueroztic orai artean?*
- I. Bai, eta bethi iraunen du cer nahi heresia eta persecucione içan dadin haren contra.
- G. *Nola hori?*
- I. Ceren Jesu-Christo gure Jaunac hitz eman baitio Ifernuco atheac etçaizcola garaituco.
- G. *Cer erran nahi da Ifernuco atheac etçaizcola garaituco?*
- I. Erran nahi da, Eliça ezdutela behinere akhabaracico edo destruituco ez persecucionez, ez errurec edo Doctrina falsoec, ez guiçonen accione gaichtoec edo corrumpituec, ez Deabruaren eguin ahal guciec.
- G. *Eliça bere hastean cer estatutan içan da?*
- I. Içatu da cruelqui eta icigarriqui persecutatua hirur ehun urthe baino guehiagoz.
- G. *Persecucione hec certaco baliatu dire?*
- I. Martir haintcen eguiteco, eta Guiristinoen berretceco.
- G. *Cembat demboraz iraun behar du Eliça Ama Sainduac?*
- I. Iraunen du mundu hunec beçambat.
- G. *Nor dire Eliçatic campoan direnac?*
- I. Lehenbicoric, Paganoac, ceinec adoratcen baitituzte Jainco falsoac, hala nola Idolac. 2. Infidelac, ceinac adoratcen baitute Jaincoa, bainan ezbaitute eçagutcen J. Christo. 3. Hereticoac, ceinec ezbaitute atchiquitcen Eliçac daducan fede bera. 4. Schismaticoac, ceinec ezbaitituzte eçagutcen bere eguiazco Arçainac, eta hetaric separatcen baitire. 5. Escumicatuac, ceinac Eliçatic khenduac baitire, obeditu faltaz.

## PRATICAC

1. Jaincoari othoitz eguin behar diogu bereciqui gure Aita Sainduarençat, eta gure Jaun Aphezpicuarençat.

2. Ezgara behinere miñçatu behar errespetu handi batequin baicic gure Aita Sainduaz eta Jaun Aphezpicuez, hequin bicitceco maneraz ezgara gaizqui miñçatu behar, eta ez sofritu berceac hetaz gaizqui miñçadaitecin.

3. Berehala obeditu behar diotegu hequin ordenancei, eta hala, hec liburu gaichtoac debeatcen dituztenean, berehala halacoez gabetu behar gara hec manatcen duten beçala.

## ISTORIOAC

Core, Datan, eta Abironen heriotce ikharagarria *numer. cap. 16.* Eliçari gure Jaunac eman diozcan promesen gainean, *Osée cap. 2. v. 19 & seq. Matth. c. 16. v. 18 cap. 18. v. 17 & cap. 28. v. 20. & 1. ad Tim. 3. v. 15.*

## HAMALAU-GARREN LECCIONEA

Gauça beraren seguida.

Guiristinoec Eliçaren alderat dituzten eguinbidez, edo obligacionez.

- 38 G. *Cein dire Guiristinoen eguinbideac Eliçaren alderatecotz?*  
I. Hec dire, Eliçac irakasten dituen gauça gucien sinhestea, eta harc manatcen dituenac eguitea.  
G. *Cergatic gara obligatuac Eliçac irakhasten dituen gauçac sinhestera?*  
I. Ceren Eliçac ecin irakhats baiteçaquegu eguiaric baicen.  
G. *Nola hori?*  
I. Ceren Ispiritu sainduaz lagundua baita, eta ecin eguin baiteçaque hutsic ez Doctrina falsoan eror.  
G. *Cergatic gara obligatuac harc manatcen dituen gauçen eguitera?*  
I. Ceren Ispiritu sainduaz lagundua baita manatcen dituen gauçetan, eta hartaco indarra eta botherea errecibitu baitu Jesu-Christo ganic.  
G. *Nortaz cerbitçatcen da Eliça nahi dituen gauçac guri irakhasteco eta manatceco?*  
I. Aita Sainduaz eta Jaun Aphezpicuez, ceinac baitire eçarriac Eliçaren gobernatceco.
- 39 G. *Cein dire Eliçaco manamendu principalac?*  
I. Badire sei; Meça saindua ençun eçaçu Besta, I Gandetan, &c.  
G. *Manamendu horien gucien beguiratcera obligatuac gara?*  
I. Bai, obligatuac gara bekhatu eguiteco penaren azpian.

- G. *Eliça Sainduac nola punitcen tu batçuetan Eliçaren contra alchacten direnac?*
- I. Bere gorputcetic khencen tu, eta hori deitcen da Escumicua.
- G. *Cein dire Escumicuaren ondoreac edo seguidac?*
- I. Lehenbiceric, Escumicatu denac eztu guehiago parteric Eliçaco othoitcetan eta Sacramenduetan. Bi-garrenecoric, Deabruaren escuetara utcia da eta libratua. Hirur-garrenecoric, baldin penitenciaric gabe estatu hartan hilcen bada, seculaco damnatua da.
- G. *Cein dire bekhatuac edo crimac, ceinen gatic nihor maicenic Escumicuan erorcen baita?*
- I. 1. Da, Eliça guiçon bati edo fraide bati colpe emaita. 2. Da, Seroren Comentuetan permisioneric gabe sarcea. 3. Da, atherajac edo publicatuac ičan diren admoracionen edo monitorioen gainean daquiguna behar denean ez erraitea. 4. Da, Bazcoz ez comunitatcea trabu onic eta legitimoric eztugunean. 5. Da, Jaun Aphezpicuen ordenancei ez obeditcea, Escumicuren penaren azpian publicatuac direnean.
- G. *Escumicatuac direnac nola tratatu behar dire?*
- I. Hequin compainiari ihes eguin behar çajo, baldin publicoqui declaratuac badire.

## PRATICAC

1. Jaincoari esquerrac eman detçagun, ceren sor araci gaituen eguiaczo Eliçaren galçarrean.
2. Gogoz eta bihotcez errecibi detçagun Eliçac emaiten darozquigun legueac eta ordenaçac.
3. Jaincoari othoitz eguin deçogun, Eliçaren umeac, erran nahi da, Guiristinoac berret eta santifica detçala, eta hala eztirenac conberti detçala.
4. Escumicuarençat beldur eta ikhara handi bat ičan behar dugu; eta baldin asqui dohacabe bagara Escumicuan erorceco, hartaric alcharaz detçagun guere buruac ahalic lasterrena.

## ISTORIOAC

Eliça aditu nahi eztutenez J. Christoc erran çuena. *Matth.* 18. v. 18. Corintianoa Jondoni Pauloc nola Escumicatu çuen. 1. *Cor. cap.* 5. Escumicuaren ondoreac. 2. *Epist. Joan.* v. 10. & 11.

## HAMABORZ-GARREN LECCIONEA

Guiçonaren azquen finez. Heriotceaz.

- 40 G. *Cein dire guiçonaren azquen finac?*  
 I. Heriotcea, Jujamendua, Parabisua eta Ifernua.
- G. *Cer da heriotcea?*  
 I. Heriotcea da arima gorphutctic ilkhitcea eta bereztea.
- G. *Guciac hilen gara egun batez?*  
 I. Bai, guciec hil behar dugu, gure bekhatuen eta gure lehenbico Aitaren bekhatuaren pena ekharceco.
- G. *Noiz hilen gara?*  
 I. Jaincoac nahi duenean, bainan eztaquigu cein egunez ez cein momentuz hilen garen.
- G. *Certaraco gara hilcen garen ondoan?*  
 I. Gure gorphutça lurean usteldua içanen da, jujamendu generalaren egunean phizteco; eta gure arima, ceina baita immortala, erran nahi da, ecin hil daitequena, joanen da Jaincoaren aiticnean aguercera.
- G. *Gure arima certaco joanen da Jaincoaren aiticinera?*  
 I. Bicitce huntan eguin dituen obra edo accione onen edo gaichtoen arabera jujatua içaiteco.
- G. *Nola deitcen da arima gorphutctic separatcen den beçain laster bartaz eguiten den jujamendu hura?*  
 I. Hura deitcen da jujamendu particulara (sic).
- G. *Cer da heriotce ona?*  
 I. Hura da graziazco estatuan denari arribatcen çajoena, eta hura deitcen da justuen heriotcea.
- G. *Cer da heriotce gaichtoa?*  
 I. Hura da bekhatu mortalean denari arribatcen çajoena, eta deitcen da bekhatorosen heriotcea.
- G. *Horren diferentac diren bi heriotce suerte horiec cer gogoeta eraguin behar darocute?*  
 I. Heriotce ona desiratu behar dugu, eta heriotce gaichtoarençat ikhara handi batean egon behar gara.

- 41 G. *Nor dire heriotce ona eguiten dutenac?*  
 I. Hec dire ordinariozqui, sainduqui bici ičan direnac.  
 G. *Sainduqui bici ičan eztirenec ezteçaquete eguin hilceracoan penitencia?*  
 I. Guertha daiteque eguinen duten Jaincoaren graciarequin batean, bainan hori gutitan arribatcen da, eta eztute horren gainean hainitz contactu behar.  
 G. *Guiristino batec cer eguin behar du bere biciaren dembora gucian?*  
 I. Hilcera preparatu behar du, eta bici behar da hil dela orhoituric.  
 G. *Heriotcea desiratcea cilhegui da?*  
 I. Bekhatu laiteque hilcea desiratcea pacienciaric gabez, edo coleraz, edo desesperamenduz, erran nahi da, esperançaric ez ičanéz; bainan on da Jondoni Pauloc beçala hilceco guticia içaitea Jaincoaren ikhusteco, eta haren ofensateco okhasionetaric campoan içaiteco.  
 G. *Norc bere burua hilcea cilhegui da?*  
 I. Ez, hori laiteque bekhatu eta crima haguitz handi bat, ceren ezbaicara gure bicien nausi.

#### PRATICAC

1. Egun guciez Jaincoari galde deçogun ungui hilceco gracia.
2. Gure accione principal gucietan gure buruari galde deçogun, accione hau eguin nahi nuque, baldin hau eguin eta berehala hil behar banu?
3. Gure oheari beha deçogun gure thomba baliz beçala, eta loari heriotcearen imaginari edo iduriari beçala, menturaz heriotceac lotaric arrapatuco gaitu.

#### ISTORIOAC

Nola guciec hil behar dugun, *Genes. cap. 2. v. 17. Hebr. cap. 9. v. 27.* Nola eztaquigun gure heriotcearen orena, bere bihien alchateco graner edo bihitoqui berrien eguiten hari cen aberatsaren Parabola, *Luc. cap. 12. v. 16. & seq.* Heriotce onaren gainean, Jondoni Estebenen heriotce gloriosa, *Act. cap. 7. v. 58. & 59.* Lazaroren heriotcea, *Luc. c. 16. v. 22.* Heriotce gaichtoaren gainean, Balthasar gaichtoaren heriotcea, *Daniel, c. 5.* Antiochusena 1. *Machab. c. 6 & 2. Machab. c. 9.* Aberats gaichtoarena, *Luc. c. 16. v. 22. & seq.*



## HAMASEI-GARREN LECCIONEA

### Jujamenduaz.

- 42 G. *Cembat jujamendu dire?*  
I. Badire bia, jujamendu particularra, eta jujamendu generala.
- G. *Cer da jujamendu particularra?*  
I. Hura da, Jaincoac arima bakhotchaz hilcen den beçain laster eguiten duen jujamendua.
- G. *Ceren gainean jujatcen tu arima hec?*  
I. Bicitce huntan eguin dituzten accione onen eta gaichtoen gainean.
- G. *Jujamendu hura garratça da?*  
I. Bai, haguitz da garratça, Jesu-Christo gure Jaunac seguracn gaituenaz gueroz han contu errendatcen dela hitz alfer batez ere.
- G. *Arima bat cer eguiten da jujamendu particularraren ondoan?*  
I. Jaincoac egorcen du Parabisura, edo Ifernura, edo Purgatoriora, merecitu duen arabera.
- G. *Cer da jujamendu generala?*  
I. Hura da, guiçon guciac phiztu diren ondoan munduaren finean edo akhabançan Jaincoac hetaz guciën aiticinean publicoqui eguinen duen jujamendua.
- G. *Arima bakhotcha jujatcen denaz gueroz hil den beçain laster, jujamendu generala ezta alferric eguiten?*  
I. Ez, hura baliatuco da nabarbenquiago erakusteco bekhatorosen ahalqueria, sainduen gloria handia, eta Jesu-Christoren autoritatea.
- G. *Norc eguinen du jujamendu hura?*  
I. Jesu-Christo gure Jaunac, ceina orduan han aguertuco baita bere Gloria eta bere Majestate guciarequin.
- G. *Guiçonac nola aguertuco dire jujamendu hartan?*  
I. Han aguertuco dire arima eta gorphutz, ceren hequin gorphutzac phiztucó baitire jujamendu generala baino lehen.
- G. *Cer gogoeta eguinen dute orduan bekhatorosec?*  
I. Hec içanen dire ahalqueria icigarri batean, ikhusten dituztenean

bere bekhatu eta crima gordeac eta guehienic estaliac mundu guciaren aiticinean aguercen.

G. *Cer sentimendu edo gogo içamen dute Sainduac?*

- I. Hequin bozcarioa içanen da infinitua, ahala handia eta pare gabea, noiz ere Jesu-Christoc khoroatuco baititu hequin obra onac bekhatosen aiticinean, ceinec baitçuten hequinçat mundu huntan mesprecio handi bat.

#### PRATICAC

1. Ezdeçogun barkha gure buruari hutsic batere chumea eta arina iduriagatic, nolacoac baitire umorezco edo bicitasunezco hutsac, negligenziazcoac edo laçotasunezcoac.

2. Gueroc garrazqui juja gaitecin gure hutsen gainean, eta hetaz correge gaitecin, Jaincoaren jujamenduari aiticinceco.

3. Egun guciez etcin baino lehen examina deçagun gure conciencia, egon gaiten egun hartan eguin ditugun hutsez orhoitcen, eta hetaz Jaincoari barkhamendu esca deçogun.

#### ISTORIOAC

Baltasar gaichtoaren jujamendua *Dan. c. 5. v. 5. & 26.* Azquen jujamenduan cer ikhusico dugun *Psal. 26. Sophon. c. 1. v. 14. Matth. 24. v. 25. & seq. Lucae. 21. v. 9. & seq.*

### HAMAÇAZPI-GARREN LECCIONEA

#### PARABISUAZ

- 43 G. *Cer da Jaincoac justuei aguindu dioten errecompensa?*  
I. Arimaco eta gorphutceco gloriaz eternitate gucian goçatcea.  
G. *Nola deitcen da justuac gloria bartaz goçatcen diren lekhua?*  
I. Deitcen da Parabisua.  
G. *Cer da Parabisua?*  
I. Parabisua da descansuzco eta bozcariozco lekhua bat, ceinetan dohaxuec ikhusten baitute Jaincoa, eta errecibitcen bere obra onen errecompensa.

- G. *Noren arimac joanen dire Parabisura hil diren beçain laster?*  
 I. Bekhaturic eguin ezdutenen arimac, edo bekhatu eguin ondoan eta Jaincoaren justicia ossoqui pagatu eta satisfatu ondoan grazco estatuan hilcen direnen arimac.
- G. *Sainduac cer hari dire Ceruan?*  
 I. Han goçatcen dire dohaxutasun osso eta perfet batez.
- G. *Cer da dohaxutasun bura?*  
 I. Jaincoaren ikhustea, haren maitatcea, penaric eta nahigaberic batre gabe içaitea, eta ecin erran daitequen bozcario batez goçatcea.
- G. *Ezta joanen Parabisura Sainduen arimez berceric?*  
 I. Orai ezta harat joaiten hequin arimez berceric, bainan hequin gorphuțac han sarthuco dire phiztu diren ondoan eta jujamendu generalaren ondoan.
- G. *Sainduen gorphuțac certaco sarthuco dire Ceruan?*  
 I. Bere arimen glorian eta dohaxutasunean parte içaiteco, mundu huntan cireino hequin penitencian eta hequin obra onetan parte içan duten beçala.
- G. *Sainduen gorphuțac certaz hacico dire Ceruan?*  
 I. Janhari beharric eztute han içanen, ceren bicitce huntaco escasia eta infirmitate gucietaric campoan içanen baitire.
- G. *Cenbat demboraz irauen du Ceruan sainduen dohaxutasunac?*  
 I. Iraunen du eternitate gucian, erran nahi da, eztela behinere akhabatuco.
- G. *Cer da Guiristino batec guebienic desiratu behar duen gauça?*  
 I. Parabisura joaitea han Jaincoa ikhusteco.
- G. *Cer eguin behar du hara joaiteco?*  
 I. Haren manamenduac beguiratu behar tu.

## PRATICAC

1. Ezgaitu heriotceac ikharatu behar, bainan consideratu behar dugu hura dela guretçat dohaxutasun bat, harc Parabisuan sar arazten gaituenaz geroz.

2. Jaincoari noicean behin bedere erran deçoğun hartaz Ceruan goçatceco guticia handi batequin : *Ethor bedi çure erresuma*. Edo erreque David miñatcen citçajoen beçala : *Jauna, asseco naiz, çure gloria ikbusten dudanean*.

3. Gure eritasunetan eta nahigabe gucietan consola gaitecin Parabisura joaiteco esperançan, han akhabo içanen baitire bici huntaco gaitz guciac.

#### ISTORIOAC

Gure Jauna nola transfiguratu cen, eta nola han aphur bat era-khustera eman çuen dohaxuen gloria. *S. Matth. cap. 17. S. Marci cap. 9. S. Lucae cap. 9. v. 28 & seq.* Ceruco Jerusalemen ikhustea, *Apocal. cap. 21.* Jondoni Pauloc cer dioen Ceruaz, *1. Cor. 2. v. 9. & 2. Cor. 12. v. 4.*

### HEMEÇORCI-GARREN LECCIONEA

#### IFERNUAZ

- 44 G. *Cer da Ifernua?*  
I. Ifernua da oin hazezco eta tormentazco lekhu bat, ceinetan bekhatu mortalean hilcen direnac egonen baitire Jaincoa ikhusi gabe, eta Deabruequin batean erreco baitire eternitate gucian.
- G. *Nor dire Ifernura dobacinac?*  
I. Hec dire bekhatu mortalean hilcen direnac, bekhatu mortal bakhar bat baicic ezbalute ere, hura asqui da.
- G. *Cer hari dire gaichtoac Ifernuan?*  
I. Han sofrितcen dute, desesperamenduan dire eta errabiamenduan, Jaincoaren contra blasfemioac erraiten tuzte.
- G. *Cer içanen da hequin pena Ifernuan?*  
I. Sofrituco tuzte bi pena suerte, arimacoa eta gorphutcecoa.
- G. *Cer içanen da arimaco pena?*  
I. Jaincoaren ikhustez gabetua içaitea, hori deitcen da *Damnaco* pena, pena gucietan den handiena eta cruelena.
- G. *Cein dire oraino arimac sofrituco tuen berce penac?*  
I. Sofrituco tu senti ahal daitezquen tormenta suerte guciac, eta bereciqui behinere guelditu gabe bethi erretcen egoitea, hori deitcen da *sensuetaco* pena.
- G. *Cer içanen da gorphutceco pena?*  
I. Hura içanen da Deabruen balsan eternitate gucian erretcea.
- 45 G. *Gaichtoac orai Ifernuan erretcen hari dira arima eta gorphuttz?*  
I. Orai eztire hequin arimac baicic erretcen, bainan jujamendu ge-

neralaren ondoan hequin gorphutçac ere erreco dire hequin ari-mequin batean.

- G. *Arima nola erre abal daiteque Ifernuan izpiritu butsa denaz gueroz?*
- I. Hori heldu da Jaincoaren bothere guciz handitic, ceren ezbaita deus harc ecin eguin deçaquenic.
- G. *Gaichtoen gorphutça cergatic erretcen da Ifernuan hequin arima-requin?*
- I. Ceren mundu huntan hequin bekhatuetan eta crimetan parte ičan dutenaz gueroz, bekhatu hequin penan ere behar baitute ičan parte Ifernuan.
- G. *Cenbat iraunen dute pena eta suplicio bec Ifernuan?*
- I. Iraunen dute eternitate gucian, erran nahi da eztirela behinere akhabatuco.
- G. *Ifernuan direnec ez deçaquete ičan esperança hequin penac eta tormentac gutituco edo eztituco direla guerorat dembora hainitcen ondoan bedere?*
- I. Ez, ezta secular ičanen hequinçat eztitasunic, ez baqueric, ez solegimenduric, ez lagunçaric.
- G. *Damnatuen gorphutçac nola egonen dire bethi osso suac behinere consumitu gabe?*
- I. Ceren Jaincoac bere bothere guciz handiaz hala conserbatuco baititu eternitate gucian.

## PRATICAC

1. Jaincoari esquerrac maiz eman detçogun, ceren ezbaicaitu oraino Ifernurat igorri, hainbercetan ofensatu dugun ondoan.

2. Cenbait bekhatu handiri consentitcera tentatuac garenean, orhoit gaitecin Ifernuco suplicioez eta hango khar icigarriez.

3. Munduco gaitz gucien baino beldurrago behar gara ičan bekhatu mortalaren, hura denaz gueroz gaitz gucien artean bakharra Ifernua mereci ahal deçaquena.

## ISTORIOAC

Ifernuaz, *S. Matth. c. 25. v. 41. & seq. S. Marc. c. 9. v. 42. & seq.* Aberats gaichtoaren Istorioa, *S. Luc. cap. 16. v. 22. & seq.* Babilonia ederqui bezitua cen haren ikhustea, ceina ičan baitcen arthiquia hain ikharagarriqui. *Apocal. cap. 17. & 18.*

## HEMERETCI-GARREN LECCIONEA

### PURGATORIOAZ

- 46 G. *Cer da Purgatorioa?*  
I. Purgatorioa da lekhu bat, ceinetan justuen arimec Ceruan sarthu baino lehen pagatcen baitituzte bere bekhatuen pena hondarrac.
- G. *Nor dire Purgatoria joaiten direnac?*  
I. Bere bekhatu gucietaric ungui eta perfetqui garbitu gabe, graciazco ezatuan hilcen direnac.
- G. *Cer erran nahi da, bere bekhatu gucietaric ossoqui garbitua içaitea?*  
I. Hura da bekhatuari çor çaiçon dembora batetaco pena gucietaric quito eta libro içaitea, Bathajoaren bidez, edo Martirioaren bidez, edo eguiazco penitencia baten bidez.
- G. *Jaincoac bekhatuac barkhatcen darozquig mean, ezta rocu barkhatcen halaber hei çor çaioten pena?*  
I. Barkhatcen darocu eternitateco pena, bainan guehienean eta ordinariozqui gure ganic galdeguiten du dembora bateco pena, ceina pagatu behar baitugu bicitce huntan edo bercean.
- G. *Purgatorioco penac handiac dire?*  
i. Bai, eta mundu huntan gogora ethor ahal daquizquegun pena gogorrenac eta garratcenac baino handiagoac.
- G. *Cein da pena hetaric handiena?*  
I. Hura da Jaincoa ez ikhustea.
- G. *Purgatoriõra condenatuac diren arimac dembora lucez han egoiten dire?*  
I. Han egoiten dire Jaincoaren justicia ossoqui pagatua eta satisfatua içan daitequen artean.
- G. *Guc eguin deçoquetegu lagunçaric Purgatorioan diren arimei?*  
I. Bai, lagun detçaquegu gure obra onez, amoinez, othoitcez, eta guehienic Meçaco Sacrificio Sainduaz.

G. *Cer eguin behar da Purgatoriorat ez joiteco?*

- I. Gure bekhatuac pagatu behar tugu bicitce huntan, eta hequin barkhamendu ossoa ardietsi, Jaincoaren ganateco gure amodio be-roaz eta berce gure obra onez.

## PRATICAC

1. Lagun deçagun Purgatorioco arimac othoitcez, amoinez, pe-nitenciazco obrez, eta hequin intercionera edo chedera erran arazten ditugun Meçaco Sacrificio Sainduetz.

2. Are artha guehiagorequin othoitz eguin deçagun gure ahai-dençat, gure adisquidençat, eta Purgatorioan sofri arazten diozcaten hutsac menturaz guc hartaco okhasionea emanic eguin dituzten gu-ciençat.

3. Obra onetaco legat batez, edo fundacione batez cargatuac garenean, ezdeçagun demboraric gal hura seguitu eta executatu gabe, Purgatorioco arimec handic içan ahal deçaqueten lagunça edo solegi-mendua ez guibelatcea gatic.

## ISTORIOAC

Lehenbico guionaren exemplua, nola Jaincoac barkatu cioen bekhatua, eta bizquitartean nola khendu çuen eta khasatu Lurreco Pa-rabisutic, eta bere copetaco icerditic bicitcera condenatu, *Genes. c. 3. v. 17. & seq.* Erregue Daviten exemplua, Jaincoac barkhatcen dio bere bekhatua, eta bizquitartean haren punitceco haren haurra hilcen da, *2. Regum c. 12. v. 13. & 14.* Erregue David beraren banitatea, haren penitencia, eta haren punicionea, *Liv. 1. Paralip. cap. 21.* Moises eta Aaron etciren sarthu lur prometatuan huts chume baten gatic, ceina Jaincoac barkhatu baitcioten bada, *Numer. cap. 20. cap. 27. v. 12 & seq.* Juda Macabeoren accionea, *2. Machab. cap. 12. v. 42. & seq.*

## HOGOI-GARREN LECCIONEA

Apostoluen Simbolaz edo Credoaz.

Lehenbico artikularen esplicacionea.

- 47 G. *Cer da Apostoluen Simbola edo Credoaz?*  
I. Hartan dire gure Religioneco, erran nahi da, Guiristinotasuneco misterio principalac laburzqui eçarriac, eta hura da gure fedezco professione bat Apostoluen ganic heldu çaicuna.
- G. *Erraçu Credo latinez eta escoaraz.*  
I. *Credo in Deum, &c.* Sinhesten dut Jainco Aita, &c. *Goiceco Othoitcean beçala pag. 4. eta 6.*
- G. *Cer chederequin erran behar dugu Credoaz?*  
I. Han diren gauçac sinhestera eta atchiquitcera huts eguinen dugun baino lehenago hilceco ere gogoarequin eta deliberacionearequin.
- G. *Cenbat articulu dire Credoan?*  
I. Badire hamabi articulu.
- G. *Erraçu lebena?*  
I. Sinhesten dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan Ceruaren eta Lurraren Creatçailan.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau, Sinhesten dut?*  
I. Erran nahi da, eguiac direla dagocat fede cin eta fermu batequin Simbolan edo Credoan diren gauça eta articulu guciac.
- 48 G. *Cer aditcen duçu berce hitz hautaz, sinhesten dut Jaincoa baithan?*  
I. Aditcen dut segur naicela badela Jainco bat, eta ecin içan daitezquela hainitz Jainco.
- G. *Cergatic erraiten duçu, sinhesten dut Jaincoa baithan, eta eztuçu erraiten cholqui, sinhesten dut Jaincoa, erran gabe, baithan?*  
I. Erakhustera emaiteco ene fidancia gucia Jaincoa baithan dudala eçarria.



- G. *Cergatic erraiten duçu, sinhesten dut Jainco Aita baithan?*  
 I. Erran nahi da, nola Jaincoa baithan hirur presuna baitire, hetaric lehena deitzen dela *Aita*.
- G. *Cergatic deitzen duçu, Aita?*  
 I. Ceren eternitate gucitic engendratcen edo bereganic sor arazten baitu seme bat, ceina harequin higoal baita gauça gucietan.
- G. *Cergatic erraiten duçu Aita bothere gucia duena?*  
 I. Ceren ezbaita deusic harc ecin deçaquenic.
- G. *Semeac eta Ispiritu Sainduac eztute bothere gucia Aitac beçain ungui?*  
 I. Bai, hirur presuna hec ezdute bothere bat bera baicen.
- G. *Cergatic dioçu bada bereciqui Aita dela bothere gucia duena?*  
 I. Ceren, nola hura baita bertce bi presunen principioa, hei comunicatcen baitiote bothere gucia Jaincozco naturarequin edo Jaincotasunarequin batean.
- G. *Cer erran nahi dire hitz hauc, Ceruaren eta Lurraren Creatçaillea?*  
 I. Erran nahi dute, Jaincoac Ceruan eta Lurrean creatu eta ez deusetaric eguin dituela gauça guciac. Ikhus çaçu hirur-garren leccio-nea pag. 31. han agueri da Jaincoac nola creatu cituen mundua, Aingueruac, eta Guïçona.

## PRATICAC

1. Erran deçagun Simbola edo Credo a goiceco eta arraxeco othoicetan bedere.
2. Credo erraiten dugunean, erran deçogun bihotcez Jaincoari: Baldin eguia hauquin sostengatceco hil behar baliz ere, o ene Jaincoa, gogotic çure graciaren lagunçarequin batean hartacotz eman neçaque nere odola, eta ene bicia ere.

## ISTORIOAC

Jaincoaren botherea nolazbait ere eçagut arazteco conta daitezque Moïsec Pharaonen aiticnean eguin cituen miracuiluac. *Exod. cap. 7. & seq.* Aingueruac Abrahami erran ciozcan hitçac, *Gen. 18. v. 14.* Job Sainduarenac *Lib. Job cap. 42. v. 2.* Jeremiasenac, *cap. 32 v. 17.* Jesu-Christo gure Jaunaren hitçac, *S. Matth. cap. 19. v. 26.*

## HOGOI ETA BAT-GARREN LECCIONEA

Simbolaren edo Credoaren bi-garren artículuaz eta hirur-garrenaz.

- 49 G. *Erraçu Credoaren bi-garren artículua.*  
I. Eta Jesu-Chisto haren Seme bakhotch gure Jauna baithan.  
G. *Cer aditcen duçu hitz bautaz, eta Jesu-Christo, &c.?*  
I. Aditcen eta sinhesten dut Jesu-Christo dela Jaincoaren Seme guiçon eguina.  
G. *Cer aditcen duçu hitz bautaz, Haren Seme?*  
I. Aditcen dut Jesu-Christo sorthu dela Aita ganic, eta harequin consubstancial dela.  
G. *Cer erran nahi da hitz hau, Consubstanciala?*  
I. Erran nahi da Semeac duen substancia bera eta natura bera duela Aitac, eta harequin higoal dela gauça gucietan.  
G. *Cergatic erraiten duçu, haren Seme bakhotch?*  
I. Ceren hura baxharra sorthu baita Aita ganic.  
G. *Ispiritu Saindua ere ezta Aita ganic sorthua?*  
I. Ez, ezta Semea baicic Aita ganic sorthu denic.  
G. *Cergatic deitcen duçu, gure Jauna?*  
I. Lehenbicoloric, ceren harc creatu baicaitu eta conserbatcen baicaitu. Bi-garrenecoric, ceren harc erosi baicaitu bere odola gureçat isuriric.  
G. *Erraçu Credoaren hirur-garren artículua.*  
I. *Cein concebitu baitcen Ispiritu Sainduaren berthutez, sorthu cen Maria Birgina ganic.*  
G. *Cer erran nahi dire hitz hauc (sic); Cein concebitu baitcen Ispiritu Sainduaren berthutez?*  
I. Hitz horiec erran nahi dute, Ispiritu Sainduac eguin edo formatu çuela Jaincoaren Semearen gorphutz Sacratua Birgina Sainduaren odol garbienetic.  
G. *Cer aditcen duçu hitz bautaz; sorthu cen Maria Birgina ganic?*  
I. Aditcen dut Maria deitcen cen Birgina batec concebitu çuela eta eman mundura, bera bethi Birgina guelditcen celaric.

## PRATICAC

1. Behar dugu ičan Jesu-Christo gure Jaunarençat amodio bat eta lejaltaşun bat deusec ere ecin gal aracico edo guti aracico duena, hainberce arroçoin dugunaz gueroz guciac harenac içaiteco.

2. Chapela erauntci edo khurtu behar dugu errespetuz, noiz ere aiphatcen baita gure aiticinean Jesusen icen saindua, edo Maria Birginarena.

3. Angelus erran deçagun debotqui, ezquilac hartaco joiten due-  
nean, goicean, egüerdian, eta arraxean.

## ISTORIOAC

Isaias Profetac dio, Jesu-Christoren sorce eternala dela ecin erran daitequena *cap.* 53. *v.* 8. Bizquitartean conta daiteque cer dioen hartaz Jondoni Joanisec bere Evangelioan *cap.* 1. eta haren mundura sorceaz san Matheoc *cap.* 1. eta San Luc Evangelistec *cap.* 1. & 2. erran dutena. Moïsec ikhusi çuen sutan cegoen sasia, *Exod. c.* 3. *v.* 2. Aaronen chigorra, hura baicic ez baitcen loratu Israëlgo Prince gucienen artean, *Num.* 17. *v.* 5. & 8. Ezechielec hertsia ikhusi çuen Santuarioco athea, *cap.* 44. *v.* 1. & 2. horiec dire Maria Birgina sainduaren Birginitasunaren figurac.

## HOGOI ETA BI-GARREN LECCIONEA

Simbolaren edo Credoaren Laur-garren eta Bortz-garren Articuluez.

- 50 G. *Erraçu Credoaren laur-garren articulua?*
- I. Pairatu çuen Poncio Pilatusen Manuaren azpian, gurutceficatu çuten, hil cen, eta ehortci çuten.
- G. *Cer erran nahi dire hitz hauc, Pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian?*
- I. Erran nahi dute, Jesu-Christo gure Jauna ičan cela injurioz be-  
thea, eta gurutce bati lothua, Judeaco gobernadore Poncio Pila-  
tus deitcen cen batec manatcen çuen denboran.
- G. *Cer erran nahi da, hil cen?*
- I. Erran nahi da haren arima ičan cela haren gorphutcetic separatua.

- G *Jaincotasuna ere betaric separatua ian cen?*
- I. Ez, Jaincotasuna bethi juntatua egotu da Jesu-Christo gure Jau-naren arimarequin eta gorphutarequin, bai eta haren arima eta gorphuta elkharren ganic separatu cirenean ere.
- G. *Jesu-Christo gure Jaunac nola sofritu abal ian du, eta nola hil abal ian da, hura denaz gueroz Jainco, eta Jaincoac ecin sofrir deaquenaz eta ecin hil daitequenaz gueroz?*
- I. Eztu sofritu Jainco beala, bainan sofritu du guion beala, eta halaber guion beala hil ere da.
- G. *Baldin guion beala sofritu badu eta hil bada, nondic dute bada haren sofricariec eta haren heriotceac precio edo balio bat eta merecimendu bat abala handia eta infinitua?*
- I. Ceren Jainco beala eman baitiote merecimendu eta precio infi-nitu bat berac guion beala pairatu dituen sofricariei eta bere accione edo eguindura guciei.
- 51 G. *Cer erran nahi dire hitz hauc ; Ehortci uten?*
- I. Erran nahi da, Jesu-Christo hil cenean, haren gorputa ian cela ehortcia eta thomba batean earria.
- G. *Errau Credoaren bortz-garren articulua?*
- I. *Jautsi cen Ifernuetara, hirur-garren egunean jeiqui cen biciric hilen artetic.*
- G. *Cer erran nahi da, Jautsi cen Ifernuetara?*
- I. Erran nahi da, Jesu-Christoren arima bere gorphutetic separatu cenean Jautsi cela Ifernuetara.
- G. *Cer aditcen duu Ifernuez?*
- I. Aditcen dut lekhu bat, ceinetan mundua creatuz gueroztic Jain-coaren gracian hil ciren justuen arimac baitceuden Jesu-Christo ethor cedin beguira, harc Cerurat eramaiteco.
- G. *Lekhu hura nola deitcen da ordinariozqui?*
- I. Deitcen da Limboac, edo Ifernuac, horrec erran nahi du, lurraren barnean gordea den lekhu bat.
- G. *Arimec sofritcen uten deusic Limboetan?*
- I. Ez, etuten han deusic sofritcen.
- G. *Jesu-Christo gure Jauna cergatic harat jautsicen?*
- I. Arima sainduen handic libratceco, eta Cerurat eramaiteco.

- G. *Cer erran nahi dire hitz hauc; hirur-garren egunean jeiqui cen biciric hilen artetic?*
- I. Horiec erran nahi dute, Jesu-Christoren arima hil cenetic hirur-garren egunean bere gorputzarequin berriz juntaturic, thombatic ilkhi cela bicia, gloriáz bethea.
- G. *Jesu-Christo gure Jaunac cergatic sofritu du, eta eguin ičan tu misterio handi horiec guciac?*
- I. Guri bere amodionaren erakhusteco, eta gure salbamenduaren eguiteco.

## PRATICAC

1. Eguin detçagun maiz meditacioneac munduco Salbatzailearen passione sainduaren gainean.

2. Are artha guehiagorequin ohora deçagun passioneco misterio saindu hura urtheco ortcilare guciez, eta guciz passioneco Igan-detic Bazco egunerainocoan.

3. Pacienciarequin sofrí detçagun, eta Jesu-Christoren sofricariet juntaturic Jaincoari ofri detçogun gure sofricari eta nahigabe guciac, denbora gaichtoac eguiten darozquigun bidegabeac, eritasunetaco oinhaceac, eta berce guciac.

4. Nola Jesu-Christo gure Jauna phiztu baita ez guehiago hilcecotan; hala guc ere Jaincoaren graciaren bicira phiztu behar dugu, ez guehiago bekhatuaz hilceco.

## ISTORIOAC

Iracurri behar da Jesu-Christo gure Jaunaren heriotcearen eta phiztearen gainean laur Evangelistec isquiribatu dutena; bai halaber Jonasen Istorioa, ceina baitcen Jesu-Christo thomban cegoeneco eta ondoan phiztu ceneco figura, *Proph. Jonae cap. 2. & seq. Matth. cap. 12. v. 40.*

## HOGOI ETA HIRUR-GARREN LECCIONEA

Simbolaren edo Credoaren sei-garren eta çazpi-garren artikuluez.

- 52 G. *Erraçu Credoaren sei-garren artikulua.*  
I. *Igan cen Ceruetara, jarria dago Jainco Aita bothere gucia duenaren escuinean.*
- G. *Cer erran nahi dire hitz hauc; Igan cen Ceruetara?*  
I. Jesu-Christo gure Jauna alchatu cela bere berthutez eta botherez Ceruetaco lekhouric gorenera.
- G. *Esplika deçagutçu hitz hauc: Jarria dago Jainco Aita bothere gucia duenaren escuinean.*  
I. Hori erran nahi da, Jesu-Christo Jainco beçala bere Aitarequin higoal dela botherez eta gloriáz, eta hori erran nahi du hitz hunc, *Escuinean.*
- G. *Cer erran dire oraino hitz horiec?*  
I. Erran nahi dute, Jesu-Christo gure Jauna guiçon meçala creatura gucien gainetic alchatua dela Ceruan bere gloriaren eta botherearen handitasunaz.
- G. *Cer eguiten du guretçat Ceruan?*  
I. Guri lagunçat baliatcen çaicu bere Aitaren aldean.
- G. *Erraguçu Credoaren çazpi-garren artikulua.*  
I. Handic ethorrigo da bicien eta hilen jumatcera.
- G. *Cer erran nahi dire hitz horiec?*  
I. Erran nahi dute, munduaren akhabançan Jesu-Christo aguerrian jautsico dela Cerutic guiçon eta emaztequi gucien jumatcera.
- G. *Cer aditcen duçu biciez?*  
I. Aditcen tut Jesu-Christo gure Jauna ethorcen denean oraino bici içanen direnac.
- G. *Guiçon hec hilen dire, eta guero phiztucó dire, gaineraco guiçonequin jumatuac içaiteco?*  
I. Bai, guiçon guciac hilen dire, phiztucó dire, eta guciac elkharrequin jumatuac içanen dire.
- G. *Cer aditcen duçu Hilez?*  
I. Aditcen tut Jesu-Christo bicien jumatcera ethorri baino lehen hilac içanen direnac.

- G. *Adamez gueroz bici ičan diren guiçon guciac jujatuac ičanen dire?*
- I. Bai, ezta ičanen batere jujamendu hura huts eguin ahal deçaque-  
nic.

#### PRATICAC

1. Cerurat behatcen dugunean, har deçagun desira eta guticia harat laster joaiteco, han Jesu-Christo gure Jaunarequin gloriaz goçatcera.
2. Enseja gaitecin Jaun haren amodioa gure obra onez irabaz-  
tera.
3. Orhoit gaitecin maiz, Jesu-Christo bicien eta hilen jujatcera ethorrico den egun ikharagarri hartaz.

#### ISTORIOAC

Ikhusi behar da Ascensioneaz cer erraiten duen San Marc Evan-  
gelistac, *cap.* 16. *v.* 19. *S. Luc. c.* 24. *v.* 50. & *seq.* *Actuum cap.* 1. Ju-  
jamenduaz, Birginen Parabola, talentuena eta Jujamendua nolacoa  
ičanen den *Matth. c.* 25. *Luc. c.* 21. *v.* 25. & *seq.*

### HOGOI ETA LAUR-GARREN LECCIONEA

Creoaren çorci-garren articuluaz eta bederatci-garrenaz.

- 53 G. *Erraguçu Creoaren çorci-garren articulua?*
- I. Sinhestendut Ispiritu Saindua baithan.
- G. *Cer irakhasten darocu articulu horrec?*
- I. Irakhasten darocu Trinitate Sainduan badela hirur-garren pre-  
suna bat, Ispiritu Saindua deitcen dena.
- G. *Ispiritu Sainduaz cer sinhexi behar dugu?*
- I. Sinhexi behar dugu hura proceditcen dela edo heldu dela Aita  
ganic eta Semea ganic, eta baduela hec duten natura bera.
- G. *Cer behar da oraino hartaz sinhexi?*
- I. Hura Jainco dela Aita eta Semea beçala.
- G. *Erraçu Creoaren bederatci-garren articulua?*
- I. *Eliça Catolica Saindua, Sainduen partaliertasuna.*

- G. *Cer erran nahi dire hitz hauc*: Eliça Catolica Saindua?
- I. Erran nahi dire; 1. Eztela Eliça bat baicic. 2. Eliça hura Saindua dela. 3. Hura bera Catolicoa dela.
- G. *Cergatic dioçu Eliça bat dela choilqui?*
- I. 1. Ceren Eliçan diren guciëc ez baitute fede bat bera baicic.  
 2. Ceren Sacramendu batçuec berac errecibitcen baitituzte.  
 3. Ceren bere Othoitcetan parçuner baitira.  
 4. Ceren ez baitute aiticindari edo buruçagui agueri den bat baicic, ceina baita Aita Saindua Jesu-Christoren Bicarinoa.
- G. *Cergatic erraiten duçu Eliça Saindua dela?*
- I. 1. Ceren Jesu-Christo Eliçaco Buruçagui agueri eztena baita saindutasun guciaren ithurria.  
 2. Ceren haren Doctrina eta haren Sacramenduac Sainduac baitire.  
 3. Ceren ez baita Sainduric Eliça Ama Sainduaren bilcujan edo battasunean baicic.
- G. *Cer erran nahi da Catholicoa?*
- I. *Erran nahi da universal edo guciëtaçoa.*
- G. *Cergatic dioçu Eliça universal dela edo guciëtaçoa?*
- I. Ceren hedatcen baita denbora eta lekhu guciëtaçoa.
- G. *Persecucionec eta Heresiec ezteçaquete Eliça gal araz eta ez deusetara bibur araz?*
- I. Ez, Ispiritu Sainduac Eliça gobernatcen du, eta harc hitz eman dio bethi conserbatuco eta beguiratuco duela.

#### PRATICAC

1. Jaincoari noicean behin othoitz eguin deçogun comberti deçala Infidelac eta Hereticoac.
2. Gure amoinez edo gure arthaz lagun detçagun hetara dohacin Missionistac.
3. Gure bicitce onaz erakhustera eman deçagun, Eliça Saindua dela.



## HOGOI ETA BORTZ-GARREN LECCIONEA

Credoaren bederatzi-garren artikularen seguida.

- 54 G. *Cein da Credoaren bederatzi-garren artikularen bi-garren parte-a?*
- I. *Sainduen partaliertasuna.*
- G. *Cer aditcen duşu Sainduen Partaliertasunaz?*
- I. Aditcen dut Eliçac dituen arimaco ontasan gucietan parte badutela fedea duten guciec, eta ontasan hec comun direla hequin artean anaja beçala, eta gorphutz bereco, ceina baita Eliça, parte eta miembro beçala.
- G. *Cein dire arimaco ontasan hec?*
- I. Hec dire Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduac, eta munduan diren eta içatu diren justu gucienac.
- G. *Guc badugu parte munduan eguiten diren obra on gucietan?*
- I. Bai, sainduen Partaliertasuna dela causa.
- G. *Guiristinoen battasun borren sinificatceco emaiten da Igandetan eta Besta handietan ogui benedicatua herrico Meça nausian?*
- I. Bai, usança hori çaharra da haguiz, eta da guiristinoec elkharren artean duten battasun haren figura bat; ecen hec jaten dute guciec ogui beretic, familia bereco ume beçala.
- G. *Guiristinoec elkharren artean duten battasun hura cergatic deitcen da sainduen partaliertasuna?*
- I. Ceren, guiristinoac ezdirelaric arren guciac sainduac, halaric ere guciac baitire saindutasunezco estatu batetara deithuac, eta bathajoaz Jaincoari consecratuac.
- G. *Badugu partaliertasunic Ceruan diren sainduequin?*
- I. Bai, badugu sainduequin partaliertasuna eta comunionea guc hei eguiten diozategun othoitcez, eta hec guri bere arartecotasunaz ardiesten darozquiguten laguncez.
- G. *Badugu halaber partaliertasunic Purgatorioan diren arimequin?*
- I. Bai, hec laguncen ditugu gure othoitcez, gure obra onez, eta bereciqui hequinçat ofritcen den Meçaco Sacrificio sainduaz.

- 55 G. *Nola deitzen duçu Ceruan diren sainduen societatea edo bilcuja?*
- I. Hura deitzen da Eliça triumfanta edo bozcariozcoa, ceren hec Jesu-Christorequin batean triumfatcen baitute, erran nahi da, gloriariz eta bozcarioz betheac baitaude.
- G. *Nola deitzen da Purgatorioan diren arimen societatea edo bilcuja?*
- I. Hura deitzen da Eliça sofrितcen dagoena, ceren hec han baitaude, hequin bekhatuei çor çajoten pena ossoqui pagatceco sofrितcen eta pairatcen dutela.
- G. *Nola deitzen da lurrean edo mundu huntan diren guiristimoen bilcuja?*
- I. Hura deitzen da Eliça militanta edo guerladuna, ceren guiristinoac guarlan hari baitire bere salbamenduaren etsajen contra.
- G. *Hirur estatu diferent horiec hirur Eliça diferent dire?*
- I. Ez, horiec dire Eliça batetaco bereco hirur parte.
- G. *Nolaz bada Eliça bat bereco hirur parte horiec ezdute eguiten Eliça bat bera baicen?*
- I. Ceren hirur parte horiec juntatuac baitire eta bat eguinac bere artean caritateaz, eta Jesu-Christo bere aitcindariaren merecimentuetan duten parteaz edo partialiertasunaz.
- G. *Bekhatu mortalean direnec ez tute parteric Sainduen partialiertasunean?*
- I. Bai, hec Eliçaren bidez errecibitcen tuzte conbertitceco behar dituzten barneco eta campoco lagunça hainitz.
- G. *Nola errecibitcen tuzte lagunça hec, hec berac ez tirenaz gueroz ez Jesu-Christoren miembro ez Eliçaren miembro?*
- I. Eztire hec miembro biciac; bainan hec dire miembro batçuec, ceinac direlaric arren hilac, bethi baitaude Jesu-Christori eta Eliçari juntatuac, handic khenduac eta atherajac içan daitezquen artean.
- G. *Nola dire bada Jesu-Christori eta Eliçari juntatuac eta datchezconac?*
- I. Lehenbiceric. Fedeaz eta Esperançaz.
2. Eliçaco Arçainençat dagocaten campoco edo aguerrico obedienciaz.
  3. Eliçaco Sacramenduetacotz conserbatcen duten dretchuaz edo çucenaz.

## PRATICAC

1. Gogoz eta bihotzez junta gaquizcoten Eliça guztian eguiten diren obra on guciei, hetaz esquerrac eman detçogun Jaincoari, eta guciac ofri detçogun.

2. Gende prestuac lagun eta sostenga detçagun hec Jaincoaren gloriacotz eta arimen salbamenducotz. Eguin nahi dituzten gauça sainduetan.

3. Purgatorioan diren arimac lagun detçagun gure othoitzez, amoinez, mortificacionez, eta berthutezco berce obra onez.

## ISTORIOAC

Abrahamen othoitçac Sodomaco Hiriarençat, *Gen. c. 18.* Moïsen othoitça Israelitençat, ceinec adoratu baiçuten urrezco aratchea, eta Jaincoac funditu nahi içan baitcituen, *Exod. cap. 32. v. 10. & seq.* Oniasen eta Jeremiasen othoitça Jaincoaren populuarençat 2. *Machab. cap. 15. v. 11. & seq.* Jondoni Paulo nola gomendatcen citçajen guiristinoei bere othoitcetari hartaz orhoitceaz, *Rom. cap. 15. v. 30. Ephes. cap. 6. v. 18. & 19.*

## HOGOI ETA SEI-GARREN LECCIONEA

Credoaren hamar-garren articuluaz, hameca-garrenaz, eta hamabi-garrenaz.

- 56 G. *Erratçu Credoaren hamar-garren, hameca-garren, eta hamabi-garren articuluac.*
- I. 10. Bekhatuen barkhamendua. 11. Haragiaren phictea. 12. Be-thiere iraunen duen bicitcea.
- G. *Cer erran nahi da, bekhatuen barkhamendua?*
- I. Erran nahi da Jesu-Christo gure Jaunac eman dioela bere Eliçari bekhatu suerte gucien barkhatceco botherea eta indarra.
- G. *Eliçac nola barkhatcen tu bekhatu suerte guciac?*
- I. Sacramenduen bidez.

- G. *Jesu-Christoc Eliçari eman dioen bothereaz ecin barkhatuac içan daitezquen bekhatuac eztere?*
- I. Ezta halacoric batere, cein nahi handia eta icigarria içana gatic arren.
- G. *Cer aditcen duçu Haraguiaren phizteaz?*
- I. Aditcen dut mundua hasiz gueroz hilac içan diren guiçon eta emaztequi guciac egun batez phiztuce direla.
- G. *Cer erran nahi da Phiztea?*
- I. Erran nahi da gorphuçac lurretic ilkhico direla bere arimequin juntatuac içaiteco, eta hala, hilac bihurtuce direla bicitcera.
- G. *Noiz hori guerthatuco da?*
- I. Munduaren akhabançan, Jujamenduaren aiticinean.
- G. *Hilac certaco phiztuce dire?*
- I. Bere obra onen saria eta errecompensa, edo bere bekhatuen punicionea bere gorphutcetan errecibitceco.
- G. *Nolaco gorphutçac içanen tugu phizten garenean?*
- I. Içanen tugu bici guineino gunituen gorphutz hura bera eta haragui bera.
- G. *Gorphutz guciac estatu batean berean phiztuce dire?*
- I. Guztiac phiztuce dire ez guehiago hilcecoçat: Bainan gaichtoen gorphutçac phiztuce dire sofriteco eta pairateco; eta onen gorphutçac eternitate gucian Dohaxu içaiteco.
- G. *Cer aditcen duçu onez eta gaichtoez?*
- I. Onez aditcen tut Jaincoaren gracion hilcen direnac, eta gaichtoez bekhatu mortalean hilcen direnac.
- G. *Cer aditcen duçu hitz hautaz, Bethiere iraunen duen bicitcea?*
- I. Erran nahi da phiztu garen ondoan içanen dugula bicitce bat behinere akhabatuco eztena.
- G. *Nolacoa içanen da secular akhabatuco ezten bicitce hura?*
- I. Hura içanen da bicitce bat eternitate gucicotz Dohaxua onençat, eta eternitate gucicotz dohacabea gaichtoençat.

#### PRATICAC

1. Maiz cofesa gaitecin Jesu-Christoc bere Eliçari bekhatuen barkhatceco eman dioen bothereaz baliateco eta probetchatceco.
2. Ezdeçagun hauta bicitceco estatu bat, eternitate Dohaxu baten ardiesteco chedean baicen.

3. Noicean behin gabetuac gauden eta passa gaitecin cilhegui diren aisietaric eta axeguinetaric, gure gorphutçari gloriosqui phizteco gracia içan araztea gatic.

## ISTORIOAC

Bekhatuen barkhamenduaren gainean *Matth.* 16. v. 19. *Lucae* 24. v. 47. *Joan.* 20. v. 23. Phiztearen gainean. *Ezech.* c. 37. *Job cap.* 19. v. 25. & *seqt.* 2 *Machab.* c. 12. v. 43. & 44. Lazaro nola phiztu cen, hurache da haraguiaren phiztearen eta bekhatuen barkhamenduaren figura bat, *Joan, cap.* 11. Bicitce eternalaren gainean, *Matth. cap.* 13. v. 43. *cap.* 22. v. 13. & *cap.* 25. v. 34. & 46. Lazaroren Istorioa *Lucae* 16. v. 19. & *sequentibus.*



## BI-GARREN PARTEA

GUIRISTINOTASUNECO EGUINBIDEZ, ETA BATHAJOAC EMAITEN  
DARAZQUIGUN OBLIGACIONEZ.  
JAINCOAREN ETA ELIÇA AMA SAINDUAREN MANAMENDUEZ





## AITCINAGOCO GALDEAC

- 57 G. *Cein dire guiristinotasuneco eguinbide principalac edo phuruac?*  
 I. Bekhatuari ihes eguitea, eta berthuteari jarraituitcea edo unguia eguitea.
- G. *Cer eguin behar da bekhatuari ihes equiteco, eta berthuteari jarraituitceco edo unguia eguiteco?*  
 I. Beguiratu behar dire Jaincoaren eta Eliça Ama Sainduaren Manamenduac.
- G. *Cenbat dire Jaincoaren Manamenduac?*  
 I. Badire hamar.
- G. *Erratçu, cein dire?*  
 I. Jainco bat dela sinhexiric, eta gaineracoac lehenbico *Catichiman beçala*. pag. 51.
- G. *Norc eguin tu manamendu horiec?*  
 I. Jaincoac berac eman içan diozcate Juduei Moïseren bidez, eta Jesu-Christoc aprobatu ditu eta bere autoritatea eman diote.
- G. *Cer edireiten da manamendu horietan?*  
 I. Han dire gure eguinbide principalac Jaincoaren alderatecotz, gure lagunaren alderatecotz, eta guerorren alderatecotz.
- G. *Jaincoaren manamenduen beguiratceco abala badugu?*  
 I. Bai, beçura detcaquegu Jaincoaren graciarequin batean, eta Jaincoac gracia hura emaiten diote behar den beçala galdeguiten diotenei.
- G. *Manamendu hec beguiratcen dituztenen saria eta errecombensa cer içanen da?*  
 I. Mundu huntan Jaincoaren benedicçionea, eta bercean Parabisua.
- G. *Manamendu hec beguiratcen ezituztenen gaztigua eta punicionea nolacoa içanen da?*  
 I. Bicitze huntan içanen dire Jaincoaz madaricatuac, eta bercean Ifernurat arthiquiac.

## PRATICAC

1. Orhoit gaitecin maiz, Bathajoan erran ičan çaicunaz : baldin bicitce eternalean sarthu nahi baduçu, beguira çatçu manamenduac.

2. Othoitz deçagun Ispiritu Saindua gure bihotcetan ungui finca deçala Jaincoaren leguea, eta digula haren beguiratceco gracia.

3. Ezdaquigun secular ahantz, manamendu choil batean huts eguitea, leguearen haustea eta abandonatcea dela.

## ISTORIOAC

Contatu behar da nola hamar manamenduac eman ican ciçaiçcon (sic). Moïseri, eta harc Israelitei, *Exodi cap. 20*. Recabiten obediencia, *Jeremiae cap. 35*. Macabeoen eta bereciqui Eleazaren lejalta-suna leguearen beguiratceco, 2. *Machab. 6. & 7.*

## LEHENBICICO LECCIONEA

Jaincoaren lehenbicico Manamenduaz.

- 58 G. *Erraçu Jaincoaren lehenbicico Manamendua?*
- I. *Jainco bat dela sinhexiric, hura bera gauça gucien gainetic onhets, adora, eta cerbitca deçagula: edo bercela bersutan: Jainco bat adora eçaçu, halaber maita ossoqui.*
- G. *Cer manatcen du Jaincoac lehenbicico manamendu hortaz?*
- I. Manatcen darocu hura choilqui bakharra adora deçagula, eta maita deçagula gauça gucien gainetic.
- G. *Cer da Jaincoaren adoratcea?*
- I. Jaincoaren adoratcea da, hari gure Jaun Soberanoari beçala çor diogun ohorea ekharcea eta bihurcea.
- G. *Nola adoratu behar da Jaincoa?*
- I. Barrenez eta campoz, erran nahi da, arimaz eta gorphutcez.
- G. *Nola adoratcen da Jaincoa barrenez?*
- I. Bihotz onez bere buruaz Jaincoari sacrificio bat eguinez.
- G. *Nola adoratcen da Jaincoa campoz?*
- I. 1. Bere gorphutça humiltasun handi batean eçarriz, comparacionera, lurrean ahuspez jarriz, belhaurinco jarriz, burua behera makhurtuz.

2. Gure misterio sainduetan haren ohoratceco Eliçac eguiten dituen ceremonia agueri diren guciez.

G. *Obligatuac gara Jaincoaren adoracera?*

I. Bai, berac expresuqui hala manatcen duenaz gueroz, eta hura denaz gueroz gauça gucien Jaun eta Nausi soberanoa.

G. *Noiz behar laiteque bereciqui adortu Jaincoa?*

I. Goicean jeiqui eta berehala, arraxean etciteracoan, Igandetan, Bestetan, Eliçan sartcean, &c.

G. *Adortu behar da Jesu-Christo?*

I. Bai, ceren Jainco baita.

G. *Eguiçu adoracionezco acta bat.*

I. Ene Jaincoa, adortcen çaitut, eta eçagutcen çaitut ene Creatçai-learençat eta ene Jaun soberanoarençat.

## PRATICAC

1. Orhoit gaitecin eguiazco adoratçailc Jaincoa adortcen dutela ispituz (sic) eta eguiazqui.

2. Hitz hauc *Jaincoa adoratcea* erran nahi dutela, nola bethi prest egon behar dugun gauça gucien sacrificacera Jaincoaren gloriacotz eta haren borondate sainduari obeditceco.

## ISTORIOAC

Patriarca çaharren exemplua, ceinac copetaz lurrean ahuspez jar-cen baitciren, Jaincoaren aiticinean bere buruac humiliatceco, *Genes. c. 24. v. 26. & 48. Jud. cap. 7. v. 4. & cap. 9. v. 1.* Jesu-Christo gure Jau-nac ere orobat eguin çuen Olibetaco Baratcean, *Matth. c. 26. v. 39.* Jaincoa nola Ceruan adortcen duten, *Apoc. cap. 4. v. 10. c. 5. v. 14. & c. 7. v. 11.*

## LEHENBICICO MANAMENDUAREN SEGUIDA

- 59 G. *Lehenbicico Manamenduac debeatcen darocu Aingueruac eta Sainduac ohoratcea?*
- I. Ez, ceren hei ekharcen diotegun ohoreac ez baitio bidegaberik eguiten eta ez baitu gutitcen Jaincoari errendatcen dioguna.
- G. *Nola ohoratcen dire Sainduac?*
- I. Jaincoaren cerbitçariac eta adisquideac beçala.
- G. *Adoratu behar dugu Ama Birgina Saindua?*
- I. Ez, eztugu nihor adoratu behar Jaincoa bera baicen.
- G. *Andre dena Maria eztugu ohoratu behar Aingueruac eta Sainduac baino guebiago?*
- I. Bai, ceren hura baita Jaincoaren Ama, eta ceren harc duen hain Saindutasun handia eta miragarria.
- G. *Birgina Maria Sainduaz lekhora cein dire sainduac guehienic eta bereciqui ohoratu behar ditugunac?*
- I. Gure Aingueru Beguiraleac, gure Patroin sainduac, gure herrietaco Patroinac, &c.
- G. *Hei othoitz eguitea on da, hec bere arartecotasunaz Jaincoaren aldean lagun gaitçatençat?*
- I. Bai, on da eta haguitz probetchos hei othoitz eguitea.
- G. *Certan eman behar dugu berecianî erakbustera Birgina sainduari eta berce sainduei ekharcen diotegun ohorea?*
- I. Hec bere berthutetan imitatuz, eta gure beharretan eta escasietan hequin lagunça galdetuz.
- G. *Sainduen Erlequiac ere ohora daitezque?*
- I. Bai, ceren hec baitire Ispiritu sainduaren templua icatu den gorphutz baten hondar preciatuac.
- G. *Ohoratu behar tugu lekhu sainduac, nola baitire Eliçac eta hilerriac?*
- I. Bai, ceren hec baitire consecratuac cerbitçu edo emplegu haguitz saindu batçuetacotz.

- 60 G. *Ohora detçaquegu halaber sainduen imaginac?*  
 I. Bai, ceren hec seinalatcen eta erreprentatcen baitarozquigute Jaincoaren adisquideac.
- G. *Ezta Idolatria bat hequin ohoratcea?*  
 I. Ez, ceren ezbaitire hec ohoratcen hetan seinalatuac diren sainduac gatic baicen.
- G. *Othoitz eguin deçoquegute sainduen imaginei?*  
 I. Ez, hori laiteque supersticione bat.
- G. *Cergatic jarcen gara bada belhaurinco hequin aiticinean?*  
 I. Ceren imagina hequin bidez ohoratcen baititugu hec gogora ekhar arazten darozquiguten sainduac eta hequin berthuteac.
- G. *Certan eguiten da bekhatu Jaincoari berari choilqui baicic çor etçajoen adoracionearen contra?*  
 I. Eguiten da hirur guisaz, jaquiteco, idolatriaz, errespetu faltaz, eta supersticionez.
- G. *Nola eguiten da bekhatu idolatriaz?*  
 I. Jaincoari berari baicen çor etçajoen adoracionea cembait creaturari bihurtuz.
- G. *Nola eguiten da bekhatu errespetu faltaz?*  
 I. Jaincoari consecratua dena mespreçatuz edo profanatuz edo sainduqui ez erabiliz.
- G. *Nola eguiten da bekhatu supersticionez?*  
 I. Eliçac aprobatcen ezdituen halaco cembait hitz suertetan, edo obserbacione banotan bere fidancia içanez eta eçarriz.
- G. *Emaçu horren exemplu bat.*  
 I. Supersticionez bekhatu eguiten dute cembait hitz suerteren berthutez eritasunetariç sendatu uste dutenec, edo etcheac edo berce cerbait erretcetic guibelatu uste dutenec, edo berce cembait arriscu gaichtoaric hala escapatu uste dutenec.

## PRATICAC

1. Sainduei gure othoitcetan bere lagunça galdeguiten diotegunean consideratu behar dugu eztirela hec guc galdetcen ditugun gracia hequin autorac eta nausiac; bainan hec bere arartecotasunaz gu-requin batean guretçat Jaincoari galdeguiten diozcatela.

2. Considera deçagun sainduen Erlequieç eta hequin Imaginec borthizqui exortatcen gaituztela hec seguitu dituzten berthuten seguitcera eta obretan eçarcera.

## ISTORIOAC

Sainduei othoitz eguitea *Apocalip. cap. 1. v. 4.* hequin Erlequien alderateco errespetua, testament çaharrean, *Exodi cap. 13. v. 19.* eta testament berrian *Matth. cap. 23. v. 29.* Erlequien berthutea edo botherea, Elizeas profetaren hechurrac *lib. 4. Regum cap. 13. v. 21.* Jondoni Petriren itçala, *Acta cap. 5. v. 15.* Jondoni Paulo uqitu çuten mocanesac, *Act. c. 19. v. 12.*

### LEHENBICICO MANAMENDUAREN SEGUIDA

- 61 G. *Cein da Jaincoaren lehenbicico Manamenduac manatcen darocun bi-garren gauça?*
- I. Hura da Jaincoa perfetqui maitatcea.
- G. *Cer eguin behar da Jaincoa perfetqui maitatceco?*
- I. Behar da Jaincoa maitatu gauça gucién gainetic.
- G. *Cer eguin behar da Jaincoa gauça gucién gainetic maitatceco?*
- I. 1. Jaincoa maitatu behar dugu munduco ontasun guciac baino guehiago, gure ahaideaz baino, gure adisqueideac baino, eta gure buruac ere baino guehiago.
2. Hari plazer eguiteco chedean eguin behar tugu gure accione edo eguindura guciac, eta ihes eguin behar diotegu hura ofensa ahal deçaqueten gauça guciei.
- G. *Cer chedec guehienec ekharri behar gaitu Jaincoa perfetqui maitatcera?*
- I. Huna cembait. 1. Jaincoa da berenez ahala maitagarria, hura denaz gueroz ahala perfeta.
2. Hura da gure Aita, harc eman darocu bicia, eta harc conserbatcen darocu momentu guciez.
3. Egun guciez guri ungui eguiten hari da, eta bethi guri erakhustera emaiten guretçat cein ona den.
4. Harc cinqui desiratcen du, gu ossoqui Dohaxu errendatcea.
- G. *Jaincoa beçanbat edo guehiago cerbait maite duenac beguiratcen du eta complitcen lehenbicico Manamendu hau?*
- I. Ez, eta hainac eguiten du bekhatu bat haguitz handia.

- G. *Nola eçagutcen dugu bea Jaincoa maite dugun gauça gucien gainetic?*
- I. Hala maite dugula eçagutcen dugu disposatuac garenean edo che-  
de on bat dugunean haren manamendu gucien beguiratceco cer  
nahi gosta daquigun, bicia bera gosta behar baliz ere.
- G. *Noiz eguin behar guinituzque Jaincoaren amodiozco Actac?*
- I. Goicean eta arraxean, Jaincoaren ofensatceco tentacione cem-  
bait dugunean, eta ahalic maicena.
- G. *Eguçu Jaincoaren amodiozco Acta bat.*
- I. Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz gauça gucien gainetic,  
ceren çu baitçara ahala maitagarria eta ahala perfeta.
- G. *Cer debecatcen darocu Jaincoaren lehenbico Manamenduac?*
- I. Debecatcen darocu creaturen ganateco amodio itsu eta sobera-  
niazco gucia.
- G. *Ezdetçaquegu bada maita creaturac?*
- I. Ecin maita detçaquegu, hec Jaincoaren ganat hurbilcen eta ekhar-  
cen gaituztenean baicic, eta hetaric urrundu behar gara hec gure  
salbamenduari trabu edo bidegabe eguiten dioten beçain laster.

#### PRATICAC

1. Egunean hainitcetan gure bihotcean eguin detçagun Jaincoa-  
ren amodiozco Actac, baita lanean hari garenean ere.

2. Mundu huntan ezdeçagun deusetan ere eçar edo deusi este-  
ca gure gogoia eta bihotça, eta baldin gure bihotça cerbait gauçari  
estecatua badugu, gauça hartaz pasa gaitecin ahal badeçagu noicean  
behin bederen, edo ezperen hartaz sacrificio bat Jaincoari ofri deçogun.

#### ISTORIOAC

Emazte bekhatrosa bere amodioaz justificatua, *Lucae cap. 7. v. 47.*  
Jondoni Petriren amodio penitenta, *Joan. cap. 21. v. 15. & seq.*  
Jondoni Pauloc caritateaz eguiten duen laudorioa, 1. *Corinth. cap. 13.*

## BI-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren bi-garren Manamenduaz.

- 62 G. *Erraçu Jaincoaren bi-garren Manamendua.*
- I. *Arneguric, cinic edo juramenturic banoqui eta premia gabe ez-taquiigula. Edo bercela bersutan: Juramenturic çuc eztuçü, ez cinic eguinen banoqui.*
- G. *Jaincoac cer debecatcen du bi-garren Manamendu buntaz?*
- I. *Debecatcen du. 1. Juramenturic banoqui edo behar ezteanean eguitea. 2. Blasfematcea. 3. Imprecacioneac edo othoitz gaichtoac eguitea gure buruen contra edo gure lagunaren contra.*
- G. *Cer da juramentu eguitea?*
- I. *Hura da aitcinatcen dugun solasaren lekhucotçat harcea Jaincoa edo cenbait creatura.*
- G. *Cenbat maneraz juramentua eguiten da banoqui edo premiariac gabe eta behar ezten beçala?*
- I. *Hirur maneraz. 1. Eguiaren contra eta gueçurraren gainean juramentu eguinez. 2. Eguiaren gainean ere necesitateric edo premiariac gabe juramentu eguinez. 3. Cenbait gaizqui eguinen dugula juramentu eguinez.*
- G. *Norbaiti cenbait colpe emanen dioela, edo berce cenbait gaizqui eguinen duela, juramentu eguin duena obligatua da bere juramentuaren complitcera?*
- I. *Ez, hori laiteque bi-garren bekhatu baten eguitea.*
- G. *Cenbait gauça on eta cilhegui dena eguinen duela juramentu eguin duena obligatua da haren eguitera eta bere juramentuaren complitcera?*
- I. *Bai, obligatua da, baldin hartaz nihori bidegaberac eguiten ez-badio.*
- G. *Bada demboraric edo okhasioneric juramentu eguitea cilhegui denic, eta juramentu eguitera obligatuac ere garenic?*
- I. *Bai, comparacionera, Jugeac hala manatcen duenean, eta orduan eguiten den juramentua eguiaren gainean eguiten denean.*



G. *Bercei premiaric gabe juramentu eraguiten diotenec ezdute bekhaturic eguiten?*

I. Bai, bekhatu eguiten dute.

63 G. *Cer da Blasfemia?*

I. Hura da injuriazco hitz bat Jaincoaren contra, edo haren sainduen contra, edo religionearen contra, eta hori da bekhatu handi bat eta crima icigarri bat.

G. *Nor dire manamendu hunen contra bekhatu eguiten dutenac imprecacioneac eguinez?*

I. Hec dire hasarreturic, edo bercela erraiten dutenac, bere buruei edo bercei desiratcen diotela hilcea, edo deabruec eramaitea, edo icurria, edo deabruaz poseditua icaita, edo ozpinac bolatcea, edo berce cenbait incuntru gaichtotan helcea, eta bidegabe icaita.

G. *Jaincoac cer manatcen darocu manamendu huntaz?*

I. Lehenbiceric: Jaincoaren icen Sainduarençat errespetu handi bat icaita. Bi-garrenecoric: Eguin ditugun botuen complitcea.

G. *Cer da botua?*

I. Botua da Jaincoari emaiten diogun promes bat, ceinaz obligatcen baicara cenbait obra onen eguitera Jaincoaren edo cenbait Sainduen ohoretan.

G. *Jaincoaren gogaraco gauça bat da botuen eguita?*

I. Bai, bainan eztire botuac arinqui eguin behar.

G. *Bere botuac atchiquitcen eta complitcen ezdituztenec bekhaturic eguiten dute?*

I. Bai, botuen ez complitcea bekhatu handi bat da.

## PRATICAC

1. Baldin badugu usançaric cenbait juramenturen eguiteco, har deçagun cenbait penitencia hartarat erorcen garen aldi bakhotchcan eguiteco, bide hortaz usança hura uztea gatic.

2. Corregi gaitecin halaco juramentu batçuetaric, ceinec deusic erran nahi ezdutelaric arren, halere Jaincoaren icena desohoratcen eta profanatcen duten juramentuen eguita edo iduria baitute.

3. Boturic ez eguin, non ezdiogun lehenic gure Cofesorari conseilu galdeguiten, guciz baldin gauça importante edo handia bada.

## ISTORIOAC

Blasfematçaile bat nola ičan cen harricatua. *Levit. cap. 24. v. 10. & seq.* Sennacherib nola punitua. *4. Reg. cap. 19. v. 22. & seq.* Jephtheren juramentu arinqui eguina. *Judic. c. 11. v. 30. & seq.* Herodesen juramentu arinqui eguina, ceinaren seguida bat ičan baitcen Jondoni Joannes Baptistaren heriotcea. *Matth. cap. 14.* Botuen gainean, Samuelen Ama. *1. Reg. cap. 1. v. 11.*

## HIRUR-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren hirur-garren Manamenduaz.

- 64 G. *Cein da Jaincoaren hirur-garren manamendua?*  
I. Igandea beguira eta santifica detçagula.  
G. *Manamendu huntan cer manatcen çaicu?*  
I. Manatcen çaicu Igandea sainduqui iragan detçagula.  
G. *Cein cen legue çabarrean Jaunaren errepausuco eguna Juduec santificatcen çutena guc Igandea santificatcen dugun beçala?*  
I. Hura cen Larunbata, ceren egun hartan Jaincoa errepausatu baitcen mundua creatu çuen ondoan.  
G. *Eliça Ama Sainduac cergatic santificatcen du Igandea?*  
I. Ceren hura baita eguna, ceinetan Jesu-Christo gure Jauna bere phizteaz edo resurreccioneaz sarthu ičan baita bere errepausu eternalean.  
G. *Cer eguin behar da Igandea sainduqui iragaiteco?*  
I. Lehenbicoric: Egun hura iragan edo empletatu behar da Jaincoaren cerbitçuan. Bi-garrenecoric, egun hartan nekhaçale lanic ezta eguin behar.  
G. *Cer eguin behar da egun hura Jaincoaren cerbitçuan empletateco?*  
I. Meça osso bat entçun behar da egun hartan, eta bere faltaz entçun gabe guelditcen denac bekhatu handi bat eguiten du.  
G. *Asqui da gorphutcez Meça Sainduan aurkhitcea?*  
I. Ez, han egon behar da atencione eta debocione handi batequin.  
G. *Igandearen santificatceco ez othe da asqui Meça ichil bat entçutea?*  
I. Ez, ahal beçanbatean causitu behar gara bertce alde Eliçaco Ofi-

cio Dibinoetan, eta herrico Eliçan eguiten diren pregarioetan edo instruccionetan, eta egun hartan hari behar gara obra onen eguiten.

- 65 G. *Cer aditcen duçu egun hartan eguin behar eztiren nekhaçale lanez?*
- I. Aditcen tut bereciqui nekhaçalec bere biciaren irabasteco eguiten ditusten escu lanac.
- G. *Ceri guehienic ihes eguin behar çajo egun hartan?*
- I. Bekhatuari, eta bekhatu eraguin ahal deçaqueten gauça guciei.
- G. *Igandear berce alde ezta bertce egunic santificatu behar dugunic?*
- I. Bai, santificatu behar tugu oraino Jesu-Christo gure Jaunaren Bestac, Birgina Sainduaren eta berce sainduen Bestac Eliça Ama Sainduac manatcen darozquigunac.
- G. *Nola behar dire santificatu Besta egun hec?*
- I. Igandea santificatcen den beçala.
- G. *Nor dire manamendu hunen contra maicenic bekhatu eguiten dutenac?*
- I. Lehenbicoric: Hec dire Oficio Dibinoetara eta Eliçaco instruccionetara ibilcen eztirenac.
2. Haurrac eta sehiac harat igorcen ezdituztenac, edo hec hara goaitetic guibelatcen dituztenac.
3. Igandear eta Bestac axeguin harcen eta debochean daramatcitenac.
4. Premiariç gabe, edo premia dutenean ere Eliçaco aiticindarien baimenduric edo permisioneric gabe lanean haritcen direnac edo berce norbait lanean hari arazten dutenac.

## PRATICAC

1. Ahalic maicena Igandetean eta Bestetan ibil gaitecin gure herrico Meça Nausira pregarioetara, eta Bezperetara.
2. Bat bedera hari bedi cenbait liburu debocionezcoren iracurcten, edo Catichimaren irakhasten bere haurrei eta sehiei, edo bere anajei eta arrebei edo aizpei.
3. Ez ibil ostatuetara Igandetean eta Bestetan.

## ISTORIOAC

Judu bat nola iřatu cen harricatua ceren Larunbat batez hari iřan cen egur biltcen. *Num. c. 15. v. 32. & seq.* Judu batçuen Istorioa, ceinec utci baicituzten bere buruac hilcera, Larunbata hautsi nahi gabez. 1. *Machab. c. 2. v. 33. & seq.* Ikhus çaçu cer den errana Eliça Ama Sainduaren lehenbico eta bi-garren manamenduen gainean.

## LAUR-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren laur-garren Manamenduaz.

- 66 G. *Erraçu Jaincoaren laur-garren manamendua.*
- I. Gueure burasoac, eta aiticineco çaharrac ohora detçagula: *edo bertsutan*: Aita eta Ama ohora çatçu bici çaitecin lucequi.
- G. *Manamendu hunec cer manatcen darocu?*
- I. Manatcen darocu, 1. Gure Aitari eta Amari errespetu ekhar deçotegula. 2. Hec maita detçagula. 3. Burasoac obedi detçagula. 4. Hec bere beharretan lagun detçagula.
- G. *Cein dire huts eguiten dutenac eguinbide horietaric lehenbicoan, ceina baita gure Aitari eta Amari errespetu ekharcea?*
- I. Hec dire burasoac mespreçatcen dituztenac, hei trufac edo bur-lac eguiten diozcatenac, edo hequin narriocac edo hutsac salhatcen dituztenac.
- G. *Cein dire huts eguiten dutenac bi-garren eguinbidean, ceina baita Burasoac maitatcea?*
- I. Hec dire burasoac higuincen dituztenac, hequin ecin bici daitezquenac, hequin heriotcea desiratcen dutenac.
- G. *Nor dire huts eguiten dutenac birur-garren eguinbidean, ceina baita hei obeditcea?*
- I. Hec dire. 1. Burasoec manatcen diotena eguiten ezdutenac, edo gogo gaichtoz eta arrancurac eguinez baicic eguiten ezdutenac.
2. Despitez edo hisiz cembait oficio hartcen dutenac edo ezconcten direnac burasoen baimena edo consentimendua gabe, edo hequin testamentean ordenatua dena eguiten ezdutenac.

- G. *Cein dire buts eguiten dutenac laur-garren eguinbidean, ceina baita hec bere beharretan laguntcea?*
- I. Hec dire. 1. Burasoac bere gabetan edo pobrecian eta çahartcean ungui lagundu gabe uzten edo abandonatcen dituztenac. 2. Hei emaiten dioten laguncez erreportchu edo liscar eguioten diotenac. 3. Burasoëi bere ontasuna ebasten diotenac. 4. Burasoac hil direnean hequinçat othoitçac eraguiten ezdituztenac.
- G. *Manamendu hunec eztarocu manatcen gure burasoac baicic ni-hor ohoratcea?*
- I. Bai, ohoratu behar dire halaber Aita-guiharreba, eta Ama-guiharreba, Tuturrac, Ossabac, Icebac, eta bertce Ahaideac hequin adinaren eta autoritatearen eredura.

#### LAUR-GARREN MANAMENDUAREN SEGUIDA

- 67 G. *Nor behar dugu oraino ohoratu?*
- I. Ohoratu behar tugu gure Aitcindari guciac, hala dire gura Aita-Saindua, gure Jaun Aphezpicua, gure Errotora, Erregue, cargudunac, gure Nausiac, &c.
- G. *Cer dakharque oraino manamendu hunec?*
- I. Huntan sarthuac dire burasoen eguinbideac bere umen alderat, eta Nausienac eta etheco Andrenac bere sehien eta bere menceoen alderat.
- G. *Cein dire Aiten eta Amen eguinbideac bere umen alderat?*
- I. Badire laur. 1. Hec haztea; 2. Hec instruitcea edo jaquin behar dituztenac ikhas araztea; 3. Hec corregitcea gaizquiric eguiten dutenean; Eta 4. Hei exemplu ona emaita.
- G. *Cein dire sebien eguinbide principalac bere Nausien eta etheco Andren alderatecotz?*
- I. Obligatuac dire sehiac hequin errespetatcera eta obeditcera.
- G. *Certara dire oraino obligatuac?*
- I. Lehenbicoric, hequin ontasunaren beguiratcera eta conserbatcera berea balute beçala. Bigarrenecoric, ethecan aditcen edo ikhusuten dituztenac behinere ez erraitera.

- G. *Cein dire Nausien eta etheco Andren eguinbide principalac bere sehien alderat?*
- I. Lehenbiceric: çor diote bere soldata. Bi-garrenecoric, corregitu behar tuzte, eta exemplu ona eman behar diote.
- G. *Cembat maneraz Nausiec eta etheco Andrec bekbatu eguiten dute bere sehien alderateco eguinbidetan?*
- I. Laur maneraz.
1. Hec Catichimara ibil arazteco artha ez içanez, eta hec Sacramenduetara hurbil araci gabez.
  2. Igandetan eta Bestetan hec travaila araciz egun saindu hetan cilhegui eztiren lanetan.
  3. Hec bere eritasunetan abandonatuz edo ez lagunduz.
  4. Hei bere soldatac gueldituz.
- G. *Manamendu huntan cergatic berretcen dire hitz hauc, Bici çaitecin lucequi?*
- I. Ceren manamendu hau ungui beguiratcen dutenei Jaincoac emaiten baitiote mundu huntan bicitce luce bat, baldin conbeni bada, eta bethico bicitce dohaxu bat bertce munduan.
- G. *Manamendu hau beguiratcen ezduten haurrac nola içaiten dire punituac?*
- I. Bere gainerat eror arazten dute bere burasoen madaricinoa, ceinari baitarrajo ordinariozqui Jaincoaren madaricinoa.

#### PRATICAC HAURRENÇAT

1. Hurrec orhoitu behar dute Aitac eta Amac Jaincoaren plaça atchiquitcen diotela mundu huntan.
2. Pacienciarequin jasan eta sofritu behar tuzte hequin narrioc, hequin umoreac, bai oraino hequin tratamendu gaichtoac ere.
3. Behar dute egon hequin obedienciaren azpian, Jesu-Christo san Josephen eta bere Ama Birgina sainduaren obedienciaren azpian cegoen beçala.

#### ISTORIOAC

Isaac batec nola obeditu çuen bere Aita. *Genes. c. 22. v. 3 & seq.* Jesu-Christoc nola obediten cituen bere burasoac. *Lucae. c. 2. v. 51.* Nola punitua içan cen Absalom bere Aita David obeditu faltaz. *2. Reg. cap. 18.* Jaincoaren madaricinoa haur gaichtoen contra. *Denter. 21. v. 18 & seq. prov. 30. v. 17.* Helin nola içan cen punitua ce-

ren bere hurrei sobera barkhatcen cioten. 1. *Reg. c. 3. v. 11. & seq.* Tobias gaztea nola ičan cen sainduqui hacia eta alchatua. *Tob. c. 4. & 14.*

#### PRATICAC SEHIENÇAT

1. Bere Nausiac amodioz eta gogo onez cerbitçatcea, eta hec obeditcea Jesu-Christo bera beçala.

2. Sehiei etçajote behinere ahantci behar, deusic ecin eman deçaquetela, ez amoína pobrei ere, bere Nausien permisionea gabe.

3. Ihes eguin behar diote jocoari, ceinac maiz ebats arazten baitote bere Nausien ontasuna jocoan haritceco.

#### ISTORIOAC

Eliezer Abrahamen alderat. *Gen. c. 24.* eta Joseph Putipharren alderat. *c. 39.* dire sehi onec seguitu eta imitatu behar dituztenac.

#### PRATICAC NAUSIENÇAT

1. Nausiec considera beçate bere sehiez eta bereciqui hequin salbamenduaz artharic ezdutenac, Infidelac edo Paganoac baino gaitchoago direla.

2. Eztire behinere tratatu behar sehiac gogorqui eta garrazqui, ez eta mespreçiorequin, bainan bai emetasun eta caritate handirequin.

3. Etçazcote sehiei jasan araci behar gauça galduac, baldin hequin faltaz gaudu ezbadire.

#### ISTORIOAC

Centeneroac nolaco caritatea ičan çuen bere sehi eri batençat. *Matth. 3. v. 5. & seq.* Jondoni Pauloc Onesimo deitcen cen Philemonen cerbitçariaren faboretan eguin çuen gomendioac erakhustera emaiten du, on eta eme ičan behar dela sehiençat hec eguiten dituzten hutsetan ere. *Ep. ad Philem. v. 10. & seq.*

## BORTZ-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren bortz-garren Manamenduaz.

- 68 G. *Cein da Jaincoaren bortz-garren manamendua?*  
I. Nihor hil, ez desira ezteçagula; *edo bersutan*: Nihor obraz hilen eztuçu, ez borondatez gaichtoqui.
- G. *Cer debecatcen darocu manamendu hunec?*  
I. Debecatcen darocu guere autoritatez edo botherez gueure lagunaren biciari aspercea.
- G. *Cenbat bicitce suerte dira gure laguna baithan aspertu gabe utci behar direnac?*  
I. Badire hirur: Bicitce naturala, hura da gorphutceco bicia, bicitce ispirituala, hura da arimaco saindutasuna, eta bicitce cibila, ceina baita fama ona.
- G. *Nola ofensa deçaquegu edo bidegabe eguin deçoquegu gure lagunari bere bici naturalean?*  
I. Hirur maneraz.  
1. Gogoz, hura higuinduz, edo hari cenbait gaizqui desideratuz.  
2. Hitcez, ahapaldi gaichtoac edo injurioac hari erranez.  
3. Obraz edo accionez, hari colpe emanaz, edo hura hilez edo hil araciz.
- G. *Ahapaldi gaichtoac edo injurioac bere lagunari erran diozcana, edo hari colpe cenbait eman dioena certara da obligatua?*  
I. Obligatua da erreparatcera, ahal badeça, hari eguin dioen injuria, eta handic ethorri çajoen bidegabea.
- G. *Nola ofensa deçaquegu gure laguna bere bici inspiritualean?*  
I. Hari conseilu gaichtoz, edo exemplu gaichtoz Jaincoaren ofensatceco bide emanaz, eta hori deitzen da escandala.
- G. *Cer eguin behar du bere lagunari conseilu gaichto cenbait eman dioenac?*  
I. Berehala hartaric haina guibelatu behardu.
- G. *Nola ofensatcen dugu gure laguna bere bicitce cibilean?*  
I. Haren ohoreari edo famari bidegabe eguinez.



- G. *Cenbat maneraz bidegabe eguiten çajo lagunari bere faman edo ohorean?*
- I. Bi-maneraz.
1. Erranez harc eguin duela gaizqui bat, harc eguin eztuena, eta hori deitzen da *calumnia*.
  2. Bertcei erranez eta eçagut araciz lagunac eguin duen gaizquia, oraino gordea edo ichil cegoena gendec eçagutu gabea, eta hori deitzen da *Medisencia*.
- G. *Calumnia edo medisencia cenbait erran duena certara da obligatua?*
- I. Obligatua da ahal beçanbatean erreparatcera bere lagunaren ohore eta fama çaurthu duena, baita baldin behar balu ere hartaracotçat aithortu harc erran dituenac eztirela hala.
- G. *Lagunaren hutsac publicoac direnean eta eçagutuac, cilbegui da hetaz gaizqui minçatcea?*
- I. Ez, hala minçatcea caritatearen contra da.
- G. *Cilbegui da medisenciaren aditcea, eta hartan axeguin barcea?*
- I. Ez, ecen maiz aditçailleac eguiten du, hala minço denac eguiten duen bekhatu bera.

#### PRATICAC

1. Baldin norbaitequi liscartu bagara baque gaitecin harequin, eta gaizquiric eguin edo injurioric erran diogunean, barkhamendu edo escusa galde deçogun egun hura akhabatu gabe.
2. Etsaigoan, herran, edo haucitan bici direnen baquetcen eguin ahala eguin deçagun.
3. Medisenciac guibela detçagun ahal deçagunean, noren ere contra bertceac minço baitire, gu minça gaitecin haren alde; hala gaizqui minço direnac abisa detçagun bekhatu eguiten dutela.

#### ISTORIOAC

Caïn lehenbico guiçon hilçailea nola içan cen punitua. *Genes. 4. v. 10. & seq.* Jeroboam nola punitua, ceren escandala eman cioten Israelitei. *3. Reg. 14. v. 9 & seq.* Estherren Istorioa, eta cein heriotce dohacabeaz hil cen Aman, ceinac gal araci nahi içan baitcituen Israelitic. *Esther cap. 7.*

## SEI-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren sei-garren eta bederatci-garren Manamenduez.

- 69 G. *Erratçu Jaincoaren sei-garren manamendua eta bederatci-garrena.*
- I. Haraguzco obraric ezconçaz campoan gogoz ez obraz eztaquigula; *edo bersutan*: Paillardîça eguinen eztuçu obraz ez gogoz likhitsqui.
9. Berceren Senharric edo Emazteric desira ezdeçagula, *edo bersutan*: Berceren esposic eztuçu desiratuco liçunqui.
- G. *Cer debecatcen dute bi manamendu hauc?*
- I. Debecatcen tuzte lohiqueriaco bekhatu guciac, eta hartara daron-saten gauçac, edo hei okhasione emaiten diotenac.
- G. *Cenbat guisaz eguiten da bekhatu manamendu hauquin bien contra?*
- I. Hirur guisaz, jaquiteco da, gogoz, hitcez, eta obraz edo accionez.
- G. *Cein dire gogoz bekhatu eguiten dutenac?*
- I. Hec dira gogoeta liçunac, edo desircunde edo guticia gaichtoac bere nahitara gogoan atchiquitcen dituztenac.
- G. *Cein dire hitcez bekhatu eguiten dutenac?*
- I. Hec dira hitz ahalquegabeac, liçunac, eta bi sensutacoac erraiten dituztenac.
- G. *Cein dire accionez edo obraz bekhatu eguiten dutenac?*
- I. Hec dira behatce, edo uquitce, edo bertce cenbait accione liçun eta desonhest bere gainean edo bertce norbaiten gainean eguiten dutenac.
- G. *Cer eguin behar da bekhatu huntarateco tentacioneac garaitceco?*
- I. Berehala khendu behar dire hartarateco lehenbico gogoetac, Jaincoari othoitcetari jarri, eta okhasionei ihes eguin.
- G. *Cein dire okhasioneac, bekhatu hau guebienic edo maicenic eraguiten dutenac?*
- I. Hec dire sei.
1. Edanean eta janean eguiten den soberania.
  2. Ahalquegabien edo libertinen hantatcea.

3. Romanac eta liburu gaichtoac iracurcea.
  4. Balac, Dançac, Comediac, biluzqui edo modestia gabe bes-  
titua ibilcea.
  5. Erretaula desonhestac.
  6. Guiçonquieci emaztequiequin, eta emaztequieci guiçonquie-  
quin dituzten adisquidetasun familiarac edo sobera libroac.
- G. *Cein dire lohiqueriaren seguida icigarriac, eta maicenic guertha-  
tzen direnac?*
- I. Harc ahantz arazten darocu gure salbamendua, itsutcen du ispi-  
ritua, eta bihotça gogortcen du.
- G. *Cein dire bekhatu eta bici hain biguingarri baten contraco erre-  
medioac?*
- I. Lehena da, bere sensuen eta bereciqui beguien eta ahoaren mor-  
tificatcea.
  2. Penitenciaco eta Gorphutz-Sainduco Sacramenduac maiz  
errecibitcea.
  3. Lanean haritcea, eta behinere alferric ez egoitea.

#### PRATICAC

1. Tentacionearen denboran gogoan atchiqui behar dugu bici-  
qui Ifernua, bekhatua eguin beçain laster harat egotciac içan behar  
baguine beçala.
2. Adisquidetasuna hauts deçagun bici gaichtoa daramaten  
adisquidequin, eta modestiaren contraco solasac erraiten dituztene-  
quin.
3. Eguin edo pratica detçagun cenbait mortificacione gure Co-  
fesoraren conseiluaren arabera.

#### ISTORIOAC

Lohiqueria gatic nola ethorri cen Mundura uholdea. *Gen. c. 6.*  
Bekhatu hori bera gatic içan ciren fundituac Sodomaco Hiria eta Go-  
morracoa. *c. 19.* Josephc bere capa utciric ihes eguinez irakhas-  
ten darocu tentacionean cer eguin behar dugun. *cap. 39. v. 12. & seq.*  
Dinaren Istorioac erakhusera emaiten du, cenbat artharequin ihes  
eguin behar çajoten okhasionei. *cap. 34.*

## SEI-GARREN ETA BEDERATCI-GARREN

Manamenduen seguida.

- 70 G. *Cein da sei-garren manamenduac eta bederatci-garrenac guehienic manatcen darocuten berthutea?*
- I. Hura da Castitatea.
- G. *Cer da Castitatea?*
- I. Castitatea da berthute bat axeguin desonest eta liçonetariç urrunçen gaituena.
- G. *Guiristino guciac obligatuac dire axeguin desonest eta liçon guciën higuñcera?*
- I. Bai, ceren guciac baitire Jesu-Christoren miembroac, eta Ispiritu Sainduaren Templuac.
- G. *Cenbat castitate suerte dire?*
- I. Badire hirur: Birginen castitatea, Alhargunen castitatea, eta presuna esconduen castitatea.
- G. *Cer da Birginen castitatea?*
- I. Hura da bicitcea garbitasun osso batean, eta gabetua egonez edo parteric batere hartcen eztela haraguizco desircundetan eta axeguinetan, ez eta ezcontça legitimo batenetan ere.
- G. *Cer da Alhargunen castitatea?*
- I. Hura da continencia perfet baten beguiratcea, erran nahi da, haraguizco axeguinetan gogoz, hitcez, edo obraz parteric hartu gabe egoitea bici deinoco denbora gucian, edo bederen bere alhargunçaco denboran.
- G. *Cer da presuna ezconduen castitatea?*
- I. Batac berceari ezconçaco fedea lejalqui beguiratcea, eta ezconçaren saindutasunaren contraco gauça guciëtaric bere burua goardatcea.
- G. *Cer da castitatearen berthutearençat guehienic contrario den gauça?*
- I. Hura da bicitce guria, eta intemperancia.

G. *Cer da bicitce guria?*

I. Hura da gure sensuei guehienic axeguin eguin ahal deçoqueten gaucaen bilha ibilcea, eta bethi hetaz cerbitçatcea edo hetan usatcea.

G. *Bicitce guria gaizqui handia da?*

I. Bai, hura da bekhatuaren usançazco edo habitudaco estatu bat.

G. *Cer da intemperancia?*

I. Hura da, edanean eta janean, eta bereciqui arno edatean eguiten den soberania gucia.

## PRATICAC

1. Birginac orhoitu behar dire, lohiqueriaren haice den chumenac nothatcen duela birginatasunaren distiadura, hatsac miraila nothatcen duen beçala.

2. Jaincoac bihotz garbi batean hartcen duen placerac, eta birginatasunac ardiets arazten darocun Aingueruzco estatuac, maitaraci eta besarcaraci behar diote bicitce bat hain saindua eta hain dohaxua hartarat deithuac direla eçagutcen duten guciei.

3. Presuna ezconduac orhoitu behar dute ezconçaco castitateac emaiten diozcatela mugarriac edo chedeac concupiscenciari eta passionari.

## ISTORIOAC

Birginençat, Josephen Istorioa. *Gen. c. 39*, eta Jondoni Joannesec Birginez dioena. *Apocal. c. 14*. hec direla cantico berria cantatcen dutenac Bildotsaren tronuaren oinean, eta hari jarraiquitcen çaiçconac dohan lekhu gucietara. Alhargunençat, Judithen exemplua. *Judith. c. 8. v. 4. & seq.* Anna Profetessarena *Lucae 2. v. 3*. Presuna ezconduençat, Suzannaren exemplua, *Dan. c. 13*.

## ÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren çazpi-garren manamenduaz, eta hamar-garrenaz.

- 71 G. *Erratçu Jaincoaren çazpi-garren manamendua eta hamar-garrena.*
- I. 7. Deus ebats, edo bercerena iduc ezteçagula. Edo bersutan. Bercerena ebatsico eztuçu, ez goardatuco injustuqui.
10. Lagunaren ontasunari gaizqui guticia ezgaizcola. *Edo bersutan.* Guticia içanen eztuçu berceren onaren gaizqui.
- G. *Jaincoac cer debecatcen darocu manamendu hautaz?*
- I. Çazpi-garren manamenduaz debecatcen darocu lagunaren ontasuna injustuqui harcea, eta hamar-garrenaz debecatcen darocu hartaco guticia içaita ere.
- G. *Cer debecatcen du oraino?*
- I. Debecatcen du oraino lagunaren ontasuna iduquitcea harc nahi gaberico, eta hari bidegaberico batere eguita.
- G. *Cenbat maneraz hartcen da maicenic bertceren ontasuna?*
- I. Bortz manera diferentec. Lehena da, bercerena bortchaz hartuz, ohoinec eguiten duten beçala.
2. Fineciaz hartuz, sehiec, etchetiarrec edo bertce ichilic ebas-ten dutenec eguiten duten beçala.
3. Maleciaz edo tromperiaz hartuz, salcen dituzten marchandisetan trompatcen eta enganatcen dutenec eguiten duten beçala.
4. Bercerenaz jabetuz, hausu makhurac, edo çucen contraco compensacioneac bata bercearençat eguiten dituztenec beçala.
5. Prestamu cilhegui eztirenez, usurarioec edo lucrarioec eguiten duten beçala.
- G. *Cenbat maneraz atchic daiteque injustuqui edo çucen contra bertceren ontasuna?*
- I. Atchiquitcen da bercerena bereciqui laur guisatara. Lehena da, hartu duguna ez bihurcea.
2. Da, çor eguinac ez pagatcea.

3. Da, languilei edo sehiei bere saria ez emaita.
  4. Da, çorçajotenei Detchuma ez pagatcea.
- G. *Ezta bertce maneraric bertceren ontasunaren atchiquitceco?*
- I. Bai, badire bertce hirur manera: Lehena da, fidatu darocuten depositoa edo ontasun alchatcerat emana ez bihurcea.
    2. Da gure carguaren azpian egon diren ontasunez contu ez errendatcea.
    3. Da, causitu ditugun gaucen jabearen eçagutceco eta bilhatceco gure eguin ahalac ez ungui eguita.

### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 72 G. *Cenbat maneraz eguin deçoquegu bidegabe gure lagunari bere ontasunetan?*
- I. Laur maneraz: Lehena da, haren cenbait gauça desegüinez edo hautsiz edo urratuz.
    2. Hari bidegabe eguiteco conseilu bertceri emanez.
    3. Hec hartan lagunduz, edo ohoin estalqui baliatuz.
    4. Da, bertcei bidegabe eguiten diotenac hartaric ez guibelatuz hartaco autoritatea edo botherea dutenec, edo hartaco carga dutenec, sehiec duten beçala.
- G. *Asqui da confesatceam erraitea berceren ontasuna hartu dugula, edo atchiquitcen dugula?*
- I. Ez, ahalic lasterrena bihurtu behar da bercerena, eta eguin edo eraguin den bidegabea erreparatu behar da ahal badagui, eta ecin deçaquenac behar du içan bihurceco gogo eta chede cin eta eguiazco bat.
- G. *Bertceren ontasunaz probetchatu eztirenac, eta choilqui bercei eguin çajen bidegabean conseilu edo lagunça baicic eman ezdu-tenac obligatuac dire errestitucione egüitera eta bidegabe haren erreparatcera?*
- I. Bai, asqui da nolazbait bidegabe eguita, obligatuac içaiteco berec eguin duten edo berceri eraguin dioten bidegabe guciaren erreparatcera eta haren balioaren bihurcera, hartaz probetchatu direnec berec eguiten ezbadute.

- 73 G. *Asqui da bihurcea hartu dugun ontasuna edo injustuqui eta çu-  
cen contra iduqui duguna?*
- I. Ez, erreparatu behar dugu bertce alde guc eguin edo eraguin du-  
gun bidegabe gucia; comparacionera, oficiale bati bere oficioco  
tresnac ebatsi dioscanac, oficiale hari bihurtu behar dio tresna  
hequin faltaz huts eraguin dioen irabacia.
- G. *Errestitucionearen eguiteco edo bercerenaren bihurceco obliga-  
cionea hersia da eta haguitz handia?*
- I. Bai, hain hersia da non bihurceco gogo on bat eta chede egui-  
zco bat ezduena, ecin içan baitaiteque salbatua, eta ecin errecibi  
baitęaque absolucioneric.
- G. *Nori behar çajo eguin errestitucionea edo bercerena bihurtu?*
- I. Bidegabe eguin çajoenari, edo hura hil bada haren ondoco pri-  
moei, edo pobrei baldin primoac ecin causi badaitezque ungui  
bilhatu diren ondoan.
- G. *Noiz behar da bercerena bihurtu?*
- I. Ahalic lasterrena.
- G. *Çazpi-garren manamenduaren complitceco asqui da berceren on-  
tasuna ez harcea?*
- I. Ez, bat bederac eman behar diote oraino bere ontasunetic pobrei  
bere indarren arabera.
- G. *Hamar-garren manamenduac eztu debecatcen bertceren ontasu-  
naren guticia baicic.*
- I. Bai, debecatcen du halaber bat bederac bere ontasunençat duen  
amodio itsua eta soberaniazcoa.

#### PRATICAC

1. Ezdeçagun behinere nihon deusic har, ez gure burasoen etche-  
tan ere hequin permisionea edo baimena gabe, jateco gauçaric baicic  
ezbaliz ere.
2. Ezdeçagun eguin ohoinça chumeric ere, ceren hetaric heldu  
baitire ohoinça handiac.
3. Hartu ditugun gaucen bihurceco içaiten dugun penac gui-  
belatu behar gaitu deus harcetic.

#### ISTORIOAC

Achan nola içan cen harricatu ceren ebatsi çuen. *Josue c. 7. v.*  
19. & seq. Judasen exempluac ohoiça higuin araci behar du. *Joan 12.*



v. 6. Tobias guizon sailduac bercceren ontasunaren içaiteco nolaco beldurra çuen. *Tob.* 2. v. 21. Achab guizon gaichtoa alferric humiliatcen da, eztu ardiesten barkhamendua, eta heriotceaz punitua içaitea da, ceren eztuen bihurcen Nabothi eraman cioen mahastia. 3. *Reg.* 21. & 22. Zachée prest dago lauretan hainberce bihurcera, baldin nihori bidegaberice eguin badio, *Luc.* 19. v. 8.

## ÇORCI-GARREN LECCIONEA

Jaincoaren çortci-garren Manamenduaz.

- 74 G. *Cein da Jaincoaren çortci-garren manamendua?*  
 I. Lekhucotasun falsoric, eta gueçurric erran ezteçagula. *Edo ber-sutan.* Lekhucotasunic eztuçu, ez hitça erranen falsoqui.
- G. *Cer debecatcen du manamendu hunec?*  
 I. Debecatcen tu bereciqui hirur gauça: 1. Gueçurra. 2. Lekhuco-tasun falsoa. 3. Jujamendu arina edo temerarioa.
- G. *Cer da Gueçurra erraitea?*  
 I. Hura da gogoan duenaren contra minçatcea, erran nahi da, eça-gutcen duen eguiaren contra minçatcea trompatceco edo enga-natceco chedearequin.
- G. *Eguiaren contra minçatcen denac ustez bizquitartean eguia errai-ten duen, gueçurra erraiten du?*  
 I. Ez hala eztena edo falsaqueria bat erraiten du, bainan eztu gue-çurra erraiten.
- G. *Bada denboraric edo okhasioneric gueçurra erraitea cilhegui de-nic?*  
 I. Ez, gueçurraren erraitea ezta behinere cilhegui.
- G. *Ordean gueçurra jostatcea gatic edo axeguin harcea gatic errai-ten duenac bekhatu eguiten du?*  
 I. Bai, orduan ere bethi bekhatu eguiten du.
- G. *Ezda bederen cilhegui gueçur bat erraitea bere lagunari cerbitçu eguiteco?*  
 I. Ez, baldin hari bicia salbatceco erraiten baliz ere.
- G. *Cer da Lekhucotasun falsoa?*  
 I. Hura da justiciara lekhuco deithua denean, han eguia ez errai-tea, edo han eguiaren contra minçatcea.

- G. *Ezta manamendu bunen contra bekhaturic eguiten bat bederac berac lekhu-cotasun falsoa erranez baicen?*
- I. Bai, bekhatu eguiten da oraino laur maneraz. 1. Da, bertcei lekhu-cotasun falsoa erran araciz.
2. Contratu falsoac, edo titulu falsoac eguinez.
3. Gaizqui bat edo crima bat faltaric eztuen innocent baten gain emanez.
4. Accusatua den bati bere defendatceco bide justuac eta çuce-nac khenduz.
- G. *Lekhu-cotasun falsoa nola erran araxten çajotei bercei?*
1. 1. Lehenbicicoriz: eguiaren alde minçatcetic hec guibelatuz.
2. Eguiaren contra hec minçaraztera ensejuac eguinez.
- G. *Lekhu-cotasun falsoa erran duena certara da obligatua?*
- I. Obligatua da haren lekhu-cotasun falsoac lagunari eguin dioen bidegabe guciaren erreparatcera.
- G. *Cer da jujamendu arina edo temerarioa?*
- I. Hura da bere lagunaz funsic asqui gabe gaizqui jujatcea.
- G. *Nor dire jujamendu arinac eguiten dituztenac?*
- I. Hec dire, lehenbicicoric, lagunaren accioneac alde gaichtora har-tcen dituztenac.
2. Bere lagunac aparancia edo iduri falsoen gainean condena-tcen dituztenac.
3. Bere lagunac chede edo intencione gaichtoac dituela frogaric asqui gabe dagocatenac, edo uste dutenac.

## PRATICAC

1. Nola mihia baita ecin erran daitequen beçanbat bekhaturen ithurria, ezdaiteque secular artha sopra har ungui minçatceco.
2. Bere burasoen eta Nausien liscarrac eta cehatceac edo punicioneac lehenago sofritu behar dire, bere buruaren escusatceco gueçur bat erranen den baino.
3. Ezbeça nihorc secular erran disimulazco edo equibocazco hitcic nori ere mintço baitçajo, hequin trompatceco.

## ISTORIOAC

Lekhu-cotasun falsoa Naboten contra errana. 3. *Reg.* 22. v. 8. & *seq.* Bi çaharrec Susannaren contra errana. *Dan.* 13. v. 27. & *seq.* Ananiasen eta Saphiraren gueçurra, eta hequin punicionea. *Act.* 5. v. 1. & *seq.*

## BEDERATCI-GARREN LECCIONEA

Eliça Ama Sainduaren Manamenduez.

- 75 G. *Salbatua isaiteco asqui da Jaincoaren manamenduen beguiratcea?*  
I. Ez, behar dire bertce alde beguiratu Eliça Ama Sainduaren manamenduac, ceren Jesu-Christo gure Jaunac manatu baitarocu hari obedi deçogula.
- G. *Cenbat dire Eliça Ama Sainduaren manamenduac?*  
I. Badire sei.
- G. *Erratçu.*  
I. 1. Igandetan eta Bestetan Meça ossoa entçun detçagula.  
2. Manamenduzco Bestac beguira eta santifica detçagula.  
3. Gure bekhatu guciac urthean behin bederen cofesa detçagula.  
4. Bazcoz bederen Gorphutz Saindua humilqui errecibi detçagula.  
5. Garthac, Bigiliac, eta Gariçuma ossoqui barur detçagula.  
6. Orcilaretan eta larunbatetan haraguiric jan ezdeçagula.

### EDO BERCELA BERSUTAN

Eliça Ama Sainduaren Manamenduac dire hauc.

1. Meça Saindua entçun eçaçu Besta, Igandetan debotqui.
  2. Eta bestac beguira çatçu manamenduzcoac sainduqui.
  3. Bekhatuac cofesa çatçu urthean behin ossoqui.
  4. Gorphutz Saindua errecibi çatçu Bazcoz bedere humilqui.
  5. Gartha, Bigiliac barur çatçu Gariçuma ere ossoqui.
  6. Orcilarean janen eztuçu ez Larunbatean haragui.
- G. *Eliça Ama Sainduac badu bothereric sei hautaz bertce manamenduric eguiteco?*  
i. Bai, Jesu-Christo gure Jaunac eman dio bothere hura, eta manatcen darocu Eliça obedi deçagula hura bera beçala.
- G. *Cer aditcen duçu Eliçac eguin abal detçaquen manamenduez?*  
I. Aditcen tut Arçain buruçaquiuen arthac eta ordenançac Jaincoaren cerbitçuco eta Guiristinoen guidatceco arimaco eguinbidetan.

- G. *Cein dire Arçain buruçagui hec?*  
 I. Hec dire gure Aita-Saindua, eta Jaun Aphezpicuac.
- G. *Cergatic gara obligatuac hec eguiten dituzten leguei eta ordenan-  
 cei obeditecera?*  
 I. Lehenbicoloric, ceren Arçain buruçaguien autoritatea Jesu-Christoren beraren autoritatea baita.  
 2. Ceren, nola Ispiritu Sainduac hec eçarri baititu gure guida-  
 tceco eta gobernatceco, hec baitute bothere leguen eta ordenan-  
 cenen eguiteco.
- G. *Cer penaren azpian gara obligatuac hequin legueac beguiratce-  
 ra?*  
 I. Hequin beguiratcera obligatuac gara bekhatu mortalen penaren  
 azpian materia importante denean.
- G. *Nola behatu behar çajote legue hec materia importantean be-  
 guiratcen ezdituztenei?*  
 I. Pagonei eta Publicanoei beçala.  
*Praticac eta Istorioac lehenbicoloric parteco hamahirur-garren Lec-  
 cionean beçala dire. pag. 58.*

## HAMAR-GARREN LECCIONEA

Eliçaren lehenbicoloric Manamenduaz eta bi-garrenaz.

- 76 G. *Certara obligatcen gaitu Eliça Ama Sainduaren lehenbicoloric ma-  
 namenduac?*  
 I. Obligatcen gaitu Meça Saindua ossoa eta debotqui ençutera Igan-  
 detan eta Bestetan.
- G. *Eliça Ama Sainduac cergatic nabi du Meça entçun deçagun Igan-  
 detan eta Bestetan?*  
 I. Ceren hura baita guiristinotasuneco accioneric sainduena, eta  
 Jaincoa guehienic ohoratcen duena.
- G. *Cein Meça behar da bereciqui entçun?*  
 I. Herrico Meça Nausia eguin ahal beçanbatean.
- G. *Cein dire hartaco exemplua emaitera guehienic obligatuac?*  
 I. Familietaco buruçaguiac, cargu-dunac, eta berce presuna publi-  
 coac.

- G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaren bi-garren manamenduac?*
- I. Obligatcen gaitu manamenduzco Besten sainduqui iragaitera eta pasatcera.
- G. *Nola iragan behar dire Bestac Sainduqui?*
- I. Egun hetan nekhaçale lanic ezta eguin behar, eta egun hec emplegatu edo iragan behar dire Jaincoaren cerbitçuan. *Ikhus çaçu hirur-garren Leccionea Jaincoaren hirur-garren manamenduaren gainean.* pag. 116.
- G. *Cein dire Eliçac beguiratcen dituen Bestaric phuruenac?*
- I. Jesu-Christoren Misterioen ohoratceco ordenatuac direnac; hala dire Eguberri, Trufania, Bazco, Mendecoste, &c.
- G. *Cergatic Eliçac Besta atchiquitcen ditu Jesu-Christo gure Jaunaren misterioen egunac?*
- I. Hirur arroçoin principal gatic. 1. Gu misterio hetaz orhoit araztea gatic.  
2. Jaun harc guretçat eguin dituen gauça handiez guc hari esquerrac eman detçogun gatic.  
3. Misterio bakhotcac berequin dakhartzquen graciaç guri bil araztea gatic.
- G. *Cein dire Eliça Ama Sainduac ordenatu dituen bertce Bestac?*
- I. Ama Birgina sainduarenac, eta bertce sainduenac.
- G. *Eliçac cergatic Besta hec ordenatu ditu?*
- I. Hirur arroçoin principal gatic.  
1. Saindu hequin memoria edo orthoitçapena ohoratcea gatic.  
2. Hequin berthuteac imitatceco guticia guri emaita gatic.  
3. Hequin arartecotasunera guri laster eraguitea gatic.

## PRATICAC

1. Artha handirequin eta ahalic maicena ibil gaitecin Herrico Meça Nausira, aste gucico gure obligacioneac han ikhasteco.
2. Ahalic debocione guehienarequin ohora detçagun Jesu-Christo gure Jaunaren Misterioac eta Birgina Sainduarenac, ceren hec baitire gracia handien ithurriac.
3. Esta behar uste içan Sainduen Bestac direla axeguin harceco egun batçuec; bainan consideratu behar da, Eliçac ezdituela Besta hec ordenatu gu hec beçala saindu içaitera lehiaztea gatic baicen.

## ISTORIOAC

Nolaco debocionearequin eta religionearequin Juduec ohoratcen eta beguiratcen cituzten bere Bestac, hala nola Bazco. *Ezech.* 45. v. 21. & seq. Guiristinoec ahalcatu behar luquete bere Besta egun sainduetan, consideraturic Juduec cein artha handiarequin beguiratcen çuten larunbata, artha haren exemplu bat haguitz particularra agueri den beçala. 1. *Machab.* c. 2. v. 33. & seq. Herrico Eliçan guciec balsan eguiten duten othoitz publicoac cein indar handia duen. *Matth.* 18. v. 20.

## HAMECA-GARREN LECCIONEA

Eliçaren hirur-garren Manamenduaz, eta laur-garrenaz.

- 77 G. *Eliça Ama Sainduac cer manatcen du hirur-garren manamenduaz?*  
I Gure bekhatu guciac urthean behin bedere Aphez aprobathu bati cofesatcea behar diren dispoçionequin.
- G. *Cein denboraz eguin behar da cofesione hura?*  
I. Eliça Ama Sainduac ezduelatic arren denbora bereci bat hartacotz ordenatu, conbeni da cofesione hura eguin deçagun Bazcoz.
- G. *Norequin behar da orduan cofesatu?*  
I. Nor bere Errotorearequin, edo bertce Aphez batequin, bere Errotorearen edo bere Jaun Aphezpicuaren nahiarequin edo consentimenduarequin batean.
- G. *Bere salbamendua maite duen Guiristino bat contentatcen da urthean behin cofesatceaz?*  
I. Ez, eta hala eguiten dutenac seculacotz galduac içaiteco arriscu handitan dire.
- G. *Cer eguin behar du bada salbatua içaiteco eguiaczo guticia edo desira duen guiristino batec?*  
I. Bi-gauça, lehena da, ahalic lasterrena cofesatcea, cenbait bekhatu mortaletan erorceco asqui dohacabe içatu denean.  
2. Da, urtheco Besta buruetan edo principaletan bedere cofesatcea.
- G. *Haurrac cer adinetan dire cofesatcera obligatuac?*  
I. Jaincoa bekhatu mortal batez ofensatceco gai direnean.

- G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaco laur-garren manamenduac?*
- I. Adimenduaren adina ardietsi duten guiristino guciac obligatcen tu, urthean behin bederen Bazcoz Gorphutz Saindua errecibitcera.
- G. *Non eguin behar da Comunione Saindu hura?*
- I. Bat bedera dagoen Herrian, baldin ezbadu bercetan errecibitceco permissionea aiticindarien edo Superioren ganic.
- G. *Haurrec cer adinetan behar dute Gorphutz Saindua errecibitu?*
- I. Bere Arçainec edo aiticindariec hartaco gai causitcen dituztenean.
- G. *Eliça Ama Sainduac cer penaz mebatchatcen ditu Bazcoz comuniatcen ezdutenac?*
- I. Lehenbiceroric, Eliçan sarcea debecatuco diotela, manamendu hau complitu duqueten artean.  
Bi-garrenecoric, Guiristinoen sepulturaric lur sainduan ezdutela içanen, baldin manamendu hau complitu gabe hilcen badire.
- G. *Bazcoz comuniatceco manamendua complitcen da Comunione Sacrilegio bat eguinez?*
- I. Ez, manamendua nondic complituco den ecen Sacrilegio icigarri bat eguiten da.
- G. *Eliça Ama Sainduac cergatic Bazco denbora hautatu du guiristinoec orduan comuniatceco?*
- I. Ceren orduan baita denbora, Misterioric handienen orhoitçapena edo memoria Eliçac erreberritcen duena, eta ceren Gariçumac preparatu behar içan baititu guiristinoac accione hain saindu bat ungui eguitera.

## PRATICAC

1. Arimaco eritasunen sendatceco içan deçagun gorphutcecoen sendatceco dugun artha bera.
2. Gorphutceco janhariençat dugun baino artha eta lehia gu-tiago ezdeçagun içan arimaco janhariarençat, ceina baita Jesu-Christo Gorphutz Sainduaren Sacramenduan.
3. Tentacioneac maiz içaiten dituenac laster eguin beça maiz cofesionera, eta Comunione Saindura, tentacionen garaitceco graciaren eta indarraren ardiesteco.

## ISTORIOAC

Lehenbico guiristinoen exemplua, ceinez Jondoni Pauloc baitio, maiz bilcen cirela elkhar gana, eta elkharrequin jaten çutela Eucharistiaco Oguia, erran nahi da, Comunione Sainduan errecibitcen çutela Jesu-Christoren Gorphutça eta odola. *Act. 2. v. 42.* Jondoni Pauloren liscarrac Corinthaco Eliçaco guiristino batçuei, ceinec hain usança saindu batez artha guti içanic, eguiten baitcituzten othurunça alfer batçuec, ceinetan caritatea ez baitcen guehiago behatua eta beguiratua. *1. Cor. 11. v. 20. & seq.*

## HAMABI-GARREN LECCIONEA

Eliça Ama Sainduaren bortz-garren eta sei-garren Manamenduez.

- 78 G. *Cer manatcen du Eliçaren bortz-garren manamenduac?*  
I. Barur gaitecila Gariçuman, gartha denboretan, eta Eliçac manatcen duen Besta Bezperetan.
- G. *Gariçumaco barura certaco içan da ordenatua?*  
I. Jesu-Christo gure Jaunac Desertuan eguin çuen baruraren ohoratceco, eta Bazco Bestara gu prepara arazteco.
- G. *Gartha denboraco barura cergatic ordenatua da?*  
I. Lehenbicoric, sasoin guciac penitenciaric consecretceco. Bi-garrenecoric, Eliçaco Ministro sainduac Jaincoari galdeguitceco.
- G. *Besta bezperetaco barura certaco da ordenatua?*  
I. Besta hec debocione guehiagorequin beguiratcera eta santificatcera gu preparatcea gatic.
- G. *Eliçac manatcen duen beçala barurceco cer eguin behar da?*  
I. Lehenbicoric, ezta hartu behar egun hetacotz debecatuaç diren janharietaric. Bi-garrenecoric, ezta eguin behar othurunça bat baicic eta hura egu-erdiren inguruan, eta arraxean ezta eguin behar colacione arin bat baicic, eta hura guti hazten duten janharietaric.
- G. *Eliçaren lehenbico mendetan horla barurcen ciren?*  
I. Orduan etçuten eguiten othurunça bakhar bat baicic eta hura arraxaren inguruan; bainan Eliçac bere chedea eta ispiritua aldatu gabe hersitasun hartaric gutitu du bere umen flacotasuna urricalduric.



- 79 G. *Cer adinetan gara obligatuac barurcera?*  
 I. Hogoï urthe complituac ditugunean, baldin ezbadugu arroçoin onic eta legitimoric ez barurceco.
- G. *Ez barurceco cenbait arroçoin on eta legitimo badutela uste dutenec cer eguin behar dute?*  
 I. Bere Errotorei edo bere Cofesorei conseilu galdeguin behar diote.
- G. *Hogoï urthe içan artea egon behar da barursen hasi gabe?*  
 I. Ez, on da lehenago barurcen usatcea, urthean eta Gariçuman cenbait aldiz barurtuz.
- G. *Çaharrac cer adinetan eztire guebiago obligatuac barurcera?*  
 I. Ezta adin edo denbora marcatuic hortacotz, badire maiz çahar batçuec cenbait gazte baino sendoagoac, bainan hec eçagutu behar tuzte bere indarrac, eta conseilu galdeguin behar diote bere Cofesorei edo bere Errotorei.
- G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaren sei-garren manamenduac?*  
 I. Orcilaretan, larunbatetan, eta Eliça manatcen duen bertce egunetan urinic eta haraguiric ez jatera.
- G. *Eliçac cergatic manatu du orcilaretan eta larunbatetan haraguiric ez jatea?*  
 I. 1. Jesu-Christo gure Jauna hil cen eguna eta thomban egon cena ohoratceco.  
 2. Gure preparatceco sainduqui pasatcera Igandea, ceina baita Jaunaren eguna.
- G. *Eri dena, edo aldi-gaitz duena obligatua da abstinencia eguitera edo haraguiric ez jatera?*  
 I. Ez, bainan haragui jateco permisioneac galdetu behar çajote Eliçaco Aitcindariei, arinqui permetitcen ezduen miricu bati conseilu galdeturic.

## PRATICAC

1. Errespetu handi bat içan deçagun barura manatcen duen le-guearençat, eta ezdeçagun behinere hauts necesitate edo premia handi bat gabe.
2. Barurac santifica detçagun bekhatuari eta axeguinei ihes eguinez, eta othoitçac eta amoinac eguinez.
3. Barur egunetan othuruncen ondoan ezdeçagun edan arnoric ez bertce edariric, oraico mendean hainitcec escrupuluric gabe edaten duten beçala.

## ISTORIOAC

Leguea errecibitu baino lehen Moïsec eguin çuen barura. *Deut.* 9. v. 9. Eliasen barura, 3. *Reg.* 19. v. 8. Jesu-Christo gure Jaunaren barura. *Matth.* 4. v. 1. & seq.

## HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA

Eliçaren Manamenduen seguida.

- 80 G *Eliça Ama Sainduac eguin du aitcin hontan esplicatu diren sei manamenduez bertce manamenduric?*
- I. Bai, eguin tu bertce cenbait manamendu.
- G. *Erraçu principaletaric cenbait.*
- I. Hetaric bat da, escumicatu declaratuac direnei ihes eguitea, eta comunicacioneric hequin ez içaitea.
- G. *Badire beraz escumicatu bi suerte?*
- I. Bai, escumicatu batçuec badire declaratuac eta publicatuac, eta bertce batçuec badire declaratuac ezdirenac.
- G. *Cer aditcen duçu escumicatu declaratuez?*
- I. Hec dire, Eliçaco Aitcindariec edo hequin manuz norbaitec guiristinoei escumicatuçat bere icenaz icendaturic declaratu eta publicatu diozcatenac.
- G. *Cein dire escumicatu declaratuac ezdirenac?*
- I. Hec dire bere icenaz icendaturic escumicatuac direla declaratuac eta publicatuac içan ezdirenac, hec direlaric arren eguiazqui Jaincoaren aitcinean escumicatuac.
- G. *Explica çaçu orai dioçuna cenbait exempluz.*
- I. Comparacionera, accione choilaz erorcenden escumicuaren penaren azpian debeatuac diren liburuac permisioneric gabe irarcurcen edo banatcen dituztenac escumicu diren declaratuac içan gabe.
- G. *Escumicatu declaratuac ezdirenequin içan deçaquegu comunicacioneric?*
- I. Bai, cenbait casuz campoan, ceinetan Legue Dibinoaz eta naturalaz obligatuac baicara hei ihes eguitera.

- G. *Cein dire casu hec, hei ere ihes eguitecoac?*  
 I. Lehena da, Noiz ere baita arriscu hequin exempluec eta hequin solasec bekhatu eraguinen darocutela.  
 Bi-garrena da, Noiz ere guc hequin hantatceac escandala eman baileçaque.

*Praticac eta Istorioac lehenbico parteco hamahirur-garren leccionean beçala dire, pag. 58.*

## HAMALAU-GARREN LECCIONEAN

Escritura Sainduaz eta tradicioneaz.

- 81 G. *Non causitcen dira Jaincoac irakhatsi dituen eta Eliçac irakhasten dorozquigun eta sinhets detçagula manatcen gaituen misterioac?*  
 I. Escritura Sainduan eta tradicionean.  
 G. *Cer aditcen duçu Escritura Sainduaz?*  
 I. Hec dire liburu batçuec Ispiritu Sainduaren inspiracionez isquiribatuac gure instruitceco.  
 G. *Cenbat parte dire Escritura Sainduan?*  
 I. Bia, Testament çaharra, eta Testament berria.  
 G. *Cer da Testament çaharra?*  
 I. Hec dire Jesu-Christo ethorri baino lehen isquiribatuac içan diren liburu sainduac, ceinetan aiticnetic aiphatuac eta declaratuac içan baitire Jaun haren ethorcea eta haren heriotcea.  
 G. *Cer da Testament berria?*  
 I. Hec dire Jesu-Christo ethorritz gueroz haren Dicipulu isquiribatu dituzten liburu sainduac.  
 G. *Cer causitcen da Testament berrico liburu sainduetan?*  
 I. 1. Jesu-Christoren bicitcea eta haren manamenduac, eta hori deitcen da haren Evangelioa.  
 2. Eta haren Dicipuluac isquiribatu dutena guiristinoen instruitceco.  
 G. *Cer erran nahi da hitz hau, Evangelioa?*  
 I. Erran nahi da, berri ona eta agradagarria.  
 G. *Cergatic icen hori emaiten diote?*  
 I. Ceren harc emaiten baitarocu gure Salbatçailearen sorcearen be-

rri agradagarria, eta gure dohaxutasunecotz handic seguitu diren misterio guciena.

- 82 G. *Escritura Sainduari cer diogu çor?*  
I. Liburu Saindu hei ekharri behar diotegu errespetu bat ahala handia, eta han causitcen diren gauça guciac sinhestera obligatuac gara.
- G. *Cergatic sinhexi behar tugu han diren gauça guciac?*  
I. Ceren hura baita Jaincoaren beraren hitça, ceinac ecin trompa baitcaitçaque.
- G. *Eztugu deus sinhetsi behar liburu saindu hetan irakhatsia dena baicic?*  
I. Bai, sinhetsi behar dugu halaber Apostoluec ahoz irakhatsi dutena, eta Eliçan bethi sinhetsia içatu dena.
- G. *Nola deitcen da Apostoluec hitcez edo ahoz irakhatsi duten Doctrina?*  
I. Hura deitcen da, Jaincoaren hitça isquiribatu gabea, edo bercela tradicionea.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau, Tradicionea?*  
I. Erran nahi da, Apostoluetaric gure ganaino escutic escura beçala emana içatu den Doctrina bat.
- G. *Nola eçagutcen tugu eguiazco Escritura Sainduac, eta errecibitu behar diren tradicionenac?*  
I. Eliça Ama sainduaren lekhucotasunaz eta jujamenduaz.
- G. *Escritura Sainduan edo tradicionen cenbait itsutasun edo ilhuntasun causitcen denean, norc du haren esplicitceco eta jujatceco indarra eta çucena?*  
I. Eliça Ama Sainduac, ceina hartaracotz cerbitçatcen baita Aita Sainduaren eta Aphezpicuen ministerioaz.
- G. *Escritura Saindua nola behar da iracurri?*  
I. Iracurri behar da errespeturequin, Eliçaren autoritatearen azpian, eta harc jujatcen duena sinhesteco chedeian.

## PRATICAC

1. Igande Bestetan cenbait denbora emplega deçagun Escritura Saindutic cerbaiten iracurcen edo norbaiti iracur arazten.

2. Gure Arçainari edo Cofesorari conseilu galde deçogun jaquiteco Escritura Sainduco cein liburu iracurri behar dugun hobequenic aditceco eta probetchatceco.

3. Escritura Sainduco hitçac ezdetçagun secular erabil trufaque-  
rietan, edo berce cerbait horrelaco gaucetan.

## ISTORIOAC

Juduec bere consolacionea liburu sainduetan aurkhitzen çuten, afliccioneric guehien çuten denboretan. 1. *Machab.* 12. v. 9. Ethiopiaco Erreginaren Officialea conbertitua içan cen Isaïasen liburua iracur-  
cen cen (sic) hari cela, *Act.* 8. v. 27. & *seq.* Behar diren disposicione-  
quin Escritura saindua iracurcen ezdutenec, lehenago han causitcen  
dute heriotcea, bicitcea baino, 2. *Epist. s. Petri cap.* 3. v. 16.

## HAMABORTZ-GARREN LECCIONEA

Bekhatuez generalqui.

- 83 G. *Cer da Bekhatua?*  
I. Bekhatua da Jaincoaren legueari ez obeditcea.  
G. *Cenbat bekhatu suerte dira?*  
I. Badire bi suerte, Originala, eta Actuala.  
G. *Cer da bekhatu Originala?*  
I. Hura da bekhatu bat, ceinarequin concebitcen baicara, eta ceinaz  
gure lehenbico Aita Adamec eguin baicaitu faltaduri Jaincoari  
ez obeditceaz.  
*Ikhus çaçu lehen partea çazpi-garren Leccionean, pag. 44.*  
G. *Cer da bekhatu Actuala?*  
I. Hura da gueroc guere nahitara eguiten dugun bekhatua adimen-  
duaren adinera heldu garen ondoan.  
G. *Cenbat guisatara eguiten da bekhatu Actuala?*  
I. Laur guisatara, gogoz, hitcez, accionez edo obraz, eta hutz egui-  
nez edo omissionez.  
G. *Cer erran nahi da, hutz eguinez edo omissionez?*  
I. Erran nahi da, eguin behar guinuena, eta eguin ahal gueneça-  
quena ez eguinez; comparacionera, Igande batez edo Besta ba-  
tez Meça ençun gabe egonez.  
G. *Cenbat bekhatu Actual suerte dire?*  
I. Badire bi suerte, bekhatu Mortala, eta Beniala.

G. *Cer da bekhatu Mortala?*

I Hura da bekhatu bat, ceinac gal arazten baitarocu Jaincoaren gracia saindutzen gaituena, eta mereci arazten baitarocu seculaco Ifernua.

84 G. *Bekhatua noiz da mortala?*

I. Noiz ere materia handia baita, eta borondate osso eta perfet ba-tequin eguiten baitugu.

G. *Bekhatu hura cergatic deitzen dute mortala?*

I. Lehenbiceroric, ceren mereci baitu Ifernua, ceina deitzen baita heriotce eternala. Bi-garrenecoric, ceren heriotcea emaiten baitio gure arimari.

G. *Cein nahi bekhatu mortalec merecitzen du Ifernua?*

I. Bai, eta ezta bekhatu mortal bat choila baicic behar Ifernua merecitceco.

G. *Gure arima imortala eta ecin hil daitequena denaz gueroz, bekhatuac nola emaiten dio heriotcea?*

I. Arimari gal arazten baitio gracia saindutzen gaituena, ceina baita arimaren bicia.

G. *Cein dire arimaren heriotce horren seguidac edo efetuac?*

I Lehenbiceroric, arima eguiten da Jaincoaren etsai, eta haren colera bere gana ekhar arazten du.

Bi-garrenecoric, Deabruaren escuetan jarcen da.

Hirur-garrenecoric, lehen egin dituen obra onen merecimendua galcen du.

G. *Bere bicia penitencian, eta obra onen eguiten iragan duenac bequin merecimendua gal leçaque bekhatu mortal choil batez?*

I. Bai, ceren bekhatu mortal bat eguitean, Jaincoaren etsai bihurcen baita.

G. *Beraz bekhatu mortala gaizqui handia da?*

I. Bai, hura da gaitz gucietaric handiena.

G. *Bekhatu mortalac ossoqui khencen gaitu sainduen comunionic?*

I. Ez, Sainduen comunionic ezgaitu ossoqui khencen escumicuac baicen.

#### PRATICAC

1. Egun guciez Jaincoari galde deçogun gracia lehenago hilceco ere, bekhatu mortal bat eguinen dugun baino.

2. Compania gaichtoei, eta bekhatu eguiteco okhasione guciei ihes eguin deçotegun.

3. Bekhatu benialei ere ihes eguin deçotegun, ceren hec bekhatu mortaletara disosatcen baicaituzte.

## ISTORIOAC

Aingueruen baithan bekhatua nola içan cen punitua, *Isaïae* 14. Gure lehenbico burasoen bekhatua punitua, *Gen. 3. v. 8. & seq.* Gure bekhatuac Jesu-Christo bera baithan nola içan diren punituac. Erran behar da nolacoac içan diren haren sofricariac haren Passione sainduaren denboran.

## LECCIONE BERAREN SEGUIDA

Bekhatu Benialaz.

- 85 G. *Cer da bekhatu beniala?*
- I. Hura da bekhatu bat, ceinac gal arazten eztarocularic arren Jaincoaren gracia saindutcen gaituena, halaric ere hozten eta flacatcen baitu gracia hura gure baithan, eta mercei arazten baitarozquigu denbora batetaco penac.
- G. *Noiz ezta bekhatua benial baicic?*
- I. Noiz ere materia chumea baita, edo ez baitugu gure consentimendua ossoqui emaiten.
- G. *Emaçu horren exemplu cenbait.*
- I. Impaciencia arin bat bekhatu benial da, ceren materia chumea baita; fedearen contraco gogoeta edo phensamendu bat ere ezta bekhatu benial baicic, noiz ere ezbaicara hartan guelditu edo tricatu borondate osso batequin.
- G. *Bekhatu benialarençat ikhara handia içan behar da?*
- I. Bai, ecen hobe laiteque mundu gucia gal ledin, ecen ez bekhatu benial choil bat bere nahitara eguitea.
- G. *Cergatic içan behar da bekhatu benialarençat hain ikhara handia?*
- I. Ceren bekhatuac den arinenac Jaincoa ofensatcen baitu, eta Jaincoaren ofensa baita gaitz gucietan den handiena.

- G. *Jaincoac cer penaz punitcen du bekhatu beniala mundu huntan?*  
 I. Afliccionez, eta batçuetan heriotceaz ere bai.
- G. *Jaincoac nola punitcen du bekhatu beniala bertce munduan?*  
 I. Purgatorioco penez, eta eternitateco dohaxutasuna beranduz.

#### PRATICAC

1. Ohoit gaitecin bekhatu benialaz acholaric ezduena laster erorico dela bekhatu mortalean.

2. Bekhatu benialarençat ikharan egon gaitecin, ceren hura içanen baita menturaz gure damnacionearen edo erreprobacionearen hastea.

3. Bekhatu benialaren eguiteco tentatuac garenean considera deçagun, Purgatorioco penac, ceinez Jaincoac hura punitcen baitu, handiangoac eta minangoac direla mundu huntan sofri ahal daitezquen guciac baino.

#### ISTORIOAC

Moises eta Aaron lur prometatuan etciren sarthu, ceren fidancia escas arin bat içan çuten, *Num. cap. 20*. Lothen emastea gatezco figura batetara bihurtua içan cen, ceren choilqui guibelat behatu çuen Aingueruac debeatu cioenaren contra, *Gen. 19. v. 26*. Bethsamitetic berrogo eta hamar mila baino guehiago hil araciac içan ciren, ceren Arcari behatu cioten cenbait curiosasunequin, *1. Reg. cap. 6. v. 19*.

#### HAMASEI-GARREN LECCIONEA

Bekhatu capitalez edo buruçaguietz. Orguïluaz.

- 86 G. *Cenbat dire bekhatu capitalac?*  
 I. Badire çazpi: 1. Orguïlua, 2. Abaricioa, 3. Luxurioa edo Lohiqueria, 4. Inbidia, 5. Gormandiça, 6. Colera edo Hasarredura, eta 7. Alferqueria.
- G. *Cergatic bekhatu horiec deitcen tuçu Capitalac edo Buruçaguiac?*  
 I. Ceren horiec baitire bertce bekhatu gucien ithurriac eta ethorquiac.



- G. *Cer da Orguilua?*
- I. Orguilua da bat bederac bere buruarençat duen amodio soberaniazcoa, ceinac emaiten baitio bere baithan fidancia, eta berceac baino guehiago bere burua atchic arazten baitio eta estima arazten.
- G. *Cein dire Orguilutic maicenic heldu diren bicioac?*
- I. Badire çazpi: Norc bere buruaren estimua, presumcionea edo fidancia sobratua, lagunaren mesprecioa, banitatea, ambicionea, edo gora nahia, hipocrisia edo aleguia prestu, eta ez obeditcea.
- G. *Cein da Orguiluari contra eguiten dioen berthutea?*
- I. Humiltasuna, edo humilitatea.
- G. *Humiltasuna necesario da salbatua içaiteco?*
- I. Bai, eta hura gabe ecin içan gaitezque salbatuac.
- 87 G. *Pobrei hainitz emaiten diotena eta penitencia handiac eguiten dituen, ezta bada salbatua içanen?*
- I. Ez, baldin ezbadu humiltasunic, eta baldin berac eguiten dituen obra onetaric orguilua haren badu.
- G. *Gure obra onetan fidanciaric har deçaquegu?*
- I. Gure fidancia gucia içan behar da Jesu-Christoren merecimentuetan, eta gure miseriaren aithorcean.
- G. *Cein dire humiltasunaren seguidac edo efetuac?*
- I. Norc bere burua mespreçatcea; bere burua goratu nahiz eta erakhutsi nahiz ez ibilcea: nihor ez mespreçatcea: mundu guciari gogotic obeditcea eta amor emaitea.
- G. *Cer arroçoin dugu orguiluari ibes eguiteco, eta humiltasunari jarraiquitceco?*
- I. Huna hirur arroçoin :
1. Jaincoac orguilusençat duen higuinça handia.
  2. Jesu-Christoren exemplua, ceinac mundu huntan hautatu içan baitu bicitce humil bat.
  3. Mundu guciac orguilusez eguiten duen mesprecioa eta trufac.
- G. *Jaincoac behinere orguilusac mundu huntan berean punitcen tu?*
- I. Bai, hec cenbait bekhatu ahalcagarrietan eror daitecin, edo cenbait humiliacione handi ethor daquien permetituz.

## PRATICAC

1. Ez gaitecin seculan banitatez minça guere buruez, ez guri uquitcen çaiçquigun gaucez, nola baitire gure ahaideac, gure ontasunac, gure obra onac, &c.
2. Nihortaz ezdeçagun eguin mesprecioric, ez trufaric ere.
3. Utz deçagun munduco genden aphaindurac, eta berreguinçe sçbratuac, ceinac ezbaitire banitatearen atchiquitceco baicic.

## ISTORIOAC

Lehenbico Ainguerua nola erori cen, *Isaia* 14. v. 13 & seq. Amanen eta Estherren Istorioa causitcen da *Lib. Esth. cap.* 3. 6. & 7. Nabuchodonosor içan cen bestia batetara aldatua eta bihurtua bere orguiluaren punicionetan, *Daniel c.* 4. v. 21. & seq. Herodez harrec biciric jan çuten, *Act.* 12. v. 23.

## HAMAÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Abaricioaz, Lohiqueriaz, eta Inbidiaz.

- 88 G. *Cer da Abaricioa?*
- I. Abaricioa da mundu huntaco ontasunençat eta bereciqui dirua-rençat dugun amodio soberaniazcoa eta estecamendua.
- G. *Cein dire abariciotic heldu diren seguida gaichtoac?*
- I. Badire bortz principalac.
    1. Da aberastea gatic gueçurraz eta tromperiaz baliatcea.
    2. Ontasun bilcen bere salbamendua ahanciric-ere haritcea.
    3. Ontasun bilcen haritcea gatic sopra chuhur içaita eta bere buruari gauça necesarioac ere sobrestea eta errefusatcea.
    4. Amoina ez eguita eguin ahal deçaquelaric.
    5. Berceren ontasuna injustuqui harcea edo atchiquitcea.
- G. *Bekhatu hortan ez erorceco cer eguin behar da?*
- I. Lehenbicoric: Egunean egunecoaz, gauça necesarioez contentatu behar dugu, abundancian eta francancian injustuqui jarrico garen baino lehen.  
Bi-garrenecoric: Gure indarren arabera pobrei eman ahal deçoquegutena, noblequi eta liberalqui eman deçotegun.

## LUXURIOAZ EDO LOHIQUERIAZ

- 89 G. *Cer da luxuria edo lohiqueria?*
- I. Hura da castitatearen contraco axeguinęat ıçaiten den lehia, guticia, edo amodio itsua eta çucen contracoa.
- G. *Bekbatu hau certaric heldu da maicenic?*
- I. Borz gaçataric principalqui.
1. Sobre edo gustu sobrarequin jatea eta edatea.
  2. Guiçonquieç emaztequiac, eta emaztequieç guiçonquiac libroquiegui eta familiertasun sobrarequin hantatcea, edo elkharren artean adisquidetasun samurrequiac ıçaita.
  3. Hitz libroeguiac erraita, canta libroeguiac cantatcea, edo hequin aditcez axeguin harcea.
  4. Romanac, comediac, edo berce cenbait liburu amodioz minço denic iracurcea.
  5. Alfer egoitea.
- G. *Ezta berce cerbait gauça nescatchec bereciqui ihes eguin behar diotenic, bekbatu huni ihes eguiteco?*
1. Bai, lehena da, erguelqui beztituac ibilcea, eta aguertu nahi ıçaita.
  2. Da, modestia gutirequin beztituac eta cofiatuac ıçaita.
- G. *Bekbatu hunençat higuinça handia behar dugu ıçan?*
- I. Bai, ceren hunec presuna galcen eta corrupitcen baitu bere gorphutcean, bere ariman, eta bere faman.

## INBIDIAZ

- 90 G. *Cer da inbidia?*
- I. Inbidia da gure lagunaren ontasunaz damu ıçaita, harenac gurea gutitcen balu beçala.
- G. *Cein dire inbidiaren seguidac?*
- I. Lehena da bere lagunaren fama edo credita gutitu nahi ıçaita, hartaz gaizqui minçatuz.
2. Berceac gure lagunaz gaizqui minço direnean, hartan axequin harcea.
  3. Hari gaitcic heldu çajoenean, hartaz axeguin ıçaita.
  4. Haren accionei sensu gaichto bat errachqui emaita.

## PRATICAC

1. Ihes eguin deçotegun dançari, balei, comediei, eta arriscuzco compainiei, ceinac baitire garbitasunaren galceco bideac.
2. Guignonquieç eta emaztequieç ezbeçate elkhar libroquiegui hanta.
3. Gomendatu behar çajote nescatcha chumei ezdaitecila joco inocentetan ere joca muthilco chumequin.

## ISTORIOAC

Abaricioaz, Giezi punitua, 4. *Reg. c. 5. v. 20 & seq.* Judasen heriotce dohacabea, *Matt. 27. v. 5. Act. 1. v. 18.* Lohiqueria punitua uholdeaz, *Gen. cap. 6.* Sodoma eta Gomorra erreac, *cap. 19.* Jaincoac bekhatu hura punitcen du bere adisquideric maitenen gainean, *David. 2. Reg. 11. & 12.* Samson Dalilac trompatu çuen, *Judic. 16.* Inbidiaz Caïneç cer eguin çuen Abelen contra, *Gen. 4.* Josephen anajec eguin çutena, *cap. 37.* Judueç inbidiaz cer eguin çuten Jesu-Christoren contra, *Matt. 27. & 28.*

## HEMEÇORCI-GARREN LECCIONEA

Gormandiçaz.

- 91 G. *Cer da Gormandiça?*  
I. Gormandiça da edateco eta jateco guticia eta lehia sobratua.  
G. *Cenbat gormandiça suerte dire maicenic eguiten direnac?*  
I. Badire hirur.  
1. Sobre edatea eta jatea.  
2. Janhariac sobera bere gustucoac eta garastieguiac bilhatcea.  
3. Barurac haustea, eta Eliçac debecatcen duen egunetan haragui jatea.  
G. *Cein da gormandiça maicenic eguiten dena eta perilosena?*  
I. Hura da horditcea.  
G. *Cein dire hordiqueriaren seguida ikharagarrienac?*  
I. Hec dire, adimenduaren tontodura bruitac phiztea, eta lohiqueria edo luxurioa.

G. *Hordiqueria bekhatu handia da?*

I. Bai, Jaincoac eta guiçonec ere higuinça handi bat dute hordiençat.

G. *Cein da hordiqueriaren punicionea?*

I. Bertce munduan su bat eta egarsu bat eternitate gucian iraunen dutenac; eta mundu huntan bihotçaren gogortasuna, mundu huntaco ontasunen galcea, eta maiz heriotce ikharagarri bat.

#### FRATICAC

1. Usa gaitecin ez edaten eta ez jaten behinere axeguin choila gatic.

2. Ezdetçagun berceac behinere borcha edatera, eta ostatuei ihes eguin deçotegun.

3. Errachqui horditcen bagara, eman deçogun ur hainitz ar-noari.

#### ISTORIOAC

Esaren gormandiça punitua, *Gen. c. 25 & 26*. Israeliten gormandiça desertuan punitua, ceren mana baino nahiago içan çuten haraguia, *Num. c. 11. & Ps. 77. v. 29. & seq.* Gormandiçaç Idolatriara nola eror araci cituen, *Exod. c. 23. v. 6*. Holoferno hordia cen denboran hil çuen emazte batec *Judith. c. 13. v. 4. & seq.* Balthasarrec othurrunça handi batean cegoelariç ikhusi çuen escu bat, ceinac isquiribatcen baitçuen haren heriotcearen arresta, *Dan. cap. 5*.

#### HEMERETCI-GARREN LECCIONEA

Coleraz, eta Alferqueriaz.

92 G. *Cer da colera edo hasarredura?*

I. Hura da arimaren bicitasun handi bat, ceinac lehiazten baicaitu mendecatcera bercec eguin darozquiguten injurioez, gaizquiez eta bidegabez.

G. *Cein dire coleraren seguidac?*

I. Badire bereciqui laur.

1. Da bercen ganic errecibitu ditugula uste dugun injurioez eta gaizquiez cenbait khiretsequin gogoetan egoitea.
  2. Da injuriozco eta mespreciozco hitçac erraitea.
  3. Da lagunari colpe emaita, nola nahi eman daquion.
  4. Da okhasionea ethorcen denean mendecatceco gogoia eta chedea içaitea.
- G. *Norbaiti coleraz injurioac erran, colpe eman, edo cenbait gaizqui eguin dioena certara da obligatua?*
- I. Hari barkhamendu edo escusa galdeguitera, hari eguin dioen bidegabearen erreparatcera, eta harequin baquetcera.
- G. *Ordean baldin hari berari bere etsajec gaizqui cenbait eguin badiote, certara da hura obligatua?*
- I. Barkhatcera, errachqui baquetcera, eta oraino bere etsajac maitatcera ere.
- G. *Obligacione hori haguitz handia da bada?*
- I. Bai, eta hori complitu gabe ecin salba daiteque nihor.
- G. *Norc ere erraiten baitu, nere etsajari ezdiot gaitcic nabi, barkhatcen diot, bainan ezdut hura ikhusi nabi, ezdut hartaz minçatcen aditu nabi, haina salbatua içanen othe da?*
- I. Ez, ceren harc ezbaitu maite bere etsaja, eta baldin hura maite balu, ezlaiteque horrela minça.
- G. *Gure etsajen maitatce horrec certara obligatcen gaitu?*
- I. Hirur gaucetara,
    1. Da hec atchiquitcea Jesu-Christo baithan gure anajac beçala.
    2. Da genden arteco eguinbideac hei eguitea, ceinac baitire hec salutatcea edo agur eguitea, hei minçatcea, &c.
    3. Da okhasionetan hei ungui eguitea.
- G. *Cein dire bekkatu hunen contraco erremedioac?*
- I.
    1. Da herraren lehenbico gogoetac eta sentimenduac berehala khencea.
    2. Da gauça gucietan emetasun handi batequin minçatcen eta eguiten usatcea.
    3. Hasarre denean edo coleran denean deusen eguitemo gogoric behinere ez harcea.

## ALFERQUERIAZ

### 93 G. *Cer da Alferqueria?*

I. Alferqueria da Jaincoaren gaucençat eta gure estatuco eguinbi-  
dençat dugun higuinça edo naguitasun bat.

### G. *Cer aditcen duçu gure estatuco eguinbidez?*

I. Aditcen tut bat bederari bera den estatuac emaiten diozcan obli-  
gacioneac; comparacionera, haur batec ikhasten hari behar du,  
sehi batec bere nausia cerbitçatu eta obeditu behar du, &c.

### G. *Cein dire alferqueriaren seguidac?*

I. Badire bortz.

1. Da denbora hainitz pasatcea Jaincoac eta bere salbamenduaz  
orhoitu gabe.
2. Da artharic ez içaitea instruccionetara ibilceco, Sacramen-  
duen errecibitceco, obra onen eguiteco, eta pietatera daron-  
saten gaucetaco.
3. Da denboraren galcea jocoan, edo josteta alferretan.
4. Da ohean denbora sobra egoitea.
5. Da bere estatuco lanez eta eguinbidez artharic ez içaitea.

## PRATICAC

1. Ken detçagun egun orozco impaciencia chume guciac, eta  
cenbait halacotan erorcen garenean, eguin deçagun cenbait penitencia,  
nola baitire lurrari musu emaitea, pobrei cerbaiten emaitea, &c.

2. Norbaitequin hasarretu garenean edo cenbait bizcambia içan  
dugunean, baque gaitecin harequin egun hartan berean, ezguinelaric  
arren guc faltaric.

3. Eguneco momentu huts guciac edo astia dugun denbora gu-  
ciac emplega detçagun debocinozco liburu cenbaiten iracurcen, medi-  
tacione cenbaiten eguiten, edo caritatezco bertce cenbait obretan, al-  
ferqueriari ihes eguitea gatic.

## ISTORIOAC

Jacobec nahiago içan çuen bere Aitaren etchetic ihesi joen bere  
anaja Esaturen colerari ihes eguiteco, ecen ez mendecu gaichto baten  
okhasionean hura utci. *Gen. c. 28.* Semei gaizquica cegocon denboran

Davitec harençat içan çuen emetasuna 2. *Reg. c. 16. v. 5. & seq.* Colerac certarainocoan ekharri çuen Saül Daviten contra 1. *Reg. v. 18.* eta Nabucodonosor hirur haurren contra, ceinec ezbaizçuten adöratu nahi içan Idola. *Dan. 3. v. 13. & seq.* Alferqueriaren gainean, Birginen Parabola eta hamar talentuena, *Matth. c. 18.*

## HOGOI-GARREN LECCIONEA

Escandalaz.

94 G. *Cer da escandala?*

I. Escandala da hitz bat, accione bat, edo hutz edo omisione bat, hura eçagutcen dutenac bekhatura dakhartzquena.

G. *Cenbat guisatara emaiten da escandala?*

I. Laur guisatara.

1. Jaincoa ofensatuz norbaiten aitcinean, eta hainari bide hartaz harc berac ere Jaincoac ofensatceco exemplua emanez.

2. Lagunari Jaincoaren ofensatcen irakhatsiz hala eguin leçaque comparacionera haur bati ebasten edo hitz liçunen erraiten irakhasten lioquenac.

3. Ebasteco, gueçur erraiteco, edo bertce cenbait gaizqui eguitemo conseilu emanez.

4. Jaincoaren ofensatceco okhasionea norbaiti emanez, hala eguiten dute erretaula desonhestac beguiratcen dituztenec, guiristinotasunaren edo castitatearen edo garbitasunaren contra miñçatcen direnec, modestiaric gabe beztituac ibilcen diren emaztequiec, &c.

G. *Escandalac bekhatua haguitz berretcen du?*

I. Bai, hura bera ere maiz bekhatu bat da haguitz icigarria eta crima haguitz handia.

G. *Cergatic da bekhatu hori bain icigarria eta crima bain handia?*

I. Hirur arroçoin gatic.

1. Ceren escandala emaiten duenaren ere gain baitire harc bere escandalaz eraguiten dituen bekhatuac.

2. Ceren escandalac eraguin dituen gaizqui gucien erreparatcea haguitz baita gaitz, eta maiz ecin errepara baitaitezque.



3. Ceren escandalac injurio guehiago eguiten baitio Jaincoari bertce bekhatuec baino.
- G. *Cergatic escandalac injurio guebiago eguiten dio Jesu-Christo gure Jaincoari?*
- I. Ceren escandalac damnatcen baititu Jesu-Christoc salbatu nahi dituen arimac eta bere odol preciatua isuriric erosi dituenac.
- G. *Escandala emaiten duena certara da obligatua?*
- I. Bi gauçatara.
    1. Cofesatcen denean berac eguin duen bekhatuaz bertce alde erran behar du oraino circunstancia hori, nola bere bekhatuari berretu dioen escandala.
    2. Erreparatu behar tu ahal badagui berac eman duen escandala, eta hartaric ethorri diren bekhatuac.

## PRATICAC

1. Ihes eguin deçotegun ez choilqui bere baitharic bekhatura daronsaten gauça guciei, bainan bai oraino bere baithan inocentac eta onac direlaric arren, presuna flacoei, simplei eta escandala haren errachac direnei bekhatu eraguin ahal deçoqueten gauça guciei ere.

2. Gure exemplu onaz eta gure obra onez Jaincoari irabaz deçogun ahal badaquigu hain berce arima, nola gal araci baitugu gure exemplu gaichtoz.

## ISTORIOAC

Eleasar guiçon çahar sainduaren exemplua, hura beldur cen Juduei escandala eman ceçoten, eta nahiago içan çuen hil, leguearen contra deus eguin baino. 2. *Machab. cap. 6. v. 23. & seq.* Mathathiasen animoa eta zeloa, escandala publico baten mendecatceco. 1. *Machab. c. 2. v. 23 & seq.* Jeroboam Israelgo Erreguec eman çuen escandala, eta hura nola içan cen punitua. 3. *Reg. c. 14. v. 7. & seq.* Heli aphez handiaren hurrec eman çutena. 1. *Reg. c. 2. v. 12. & seq.* haren punicionea. *c. 3. v. 12. & seq. & c. 4. v. 18. & seq.*

## HOGOI ETA BAT-GARREN LECCIONEA

Berthutez.

- 95 G. *Cer da Guiristinotasuneco berthutea?*  
I. Hura da unguiaren eguiteco ahala eta errachtasuna, ceina ardiesten baitugu Jaincoaren graziaz.
- G. *Cenbat guiristinotasuneco berthute suerte dire?*  
I. Badire bi suerte; berthute moralac, eta berthute theologalac.
- G. *Cenbat dire berthute moralac?*  
I. Badire hainitz, hala nola prudencia, justicia, temperancia, dulcetasuna edo emetasuna, humiltasuna, modestia, eta horrelaco bertce hainitz.
- G. *Berthute horiec cergatic deitcen tutçu Moralac?*  
I. Ceren hec baitire gure accionen erreguelac.
- G. *Cenbat dire berthute theologalac?*  
I. Badire hirur; fedea, esperança, eta caritatea.
- G. *Cergatic deitcen dire Theologalac?*  
I. Ceren hec Jaincoari berari hurbilenetic uquitcen baitçaizco.
- G. *Esplia eta cheba çaçu guehiago errepueta hori.*  
I. Fedea uquitcen çajo Jaincoari eguia soberanoari beçala: Esperança, gure azquen finari eta gure dohaxutasun soberanoari beçala: Caritatea, içaite perfetenari eta gure amodioa guehienic merci duenari beçala.

FEDEAZ

- 96 G. *Cer da fedea?*  
I. Fedea da berthute bat, ceinaren bidez cinez eta fermuqui sinhesten baititugu Jaincoac bere Eliçari eçagut araci diozcan gauça guciac.
- G. *Eguiçu Fedezco Acta bat.*  
I. Ene Jaincoa, sinhesten ditut cinez eta fermuqui Eliça Ama Sainduac sinhesten eta irakhasten dituen gauça guciac, ceren çuc hari

- irakhatsiac baitire; eguidaçu othoi gracia sinheste hortan biciteco eta hilceco.
- G. *Fedea içaitea haguitz necesario da?*  
 I Bai, eta hura gabe ecin eguin deçaquegu Jaincoaren gogara, eta ecin içan gaitzeque salbatuac.
- G. *Cenbat fede suerte dire?*  
 I. Badire bi suerte, fede bicia eta fede hila.
- G. *Cer da fede bicia?*  
 I. Hura da caritateaz lagundua dena eta harc bizi arazten duena, halacoa da Justuen fedea.
- G. *Cer da fede hila?*  
 I Hura da caritateaz gabetua dena, halacoa da heresian erori ezteren bekhatosen fedea.
- G. *Fede hila eguiazco berthute bat da?*  
 I. Bai, ceren hura baita Jaincoaren dohain bat, ceinac sinhets arazten baitarozquigu Jaincoac eçagutcera eman dituen eguiac.
- G. *Fede hilaren Actec cer merecimendu içan abal deçaquete?*  
 I. Gauça segura da ezdutela merecitcen bicitce eternala.
- G. *Cer merecitcen othe dute bada?*  
 I. Lehiazten edo has arazten dute hec gure Jainco ona, guri emaiten bekhatuaren uzteco gracia.
- G. *Nola eguiten da bekhatu fedearen contra?*  
 I Laur guisatara.  
 1. Da, fedea irakhasten darozquigun eguietarie cenbait sinhetsi nahi gabez.  
 2. Da, bere baithan eguia hequin sinhesteari ukho eguinez edo errenunciatuz.  
 3. Eguiac hetarie cenbaitez bere nahitara dudatuz.  
 4. Eguiac hetarie jaquitera obligatuac garenen ikhasteco arthaez içanez.
- G. *Fedearen galcecotz, sinhets gabe utsi behar dire fedea erakhusten darozquigun eguiac hetarie hainitz?*  
 I. Ez, fedea ossoqui galceco asqui da eguiac hetarie bat choilqui sinhetsi gabe uztea.

## PRATICAC

1. Jaincoari esquerrac maiz eman detçogun, ceren deithu gaituen fedearen arguira eta eçagutçara.

2. Gure fedeari bidegaberik den gutiena eguin ahal deçoqueten gauça guciei ihes eguin deçotegun, halacoac dire heresiaren suspitcha duten liburuen iracurcea, eta hereticoequin miñatcea.

3. Artha handi bat ičan deçagun gure hurrec eta gure sehiec jaquin detçaten fedear irakhasten dituen eguiac, eta bici daitecin bere fedearen arabera.

## ISTORIOAC

Elias Profetaren fedea, 3. *Reg. c.* 17. & 18. Patriarca çaharren fedear Jondoni Pauloc eguiten dituen laudorioac, *Hebr. c.* 11. Magoen edo hirur Erreguen fedea, *Matth. cap.* 2. *v.* 2 & *seq.* Birgina Maria Sainduaren fedea, *Luc cap.* 1. *v.* 45. San Thomasen sinhets-gogortasuna. *Joan. cap.* 20. *v.* 24. 27. & *seq.*

## HOGOI ETA BI-GARREN LECCIONEA

Esperançaz eta Caritateaz.

97 G. *Cer da esperança?*

I. Esperança da berthute bat, ceinaren bidez uste baitugu içanen tugula mundu huntan Jaincoaren graciac, eta bertcean Parabisua Jesu-Christoren merecimenduen berthutez.

G. *Eguiçu esperançazco acta bat.*

I. Ene Jaincoa, esperança dut Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduen berthutez emanen darotaçula egun batez çure Parabisuco gloria saindua, eta mundu huntan harat hedatceco behar ditudan gracia guciac, ceren çuc aguindu baitarozquigutçu, eta çu baitçara guciz ona, eta çure hitçaren atchiquitcera lejala.

G. *Gure esperança ceren gainean da eçarria?*

I. Jaincoaren promesen edo aguinçaren gainean, eta Jesu-Christoren merecimenduen gainean.

G. *Cer çaturen edo condicionen azpian Jaincoac aguindu darocu bicitçe eternala?*

I. Haren manamenduac beguiratuco tugula, eta obra onac eguinen ditugulaco condicionearen azpian.

G. *Nola eguitenda bekhatu esperançaren contra?*

I. Laur guisaz.

1. Gure salbamenduaren esperança galcen dugunean.
2. Jaincoa ona dela ikhusiric, hartan sobra fidatuz edo pausatuz conbertitu gabe gueroco egonez.
3. Guere indarretan fidatuz bekhatuaren okhasionetan jarcen garenean.
4. Jaincoaren probidencian fidancia eta sumisione escas dugunean.

## CARITATEAZ

98 G. *Cer da Caritatea?*

I. Caritatea da berthute bat, ceinaren bidez maite baitugu Jaincoa bere amoreac gatic gauça guciac baino guehiago, eta gure laguna guere buruac beçala Jaincoaren amoreac gatic.

G. *Nola behar da Jaincoa maitatu?*

I. Gure bihotz guciac, gure arima guciac, eta gure indar guciez.

G. *Jaincoaren maitatcera obligatuac gara?*

I. Bai, eta caritatea gabe Jaincoaren etsajac gara.

G. *Nola galcen da caritatea?*

I. Bekhatu mortalaz, baldin bat choila baicic eguin ezbaguinu ere.

G. *Caritatearen galcea ondico eta dohacabetasun handia da?*

I. Bai, ecen dohacabetasun gucietaric handiena da Jaincoaren ez maitatcea.

G. *Cer da laguna maitatcea guere buruac maitatcen tugun beçala?*

I. Hari desiratcea eta gure eguin ahalean içan araztea guretçat nahi guinituzquen beçalaco on eta ungui berac.

G. *Certarat obligatcen gaitu caritateac lagunaren aldera, hura pobre denean?*

I. Gure sobratuetaric hari amoina eguitera.

G. *Obligatuac gara behinere hari amoina eguitera gueretçat behar ditugun gaucetaric?*

I. Bai, hura azqueneco beharrean denean.

G. *Obligatuac gara gure etsaiac ere maitatcera?*

I. Bai, Jesu-Christo gure Jaunac eguin du hartaz Evangelio sainduan barariazco manamendu bat.

G. *Cein dire caritatezco obrac, ceinac ordinariozqui deitcen baitire Misericordiazco obrac?*

- I. Hec dire obra batçuec, ceinez laguncen baitugu gure laguna bere arimaco eta gorphutceco beharretan.
- 99 G. *Cein dire misericordiazco obrac arimaren alderatecoac?*
- I. Badire çazpi.
1. Ezdaquitenei irakhastea.
  2. Huts eguiten dutenac corregitcea.
  3. Behar dutenei conseilu emaita.
  4. Affligituac consolatcea.
  5. Berceren umore gaichtoac eta narrioac pacienciarequin sofritcea.
  6. Guri eguiten darozquiguten hutsac eta ofensac barkhatcea.
  7. Biciençat eta hilençat eta gure contra dabilçanençat eta persecutatcen gaituztenençat othoitz eguita.
- G. *Cein dire misericordiazco obrac gorphutçaren alderacoac?*
- I. Badire çazpi.
1. Gose direnei jatera emaita, eta egarri direnei edatera emaita.
  2. Biluz direnac beztitcea.
  3. Eriac Bisitatcea.
  4. Presundeguien direnac bisitatcea.
  5. Gathiboac eroste.
  6. Pelegrinac eta arrotçac bere etchean errecibitcea.
  7. Hilac ehorztea.
- G. *Obligatuac gara fedezco actac, esperançazcoac, eta caritatezcoac eguitera?*
- I. Bai, hartarat obligatuac gara, eta eguin behar ditugu ahalic maicena.
- G. *Eguçu caritatezco acta bat.*
- I. Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciac eta gauça gucien gainetic, ceren çu baitçara guciz maitagarria eta ahala perfeta; maite dut halaber ene laguna nere burua beçala çure amoreac gatic.
- G. *Fedea eta esperança distingatuac dire caritatetic?*
- I. Bai, hirur berthute horiec, eta horien actac ere bata bertcea ganic distingatuac dire.
- G. *Caritatea galdu duen bekhatoros bati guelditcen çaiçco oraino fedea eta esperança?*
- I. Bai, baldin harc eguin duen bekhatua berthute horien bien contracoa ezpada.

*Ikhus çaçu cer den errana Jaincoaren ganateco amodioaz Jaincoaren lehenbico manamenduan, lehenbico leccionean pag. 103. eta etsajen maitatceaz hemeretci-garren leccionean Coleraz pag. 180. eta han har çatçu praticac eta istorioac.*

#### PRATICAC

1. Gure fidancia gucia eçar deçagun Jaincoa baithan, haren probidenciari arrima gaquizcon, sinhesten dugularic fermuqui etçai-cula deus guerthatcen haren ordenac baicen, edo harc permetituz baicen, eta gure salbamendua gatic baicen.

2. Usa gaitecin gure accione eta lan guciac eguiten caritatezco chede batez, erran nahi da, Jaincoaren amoreac gatic.

3. Jaunaren othoitça edo *Pater noster* erraiten dugunean orhoit gaitecin gure condenacionea han erraiten dugula, baldin gure etsajei barkhatcen ezbadiotegu.

#### ISTORIOAC

Esperança badu Abrahamec esperança guciaren contra. *Gen.* 15. v. 5. *Rom.* 4. v. 18. Popula guciaren Arçain eçarria da Jondoni Petri harc Jesu-Christorençat çuen amodioa gatic. *Joan. c.* 21. v. 15. & *seq.* Jondoni Pauloc anathemaz funditcen du Jesu-Christo maite ezduena. 1. *Cor. c.* 16. v. 22. Etsajac maitatcearen gainean, Jesu-Christo gure Jaunac bere etsajençat othoitz eguiten du gurutcearen gainean hilcen hari cen denboran. *Luc. c.* 33. v. 34. Jondoni Estebec othoitz eguiten du haren harricatcen hari cirenençat. *Act. 7. v.* 59.

#### HOGOI ETA HIRUR-GARREN LECCIONEA

Ispiritu sainduaren dohainez eta fruituez.

100 G. *Cer dire Ispiritu sainduaren dohainac?*

I. Hec dire barneco gracia batçuec, ceinez gure baithan den Ispiritu sainduac disposatcen baicaitu berehala eta animorequin obeditera haren inspiracionei, bereciqui okhasione gaitcenetan, handienetan, eta beharrenetan.

- G. *Cenbat dire Ispiritu Sainduaren dohainac?*
- I. Badire çazpi.
1. Çuhurciaren dohaina.
  2. Adimenduaren dohaina.
  3. Conseiluaren dohaina.
  4. Borthitztasunaren dohaina.
  5. Jaquintasunaren dohaina.
  6. Pietatearen dohaina.
  7. Jaincoaren beldurtasunaren dohaina.
- G. *Cer da çuhurciaren dohaina?*
- I Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac çucenqui jujarazten baitarocu Jaincoaren gaucez.
- G. *Cer da adimenduaren dohaina?*
- I Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac gure estatuaren eta gure ahalararen arabera eçagut arazten baitarozquigu fedearen eguiac.
- G. *Cer da conseiluaren dohaina?*
- I Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac hauta arazten baitarocu gauçaric eta bideric hoherena bici huntaco gauça gaitce-tan eta dudazcoetan.
- G. *Cer da borthitztasunaren dohaina?*
- I Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac emaiten baitarocu gauçaric gaitcenen eguiteco animo eta bihotz handi bat, eta ceinac pacienciarequin sofri arazten baitarozquigu nahigaber-ic handienac.
- G. *Cer da jaquintasunaren dohaina?*
- I Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac gauça naturaletan eçagut arazten baitarocu cer den gure salbamenducotz hoherenic edo probetçosenic, eta hetaz cein sainduqui eta nola baliatu behar garen.
- G. *Cer da pietatearen dohaina?*
- I. Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac buitasun eta kharhandi batequin besarcarazten baitarozquigu Jaincoari çor diogun ohorea hari errendatcera daronsaten gauça guciac.
- 101 G. *Cer da Jaincoaren beldurtasunaren dohaina?*
- I. Hura da Ispiritu sainduaren dohain bat, ceinac guibelatcen baitaitu bekhatutic Jaincoaren jujamendu justuen ikharaz.
- G. *Cer dire Ispiritu sainduaren fruituac?*
- I. Hec dire obra on batçuec Jaincoaren graciaç gogo onez eragui-



ten darozquigunac, eta ceinac heldu baitire Ispiritu sainduac gure baithara hedatcen dituen cenbait berthutetaric eta disposicione sainduetaric.

G. *Cein dire berthute bec eta disposicione saindu bec, ceinetaric heldu baitire Ispiritu sainduaren fruituac?*

I. Jondoni Paulo Apostoluac contatcen du hamabi.

1. Caritatea, ceinac maitarazten baitarocu Jaincoa gauça gucien gainetic.
2. Bozkarioa, ceinac Jaincoaren cerbitçatcen bihotz onez hari arazten baicaitu.
3. Baquea, ceinac atchic arazten baicaitu bethi grina gabe.
4. Paciencia, ceinac sofri arazten baitarozquigu affliccioneac eta nahigabeac arrancuratu gabe.
6. Humanitatea, ceinaren bidez beguitarte ona eguiten baitiogu mundu guciari.
7. Ontasuna edo on içaitea, ceinac guibelatcen baicaitu lagunari bidegabereric eguitetic, eta ceinac ekharcen baicaitu eguin ahal ungui gucia lagunari eguitera.
8. Emetasuna, ceinac hilcen baititu gure baithan coleraren mobimenduac.
9. Lejaltasuna, ceinac artharequin eta chuchenqui atchic arazten baitarocu gure hitça.
10. Modestia, ceinac urruncen baititu gure ganic erguelqueriaren eta banitatearen itchura guciac.
11. Continencia, ceinac guibela arazten baititu gure baithan sensuetaco axeguinaç.
12. Castitatea, ceinac beguiratcen baicaitu gorphutceco eta arimaco garbitasunean.

G. *Dohain horieç eta fruitu horieç guciac cergatic emaiten çaiçco Ispiritu sainduari?*

I Ceren Ispiritu sainduari emaiten baitçajo Jaincoa baithan den ontasuna ceina baita gure santificacionearen causa, eta hura gure saindutceco baliatcen den bidena.

## PRATICAC

1. Maiz eta khar handi batequin galde deçogun Ispiritu sainduari eman detçagula bere dohainac.

2. Garbi deçagun gure arima dohain hequin içaitetic guibela ahal deçaqueten gauça guciataric.

3. Cein ere berthutetari sorcen baitire Ispiritu sainduaren fruituac, berthute hec ezdetçagun behinere gure baithan alferric utz, bainan maiz eguin detçagun hequin actac.

## ISTORIOAC

Isaiās Profetac Ispiritu sainduaren dohainez erran içan duena. *cap.* 11. *v.* 2. & 3. Jondoni Pauloc Ispiritu sainduaren fruituez isquribatu duena. *Gal.* 5. *v.* 22. Apostolu saindu harc berac Ispiritu sainduaren dohainez betheac cer entreprenitu çuen, cer eguin eta cer sofitu çuen Jesu-Christoren icenaren ohoretan. 2. *Cor.* c. 11.

## HOGOI ETA LAUR-GARREN LECCIONEA

Religioneaz.

- 102 G. *Cer da Religionea?*  
I. Hura da berthute bat, ceinaren bidez Jaincoari errendatcen eta bihurcen baitiogu gucien gaineco ohore bat, haren handitasun soberanoa dela causa.
- G. *Cein dire Religionearen contraco bekhatuac?*  
I. Supersticionea, eta Religione gabetasuna.
- G. *Cer da supersticionez bekhatu eguitea?*  
I. Hura da Jaincoari errendatcea eta bihurcea haren gogaraco ezten ohore bar, edo bihurcea creatura choil bati Jaincoari baicic çor etçajoen ohore bat.
- G. *Cein dire supersticione suerte principalac?*  
I. Badire hirur; ohore gaindizcoa edo gaizqui aditua, Idolatria, eta Magia edo Aztitasuna.
- G. *Cer da ohore gaindizcoa?*  
I. Hura da Jaincoa ohoratu nahi içaitea pratica edo obra banoez eta alferrez, edo Eliça Ama sainduac aprobatcen ezdituenez.
- G. *Cer da Idolatria?*  
I. Hura da Jaincoari baicic choilqui çor etçajon ohorea creaturei bihurcea.
- G. *Cer da Magia edo Aztitasuna?*  
I. Hura da deabrua lagun deithuric edo harequin patu eguinic Ma-

gicienec edo Azteic haren ganic içaiten duten bothere eta indar estrainio bat.

G. *Cer da bothere eta indar hura?*

I. Hura da guñonen bothereaz eta indarraz guehiagoco gaucen eguitea edo eçagutcea.

G. *Cer da Religione-gabetasuna?*

I. Hura da bekhatu bat, ceinaz desohoratcen baita Jaincoa bere baithan, edo harençat consecratuac diren gaucetan.

G. *Cein dire bekhatu hau maicenic eguiten dutenac?*

- I. 1. Jaincoaz eta hari uquitcen çaiçcon gaucez errespeturic gabe miñçatcen direnac, eta bere trufac hetaz eguiten dituztenac.
2. Eliçaco ceremoniez eta Jaincoaren cerbitçuari uquitcen çaiçcon gaucez trufac eta burlac eguiten dituztenac.
3. Bere bidea laburcea gatic Elicetan barna pasatcen direnac, plaça publico batean pasa laitezquen beçala.
4. Campoan balire beçala Elicetan miñçatcen eta solasen egoiten direnac.
5. Eta generalqui lekhu sainduetan modestiaric gabe egoiten diren guciac.

103 G. *Norc dire bekhatu hau guebienic eguiten dutenac?*

I. Hec dire.

1. Blasfematçailleac.
2. Jaincoa tentatcen dutenac.
3. Sacrilegioac eguiten dituztenac.

G. *Cer da Blasfemioa?*

I. Hura da injuriozco hitz bat errana Jaincoaren contra, edo haren sainduen contra, edo Religionearen contra, eta hori da bekhatu eta crima bat haguitz icigarria.

G. *Cer da Jaincoaren tentatcea?*

I. Hura da Jaincoa ganic iguriquitcea, edo hari galdeguitea harc aguindu ezdarozquigun gauça usatuac ezdiren batcuec, miracuiliuac edo bertce.

G. *Cer da Sacrilegioa?*

I. Hura da Jaincoari consecratuac diren presunac desohoratcea, edo gauça sainduac gaizqui erabilcea eta profanatcea.

## PRATICAC

1. Animo eta khar handi bat ičan deçagun Jaincoaren gloria-reñat eta haren cerbitçucotz.
2. Ohora detçagun hainitz Jaincoari consecratuac diren presu-nac, lekhuac, eta gauçac.
3. Ezdeçogun nausitasunic gure gainean eman deabruari bekha-tuaz.

## ISTORIOAC

Daviten zeloa Jaincoaren gloriarençat eta cerbitçuarençat. 2. *Reg. cap. 6. Lib. 1. paralip. c. 17. v. 1. Psal. 25. v. 8.* Salomonen zeloa Tem-piuaren edertasunarençat. *Lib. 2. paral. c. 3. & seq.* Jesu-Christorena Templua profanatcen çutenen contra, *Matth. c. 21. v. 12, Luc. 19. v. 46.* Balthasar punitua, ceren profanatu cituen Jerusalemeco Templu-co basoac. *Dan. c. 5.* Heliodore punitua Templu hura bera ceren arro-batu nahi ičan çuen. *Lib. 2. Machab. c. 3. v. 23. & seq.* Saülen crima ceren consultatu çuen aztia edo pythonissa. *Lib. 1. Reg. 28. v. 7. & seq.* Ochozias hil cen, ceren consultatu çuan Beelzebuth. *Lib. 4. Reg. c. 1.* Biciaren penan debeatua aztien eta magicianoen consultatcea. *Levit. c. 20. v. 6.*

# HIRUR-GARREN PARTEA

GUIRISTINOTASUNECO OBLIGACIONEAC ETA EGUINBIDEAC  
UNGUI EGUITECO BIDEZ EDO MOJANEZ



## LEHENBICICO LECCIONEA

Jaincoaren graziaz.

- 104 G. *Cein dire guiristinotasuneco obligacionen eta eguinbiden ungui eguiteco bideac eta mojanac?*
- I. Badire hirur :
1. Jaincoaren gracia.
  2. Sacramenduac.
  3. Othoitça.
- G. *Cer da Jaincoaren gracia?*
- I. Hura da gaineticaco dohain bat, ceina Jaincoac emaiten baitarocu guciz ona içanez, eta Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduez gure salbamenduaren eguiteco.
- G. *Cergatic dioçu gracia dela gaineticaco dohain bat?*
- I. Ceren ezbaita nihor *Jaincoa bera* baicic hura guri eman ahal dieçaquegunic.
- G. *Norc merecitu darocu dohain bat bain preciatua?*
- I. Jesu-Christo gure Jaunac.
- G. *Ez othe dugu bada errecibitcen graciatic batere Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduen berthutez baicen?*
- I. Ez, Jaincoac ezdarocu deusic emaiten gure salbamenducotz, bere semearen merecimenduez baicen.
- G. *Cenbat gracia suerte dire?*
- I. Badire bi suerte: gracia habituala edo saindutcen gaituena, eta gracia actuala.
- G. *Cer da gracia habituala?*
- I. Hura da gaineticaco dohain bat, ceinac saindutcen baicaitu, eta eguiten baicaitu Jaincoaren gogaraco.
- G. *Cein dire gracia horren seguidac edo efetuac?*
- I. Badire hirur.
1. Saindutcen gaitu.
  2. Eguiten gaitu Jaincoaren ume adopcionez.
  3. Gure accionei mereci arazten diote eternitateco errecompensa.

- G. *Cergatic deitcen da habituala?*  
 I Ceren gure baithan conserbatcen baita gure borondatea deusic hari ezden denboran ere; comparacionera, gracia hura badute haur bathajatuac adimenduaren adinera heldu baino lehen ere, eta guc ere badugu lo gaudecinean ere.
- G. *Gal othe deçaquegu gracia habituala?*  
 I. Bai, galcen dugu bekhatu mortal batez.
- G. *Berriz ardiets deçaquegu behin galceco asqui dohacabe içatu garen ondoan?*  
 I Bai, gracia habituala berriz ardiesten da penitenciaco Sacramenduaz.
- G. *Gracia hura berret abal othe deçaquegu?*  
 1. Bai, berret daiteque.  
 1. Sacramentuac hantatuz.  
 2. Othoitzez, eta Jaincoaren amodiozco actac maiz eguinez.  
 3. Obra onac eguinez.

#### GRACIA ACTUALAZ

- 105 G. *Cer da gracia actuala?*  
 I. Hura da Jaincoac emaiten darocun barneco lagunça bat unguiaren eguiteco eta gaizquiari ihes equiteco.
- G. *Gracia actualac sainduitcen gaitu?*  
 I. Ez, bainan harc disposatcen gaitu saindu içaitera, edo garen baino sainduago eguitera guc guere aldetic lagunça emaiten diogunean.
- G. *Certan dago gracia actuala?*  
 I. Jaincoac inspiratcen darozquigun gogo on edo phensamendu sainduetan, eta debocinozco sentimenduetan.
- G. *Gracia hori cergatic deitcen da actuala?*  
 I. Ceren hura baita iraupen guti duen barneco mobimendu bat, ceinaren bidez Jaincoac muguitcen baicaitu eta laguncen unguiaren eguitera.
- G. *Esplica çaqu hori exemplu batez.*  
 I Baldin Jaincoaren gracia muguitcen banau orai berean amoina emaitera, gogo edo phensamendu horiche da gracia actual bat.
- G. *Gracia horren lagunça gabe eguin abal othe deçaquegu cerbait gure salbamenduco probetchos denic, edo içan abal othe deçaquegu gogo edo phensamendu onic?*  
 I. Ez, hura gabe ecin deçaquegu.



- G. *Nola ardiets ahal deçaquegu gracia hori?*  
 I. Jaincoari othoitzez galdetuz, eta sacramenduac hantatuz.
- 106 G. *Jaincoaren gracia gabe othoitcic eguin deçaquegu?*  
 I. Ez, bainan Jaincoaren gracia atçarcen eta muguitcen gaitu othoitz eguitera, eta othoitçac ardiesten darozquigu berce gracia berriac.
- G. *Jaincoac emaiten darocu gracia necesario den aldi guciez cenbait manamenduren beguiratceco, edo cenbait tentacioneren garaitceco?*  
 I. Bai, Jaincoac ezdarocu deusic manatcen imposibleric, edo ecin eguin deçaquegunic, eta ezdu permetitcen içan gaitecin tentatuac gure indarrez guehiago.
- G. *Eguia da beraz erraitea bekhatuic ezdugula eguiten gure faltaz baicen?*  
 I. Bai, ceren Jaincoac emaiten darocun graciarequin batean egon baicaitzque bekhatuic eguin gabe, baldin gueroc gracia hari lagundu nahi batcaizco.
- G. *Cer da graciari laguncea?*  
 I. Hura da graciaren mobimenduac seguitcea; comparacionera amoinaren eguiteco, predicura joaiteco edo horrelaco bertce cenbait Jaincoac emaiten duen inspiracione seguitcea, hurache da graciari laguncea.
- G. *Graciari guc bortcha eguin deçoquegu?*  
 I. Bai, fedea eta gueroc eguiten dugun experienciac orobat erakhusen darocute sobra maiz graciari borchatcen gaizcola.
- G. *Cer da graciari borcha eguitea?*  
 I. Hura da guibelatcea gracia gure baithan eguin ahal deçaquen efetua, ceinarençat Jaincoac eman baitçarocun.
- G. *Aitcin huntan minçatu garen gracia berce alde Jaincoac ezdarocu emaiten bertce cenbait bide gure salbamenduaren eguiteco?*  
 I. Bai, emaiten darozquigu oraino campoticaco bide edo mojan batçuec.
- G. *Cein dire campoticaco bide hec?*  
 I. Hec dire.  
 1. Miracuiluac.  
 2. Predicuac.  
 3. Guiristino guisa alchatuac içaitea.  
 4. Exemplu onac.  
 5. Nahigabeac, afflictioneac eta eritasunac.  
 6. Gure ontasunen galcea, eta berce horrelaco hainitz.

- G. *Nola deitzen dire campoticaco bide horiec?*  
 I. Deitzen dire campoticaco graciac.
- G. *Cerucotz probetchos denic cerbaiten eguiteco asqui othe laitezque campoticaco gracia hec?*  
 I. Ez, bainan nola Jaincoac nahi baitu guiçon eta emaztequi guciac salba daitecin, campoticaco gracia hec laguncen tu ordinariozqui barneco graciez.

## PRATICAC

1. Sacramenduetara maiz hurbil gaitecin, han gracia guehiago eta maiçago errecibitcea gatic.

2. Obra on bat eguin dugunean, humilia gaitecin Jaincoaren aiticinean, eçagutcen dugularic obra on hura graciaren efetua dela, eta guere baitaric deusic ezdaguiquegula.

3. Obra on baten eguitea, edo bekhatuaren okhasioneari ihes eguitea Ispiritu sainduac inspiratcen darocunean, ezdeçagun hartacotz denboraric batere gal, bainan obedi deçogun berehala haren inspiracioneari.

4. Othoitçac maiz eguin detçagun Jaincoari bere graciac galdeguiteco, bereciqui tentacionetan; eta goacin noicic behin bederen sacramendu sainduaren aiticinera han intencione hortacotz othoitç eguitera.

## ISTORIOAC

Jesu-Christoc Samaritanoari cer erran cioen graciaren edertasunaren gainean, ceina comparatcen baitçuen ur bici batequin. *Joan c. 4.* graciaren indarra ederqui agueri da Jondoni Pauloren conbersionean. *Act. c. 9. v. 3. & seq.* Jondoni Petriren bekhatua haren presumcionearen edo bere baithaco fidanciaren seguida. *Joan 18. v. 16. & seq.* Juedec graciari eguin cioten contra edo ukhoa, hequin erreprobacionearen hasta eta ethorquia. *Matt. c. 21. v. 43. c. 23. v. 37. & seq. Act. c. 7. v. 51. & seq. & cap. 13. v. 46.*

## BI-GARREN LECCIONEA

Sacramenduez generalqui.

- 107 G. *Cer da Sacramendua?*  
I. Sacramendua da ecin ikhus daitequen gracia baten seinale agueri dena, Jesu-Christo gure Jaunac ordenatua gure arimen garbitceco eta graciaz bethetceco.
- G. *Cergatic dioçu Sacramendua dela seinale bat?*  
I. Ceren harc eçagut arazten baitarocu ecin ikhus daitequen gracia bat, berac gure arimetara ekharcen darocuna.
- G. *Cergatic dioçu seinale hura agueri dela?*  
I. Ceren gure sensuez eçagutcen baita, hala de Bathajoan Ura, ceinac garbitcen baitu haur bat, eta significatcen edo seinalatcen baitu gracia, haur haren arima bekhatu originaletic garbitcen duena.
- G. *Cergatic dioçu ecin ikhus daitequen graciaren seinalea?*  
I. Ceren berenez gracia ezbaita eçagutcen gure sensuez, ceren den gauça ispiritual bat edo gorphutic gabea.
- G. *Sacramenduec nondic dute gure arimen garbitceco eta graciaz bethetceco berthutea eta indarra?*  
I. Jesu-Christo gure Jaunaren passionetic eta heriotcetic.
- G. *Sacramenduec nola saindutcen gaituzte eta gure arimac garbitcen eta graciaz bethetcen?*  
I. Lehenbicoric. Batçuec emaiten darocute gracia saindutcen gaituena lehen ezguinuena, halacoac dire Bathajoa eta Penitencia, ceinac hargatic deitcen baitire hilen sacramenduac, ceren hec suposatcen baitute graciari hilac guinela.  
2. Bertceec berretcen darocute gracia saindutcen gaituena lehen errecibitu guinuena, halacoac dire confirmacionea, Gorphutz saindua eta berceac, ceinac hargatic deitcen baitire bicien sacramenduac.
- G. *Sacramenduec nola emaiten edo berretcen dute gracia?*  
I. Jesu-Christo gure Jaunaren heriotceco merecimenduac guri aplicatuz, erran nahi da, gure gana hedatuz.

- G. *Sacramenduac errecibitcen dituzten guciac errecibitcen dute gracia?*
- I. Ez, behar diren disposicioneac ezdituztenec ezdute errecibitcen sacramenduen gracia.
- G. *Behar diren disposicioneac ičan gabe sacramenduac errecibitcea bekhatu handia da?*
- I. Bai, hura da bekhatu handi eta icigarri bat, ceina deitzen baita sacrilegioa.
- G. *Sacramenduec ezdarocute deus bertceric emaiten gracia baicic?*
- I. Badire hirur sacramendu, ceinec emaiten eta eçarcen baitarocute caractera; hec dire Bathajoa, Confirmacionea, eta Ordena, hargatic hirur Sacramendu hec ecin errecibi daitezque behin baicen.
- G. *Cer da Caractera?*
- I. Caractera da seinale ispiritual bat gure ariman eçarria, secular khenduco eztena.
- G. *Caractera guelditcen da ariman hil ondoan ere?*
- I. Bai, guelditcen da justuen ariman ohorezco marca bat beçala, eta damnatuenean desertacioneco eta desohorezco marca bat beçala.
- G. *Ur benedicatua hartcea sacramendu bat othe da?*
- I. Ez, hura da ceremonia simple bat, ceinac eçagutcera emaiten baitarocu cein concienciaco garbitasun handiarequin othoitçac eguin behar ditugun.
- G. *Cenbat Sacramendu dire?*
- I. Badire çazpi Sacramendu :
1. Bathajoa.
  2. Confirmacionea.
  3. Gorphutz Saindua.
  4. Penitencia.
  5. Anuncioa.
  6. Ordena eta
  7. Ezconça.
- G. *Sacramenduac emaiten cergatic Elica Ama saindua cerbitçatcen da hainitz ceremoniez?*
- I. 1. Hequin handitasuna eta saindutasuna guri eçagut arazteagatic.
2. Hec debocione eta errespetu guehiagorequin errecibitcera gu ekharcea gatic.

G. *Ceremonia hec cer emaiten dute eçagutcera?*

I. Hirur gauça.

1. Cer disposicionerequin errecibitu behar ditugun Sacramenduac.
2. Hec gure arimetan eguiten dituzten efetuac.
3. Hec emaiten darozquiguten obligacioneac.

PRATICAC

1. Gure Jaincoari esquerrac eman detgogun ceren den asqui ona guri emaiteco hain berce bide, eta hain errachac gure salbamenduaren eguiteco sacramenduac ordenatuz.

2. Goardia ungui eman deçagun erremedioa phoçoinera bihur ezdeçagun, sacramenduac gaizqui errecibituz.

3. Errespetu handi bat içan deçagun Eliçac sacramenduei darronsatela benedicatcen dituen gaucençat, nola baitire ur benedicatua, ogui benedicatua, baso eta ornament sacratuac, eta bereciqui Aphecençat eta Fraidençat, ceinac baitire sacramenduen ministroac.

ISTORIOAC

Çazpi pilare Çuhurciac alchatcen dituenac. *Prov. c. 9. v. 1.* Elizeas Profetac Naamani nola manatu cioen çazpitan chahu cedila Jordango Urean, *4. Reg. c. 5. v. 10.* çazpi trompetac, ceinen soinura Israelitec Jaincoaren manuz çazpitan eguin baitçuten tornua Jerichoren inguruan, ceina baita bekhatuaren figura, eta ceinaren murraillac ican baitciren arthiquiac. *Josue. c. 6.* hec sacramenduen figurac dire. Guisa berean sacramenduez esplica daiteque erregue Davitec erran içan duena *Psal. 22.* Isaiasec *c. 12.* eta Jesu-Christo gure Jaunac Samaritanoari erran cioena ere bai, *Joan. c. 4. v. 14.*

## HIRUR-GARREN LECCIONEA

Sacramenduez bat banazca. Bathajoaz.

- 108 G. *Cer da Bathajoa?*
- I. Bathajoa da sacramendu bat, ceinac barkhatcen baitarocu bekhatu originala, eta eguiten baicaitu guiristino, eta Jaincoaren eta Eliçaren ume.
- G. *Cein dire Bathajoaren efetuac?*
- I. Badire laur.
1. Bekhatua barkhatcen du, eta emaiten darocu arimaco bicia.
  2. Eguiten gaitu guiristino.
  3. Eguiten gaitu Jaincoaren eta Eliçaren ume.
  4. Eçartcen darocu caractera bat galcen eztena.
- G. *Bathajoac eztu barkhatcen bekhatu originala baicic?*
- I. Bai, barkhatcen tu orobat bekhatu suerte guciac hura errecibitu baino lehenago eguin cirenac.
- G. *Bekhatuac barkhatcean, barkhatcen othe tu hei çor çaiçcoten pena guciac?*
- I. Bai, barkhatcen tu guciac hala eternitatecoac, nola denbora batetacoac.
- G. *Barkhatcen othe tu halaber bekhatuaren seguidac baicic eztiren penac, nolacoac baitire ignorancia, concupiscencia, heriotcea, eta miseriac?*
- I. Ez, hec uzten tu khendu gabe, gure berthutearen frogatceco eta hura alferric ez uzteco; bainan emaiten tu graciac hequin garaitceco eta jasaitceco.
- G. *Bathajoac nola emaiten du arimaco bicia?*
- I. Guri emanez gracia saindutcen gaituena, ceina baita gure arimaren bicia, eta ceinac khencen baitu bekhatua gure arimatic.
- G. *Nola eguiten gaitu guiristino?*
- I. Ceren harc eguiten baicaitu Jesu-Christoren miembro, eta obligatcen baicaitu haren Evangelioaren seguitcera.

- G. *Nola eguiten gaitu Jaincoaren ume?*  
 I. Ceren gracia saindutcen gaituenaren bidez harc hautatcen baicaitu Jaincoaren umetçat, eta emaiten baitarocu dretcho eta çucen haren Ceruco primeçan.
- G. *Nola eguiten gaitu Eliçaren ume?*  
 I. Guri emanez dretcho eta çucen parte harceco Eliçac dituen ari-maco ontasunetan, haren sacramenduetan, eta haren othoitcetan.
- 109 G. *Bathajatceco cer eguin behar da?*  
 I. Gurutcearen seinalean ur naturala eta hutsa isuri behar da bathajatu behar denaren burura, erraiten delaric denbora berean: *Bathajatchen çaitut Aitarean eta Semearen, eta Ispiritu sainduaren icenean.*
- G. *Cergatic dioçu isuri behar dela ur naturala eta hutsa?*  
 I. Ceren ez baita nihor bathajatu behar ur naturalaz baicic; halacoa da iturrico ura, phutçucoa, erriberacoa, ur goajacoa, ithaiçurecoa, &c. Bathajoa ez baitequa ona arrosa urarequin, edo arnoarequin, edo uraz bertce cenbait edarirequin eguina.
- G. *Benedicatua behar othe da içan ur hura?*  
 I. Arrisçu presatu batean bathaja daiteque ur benedicatua eztenaz.
- G. *Baldin ura ecin isur badaiteque bathajatu behar den haurraren burura, cer eguin behar da?*  
 I. Haurrac agueri dituen partetan cein ere baita considerablana edo handiena, haren gainera isuri behar da ura.
- G. *Ilen gaina edo arropen achala baicic urac uquitcen ez balu, bathajoa ona othe laiteque?*  
 I. Ez, ezlaiteque ona.
- G. *Cein denboraz erran behar dire bitz hauc: Bathajatchen çaitut, &c.*  
 I. Ura gurutcearen seinalean isurcen den denbora berean.
- G. *Cer chede eta intencione içan behar da bathajatchen hari denean?*  
 I. Behar da içan intencioneac Eliçac eguiten duenaren eguiteco.
- G. *Ezta nihor Apheçac baicic bathaja ahal deçaquenic?*  
 I. Jaun Aphezpicuaren eta Errotoraren çucena da bathajatchea, bainan behar orduan guciec bathaja deçaquete hala guiçonquiecnola emaztequiecnola.

BATHAJOAREN SEGUIDA

- 110 G. *Bathajoa gauşa necessarioa da salbatua içaitecotz?*  
 I. Hain necessarioa da non haurrac ecin ičan baitaitezque salbatuac bathajatuac ičan gabe.
- G. *Bathajoa errecibitu gabe hilcen diren haurrac ezdohaz beraz Parabisura?*  
 I. Ez, hec eztute behinere ikhusico Jaincoa eternitate gucian.
- G. *Bathajoa ecin errecibi deçaquenac extu haren ordain bertce bideric?*  
 I. Bai, haren ordain baliatcen çaizco bi gauşa, ceinetaric bat asqui baitu.  
 1. Da Martirioa, ceina deitcen baita Odolezco Bathajoa.  
 2. Da caritatezco acta bat, bathajatuca içaiteco desirarequin batean; eta hori deitcen da Botuzco Bathajoa.
- G. *Certara obligatcen gaitu bathajoa?*  
 I. 1. Jesu-Christo baithan sinhestera.  
 2. Deabruari, haren pompei, eta haren obrei errenunciatcera.
- G. *Cer da Jesu-Christo baithan sinhestea?*  
 I. Hura da fedezco misterio gucien sinhestea, eta Evangelioco maxima gucien seguitcea.
- G. *Cer de deabruari errenunciatcea?*  
 I. Hura da aguerian eta solemnelqui declaratcea deabruaren banda uzten eta abandonatcen dugula, Jesu-Christoren leoue sainduaren azpian jarceco.
- G. *Cer aditcen ducu deabruaren pompe?*  
 I. Aditcen tut munduco maximac eta banitateac.
- G. *Cein dire deabruaren obrac?*  
 I. Bekhatu suerte guciac.
- G. *Nola deitcen dire obligacione horiec?*  
 I. Bathajoco promesac.
- G. *Ordean hurrec extuzte eguiten bromes horiec adimenduan ezdirenaz gueroztic?*  
 I. Bai, ordean Aitabutchic eta Amabutchic bromes horiec hequinçat eguiten tuzte.
- G. *Aitabuchiac eta Amabutchiac certara dire obligatuac?*  
 I. Aitaren eta Amaren faltan obligatuac dire bathajoa jasan dituzten haurren instruccioneaz artha içaitera.



- G. *Nor dire Aitabutchitçat edo Amabutchitçat errecibitu behar ezdirenac?*
- I. 1. Guiristino Catholico ezdirenac.  
 2. Catichima ezdaquitenac.  
 3. Bere Bazcoco Comunionea eguin ezdutenac.  
 4. Bicitce escandalosa daramatenac.  
 5. Modestiaren contraco arropquin ethorcen diren emaztequiac.

#### BATHAJOCO CEREMONIEZ

- 111 G. *Haurra cergatic egoiten da Eliçaco atbetan bathajacera eramaiten dutenean?*
- I. 1. Erakhustera emaiteco, bekhatu originalac eçarri duela Parabisutic campoan, ceinaren figura bat baita Eliça.  
 2. Eztela bathajoa baicic, Eliçan sarcea permeti eta eman deçoquenic.
- G. *Cer erran nahi dute Apheçac haurraren gainean eguiten dituen exorcismec?*
- I. Bathajoac libratcen eta atheratcen gaituela deabruaren esclabotasunetic, ceinaren botherearen azpian sortcen baicara.
- G. *Cer erran nahi dute Apheçac eguiten dituen gurutcearen seinale guciac?*
- I. Erran nahi dute,
1. Bathajoac bere indar gucia atheratcen duela Jesu-Christoren gurutcetic eta haren passionearen merecimenduetaric.  
 2. Gurutcearen berthutez khencen dela deabrua haurraren arimatic, ceina harc baitçaducan posseditua.  
 3. Bathajatuac eztuela gorritu eta ahalcatu behar Jesu-Christoren gurutceaz, bainan bai hartan boztu eta glorificatu.  
 4. Behar duela maitatu gurutcea, eta bere fidancia gucia eçarri Jesu-Christo gurutceficatua baithan.
- G. *Cer erran nahi da haurrari aboan emaiten çajoen Gatça?*
- I. 1. Prestutasuna, çuhurcia, eta Ceruco gaucen gostua, ceinac Eliçac galdeguiten baititu harençat.  
 2. Bathajoac beguiratcen gaituela bekhatuaren corrupcionetic.

- G. *Cer erran nabi dire oloizco gançudurac?*
- I. Jaincoaren gracia hedatcen eta banatcen dela bathajatur denaren bihotcean.
- G. *Cer erran nabi du haurra beztitcen duten arropa churiac?*
- I. Harc bathajoaz errecibitcen duen bici garbi eta inocenta, ceina conserbatu behar baitu bere obra onez.
- G. *Cer erran nabi du hari escuan emaiten dioten argui phiztuac?*
- I. Jaincoaren amodioa, ceinaz bethea içan behar baita, eta harc eman behar duen exemplu ona.
- G. *Cergatic haurrari emaiten çajo saindu baten içena?*
- I. Mundu huntan sarcen den beçain laster hari emaita gatic imita deçaquençat aircindari eta exemplu bat, eta Jesu-Christoren gatenateco ararteco bat.

#### PRATICAC

1. Urthe guciez bathaja lekhuaren aldean erreberri deçagun Jaincoari bathajoan eguin guiniezcan promesac.
2. Urthe guciez gure bathajoco egunaz eguin deçagun besta bat, eta comunia deçagun, edo eguin deçagun bertce cenbait obra on, egun hartan errecibitu guinuen graciaz Jaincoari esquerrac emaiteco.
3. Artha handirequin conserba deçagun bathajoco gracia, eta Jaincoari egun guciez galde deçogun gracia lehenago hilceco ere hurra galduco dugun baino.

#### ISTORIOAC

Naaman Jordango urez Lepratic sendatua. *Lib. 4. Reg. c. 5. v. 14.* Egiptotic ilkhitea eta itsasso gorrian pasatcea. *Exod. c. 13. v. 14.* Noeren arcan batçuec salbatu ciren uraren lagunçaz uholdearen denboran, ceinac gal araci baitcituen gaineraco guciac. *S. Petri Epist. 1. c. 3. v. 20. & 21.* horiec guciac bathajoaren figurac dire eta Jesu-Christoren bathajoac. *Matt. 3. v. 13. & seq.* erakhusten darocu, haren bathajoan aguerian eguin cena, gurean agueri gabe complitcen dela.

## LAUR-GARREN LECCIONEA

### Confirmacioneaz.

- 112 G. *Cer da Confirmacionea?*
- I. Confirmacionea da Sacramendu bat, ceinac emaiten baitarocu Ispiritu saindua bere dohainequin, eta gure biciaren arriscutan bada ere Jesu-Christoren fedearen atchiquitceco eta cofesatceco graciarequin.
- G. *Cergatic deitzen duçu sacramendu hau Confirmacionea?*
- I. Ceren hunec fermutcen eta borthizten baicaitu bathajoan errecibitu dugun fedean.
- G. *Salbatua içaitecotz necessario da Confirmacioneco sacramendua errecibitcea?*
- I. Ez, bainan hura errecibitu gabe laçoqui egoiten direnec Jaincoa ofensatcen dute, eta sacramendu harc emaiten dituen graciez gabetuac egoiten dire.
- G. *Cer disposicionetan içan behar da guiristino bat confirmacioneco sacramenduaren errecibitceco?*
- I. İçan behar da graciaco estatuan, eta jaquin behar tu fedezco misterio principalac.
- G. *Cer eguin leçaque Confirmacioneco sacramendua bekhatu mortaleco estatuan errecibi leçaquenac?*
- I. Eguin leçaque sacrilegio bat, eta ezleçaque errecibi Ispiritu saindua.
- G. *Cer eguin behar da bada hura errecibitu baino lehen?*
- I. Cofesatu behar da, baldin eçagutcen badu bekhatu mortal cenbait eguin duela.
- G. *Confirmacionea errecibitu duenaren obligacioneac eta eguinbi-deac cein dire?*
- I. Hec dire Jesu-Christo gure Jaunaren fedea ahalqueric gabe atchiquitcea, eta haren Evangelio sainduco maximen seguitcea.

## BORTZ-GARREN LECCIONEA

Confirmissionearen efetuez.

- 113 G. *Cein dire Confirmissioneeco sacramenduaren efetuac?*
- I. Badire bortz.
1. Emaiten darocu Ispiritu saindua.
  2. Emaiten darocu haren graciaren abundancia eta haren dohai-nac.
  3. Eguiten gaitu guiristino perfet.
  4. Ecarcen du gure ariman caractera bat khencen eztena.
  5. Emaiten darocu indarra fedearen libroqui cofesatceco.
- G. *Confirmissionean guri emaiten çaicun Ispiritu saindua cer da?*
- I. Hura da Trinitate sainduco hirur-garren presuna, ceina jausten bai-ta sacramendu hau dispoçione sainduequin errecibitcen dute-nen arimetara.
- G. *Bethidanic eman içatu othe da confirmissionea?*
- I. Bai, isquiribatua da Apostoluen Actetan, confirmissionea emai-ten ciotela bathajatuac içatu cirenei.
- G. *Cer guerthatcen citçajen orduan confirmissionea errecibitcen çu-tenei?*
- I. Ispiritu saindua maiz aguerian eta suaren idurian jausten cen sacramendu hau errecibitcen çutenen gainera.
- G. *Orai gauça bera guerthatcen othe da?*
- I. Ez, bainan Ispiritu saindua agueri gabe heldu da confirmatcen direnen arimara.
- G. *Cergatic orduan eguiten cen, eta orai ezta guehiago eguiten miracuilu hura?*
- I. Ceren miracuiluac orduan necesario baitciren infidelen conber-titceco; bainan orai eztugu hequin beharric fedeaç irakhasten darozquigun gauça guciaren sinhesteco.
- G. *Ez othe dugu Ispiritu saindua jadanic bathajoan errecibitu?*
- I. Bai, errecibitu dugu, bainan ez graciaren hain abundancia han-diarequin.

## CONFIRMACIONEAREN

Efetuen seguida.

- 114 G. *Cein da Confirmacionearen bi-garren efetua?*  
I. Hura da guri emaita Ispiritu sainduaren graciaren abundancia.  
G. *Cein dire bereciqui sacramendu hunec guebienic emaiten dituen graciac?*  
I. Hec dire Ispiritu sainduaren dohainac ordinariozqui deitzen direnac.  
G. *Cein dire dohain hec?*  
I. Badire çazpi, jaquiteco,  
1. Çuhurcia.  
2. Adimendua.  
3. Jaquintasuna.  
4. Conseilua.  
5. Pietatea.  
6. Borthitztasuna.  
7. Jaincoaren beldurtasuna. *Ikhus çaçu horien esplicacionea bi-garren partean 23 garren leccionean. pag. 194.*  
G. *Nondic heldu da hain bertce guiristino baitire confirmacionea errecibitu dutenac, eta hain guti baitire gracia horiec guciac dituztenac?*  
I. Hori heldu da, ceren sacramendu hunençat behar cituzten dispoçioneac içañ gabez, ez baitituzte errecibitu hunen graciac, edo ceren errecibitu dituzten ondoan galdu baitituzte bekhatu eguinez.

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

- 115 G. *Cein da Confirmacionearen hirur-garren efetua?*  
I. Hura da, gu guiristino perfet eguitea.  
G. *Nola eguiten gaitu guiristino perfet?*  
I. Jesu-Christoren fedean indar eta animo guehiago guri emanaz.  
G. *Bada diferenciaric bathajatu baicic ezten baten, eta confirmatua den baten artean?*  
I. Bai, bathajatu baicic ezdenari behatu behar çajo haur flaco bati beçala; eta confirmatua denari bere adinic hobereneco indarrean den guiçon bati beçala.

- G. *Cein da Confirmanearen laur-garren efetua?*  
 I. Hura da harc gure arimetan eçartcen duen caractera ecin khen-  
 duzcoa.
- G. *Cein da caractera haren efetua?*  
 I. 1. Harc seinalatcen gaitu Jesu-Christoren soldadu eta deabrua-  
 ren etsai içaiteco.  
 2. Harc eguiten du ecin errecibi baiteçaquegu sacramendu hau  
 behin baicen.
- G. *Confirmaneoa ecin errecibi daiteque beaz behin baicic?*  
 I. Ez, eta hura behin baino guehiagotan errecibi leçaquenac sacri-  
 legio bat eguin leçaque.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 116 G. *Cein da Confirmaneeco sacramenduaren bortz-garren efetua?*  
 I. Harc emaiten darocu indarra Jesu-Christoren fedea libroqui co-  
 fesatceco, gure biciaren arriscutan bada ere.
- G. *Cer da Jesu-Christoren fedea libroqui cofesatcea gure biciaren  
 arriscutan ere?*  
 I. Hura da Evangelioco maximac seguitcea eta praticatcea gu har-  
 taric guibelatu nahi gunituzquetenen beldurric içan gabe.
- G. *Bada nihor guiristinotasuneco eguinbiden eguitetic gu guibelatu  
 nahi gaituenic?*  
 I. Lehenago Tiranoec hil arazten zituzten Jesu-Christoren leguearen  
 azpian bici ciren guiristinoac: Eta orai libertinec hartaric gui-  
 belatcen gaituzte Evangelioco maximec seguitcen dituztenez mes-  
 precioac eta trufac eguinez.
- G. *Guiristinoec cer eguiten çuten guiristinotasuna gatic Tiranoec  
 hil arazten cituztenean?*  
 I. Jaincoari esquerrac emaiten ciozcaten, ceren digne jujatcen ci-  
 tuen bere odolaren isurceco Jesu-Christoren fedearençat, eta na-  
 hiago çuten hil, bere guiristinotasuna den gutiena dissimulatu  
 baino.
- G. *Nola deitcen dire Religionea edo guiristinotasuna gatic hil dire-  
 nac?*  
 I. Deitcen dire Martirac, erran nahi da lekhucoac, ceren hec bere  
 odolaren gostuz lekhucoasuna errendatu baitiote Jesu-Christo-  
 ren fedeari.

- G. *Cer eguin beharco guinuque baldin orai fedearençat persecutatnac baguine?*
- I. Imitatu beharco gunituzque lehenbico guiristinoac, eta galdu beharco gunituzque gure ontasunac, gure libertatea, baita gure bicia ere Jesu-Christoren fedearn negatucac edo haren articulu choil bat dissimulatucac guinuquen baino lehen.
- G. *Infidelen edo Hereticoen artean bere fedea dissimula leçaquenac, bere barnean fedearn ukhatu gabe, bainan hura ere infidela edo hereticoa dela erakbustea gatic eta choilqui tormentaric ez sofritea gatic, gaizqui handia eguin othe leçaque?*
- I. Bai, hori bekhatu handi bat laiteque; ecen ezta cilhegui bere fedea guisa hortan dissimulatcea, hartaz arnegatcea baino guhiago.
- 117 G. *Ordean ezguindezque bada baguitz dohacabe, baldin fedea gatic hil arazten bagunituzte?*
- I. Ez, aiticic dohatsutasun handi bat hura laiteque gueretçat, hil beçain laster guindohazquenaz gueroztic Cerura, han Jaincoarequin batean haren erresumaz eta haren gloria eternalaz goçatcera.
- G. *Orai ezdenaz gueroztic guehiago Tiranoric, confirmacionearen beharric badugu?*
- I. Bai,
1. Hereticoac gatic, ceinec eguin ahala eguiten baitute gu bide gaichtoan eçarri nahiz.
  2. Libertinac gatic, ceinec trufatcen eta mespreçatcen baitituzte Evangelioco maximac seguitcen dituztenac.
  3. Munduco gendeac gatic, ceinec bethi persecutatcen baitituzte gente prestuac.
- G. *Horiei guciei cer eguiten diote confirmacioneco sacramenduaren gracia?*
- I. Harc emaiten du indarra beldurric ez içaiteco ez hereticoen enseju guciençat, ez libertinen trufençat, eta ez munduco genden persecucionençat.
- G. *Cer eguiten du oraino?*
- I. Harc laguncen gaitu.
1. Munduco charmei eta hango axeguinei gogorqui eguiten.
  2. Gure sensuen eta gure passionen mortificatcean dugun pena animorequin sofricen.
  3. Deabruaren tentacioneac indar guehiagorequin garaitcen.

## SEI-GARREN LECCIONEA

Confirमाणecō Sacramenduarē Ceremonia principalez.

- 118 G. *Norc du Confirमाणecō sacramenduarē emaitēco indarra?*  
I. Jaun Apezpicuēc dute.
- G. *Jaun Apezpicuac Confirमाणea emaitēan eguitēn dituēn ceremoniac cēin dire?*  
I. Eguitēn tu laur principalac.
- G. *Erraçū lebēna?*  
I. Erraitēn tu othoitçac.
- G. *Erraçū hirur-garrena?*  
I. Confirmatcēn dituēnēi escuac buruarēn gainēan eçartzēn diozcatē.
- G. *Erraçū hirur-garrena?*  
I. Confirmatcēn dituēnēn copeta gurutcearēn seinalean gançutcēn du Crisma sainduaz.
- G. *Erraçū laur-garrena?*  
I. Confirmatu dituēnēan emaitēn diotē çapartaco chumē bana.
- G. *Jaun Apezpicuac cergatic erraitēn tu othoitçac hēc?*  
I. Confirmatcēra dohanēn gana Ispiritu saindua jauts araztēco.
- G. *Cergatic escuac buru gainēan eçartcēn diozcatē?*  
I. Erakhustēra emaitēco, sacramendu hau behar dēn beçala errecibitcēn dutēnēn arimara heldu dēla Ispiritu saindua.
- G. *Confirmatuac copētān gançutcēn dirēn Crisma saindua cēr da?*  
I. Hura da Olibazco Olioā balsamoarequin nahastatua, Jaun Apezpicuac urthē guciēz Ortçegun Sainduz consecratcēn duēna.
- G. *Confirmatcēan cēr erakhustēra emaitēn du Olioac?*  
I. Nola Olioac baitu hedatcēco edo banatcēco etā indarēn emaitēco berthutēa, hura da Ispiritu sainduarēn graciāc duēn abundanciārēn etā indarrarēn seinalea.
- G. *Cēr errān nahi du balsamoac olioarequin nahastatuaç?*  
I. Bere usain ona gatic hura da confirmatua dēn guiristinoac eman behar duēn exemplū onarēn seinalea.



- G. *Jaun Aphezpicuac cergatic eguiten du copetan gançutuz gurutcearen seinalea?*
- I. Lehenbiceric, erakhustera emaiteco confirmatua denac eztuela behar ahalcatu Jesu-Christo gurutceficatuaren fedea eta maximac atchiquitceaz eta sostengatceaz.
2. Erakhustera emaiteco sacramendu hunen berthute gucia heldu dela Jesu-Christoren gurutcetic eta haren pasione saindutic.
- G. *Cer erran nabi da Jaun Aphezpicuac confirmatu duenari emaiten dioen çapartacoa?*
- I. Harc erakhustera emaiten du, guiristino bat prest egon behar dela afruntu, pena eta nahigabe gucien sofricera Jesu-Christo gatic.
- G. *Confirmatcera goaitcan cergatic eramaiten da oihal cherrenda bat?*
- I. Crisma Sainduaren chucateco errespetuz, profanatua içan ezdadin.

## ÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Confirmacioneco Sacramenduaren errecibitceco behar diren disposicione hurbilenez.

- 119 G. *Cein disposicionerequin hurbildu behar da confirmacioneco sacramenduaren errecibitcera?*
- I. Badire bi suerte, batçuec gorphutçari uquitcen çaiçco, bertceac arimari.
- G. *Cein dire gorphutçari uquitcen çaiçcon disposicioneac?*
- I. Badire laur.
1. Behar dire içan arropa propiac eta modestac.
  2. Jaun Aphezpicuaren aiticinean belhaurincatu behar da, baldin berac bertcela manatcen ezbadu.
  3. Beguiac iduqui behar dire behehituac, burua chuchen, eta copeta agueria.
  4. Oihalezco banda bat atchiqui behar da escuetan.
- G. *Cein dire arimari uquitcen çaiçcon disposicioneac?*
- I. Sacramendu harc emaiten duen Ispiritu sainduaren errecibitceco desira eta guticia handi baten içaitera ensejatu behar da.

G. *Cein dire bereciqui eguin behar diren actac?*

I. Badire laur.

1. Fedezco actac bereciqui sacramendu hunen eguiaren eta berthuthen gainean.
2. Humilitatezco actac, eçagutcen dugularic ezgarela gai edo digne Ispiritu saindua gure bihotcean errecibitceco.
3. Ispiritu sainduaren ganateco amodiozco actac, harc nahi duenaz gueroz ethorri gure baithara.
4. Da lehia handi batequin deitcea eta gonbidatcea Ispiritu saindua ethor dadila othoi gure baithara, eta handic bethicotz khen deçala bekhatua.

G. *Cergatic beguiratu behar da confirmaturic heldu dena?*

I. Eztu escuez uqitu behar copeta, bainan iguriqui behar du Jaun Aphezpicua laguncen duten Aphezeticaric batec chucatu dioquen artean, edo copetan oihal cherrenda bat eman deçoquen artean.

G. *Cer eguin behar da sacramendu hau errecibitu den ondoan?*

I. Bere lekhtic bazter batetara aldaratu behar da, han distraccione gutiagorequin othoitz eguiteco, eta cenbat denboraz egon behar da belhaurinco.

G. *Cer eguin behar da belhaurinco dagoen denboran?*

I. Bortz gauça.

1. Jaincoari esquerrac emaita errecibituric heldu garen graciaz.
2. Bere burua ossoqui consecratu behar dio Ispiritu sainduari, eta hura othoiztu behar du eguin deçala hartaz nahi duen gucia bere gloriacotz.
3. Hartu behar da gogo eta borondate on bat, ethorquicunerat Evangelioco maximen seguitceco, munduco genden trufez, mesprecioez eta persecucionez acholaric içan gabe.
4. Galdeguin behar çajo Ispiritu sainduari othoi conserba deçala guc errecibitu dugun gracia, eta lehenago hil ere gaitecin hura secular galduco dugun baino.
5. Ezta ilkhi behar Eliçatic Jaun Aphezpicuac ceremonia gucia akhabatu eta azquenean erraiten diren othoitçac erran dituzquen artean.

## ÇORTCI-GARREN LECCIONEA

Confirmacioneco Sacramenduaren gracia conserbatceco bidez edo mojanez.

- 120 G. *Gauça baliosa eta haguitz importante othe da confirmacionean errecibitu ditugun graciai ungui conserbatcea?*
- I. Bai, gauça haguitz importante da hequin conserbatcea.
- G. *Cergatic da gauça hain importante gracia hequin conserbatcea?*
- I. Hirur arroçoin gatic.
1. Ceren hec baitire guc içan ahal detçaquegun ontasunic eta tresoric preciatuenac.
  2. Ceren gracia hec behin galduz gueroz, haguitz baita gaitz hec berriz ardieste.
  3. Ceren behin baicic ezbaita errecibitcen gracia hec emaiten dituen sacramendua, ceina baita confirmacionea.
- G. *Cer eguin behar da gracia hequin conserbatceco?*
- I. Hirur gauça.
1. Ispiritu sainduari ungui othoitz eguin behar çajo, othoi berac conserba detçala hec gure baithan.
  2. Urthe guciez gure obra onez santificatu behar dugu confirmacionea errecibitu dugun eguna.
  3. Bereciqui ihes eguin behar diotegu confirmacioneco gracia-  
ren contraco guehien diren bekhatuei.
- G. *Cein dire bekhatu hec?*
- I. Badire laur.
1. Da gure Religioneco Misterioez errespeturic gabe minçatcea, edo sofritcea berceac gure aiticinean hala minça daitecin.
  2. Da debotac garela erakhusteaz eta obra onac eguiteaz ahalcatcea, eta chede hortaz obra on hec eguin gabe egoitea edo hequin estalcea.
  3. Bere obligacionetan huts eguitea, beldurrez cerbait gal edo gaizqui tratatua içan.
  4. Bere fedea eta religionea dissimulatcea.

## PRATICAC

1. Ezdeçogun Ispiritu sainduari behinere damuric eguin guc Jaincoaren cerbitçucotz dugun epheltasunaz, eta oraino gutiago behar dugu iraungui gure bekhatuez.

2. Obedi deçotegun haren boçari eta inspiracionei, hequin se-  
guitceco eta hequin arabera eguiteco.

3. Declara gaitecin haltoqui eta aguerian pietatearençat, eta ez-  
gaitecin gorri ez ahalca sacramenduen hantatceaz eta obra onen egui-  
teaz.

## ISTORIOAC

Ispiritu saindua nola jautsi cen. *Act. c. 2.* Ispiritu saindua Sa-  
mariaco guiristinoei eman citçajen escuac hequin buru gainean eçarriz,  
*c. 8. v. 14. & seq.* Jondoni Pauloc orobat eman cioten Ephesaco cen-  
bait guiristinori, *cap. 19. v. 6. & seq.*

## BEDERATCI-GARREN LECCIONEA

Gorphutz Sainduaz.

121 G. *Cer da Gorphutz sainduaren sacramendua?*

I. Gorphutz saindua da sacramendu bat, ceinetan edireiten baitire eguiazqui eta errealqui Jesu-Christo gure Jaunaren Gorphutça, odola, arima, eta Jaincotasuna oguiaren eta mahax arnoaren idu-  
rien edo itchuren azpian.

G. *Cer aditcen duçu oguiaren eta mahax arnoaren iduriez edo itchu-  
rez?*

I. Hec dire gure sensuetan agueri direnac, nola baitire, oguiaren eta mahax arnoaren colorea, figura, eta gostua.

G. *Consecracionearen ondoan ezta guebiago guelditcen oguiric eta  
arnoric?*

I. Ez, ogui gucia itçulcen eta aldatcen da Jesu-Christoren Gorphu-  
tçera, eta arno gucia haren odolera.

G. *Hori sinhesten duçu bada cinqui eta fermuqui?*

I. Bai, eta hain cinqui eta hain fermuqui nola nere beguiez ikhusten  
banu, ceren Jesu-Christoc berac errana baita.

- G. *Nola eguiten da itçulce eta mudança hori?*  
 I. Consecracioneço hitcen berthute miragarriaz eta gucz puchantaz.
- G. *Nola deitcen da mudança hori?*  
 I. Deitcen da *Transsubstanciacionea*, erran nahi da, sustancia batetic bertcera aldatcea.
- G. *Ez othe da gorphutça baicic oguiaren iduriaren azpian, eta ez odola baicic arnoaren iduriaren azpian?*  
 I. **Bai**, Jesu-Christo gucia ossoa da iduri bakhotcharen azpian, erran nahi da, haren gorphutça, haren odola, hacen arima eta haren Jaincotasuna guciac ossoac dire nahiz oguiaren nahiz arnoaren idurien parte bakhotchcan.
- 122 G. *Ostia Saindua hausten denean, hausten othe da halaber Jesu-Christoren gorphutça?*  
 I. Ez, ezta hausten oguiaren iduria edo itçhura baicic.
- G. *Nola bada hori?*  
 I. Ceren Jesu-Christo edireiten baita idurien edo itçhuren azpian, hainitz partetara ecin erreparti daitequen guisa.
- G. *Ostiaren parte bat baicic errecibitcen ez duenac, edo iduri bat baicic errecibitcen ezduenac, errecibitcen othe du Jesu-Christo gucia ossoric?*  
 I. Bai, ceren Jesu-Christo gucia ossoa baita iduri bakhotcharen azpian, bai halaber idurien parte bakhotcharen azpian.
- G. *Jesu-Christo ilkhitcen othe da Cerutic ostiara ethorceço?*  
 I. Ez, betan edireiten da Ceruan eta mundu gucian diren ostia consecratuetic bakhotchcan.
- G. *Horiec guciac nola eguiten dire?*  
 I. Jaincoaren bothere guci handiaz eta puchantaz, ceinac eguin baiteaçaque nahi duen gucia.
- G. *Jesu-Christo gure Jaunac noiz eguin eta ordenatu çuen Gorphutz Sainduaren Sacramendua?*  
 I. Orcegun Sainduz, bere Passionearen bezperan.
- G. *Non eguiten da Sacramendu saindu hau?*  
 I. Aldarearen gaincan Meça saindua erraitcan.

## PRATICAC

1. Ezgaitecin behinere Elicetan aguer errespetu handi batequin baicen, eta ez han miça premiaz baicen eta ichilic baicen, eta eguin

ahalaz guibela detçagun han eguiten diren errespetu gabezco hutsac.

2. Eguin ahala eguin deçagun Eliçac eta Aldareac propiqui aphainduac içan daitecinçat, guere lagunça hartacotz eman deçagun gure arthaz, gure lanez, eta gure ontasunetatic.

3. Sacramendu saindua segi deçagun Erietara eramaiten dutenean.

## ISTORIOAC

Gorphutz sainduco Sacramenduaren figurac. Desertuco mana. *Exod. c. 16. & 1. Cor. c. 10. v. 3.* Eliasen Istorioa. *3. Reg. c. 19. v. 6. & seq.* Jesu-Christoc aguindu çuen Sacramendu hau ordenatuco çuela. *Joan. c. 6. v. 48 & seq.* Nola ordenatu çuen. *Matt. c. 26. v. & 1. Cor. c. 11. v. 23.*

## HAMAR-GARREN LECCIONEA

Comunioneaz, eta haren efetuez.

- 123 G. *Jesu-Christo gure Jauna certaco da Gorphutz sainduaren Sacramenduan?*
- I. Bere Aita Jaincoari bere burua sacrificiotan ofritceco, eta gure arimen janhari içaiteco.
- G. *Nola içaiten da gure arimen janharia?*
- I. Comunioneaz.
- G. *Cer da comuniatcea?*
- I. Comuniatcea da Gorphutz sainduaren Sacramendua errecibitcea.
- G. *Jesu-Christoren eguiazco Gorphutça, errecibitcen othe dugu comuniatcean?*
- I. Bai, hura da Birgina sainduaren sabelean hartu çuen Gorphutz bera, berac gurutcean eçarri duen hura, bera eta orai Ceruan den hura bera.
- G. *Cein denboraz gara guehienic obligatuac comuniatcera?*
- I. Bazcoz, eta hilceco arriscutan garenean.
- G. *Comuniatceco desira eta guticia handia içan behar dugu?*
- I. Bai, ceren hura baita guc mundu huntan içan ahal deçaquegun dohaxutasunic handiena.
- G. *Cergatic da hain dohaxutasun handia?*
- I. Ceren comunioneac gure baithan eguiten baititu efetu miragarriac.

- G. *Cein dire efetu bec?*
- I. Badire laur principalac.
1. Jesu-Christorequin juntatcen gaitu eta harequin Gorphutz bat eguiten.
  2. Gure baithan berretcen eta conserbatcen du graciaren bicia.
  3. Flacatcen du concupiscencia edo bekhaturateco lehia, eta phagegatcen du gure passionen bicitasuna.
  4. Hura da gure baithan bicitce eternalaren eta phizte glorios baten bahi bat.
- G. *Comunioneac nola juntatcen gaitu Jesu-Christorequin?*
- I. Haren haragui sacratuan eta haren odol preciatuan parte hartuz.
- G. *Comunione sainduac noren baithan eguiten tu efetu horiec guciac?*
- I. Disposicione sainduequin comuniatcen dutenen baithan.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

Comunionearen ungui eguiteco disposicionez.

- 124 G. *Ungui eta dignequi comuniatceco behar ditugun disposicioneac cein dire?*
- I. Badire bi suerte, batçuec arimari uquitcen çaiçconac, eta bertceac gorphutcecoac.
- G. *Cein dire arimaco disposicioneac?*
- I. Badire laur.
1. Concienciaco garbitasuna.
  2. Fede bici bat.
  3. Fidancia humil bat.
  4. Caritate bero bat.
- G. *Cer eguin behar dugu concienciaco garbitasunaren içaiteco?*
- I. Behar dugu guere burua frogatu, erran nahi da, guere barrena examinatuz; eta baldin bekhatuan bagara, penitenciaco Sacramendura laster eguin.
- G. *Asqui othe da bekhatu mortalic bere baithan ez eçagutcea?*
- I. Ez, içan behar da oraino bekhatu benialaren afeccioneric edo amodioric gabe.
- G. *Cer erran nahi da bekhatu benialaren amodioric gabe içaitea?*
- I. Hura da chede eta borondate içaitea bekhatu benialic batere bere nahitara aiticnetic deliberaturic ez eguiteco.

- G. *Certan dago fede bici hura, ceina baita bigarren disposicionea?*
- I. Hirur gaucetan.
1. Da bat banazca ungui jaquitea fedezco articulu principalac.
  2. Da cinez eta fermuqui sinhestea gu errecibitcera goacina Jesu-Christo bera dela, gure Salbatçailea eta gure Jaincoa.
  3. Da harc gure baithara ethorceaz eguiten darocun ohore handiaz orduan berean ungui orhoitcea.
- G. *Cer da fidancia humila, ceina baita hirur-garren disposicionea?*
- I. Hura da, gure Jaun ona baithan esperança içaitea, bera guri eman nahico çaicula bere gracia guciequin, ezgarelatic arren hartaco gai ez digne.
- G. *Certan dago caritate bero eta kharsu hura, ceina baita laur-garren disposicionea?*
- I. Bi gaucetan :
1. Da guticia eta desira bero bat içaitea juntatceco Jesu-Christorequin, ceinaren gana itçuli behar baita gure bihotceco amodio eta samurtasun gucia.
  2. Da guere buruac ossoqui Jaun hari consecratcea, harc guri bere burua ossoqui emaiten darocun beçala.
- G. *Disposicione horien gucien içaiteco cer eguin behar da?*
- I. Bi gauça :
1. Comunionearen bezperatic Jaincoari galdeguin behar diogu othoi berac eman detçagula.
  2. Disposicione hec guere baithan içaitera biciqui ensejatu behar gara, orhoituric Jesu-Christoc cein maite gaituen eta cein ona den guretçat, Sacramendu huntan erakhustera emaiten darocun beçala, hemen bere burua emaiten darocunaz gueroz, gu haren ofensatcen bethi hari garelaric arren.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

#### Gorphutceco Disposicionez.

- 125 G. *Cein dire gorphutçari uquitcen çaitcon disposicioneac?*
- I. Badire hirur principalac.
- G. *Ceina da lebena?*
- Ī. Hura da barur gaitceticaric içatea, erran nahi da, gauherdiz gue-



roz jan edo edan gabea, baldin Sacramendu hau Biatico beçala errecibitcen ez bada.

- G. *Cein da bi-garren disposicionea?*
- I. Hura da arropa propioac eta modestac içaitea, Jesu-Christo errecibitcera goacinari çor diogun errespetua gatic.
- G. *Banitatez betheric aphainduac diren nescatchac, modestiaren contraco burucoac edo cofiac dituztenac, edo bulharrac agueri dituztenac, arropa modestequin dire comunione sainduaren errecibitceco?*
- I. Ez, hequin banitatea higün du Jesu-Christoc, ceinac maite baitu modestia.
- G. *Cein da hirur-garren disposicionea?*
- I. Hura da debocione eta errespetu ahalic handiena bere baithan erakhustea.
- G. *Cer eguin behar da debocione eta errespetu handi hura bere baithan erakhusteco?*
- I. 1. Joan behar da Eliçara beguiac modestqui behehituric.  
2. Nihorequin ez minça premiaz baicic.  
3. Eliçan egon belhaurinco eta bazter batetan, han Jaincoaz baicen ez orhoitceco.
- G. *Bekbatu mortalic ez içan arren, disposicione horiec guciac ezdituztenec errecibitcen othe dute Jesu-Christo comunionean?*
- I. Bai, bainan hec ezdute comunionetic hain bertce probetchu atteratcen, nola disposicione horiec guciac dituztenec eguiten baitute.

## HAMECA-GARREN LECCIONEA

Cer eguin behar den Comuniatceracoan.

- 126 G. *Cein denboraz bereciqui eguin abalac eguin behartugu debocionearen içaiteco comuniatu behar dugunean?*
- I. Bereciqui comunionearen aitcineco Meça saindua erraitean.
- G. *Bai eta ez bada necesario othe da Meça saindua ençutea comuniatu baino lehen?*
- I. Guiristinoen usança da hala eguitea, eta ezta berçela eguin behar premiaric gabe.

- G. *Cer erabili behar da gogoan Meça saindu hura erraitean?*
- I. Gogoan erabili behar dugu cein accione handiaren eguitera goacin, eta Jaincoari gogotic galdeguin gracia mahain saindura dig nequi eta sainduqui hurbilceco.
- G. *Cein dire orduan hartacotz eguin behar diren Actac?*
- I. Badire bortz principalac. Jaquiteco,
1. Fedezco Acta.
  2. Humilitatezco Acta.
  3. Contricionezco Acta.
  4. Amodiozco Acta.
  5. Desircundezco Acta.
- G. *Nola eguiten duçu fedezco Acta bat comunioniaren aiticanean?*
- I. *Jesu-Christo ene Salbatçaile maitea, Gorphutceco beguiez ikhus-ten banu baino fermuquiago sinhesten dut çu ceroni çarela nic errecibituco çaitudana, Aldareco Sacramendu saindua errecibitcean.*
- G. *Nola eguiten duçu humilitatezco Acta?*
- I. *Ene Jaincoa, eznaiz batere digne çu sar çaitecin ene baithan, bainan çu baitçara guciz ona çure baithan dut ene esperança gucia eçarria, erraçu choilqui hitz bat, eta ene arima içanen da sendatua bere miseria gucietaric.*
- G. *Nola eguiten duçu contricionezco Acta?*
- I. *Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagotçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic ceren guciz ona çarelaric ofensatu çaitudan, eta hartcen dut borondate fermu bat ez guebiago bekhaturic eguiteco çure graciarequin batean.*
- G. *Nola eguiten duçu amodiozco Acta?*
- I. *Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz, eta munduan maiteren ditudan gauça gucien gainetic.*
- G. *Nola eguiten duçu desircundezco Acta?*
- I. *Çato, ene Jesus dibinoa, çato ene bihotcera, libra çaçu othoit ene bihotça gaitz gucietaric bethe çaçu çure dohainez eta çure graciez, çure errecibitceco desira eta guticia handi batequin dago.*
- G. *Acta horiec ahoz erraitea, edo liburuan iracurcea asqui othe da?*
- I. Ez, bere bihotçaren barrenetic erran behar dire, eta ensejatu behar da bere ariman içaitera Acta horietan eçarriac diren sentimenduac.

- G. *Cer erabil daiteque oraino gogoan comunionearen aitcineco Meça saindua erraiten?*
- I. On da orhoitcea Jesu-Christoren passione sainduaz.
- G. *Cergatic hori?*
- I. Bi arroçoin gatic,
1. Ceren Jesu-Christoc ordenatu baitu Gorputz sainduaren Sacramendua bere passionearen orhoitçapen bat içaiteco.
  2. Ceren deusec ezbaicitçaque hobequi ekhar eta lehia araz haren handirozqui maitatcera.

## HAMABI-GARREN LECCIONEA

Nola behar den hurbildu Mahain saindura, eta han Comunionea errecibitu.

- 127 G. *Nola hurbildu behar da Mahain saindura?*
- I. Harat ethorri behar da beguiac beheituric, modestia handi batequin, eta belhaurinco jarri comuniatu behar den lekhuari.
- G. *Non jarri behar da belhaurinco?*
- I. Baldin bada calustraric, haren contra; eta ezaldin bada, lur choilean aldareco oinetaco thaularen azpico aldean.
- G. *Ezdaiteque belhaurinca aldarearen oinetaco thaularen edo escalera mailen gainean?*
- I. Ez, hori etçajote conbeni Eliça guiçonei baicic comuniaticen dutenean.
- G. *Nola atchiqui behar da comunionea dafaila?*
- I. Hedatu behar da halaco guisaz non, baldin Ostia saindua Apheçaren escuetaric erorcen baliz, bailihoa que dafailaren gainera, arropen gainerat edo lurrerat erorcera utci gabe.
- G. *Comuniaticeco aitcinean edo ondoan ezpainac dafailaz chucatu behar dire?*
- I. Ez, ezta hura conbeni ez ungui, eta ezta hala eguin behar.
- G. *Gogoan cer erabili behar da, Confiteor erraiten den denboran, eta Apheçac Ostia saindua escuan dagocala othoitz usatuac erraiten dituen denboran?*
- I. Orduan erreberitu behar dire bere bihotcean aitcin huntan diren humilitatezco eta contricionezco edo amodiozco Actac.

- G. *Comuniatceracoan nola atchiqui behar da burua?*  
 I. Atchiqui behar da gueldiric eta chuchen, aitcinatu edo guibelatu gabe, eta higitu gabe.
- G. *Nola behar dire beguiac iduqui?*  
 I. Ezta behatu behar baterat eta bertcerat, eta ez beguiac atchiqui Apheça ganat harmatuac, bainan iduqui behar dire modestqui behehituac, edo Ostia saindua ganat itçuliac.
- G. *Ahoa nola idequi behar da?*  
 I. Ez sobra, ez gutiegui, eta mihia azpico ezpainaren gainerat aitcinatucheric.
- G. *Ostia saindua errecibitu denean, cer eguin behar da hartaz?*  
 I. Utcu behar da aphur bat mihiaren gainean, eta guero heçatu denean iretsi behar da errespetu handirequin, ahoan ossoqui urtcera utci gabe.
- G. *Baldin Ostia saindua aho gangari lotcen balitçajo cer eguin behar laiteque?*  
 I. Behar laiteque handi emequitto mihiaz khendu, erhiezu uqitu gabe, eta trublatu gabe.
- G. *Baldin Apheçac Ostia baten lekhuac bia emaiten bailitu, edo baten erdia baicic emaiten ezbalu, hartaz grinaric behar laiteque?*  
 I. Ez, errecibitu beharco laitezque biac edo baten erdia; ceren seguratuac içan behar baicara ezdugula guehiago errecibitcen bi Ostiatan batean baino, eta ez gutiago erdi batean baino.

## HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA

Cer eguin behar den comuniatu ondoan.

- 128 G. *Cer eguin behar dugu Jesu-Christo gure jauna guere baithan errecibitu dugun ondoan?*  
 I. Ahalic hobequiena erakhustera eman behar diogu Jaun hura gure baithan içaiteaz dugun bozcarioa.
- G. *Ondoan cer eguin behar da?*  
 I. Joan behar da bazter batetara, han oren laurden batez bederen Jaincoari esquerrac emaitera.
- G. *Han cer eguin behar da orduan?*  
 I. Bereciqui laur gauça.

1. Adoratu behar dugu humilqui Jesu-Christo; hartaracotz juntatu behar gaizcote Aingueruec eta Sainduec Jaun hari errendatcen diozcaten adoracionei, eta guciac ofritu behar diozcagu.
2. Esquer handiac eman behar diozcagu, ceren ethorri nahi ičan duen gure gana, gu bere graziez bethetcera, garelaric arren hain flacoac eta hain deus gutiac.
3. Galdeguin behar diogu haren ganateco amodio saindua, eta behar ditugun gracia guciac.
4. Othoitz eguin behar diogu Eliçaren behar edo necesitate guciencat, gure ahaidenençat, adisquidenençat, etsajenençat, aiticindarienençat, eta ungui-eguilenençat.

G. *Eguiçu adorationezco Acta bat.*

I. *Ene Salbatçailea, adoratcen çaitut ene Creatçailea beçala, junta-tcen natçajote Aingueruec eta Sainduec Ceruan errendatcen darozquitçuten adoracione humilei, eta ofritcen diozcat Trinitate Sainduari çuc Sacramendu sainduan hari errendatcen diozcatçun guciac.*

G. *Eguiçu esquer onezco Acta bat.*

I. *Ene Salbatçailea, ene bihotz guciacz esquerrac darozquitçut çure ganic errecibitu ditudan gracia guciez, eta bereciqui ceren ičan çaren asqui ona çu ceroni emaiteco ni beçalaco bekhatoros gacho bati, naicelatic arren hartaco hain indigne.*

G. *Eguiçu galdezco Acta bat.*

I. *Ene Salbatçaile Dibinoa, çuc eçagutcen ditutçu ene arimaco es-casiac, emoçute othoi erremedio haren flacotasunari eta pobre-ciari, eta guciz berret çatçu ene baithan çure ganateco amodio saindua eta çure ofensatceco beldurtasuna: Lagun çaçu othoi, Jauna çure Eliça saindua bere behar gucietan, eta persecucione gucien contra; saindu çatçu haren galçarren direnac, eta guciz ene abaideac, ene adisquideac eta etsajac, ene aiticindariac, eta ene ungui eguileac, eguin dieçaguçu guciei gracia çu choilqui cerbitçatceco.*

129 G. *Cer eguin behar dugu oraino?*

- I. 1. Ofritu behar gaizco Jesu-Christori gueroc, eta guc ditugun gauçaric maiteren guciac.
2. Jesu-Christo bera ofritu behar diogu Trinitate sainduari gu-re bekhaturen barkhamendutan.

- G. *Egiçu ofrimenduzco Acta bat.*
- I. *Ene Salbatçailea, ofritcen natçaitçu naicen gucia, nic abal da-guiquedan gucia, eta nic ditudan gauça guciac, errecibi çatçu guciac, eguiçu guciez çuc plazer duçuna, eta permeti çaçu ni neroni çuri ofritcean çu ceroni ere ofri çaitçadan Trinitate sainduari ene eta guiçon guciën bekkatuen bakhamendutan.*
- G. *Cer erran behar da communiatu dutenean berehala Eliçatic ilkhitcen direnez?*
- I. Bere debocione escasiaz arriscutan jarcen direla bere comunio-neco probetchuaren galceco.
- G. *Asqui da Jaincoari esquerren emaiten oren laurden bat egoitea?*
- I. Ez, behar da oraino gaineraco egun gucia iragan eta pasatu ahalic sainduquiëna.
- G. *Cer eguin behar da hartaco?*
- I. 1. Baldin bada predicuric, hura entçun behar da.  
2. Elicaco oficioetan aurkhitu behar da.  
3. Behar da cenbait liburu on iracurri, edo bertce cenbait obra on eguin.
- G. *Ordean trabailuan edo lanean hari behar duenac cer eguin behar du?*
- I. 1. Bere lanean hari delaric debotqui egon behar da.  
2. Bere barnean orhoitu behar da Jaincoaren presenciaz eta egun hartan eguin dioen graciaz.  
3. Bere lana esquer onarençat ofritu behar dio.  
4. Eta baldin arraxaren gainera cenbait denbora har ahal badaçaque, hari behar da othoitz eguiten edo cenbait liburu onen iracurcen.

## HAMALAU-RGARREN LECCIONEA

Comunione suerte diferentez.

G. *Cenbat comunione suerte dire?*

I. Badire hirur suerte.

1. Da gaichtoa edo comunione indigne.
2. Comunione ephela.
3. Comunione ona.

### COMUNIONE GAICHTOAZ

edo indignoaz.

130 G. *Cer da comunione gaichtoa edo indignoa?*

I. Hura da comunione bat bekhatu mortalean eguina.

G. *Gaizqui handia othe da bekhatu mortalean comunitatcea?*

I. Hura da eguin ahal daitezquen bekhatu eta crima handienetari bat, eta sacrilegio icigarri bat.

G. *Crima eta sacrilegio horrençat ikhara handia içan behar othe dugu?*

I. Bai, horrençat beldurrago içan behar gara, gogora ethor ahal daitezquen gaitz guciencat baino, bai eta heriotcearen beraren baino ere beldurrago.

G. *Cergatic içan behar dugu crima horrençat hain ikhara handia?*

I. Jesu-Christori haren gorputça eta odol preciatua profanatuz eta gaizqui erabiliz eguiten çajon injurio gogor eta espantagarri gatic.

G. *Cer eman behar darocu oraino bekhatu icigarri horren ikhara?*

I. Horren seguidec, ceinac baitire ikharagarriac.

G. *Cein dire seguida hec?*

I. Maicenic ethorcen dena da bihotz-gogortasuna eta erreprobacionea.

G. *Nola hori?*

I. Ceren crima hori eguin duenaren bihotça maiz gogortcen baita

eta sentimenduric gabe jarcen graciaren mobimenduençat, eta gutitan halacoac eguiten baitu penitencia.

G. *Cergatic hori?*

I. Ceren, Jondoni Pauloc dioen beçala, dohacabe harc jaten eta edaten baitu bere condenacionea. 1. *Cor.* 11. v. 29.

G. *Bada horren exempluric?*

I. Bai, Judasen exemplua, ceinac eguin baitçuen lehenbico comunione indignoa, ondoan hura gogortu cen eta sentimenduric gabe jarri cen Jesu-Christoren boçarençat, eta handi laster joan cen bere buruaren urkhatcera desesperacionez.

G. *Nor dire comunione indigno baten eguiteco arriscutan jarcen direnac?*

- I. 1. Cofesione on baten eguiteco behar den beçala examinatcen ezdirenac.
2. Cofesatcean bere bekhatu guciac accusatcen ezdituztenac.
3. Bere bekhatueticor corregitceco artharic batere içaiten ezdu-tenac.

#### COMUNIONE EPHELAZ

131 G. *Cer da comunione Ephela?*

I. Hura da guti preparaturic eta debocioneric gabe eguiten dena.

G. *Nor dire comunione ephelac maicenic eguiten dituztenac?*

I. Hec dire.

1. Bekhatu benialarençat ikhararic eta higuinçaric asqui ezdu-tenac.
2. Mundu huntaco ontasunetara eta bicitce huntaco axeguine-  
tara emanac direnac.
3. Obra onen eguiteco artharic ezdutenac.

G. *Comunione ephelen eguiteco beldur handia içan behar dugu, eta halacoric ez eguiteco arta handia?*

I. Bai, hirur arroçoin gatic.

G. *Cein da lehena?*

I. Ceren comunione ephelec injurio eguiten baitiote Jesu-Christo gure Jaunari, hala nola Jaun handi bati injurio eguin baileço-  
que norc ere errecibi baileçaque bere etchean beguitarteric eguin gabe eta hari damu eguin ahal deçoqueten gauçac handi khendu gabe.



- G. *Cein da bigarrena?*  
 I. Ceren bidegabe hainitz eguiten baitiote epheltasuneco estatu hartan comuniatcen duenari.
- G. *Certan eguiten diote bidegabe?*  
 I. Ceren bihotz ungui preparatuetara Jesu-Christoc abundantqui hedatcen dituen graziez gabetua uzten baitute.
- G. *Cein da hirur-garrena?*  
 I. Ceren ordinariozqui hec uzten baitituzte seguida icigarri batçuec.
- G. *Cein dire seguida hec?*  
 I. 1. Hec uzten dute arima languidura ispiritual batean ceinac errachqui tentacionetan eror arazten baitu.  
 2. Hec emequi emequi disposatcen dute comunione indignoen eguitera.
- G. *Nola hori?*  
 I. Ceren bekhatu chumez acholaric ezduena, emequi emequi eror-cen baita bekhatu handietan, eta hetaz ere corregitceco artharic gabe egoiten baita, bekhatu chumez beçala.
- G. *Cer bide edo mojan hartu behar da comunione ephelic ez eguiteco?*  
 I. Badire bereciqui hirur.  
 1. Gure arima garbitcea penitencia eguinez bekhatu guciataric, bai benialetaric ere.  
 2. Artha guehiagorequin erretiratua bere baithan egoitea comunionearen bezperatic, eta sobra arincen duten lanei eta compainiei ihes eguitea.  
 3. Comunione bakhotchecan gure nahicarez edo gure axeguinez cenbait sacrificio chume Jesu-Christori eguitea.

#### COMUNIONE ONAZ

- 132 G. *Cer da comunione ona?*  
 I. Hura da accione hain saindu batec galdeguiten duen berotasun eta debocione guciarequin eguiten duguna.
- G. *Cein dire comunione on baten efetuac eta seguidac?*  
 I. Hamar-garren leccionean erranac diren hec berac. pag. 248.
- G. *Cer seinaletan eçagut abal deçaquegu, hea guc eguiten ditugun comunioneac onac othe diren?*  
 I. Badire bortz bereciqui.  
 1. Hea berretcen eta aitcinatcen garen humilitatean eta Jaincoaren ganateco amodioan.

2. Hea mespreçatcen ditugun munduco banitateac.
  3. Hea beldurric badugun bekhatu chumerençat eta imperfecioneric arinenençat.
  4. Hea gogotic eguiten ditugun caritatezco eta penitenciazco obrac.
  5. Hea gogoric badugun Jaincoaren gaucetacotz; nola baitire, haren hitçaren aditcea, liburu onen iracurcea, othoitz eguita, gende prestuac hantatcea eta hequin solasen egoitea.
- G. *Comunione onen eguiteco eguin abal detçaquegun praticac ceim dire?*
- I. Huna hirur probetchu handitacoac.
    1. Comunione batetic bertceraco bizquitartean hari gaitecin habituda edo usança gaichto baten uzten.
    2. Comunione bakhotchça eguin deçagun cenbait intencione particularretara, comparacionera, cenbait tentacioneren garaitceco gracia ardiestea gatic, lehia gutiago dugun halaco cenbait berthute ardiestea gatic, edo bertce horrelaco.
    3. Comunione bakhotchcean eguin deçagun cenbait mortificacione, nola baita, comunioneco egunean guticia guehien dugun cenbait axeguinez gabetcea.

#### PRATICAC

1. Garbi gaitecin liçunqueria den chumenetatic, eta chede hortan examina deçagun guere conciencia ahalic artha guehienarequin.
2. Beldur handia içan deçagun comunione ephel batençat, eta are handiçoa comunione indignoarençat.
3. Comuniatceco desira eta guticia handien içaitera enseja gaitecin, debocione guehiagorequin comuniatcea gatic.
4. Arriscuco eritasun bat dugunean, muga onez galde deçagun comunione saindua, extremitaterainocoan egon gabe, eta orobat eraguin deçotegun gure ahaidei eta adisquidei.

#### ISTORIOAC

Alienciaco arca gorphutz sainduaren figura cen, harc Jaincoaren etsajec eraman çutenean, hequin ganat erakharri cituen dohacabetasun edo malur handiac. 1. *Reg. cap.* 5. Eztajetaco festinaren parabola. *Matth. cap.* 22. Judasen heriotce ikharagarria. *c.* 27. *v.* 7. & *Joan. cap.* 13. *v.* 26 & *seq.* Comunione indignoa nola punitua. 1. *Cor.* 11.

v. 29. & seq. Arima ephelac Jesu-Christoren khorotic khenduac. *Apocal. c. 3. v. 16.* Obededomen etchera Arcaren presenciac erakharri cituen benedicioneac. 2. *Reg. cap. 6. v. 11.* Orobat Jesu-Christoren presenciac Zacheoren etchera. *Lucae. c. 19. v. 1. & seq.* eta Martharen eta haren aizpa Mariaren etchera, *cap. 10. v. 38. & seq.* horiec dire comunione on eta digno bat eguiten duen arima batetara Jesu-Christoc hedatcen dituen benediccionen figurac.

## HAMABORTZ-GARREN LECCIONEA

Lehenbico Comunioneaz.

- 133 G. *Cer aditcen duçu lehenbico comunionea eguiteaz?*  
 I. Hura da lehenbico aldicotz errecibitcea Gorphutz sainduaren Sacramendu saindua.
- G. *Lehenbico comunionearen eguiteco artha handirequin preparatu behar othe da?*  
 I. Bai, ceren hura baita accione bat haguitz importantea.
- G. *Nola bada hori?*  
 I. Ceren hura baita çorionezco eta dohaxutasunezco ithurri bat, baldin ungui eguiten bada; eta çorigaitcezco eta dohacabetasunezco ithurri bat, baldin gaizqui eguiten bada.
- G. *Cer eguin behar da bere lehenbico comunionea ungui eguiteco?*  
 I. Behar da muga onez hartara preparatcen hasi.
- G. *Cer eguin behar da hartara preparatceco?*  
 I. Laur gauça.  
 1. Da bere usaña gaichtoac uztea, eta lehen baino bicitce sainduago bat eramaitea.  
 2. Da, behinere hutsic eguin gabe catichimara bethi ibilcea, jaquin behar diren gauçac han ikhastera.  
 3. Da, othoitz onez, eta obra onac maiz eguinez hartara dispoosatcea.  
 4. Penitencia eguinez bere bihotça bekhatu gucietaric garbitcea.
- G. *Lehenbico comunionearen eguitera preparatcen hari dicen baurrec cer othoitz eguin behar dute?*  
 I. Debotqui eta maiz Jaincoari galdeguin behar diote gracia lehenago hilceco ere, comunione indigne baten sacrilegio ikharagarria eguinen duten baino.

- G. *Cein dire bere lehenbico comunionearen eguitera utci behar ez-tirenac?*
- I. Hec dire.
1. Bere Catichima asqui ungui ezdaquitenac.
  2. Ez pietateric, ez debocioneric ezdutenac, eta comunitatceco guticia handi bat erakhusten ezdutenac.
  3. Bere usantça gaichtoac utci nahi ezdituztenac, nola baitire juramentu eguiterico usantça, gueçur erraitecoa, elkharrequin hasarretcecoa, &c.
  4. Bethi compainia gaichtoac hantatcen dituztenac.
  5. Bere lehenbico comunionearen eguitera preparatcen ezbalire baino guehiago bere burasoac edo bere nausiac obediten ezdituztenac.
- G. *Urtheco cein denboraz da conbeni bere lehenbico comunionearen eguiteric?*
- I. Bazco Bestetan, baldin Aitcindariec bertcela manatcen ezbadute.
- G. *Non eguin behar da lehenbico comunionea?*
- I. Norc bere herrico Eliça Nausian.
- G. *Jaun Errotoraren permisionea gabe eguin behar da?*
- I. Ez, ceren hari baitagoco jujatcea nor den hartaco gai edo capable.

## HAMASEI-GARREN LECCIONEA

✠

Lehenbico comunioneco graciaren conserbatceco bidez eta moyanez.

- 134 G. *Lehenbico comunionea disposicione saindu batçuequin errecebitcea asqui othe da salbatua içaiteco?*
- I. Ez, han errecebitu dugun gracia guere bici gucian conserbatu behar dugu artha handi batequin.
- G. *Gauça haguitz importante othe da gracia hura artha handirequin conserbatcea?*
- I. Bai, bi arroçoin principal gatic.
1. Ceren hura baita guretçat salbatceco bide segur bat.
  2. Ceren deabruac tentacionez bere eguin ahal guciac eguinen baititu dohain preciatu hura guri gal arazteco.
- G. *Cer bidez balia abal gaitezque gracia haren conserbatceco?*
- I. Lehenbicoa eta principala da maiz comunitatceco desira edo gu-

- ticia içaitea, eta pietatezco edo debocionezco sentimendu handi batquequin comunitatea.
- G. *Cer probetchu atheratcen da maiz comunitatec?*
- I. Hirur dire principalac.
1. Han harcen da indarra bere passione gaichtoen eta deabruaren tentacionen contra.
  2. Bicitce huntaco nahigabetan eta penetan consolacionea.
  3. Jaincoaren gracion egoiteco eta obra onen eguiten irauteco bide eta lagunça handi bat.
- G. *Cer erran daiteque comunione saindura humilitatez edo beldurtasunez bakhan baicic hurbilcera menturatcen ezdirenez?*
- I. Hec haguitz hobequi eguin leçaquetela maizago harat hurbilcen badire Jesu-Christoren ganateco amodioz.
- G. *Cenbat aldiz comunitatea laiteque conbeni bere salbamenduaren eguiteco eguiatzco desira duen presuna batençat?*
- I. Gutienean hilabethean behin, eta Jesu-Christo gure Jaunaren eta Birgina sainduaren Bestetan, eta are maizago baldin bere Cofessorac hala conseilatcen badio.
- G. *Ez othe da bertce cenbait bide edo mojan lehenbico comunionecon graciaren conserbatceco?*
- I. Bai, huna halaco cenbait haguitz probetchosac.
1. Da egun guciez Meça saindua debotqui ençutea, baldin hartaco paradan bagara.
  2. Da ihes eguitea bekhatuaren itchura chumerenei, eta bekhatuari okhasione eman deçoqueten gauça guciei.
  3. Da Igandetan eta Bestetan edireitea Eliçaco oficioetan eta instruccionetan.
  4. Da egun saindu hec emplegatcea caritatezco obren eguiten, edo cenbait liburu onen iracurtcen.

## HAMAÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Gorphutz Sainduaz sacrificio beçala, Meçaco Sacrificioaz.

- 135 G. *Jesu-Christo gure Jauna ez othe da Gorphutz sainduaren Sacramenduan, gure arimen janhari içaiteco baicic?*  
teco victima beçala Aphezen ministerioaz.
- I. Bai, han da oraino bere Aita Jaincoari sacrificioetan ofritua iça-

- G. *Jesu-Christo gure Jauna non ofritcen çαιο horrela bere Aitari?*  
 I. Gure Elicetaco aldaren gainean Meça saindua erraiten.
- G. *Cer da Meça?*  
 I. Meça da Jesu-Christoren Gorphutçaren eta odolaren Sacrificio odol isuriric gabea, Apheçac Jaincoari ofritcen dioena oguiaren eta arnoaren idurien azpian.
- G. *Jesu-Christo gure Jaunac cergatic ordenatu du Sacrificio hori?*  
 I. 1. Sacrificio agueri den bat bere Eliçan eçarcea gatic munduaren akhabançaraino.  
 2. Berac gurutcearen gainean ofritu duen sacrificioa gure artean continuatcea gatic.  
 3. Sacrificio huntaz guri aplicatcea gatic gurutceco sacrificioaren berthutea eta merecimendua.
- G. *Jesu-Christo gure Jaunac gurutcearen gainean ofritu du Sacrificio bat?*  
 I. Bai, gurutcearen gainean hilcean bere Aita Jaincoari ofritu çajo guretçat.
- G. *Cer eguiten du Meça sainduan?*  
 I Han continuatcen du ofrenda hura bera eta sacrificio hura bera.
- G. *Beraz Meçaco sacrificioa gurutceco sacrificio bera da?*  
 I. Bai, victima bera denaz gueroz Jaincoari guretçat ofritcen çajoenala hala gurutcearen gainean nola aldare gainean, eta ezdenaz gueroz diferenciaric haren ofritceco maneran baicic.
- G. *Cer da diferencia hura?*  
 I. Jesu-Christo gurutcearen gainean bera ofritu çajo Jaincoari odol isuriarequin, eta Meçan bera ofritcen çajo Jaincoari odol isuriric gabe Aphecen ministerioaz.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

Meça Sainduaren ungui entçuteco maneraz.

- 136 G. *Meça saindua nola entçun behar da?*  
 I. Modestia eta debocione handirequin.
- G. *Cer huts hartan eguiten da maicenic?*  
 I. Lehena da Meça ençutean solasen egoitea.  
 2. Errespetu gutirequin han egoitea.  
 3. Atencioneric gabe egoitea.
- G. *Cer eguin behar da Meçaco Sacrificioa ofritcen denean?*  
 I. Seguitu behar dire Eliçaren intencioneac, ceinac sacrificio hura

ofritcen baitu, eta ceinençat Jesu-Christo bera ofritcen baitçajo Trinitate sainduari.

G. *Cein dire intencione bec?*

I. Badire laur principalac.

1. Da Jaincoari bihurcea eta errendatcea hari çor çajoen adoracione eta ohore gucien gainecoa.
2. Da haren coleraren phacegatcea, eta gure bekhatuen barkhamenduaren ardieste.
3. Da behar ditugun graciac Jaincoari galdeguitea.
4. Da Jaun harc eguin darozquigun gracia guciez hari esquerrac emaita.

G. *Cer eguin daiteque oraino Meça ençutean?*

I. Orhoit gaitetze eta gogoan ungui erabil Jesu-Christoren passionea eta heriotcea, Jaun hura consideratuz Calbarioaren gainean baliz beçala, eta bihotça samurcen çaicularic Jaun harc gure amoreac gatic cer pairatu içan duen orhoitceaz.

G. *Nori ofritcen çajo Meçaco Sacrificioa?*

I. Jaincoari berari choilqui.

G. *Ez othe çajote ofritcen Birgina sainduari eta bertce sainduei?*

I. Ez, bainan han eguiten da orhoitçapen bat sainduetz, Jaincoari esquerrac emaiteco hei eguin diozcaten graciez, eta hequin arartecotasuna gure othoitcei juntatceco.

G. *Norençat ofri daiteque Sacrificio saindu hura?*

I. Mundu huntan bici diren guiristinoen santificacionearençat, eta Purgatorioan direnen lagunceco eta solegitceco.

## PRATICAC

1. Meça ençutean egon gaitecin gurutceco sacrificioan baguine beçala, eta junta gaquizcoten Birgina sainduac Calbarioaren gainean cituen disposicione sainduei.

2. Meça akhabatu den ondoan cenbait momentuz egon gaitecin belhaurinco, Jaincoari esquerrac emaiteco, eta gogo on bat har deçagun Jaincoa egun hartan ungui cerbitçatceco.

3. Estatutan jar gaitecin han comuniatcen ezdugunean, gogoz bederen eta borondatez comuniatceco.

4. Ezgaitecin arrancura Meça lucea dela, eta are gutiago ibil gaitecin Meça laburren bilha, orhoitcen garelaric Jesu-Christo gure Jaunac ezduela lucegui causitu Gurutcearen gainean guretçat pairatcen egotu den denbora.

## ISTORIOAC

Meçaco Sacrificioaren figurac, Bazcoco bildotsa. *Exod. c. 12.* Melchisedech-en Sacrificioa. *Gen. cap. 14. v. 18.* Isaac bere Aitaz sacrificiatua. *cap. 22.* Sacrificioa Malachias Profetac aitcinecic declaratua. *Malach. c. 1. v. 11.* Jesu-Christo hequin lekhuari jarren da, Sacrificio çaharren plaçan, ceinac baitciren haren Sacrificioaren figurac. *Hebr. c. 10. v. 1. & seq.* Jesu-Christoc erreberritcen du gurutceco Sacrificioa. *Luc. 22. v. 19. Ep. 1. Cor. c. 11. v. 25 & seq.*

## HEMEÇORTCI-GARREN LECCIONEA

### Penitenciaz.

- 137 G. *Cer da Penitenciaco Sacramendua?*  
I. Penitencia da Sacramendu bat, ceinac barkhatcen baititu bathajatz gueroz eguin ditugun bekhatuac.
- G. *Cenbat parte dire Penitenciaco Sacramenduan?*  
I. Badire hirur parte, Contricionea, Cofesioa, eta Satisfaccionea.
- G. *Cein dire Penitenciaco Sacramenduaren efetuac?*  
I. Badire bia.  
1. Da bekhatu actualen barkhatcea.  
2. Da gu Jaincoarequin baquetcea edo adisquidetcea guri emanen gracia sainduten gaituena.
- G. *Sacramendu hunec barkha othe detçaque bekhatu suerte guciac?*  
I. Bai guciac, batere bereci gabe, cein nahi bekhatu handi eta icigarri içaan dadin arren.
- G. *Cer aditcen duçu bekhatuaren culpaz eta penaz?*  
I. Aditcen dut *culpaz*, bekhatuac gure arimari eguiten dioen notha edo tatcha; eta *penaz*, bekhatuac mereci duen punicionea.
- G. *Penitenciaco Sacramenduac barkhatcen othe du bekhatuaren culpa?*  
I. Bai, barkhatcen du Jaincoarequin gu baquetuz edo adisquidetuz gracia sainduten gaituenaz.
- G. *Barkhatcen othe du halaber bekhatuaren pena?*  
I. Bekhatuari çor çajon eternitate gucico pena aldatcen du denbora batetaco penara.
- G. *Nola ardiesten da denbora batetaco pena horren barkhamendua?*  
I. Caritatearen berotasunaz, penitenciazco obrez, eta indulgenciez.



- G. *Penitenciaco Sacramenduac emaiten duen barkhamenduaren efektuac cein dire?*
- I. Hirur dire bereciqui.
1. Harc bihurcen darocu Parabisurateco dretchoa eta çucena, bekhatuaz galdu guinuena.
  2. Harc emaiten darozquigu indarrac tentacionen contra, cein nec lehiarazten baicaituzte bekhatura berriz erorcera.
  3. Harc berriz bici arazten edo phizten du lehenagoco obra onen merecimendua.
- G. *Nola berriz bici arazten du leheneco obra onen merecimendua?*
- I. Nola arimac bere bekhatuaz galdu baitçuen bere obra onen merecimendua, Jaincoac guciz ona ceren den, bihurcen dio penitenciaco Sacramenduan.
- G. *Sacramendu hunec efetu horiec eguiten otbe tu cofesatcera joaiten diren presuna gucietan?*
- I. Ez, ezditu eguiten behar diren disposicionetan cofesatcen direnen baithan baicic.
- G. *Cer erran daiteque behar diren disposicioneac ezdituztenez?*
- I. Hec eguiten dutela bekhatu handi icigarri bat, ceina deitzen baita sacrilegioa, nondic Sacramenduaren efetuac errecibituco dituzten ecen.

#### PRATICAC

1. Beha deçogun penitenciaco Sacramenduari mainho sacratu bati beçala, ceinetan garbituac içaiten baicara gure bekhatu gucietaric Jesu-Christoren odolaz.

2. Esquerrac eman detçogun gure Jainco Jaunari, ceren eman darocun hain bide edo mojan on bat gracia galdu dugun ondoan haren berriz ardiesteco.

3. Ezgaitecin behinere hurbil penitenciaco Sacramendura disposicione saindu batçuequin baicic.

#### ISTORIOAC

Niniviten penitencia. *Jonae. c. 3.* Piscina probaticoa penitenciaco Sacramenduaren figura. *Joan. c. 5. v. 2. & seq.* Bekhatuen barkhatceco indarra emana Apostoluei eta Apheztasunean hequin ondoco direnei. *Matth. c. 16. v. 19.* eta *Joan. c. 20. v. 22. & 23.*

## HEMERETCI-GARREN LECCIONEA

Contricioneaz.

- 138 G. *Cer da Contricionea?*
- I. Contricionea da bere bekhatuen damu eta urriqui bat guehiago bekhatu-ric ez eguiteco borondate fermu eta chede cinezco bate-quin.
- G. *Cer da borondate fermua eta chede cina?*
- I. Hura da gogo on bat, eta eguiazco borondate bat ez guehiago bekhatu-ric eguiteco.
- G. *Borondate fermu eta chede cinezco haren içaitea necesario othe da?*
- I. Bai, hura gabe ezta eguiazco conbersioneric, eta ez bekhatuen barkhamenduric.
- G. *Cein dire Jaincoaren ez guehiago ofensatceco borondate fermu eta chede cin haren marcac edo seinaleac?*
- I. Badire hirur.
1. Da bekhatuaren okhasioneac uztea, nola baitire compara-cionera compainia gaichtoac, liburu gaichtoen iracurcea, &c.
  2. Da bere usança gaichtoac uzten haritcea.
  3. Da bekhatu eguitetic guelditcea, eta guiristino guisaco ho-bequi den bicitce baten eramaiteco neurrien edo mojanen harcea.
- G. *Nor dire borondate fermu eta chede cin ura ezdutela, beldur içan behar direnac?*
- I. Bere cofesioaren ondoan bethi bekhatu beretara bere nahitara erorcen direnac.
- G. *Nola deitcen duçu bekhatu-rala hala berriz erortcen direnen bekhatua?*
- I. Deitcen da errechutaco bekhatua, edo bekhatu-rala berriz erortcea.
- G. *Bekhatu hori haguitz handi-agoa othe da bertceac baino?*
- I. Bai, ceren horri baitatchezco casic bethi ingratasuna edo eçagu-tça gabe içaitea, malecia, eta Jaincoaren mesprecio handi-ago bat.

- G. *Certara guidatcen dute ordinariozqui maiz eguiten diren errechutec edo bekhatura berriz erortcec?*
- I. Bihotz gogortasunera, eta azquen finean penitencia eguin gabe hilcera.
- G. *Cer aditcen duçu bihotz gogortasunaz?*
- I. Aditcen dut guehiago deusetaz uquitua ezdenaren estatua.
- G. *Eta azquen finean penitencia eguin gabeaz?*
- I. Aditcen dut penitencia eguiteco guerocotz bethi egonez, azque-  
nean ere penitencia eguin gabe hilcen denaren estatu icigarría eta  
dohacabea.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 139 G. *Cein dire Contricione on batec içan behar dituen condicioneac?*
- I. Behar tu laur. İçan behar da
  1. Surnaturala edo Ceruticoa.
  2. Barnecoa.
  3. Generala.
  4. Soberanoa edo gucien gainecoa.
- G. *Cer da Contricione Surnaturala edo Ceruticacoa?*
- I. Hura da bekhatuaz dugun dolorea, damua, eta urriquia, Ispiritu Sainduaren mobimendu batetic eta fedecak irakhasen darocun chede batetic heldu çaicuna, eta ez naturaleçazco mobimendutic edo chedetic heldu dena.
- G. *Mundu huntaco gaitzen beldurra asqui othe da, eguiazco contricione bat gure baithan eguiteco?*
- I. Ez, ceren beldur hura gucia naturala baita, ezbaita heldu Ispiritu Saindua ganic, eta ezbaitu khencen bekhatuaren ganateco afeccione edo amodio gucia.
- G. *Cer da barneco contricionea?*
- I. Hura da bekhatuaren damu bat ez choilqui idurizcoa edo itchurazcoa eta ezpainetacoa, bainan bihotçaren erditic heldu dena.
- G. *Cer da Contricione generala?*
- I. Hura da damu bat, eguin ditugun bekhatu gucietara hedatcen dena.
- G. *Lehia guehiago duen bekhatu mortal batez campoan, bere bertce bekhatu guciez damu luquenac othe luque contricione onic eta behar den beçalacoric?*
- I. Ez, ceren haren contricionea ezbailliteque generala, eta bertcez

beçala, bekhatu mortal hartaz ere eguiazco damu bat içan gabe absolucionea errecibitcen duenac sacrilegio bat eguiten du.

G. *Bekhatu benialic baicen eguin ezduena hetaz cofesa daiteque contricioneric gabe?*

I. Ez, hetaz ere behar da içan contricionea, bercela sacrilegio bat eguin laiteque; hobe ere da orduan eta conbeni da cofesatcea bertce cenbait bekhatu lehenago cofesatu duenetaric, eta hartaz içaitea contricione on bat.

140 G. *Cer da Contricione soberanoa edo gucien gainecoa?*

I. Hura da damu bat, ceinac higuin arazten baitarocu bekhatua gaitz suerte guciac baino guehiago.

G. *Damu guehiago içan behar othe dugu bada ceren Jaincoa ofensatu dugun, ecen ez ceren galdu ditugun gure ontasunac, gure abaideac, edo munduan ditugun gauçaric maiterenac?*

I. Bai, ceren bekhatua baita gaitz guciataric handiena.

G. *Laur condicione horiec necesario othe dire contricione suerte guciencat, hala contricione perfetarençat, nola imperfetarençat?*

I. Bai, eta laur condicione horiec gabe ez contricione bat ez bertcea ezlaiteque asqui suficientea.

G. *Cer bidez içan abal deçaquegu eguiazco contricione on bat?*

I. 1. Jaincoari debotqui galdetuz.

2. Gure gogoetac eguinez cer chedec hartara ekharri behar gaituzten.

G. *Cein dire chede hec?*

i. Badire bereciqui laur.

1. Da, guc ofensatu dugun Jaincoa guciz ona içaitea.

2. Jaincoac guri eguin darozquigun unguiac, eta guc Jaincoarençat içan dugun ingratasuna edo esquer gabea.

3. Jesu-Christoren passionea eta heriotcea ceinen causa baitire gure bekhatuac.

4. Guc galdu dugun Parabisua, eta merecitu dugun Ifernua.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

141 G. *Cenbat Contricione suerte dire?*

I. Badire bi suerte, Contricione perfeta, eta Contricione imperfeta, ceina deitcen baita bercela *Atricionea*.

- G. *Cer da contricione perfeta?*  
 I Hura da damu bat, ceren ofensatu dugun Jaincoa, ceren hura baita guciz ona.
- G. *Cer da contricione perfetaren efetua?*  
 I. Harc justificatcen edo justu eguiten du bekhatrosa cofesatu dai-tequen ere baino lehen, baldin içaiten badu eguiazco borondate cin bat cofesatceco.
- G. *Necesario othe da cofesa dadin contricione perfet bat içan duena?*  
 I. Bai, ceren Jesu-Christoc hala ordenatu baitu.
- G. *Cer da Contricione imperfeta edo Atricionea?*  
 I. Hura da damu bat, ceren Jaincoa ofensatu dugun, ceina emaiten baitarocu ordinariozqui bekhatua cein itsusia den consideratceac, edo eternitatceco penen beldurrac.
- G. *Cer da Atricionearen efetua?*  
 I. Harc dispostacen du bekhatrosa penitenciac Sacramenduan errecibitcera justificacioneco gracia eta bekhatuen berkhamendua.
- G. *Eztu beraz harc bere baitharic justificatcen?*  
 I. Ez, ezda contricione perfeta baicic bere baitharic justificatcen duenic.
- G. *Cer condicione içan behar tu contricione imperfetac bekhatrosa dispostaceco penitenciac Sacramenduan justificatua içaitera?*  
 I. Içan behar tu bi condicione lehen aiticin huntan esplicatu direnez bertce alde.
- G. *Cein dire hec?*  
 I. 1. Khendu behar du bekhatu eguiteco borondatea.  
 2. Berequin içan behar du barkamenduaren esperança, eta Jaincoa maitatcen hasi behar da justicia guciaren ithurria beçala.

#### PRATICAC

1. Froga deçagun hea gure contricionea eguiazcoa eta cinezcoa othe den, bekhatuari okhasione eman ahal deçoqueten gaucetaric separatuz eta hetaz gabetuz.
2. Froga deçagun halaber, penitenciazco chede batez cilhegu diren atseguin eta aisia justuetaric ere gabetuz.
3. Penitenciac Sacramendura hurbildu baino lehen cenbait denboraz egon gaitecin Jaincoari galdeguiten eman deçagula othoi contricioneco ispiritua.

## ISTORIOAC

Antiochusen penitencia falsoac, eta haren erreprobacioneac erakhustera emaiten dute contricionea iñan behar dela surnaturala edo ceruticacoa. *Lib. 1. Mach. c. 6. & lib. 2. cap. 9.* Saülen erreprobacionea, ceren espargnatu çuen Agag Erreguea, ceina baitcen bere bekhatu gogaraco gordearen figura, horrec erakhustera emaiten du contricionea iñan behar dela generala. *Lib. 1. Reg. c. 15. v. 9. & seq.* Prince haren penitencia falsoa, ezcenaz gueroz hura bekhatuaren beldur, giçonen aiticnean ceren desohoratcen çuen baicic, *Lekhu berean v. 24. & seq.* Publicanoa. *Luc. c. 18. v. 13.* eta Evangelioo bekhatorosa. *c. 7. v. 37. & seq.* horiec dire penitencia perfet baten guidac.

## HOGOI-GARREN LECCIONEA

Cofesioaz.

- 142 G. *Cer da Cofesioa?*
- I. Cofesioa da Apez aprobatu bati bere bekhatu guciac erraitea eta declaratcea, hequin absolucionea haren ganic errecibitceco.
- G. *Cein dire cofesione on baten eguiteco necesario diren condicioneac?*
- I. Badire bortz.
1. Da bere concienciaren examinatcea.
  2. Da Jaincoa ceren ofensatu dugun damu handi bat içaitea.
  3. Da gure bekhatu guciac Apez aprobatu bati cofesatcea.
  4. Da ez guehiago bekhatu ric eguiteco chede cin eta fermu baten hartcea.
  5. Da Jaincoari eta gure lagunari satisfatceco borondate eta deliberacione eguiazco baten hartcea.
- G. *Cergatic dioçu gure bekhatuac Apez aprobatu bati cofesatu behar diozcagula?*
- I. Ceren ezbaita nihor Jaun Apezpicuac aprobatu dituen Apezac baicic cofesatcen hari daitequenic.
- G. *Apez aprobatu guciac eman othe deçaquete absolucionea bekhatu suerte guciez?*
- I. Ez, badire bekhatu batçuec berceac baino handiagoac, ceinen absolucionea ecin eman baiteçaque nihorc Aita Sainduac edo Jaun

Aphezpicuac baicic, edo hequin ganic hartaco indar particular bat ičan dutenec baicic, eta horren gatic bekhatu hec deitzen dire *Casu erreserbatuac*.

G. *Cofesor aprobatu gucien artean cein hautatu behar du hautatceco parada duenac?*

I. Jaquintasunic eta pietateric guehien duena, eta gure hutsetan eta narriotan gutienic lausengatcen gaituena.

143 G. *Hobe othe da bethi Cofesor batequin berarequin cofesatcea?*

I. Bai, ceren harc hobequi eçaguten gaituelaric, hobequi guida bai-çaitçaque.

G. *Bazcoz hauta othe deçaquegu nahi dugun Cofesora?*

I. Ez, norc bere Errotorari permisionea galdetu behar dio, harc segurqui jaquin deçañat norc eguin duen bere Bazco partea, eta eman detçotençat bere herrico guiristinoei behar dituztela idurritcen çaiçcon abisuac.

G. *Cer eguin behar da baldin Cofesorac errefusatcen badu absolucionea?*

I. Humilqui obeditu behar da eta haren jujamenduaren azpian jarri, ethorri behar da berriz harc erran duen denboran, eta lejalqui eguin behar da harc manatu duena.

G. *Cer arroçoin gatic Cofesorec ordinariozqui errefusatu behar dute absolucionea?*

I. Errefusatu behar diote lehenbicoric, bere Catichima ezdaquitenei.

Bigarrenecoric, bere lagunarequin herran bici direnei.

Hirur-garrenecoric, bertceren ontasuna bihurtu nahi gabez dagoatenei.

Laur-garrenecoric, bere lagunaren famari edo ohoreari bidegabe eguin diotenean, hura erreparatu nahi ezdutenei.

Bortz-garrenecoric, bekhatuaren habitudan edo usançan bici direnei, eta hartaz corregitceco trabailatcen ezdirenei.

Sei-garrenecoric, bekhatuaren okhasione hurbilean direnei, eta hura utci nahi ezdutenei.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

144 G. *Bertce cein condicione ičan behar tu cofesio batec ona içaitecotz?*

I. Badire hirur principalac, cofesioa ičan behar da humila, sinceroa edo cinezcoa, eta ossoa.

- G. *Cer erran nahi da cofesioa içan behar dela humila?*
- I. Erran nahi da, gure bekhatuac declaratu behar tugula ahalqueria handi batequin, ceren Jaincoa ofensatu dugun, eta ezditugula bekhatuac erran behar istorio bat beçala.
- G. *Cer erran nahi da cofesioa içan behar dela cinezcoa edo sinceroa?*
- I. Erran nahi da cofesatcean gure bekhatuac ezditugula ez berretu ez gutitu behar.
- G. *Cer erran nahi da cofesioa içan behar dela ossoa?*
- I. Erran nahi da, ossoqui cofesatu behar ditugula bekhatu mortal guciac bederen, hetaric batere utci gabe.
- G. *Asqui othe da declaratcea eguin ditugun bekhatu mortalen es-  
pecia diferentac?*
- I. Ez, eguin ahalaz erran behar da oraino hequin nombrea edo cenbat eguin tugun, eta hequin circunstancia considerableac.
- G. *Esplica çaçu hori cenbait exempluz.*
- I. Comparacionera, ezta asqui erraitea ebatsi dugula, erran behar da cenbat aldiz ebatsi dugun, baldin suma handia bada; eta hea gauça sacrata cen ebatsi duguna, halacoa da calitça bat, eta hea lekhu saindu batean ebatsi dugun, comparcionera Eliça batean.
- G. *Bere nabitara abalquez estalcen luquenac cenbait bekhatu mor-  
tal, edo haren handitasuna baguitz berretcen çuen circunstancia  
bat, hainac cofesio on bat, eguin othe leçaque?*
- I. Ez, harc sacrilegio bat eguin leçaque, baldin bertce bekhatu gu-  
ciac cofesatcen balitu ere.
- G. *Certara laiteque bada obligatua?*
- I. Obligatua laiteque bere cofesionearen berriz hastera, eta bere-  
ciqui bere bekhatu haren gordetceaz eguin çuen crimaz eta bekha-  
tu handiaz accusatcera.
- G. *Bekhatu cenbaitez abalque denean cer eguin behar da?*
- I. Hirur gauça.
1. Jaincoari galdeguin behar çajo gracia ahalqueria haren ga-  
raitceco.
  2. Cofesatcean dugun ahalqueria consideratu behar dugu, gure  
bekhatuez eguin behar dugun lehenbico penitencia beçala.
  3. Gure ahalqueari borchatcera ensejatu behar gara, haren ga-  
raitceco on diren chede batçuez.

- 145 G. *Ceim dire chede bec?*
- I. Badire laur principalac.



1. Guc eguiten dugun sacrilegioaren handitasuna, baldin ahalquez gordetzen badugu bekhatu mortal bat.
  2. Jujamenduco egunean guc içanen dugun ahalqueria eta confusionea, noiz ere cofesatcera ecin ausartatu içan garen bekhatu hura mundu guciaren bistan içanen baita aguertua eta descubritua.
  3. Cofesorac lejalqui eta segurqui beguiratcen duen sequeretu ecin aguertuzcoa.
  4. Bertce bekhatuetaric batere ezda barkhatua içanen baldin bat choilqui gordetzen bada.
- G. *Obligatuac othe gara bekhatu benialez accusatcera?*
- I Ez, bainan hori haguitz probetchu handitacoa da, baldin hec cofesatcen badire contricione batequin.
- G. *Nola da hori probetchu handitacoa?*
- I. Ceren hetaz errecibitcen dugun absolucioneac berretcen baitu gure baithan gracia saindutcen gaituena.
- G. *Hea cenbait bekhatu mortalac othe diren dudan dagoena, hequin cofesatcera obligatua da?*
- I. Bai, Cofesorac hura juja deçançat, eta gu arriscutan jar ezgaitecinçat cofesio gaichto baten eguiteco.
- G. *Bere bekhatu guciac chuchenqui eta chebequi declaratceco cer eguin behar da?*
- I. Cofesatu baino lehen ungui examinatu behar dugu guere conciencia eta bekhatuez orhoitcen egon azqueneco importanciaco eguiteco bat examina gueneçaquen artha berarequin.
- G. *Ceren gainean examinatu behar gara?*
- I. Examinatu behar gara,
1. Jaincoaren eta Eliça Ama Sainduaren manamenduen gainean.
  2. Çazpi bekhatu capitalen gainean.
  3. Gure estatuco eguinbiden gainean.
  4. Guc hantatu ditugun presunen gainean.
  5. Gu içatu garen lekhuen gainean.

## PRATICAC

1. Arrats guciez eguin deçagun gure concienciaren examena, egunaz eguin ditugun hutsen gainean.
2. Cofesatcen garenean ezdeçagun gorde bekhatuoric batere ez

benialic ere, bereciqui cenbait duda chume hartaz gure baithan eçagutcen dugunean.

3. Guere cofesioa has deçagun declaratceco penaric guehien eguiten darocuten bekhatuetaric.

## ISTORIOAC

David, ceinac aithorcen baitio bere bekhatua Nathan Profetari, *lib. 2. Reg. c. 12. v. 13.* Haur prodigoa, *Luc. c. 15. v. 18. & seq.* Publicanoa *cap. 18. v. 13.* Horiec dire cinezco cofesio baten exempluac. Caïn, ceina ausartatu baitcen Jaincoari berari bere bekhatua ukhatcera, *Gen. c. 4. v. 9.* Ananias eta Saphira, ceinec bere bekhatua ukatu baitcioten Jondoni Petriri, cofesio gaichto baten exempluac dire, *Act. cap. 5.*

## HOGOI ETA BAT-GARREN LECCIONEA

Cofesatceco maneraz.

- 146 G. *Cofesatceco Eliçan arribatu garenean cer da conbeni eguin deçagun Cofesora gana hurbildu baino lehen?*
- I. Hirur gauça.
1. Jaincoari galdetcea ungui cofesatceco gracia.
  2. Gure bekhatu guciez berriz orhoitcen egoitea, batere ez ahanztea gatic.
  3. Gure contricionea berriz eguitea.
- G. *Cer eguin behar dugu Cofesoraren oinetan gerenean?*
- I. Eguin behar tugu hirur gauça.
1. Egon behar gara escuac juntaturic, eta burua itçuliric Cofesorari bisajara behatu gabe.
  2. Haren presunan consideratu behar dugu Jesu-Christoren presuna, ceinaren plaça harc baitagoca.
  3. Ceinatu behar gara, eta modestqui makhurturic galdeguin behar diogu bere benedicçionea, erraiten dugularic, *Benedic mihi pater, quia peccavi*; edo escoaraz: *Aita benedica naçu ceren eguin baitut bekhatu.*
- G. *Cer eguin behar da oraino?*
- I. Erran behar da *Confiteor* hitz hautaraino *meâ culpâ.*

- G. *Guero cer eguin behar da?*
- I. Cofesorari erran behar diogu noicez guero ezgaren cofesatu, eta hea eguin dugun azquen cofesioan ordenatu citçaicun penitencia; guero accusatu behar gara gure bekhatuez guisa huntan, accusatcen naiz nola, &c. Bethi handienetari hasten garelaric, beldurrez ahantz daquizquigun, edo hequin estalcera deabruac tenta gaitçan.
- G. *Baldin leheneco cofesioetan cenbait bekhatu ossoqui ahantciric cofesatu gabe utzi baguinitu, obligatuac othe guindezque hequin cofesatcera?*
- I. Bai, eta hetaz lehenic accusatu behar gara.
- G. *Cer eguin behar dugu gure bekhatu guciac erran ditugun ondoan?*
- I. Lehenbiceric akhabatu behar dugu *Confiteor* Apheçac othoitçac erran dituzquen artean makhurtua egonic.
2. Ondoan Cofesoraren galdei humilqui ihardetsi behar diotegu, baldin galderic eguiten badarocu.
3. Aditu behar tugu atentione handirequin harc emaiten darozquigun abisuac.
4. Hartu behar dugu harc ordenatcen darocun penitencia.
- G. *Cer eguin behar da Cofesorac absolucioea emaiten duen denboran?*
- I. Bi gauça.
1. Orduan behar dire berriz higuindu bere bekhatuac contricionezco acta batez.
2. Juntatu behar gaizco Jesu-Christo gure Jaunac gure bekhatuez içatu çuen contricioneari.

- 147 G. *Eguiču contricionezco acta bat.*
- ī. Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagotçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic, ceren guciz ona çarelaric ofensatu çaitudan, eta harcen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhatuic eguiteco çure graciarequin batean, eta eman çaitan penitenciaren complitceco.
- G. *Eguiu Jesu-Christo gure Jaunaren contricioneari juntatceco acta bat.*
- I. Jesu-Christo ene Salbatçaillea, eçagutcen dut ezdudala secular içanen ene bekhatuetaric choil batec mereci duen damua; bainan juntatçen natçajo cuc hetaz bereciqui Olivetaco Baratcean içan

duçun doloreari, eta hura ofritçen diot Trinitate Sainduari nic escas dudanaren complitceco eta berretceco.

G. *Cer eguin behar da Cofesoraren oinetan ilkhi garen ondoan?*

I. Laur gauça.

1. Jaincoari esquerrac eman behar diozcagu errecibitu dugun graciaz.
2. Gogoan erabili behar tugu Cofesoraren abisuac, eta hequin seguitceco deliberacionea hartu.
3. Harc ordenatu darocun penitencia ahalic lasterrena eguin behar dugu.
4. Baldin bertce aldi bateraino absolucionea luçatu badarocu, behar dugu haren gana bihurtu harc erran darocun egunean.

G. *Cein da ungui cofesatceco guc içan abal deçaquegun disposicioneric hoberena?*

1. Hura da aldi baxhotchean cofesatcea, cofesatu eta berehala hil behar baguinu cofesa guindezquen beçala.

## PRATICAC

1. Penitenciazco eta humilitatezco ispiritu batequin jasan deçagun absolucioneric gabe guelditcea.

2. Cein nahi disposicione onac ditugula uste dugun arren, ezgaitecin secular disputan hari gure Cofesorequin absolucionearen ardiesteco, bainan juja deçagun ezgarela hartaco digne.

3. Absolucionea guri emaitera ezdeçagun Cofesora bortcha gure nigarrez baicen, gure humilitateaz eta eguiazco conbersione cin baten marquez baicen, ceinac gure baithan galdetceco indarra eta çucena harc baitu.

## ISTORIOAC

Haur prodigoa, ceinac ez baitio bere aitari galdeguiten har deçala bere etchean bere cerbitçari bat beçala baicic, *Luc. 15. v. 19.* Publicanoa, ceina ezbaiccen ausartatcen ere beguiac Cerura alchatcera, bainan bere bulharrac joiten cituela, erraiten cioen Jaincoari, içan çaçu pietate nitaz ceina bainaiz bekhatoros bat, *cap. 18. v. 13.* penitencia perfet baten exempluac dire.

cap. 44. v. 1. & 2. horiee dire Maria Bir-  
gina sainduaren Birginitasunaren figurac.

---

HOGOI ETA BI-GARREN LECCIONE A,

Simbolaren edo Credoaren Laur-garren  
eta Bortz-garren Articuluéz.

G. *E* Rraçu Credoaren laur-garren articuluéz?

I. *Pairatu çuen Poncio Pilatusen Ma-  
nuaren azpian , gurutcesicatu çuten , hil  
cen , eta çhortci çuten.*

G. *Cer erran nahi dire hitz hauc , Pairatu  
çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian?*

I. *Erran nahi dute , Jesu-Christo gure Jau-  
na içan cela injurioz bethea , eta gurutce  
bati lothua , Judeaco gobernadore Pon-  
cio Pilatus deitcen cen batec manateen  
çuen denboran.*

G. *Cer erran nahi da , hil cen ?*

I. *Erran nahi da haren arima içan cela  
haren gorphutceic separatua.*

G. *Jaincotasuna ere betaric separatua içan cen?*

I. *Ez , Jaincotasuna bethi juntatua egota  
da Jesu-Christo gure Jaunaren arimare-  
quin eta gorphutçarequin , bai eta haren  
arima eta gorphutça elkharren ganic se-  
paratu cirenean ere.*

G. *Jesu-Christo gure Jaunac nola sofritu aha*

## ISTORIOAC.

**E** Sauren gormandiça punitua ; *Gen.* c. 25. & 26. Isracliten gormandiça desertuan punitua , ceren mana baino nahiago ișan çuten haraguia , *Num.* c. 11. & *Pf.* 77. v. 29. & *seq.* Gormandiçac Idolatriara nola eror araçi cituen , *Exod.* c. 23. v. 6. Holoferno hordia cen denboran hil çuen emazte batec *Judith.* c. 13. v. 4. & *seq.* Balthafarrec othurrunça handi batean cegoelarie ikhufi çuen escu bat , ceinac ișquiribaten baitçuen haren heriotcearen arreſta , *Dan.* cap. 5.

---

### HEMERETCI - GARREN LECCIONEA.

Çolcraz , eta Alferqueriaz.

G. *Ç Er da colera edo basarredura ?*

I. Hura da arimaren bicitasun handi bat , ceinac lehiazten baicaitu mendecatcera bercece eguin darozquiguten injurioez , gaizquiez eta bidegabez.

G. *Cein dire coleraren seguidac ?*

I. Badire bereciqui laur. 1. Da berceganic errecibitu ditugula uſte dugun injurioez eta gaizquiez cenbait khiretsequin gogoetan egoitea.

M

## HOGOI ETA BI-GARREN LECCIONEA

Satisfaccioneaz.

- 148 G. *Cer da satisfaccionea?*  
I. Hura da Jaincoari eta gure lagunari eguiten diogun erreparacione bat hari eguin diogun injurioaz.
- G. *Cofesione on bat eguitecotz obligatuac othe gara deliberratuac içaitera Jaincoari eta lagunari satisfaccione eguiteco?*  
I. Bai, eta hori gabe ezdugu errecibitcen absolucioneric edo barkhamenduric.
- G. *Ordean absolucionea içan dugun ondoan, eta bekhatuac barkhatu çaiçquigun ondoan, obligatuac gara oraino satisfaccera?*  
I. Bai, ceren bekhatuari çor citçajon eternitateco pena aldatua baita denbora batetaco penara, ceina sofritu behar baitugu mundu huntan edo bertcean.
- G. *Nola satisfatcen çajo Jaincoari denbora batetaco pena horrençat?*  
I. Penitenciazco obrez, ceinac complitcen baititugu Jesu-Christoren graciarequin, ceinaz choilqui merecimendu içan ahal (sic) satisfatzen ahal baiteçaquegu.
- G. *Cein dire obra hec?*  
I. Hec dire bereciqui Cofesorac penitenciatçat ordenatcen darozquigunac, hala nola othoitçac, barurac eta amoinac.
- G. *Asqui othe da Jaincoari satisfatcea?*  
I. Ez, behar dugu halaber lagunari satisfatu, baldin ofensatu badugu.
- G. *Nola satisfatcen çajo lagunari?*  
I. Hari bere presunan, bere ohorean, edo bere ontasunetan eguin diogun bidegabea erreparatuz.
- G. *Explica çaçu hori chebequiago.*  
I. Behar da hartaracotz lehenbicoric bere lagunari pagatu bere ontasunetan eguin edo eraguin çajoen bidegabea.  
2. Haren fama eta ohorea erreparatu, baldin çaurthu badugu medicenciaz edo calomniaz, erran nahi da, hartaz gaizqui minçatuz.

3. Hari barkhamendu escatu behar diogu, baldin hitz edo ahapaldi gaichtoric erran eta gaizqui jarri batcaizco.
  4. Gure etsajequin baquetu behar gara.
  5. Guc eman dugun escandala erreparatu behar dugu.
- G. *Gauça horiec guciac complitceco deliberatua ișan gabe cofesa laitequenac errecibi othe leçaque bere bekhatuen barkhamendua eta absolucionea?*
- I. Ez, aiticitic harc eguin leçaque sacrilegio bat.
- G. *Noiz behar dugu baquetu gure lagunarequin, edo erreparatu hari eguin diogun bidegabea?*
- I. Conbeni laiteque horien eguita cofesatcera joan baino lehen, bainan bederen ezta luçatu behar eta gueroco beira egon cofesatu garen ondoan.

#### PRATICAC

1. Considera deçagun, orai emaiten diren penitencia arinac, ez direla bekhatuei çor çajoten penen erreduracoac.
2. Bekhatua ezdela secular barkhatua ișanen, baldin erreparatcen ezbadugu eguin dugun bidegabea.
3. Guc bidegabe eguin dugun laguna dela Evangelioco partida hura, ceinarequin akhordatu behar baicara Jugearen aiticinera aguer-tu baino lehen. *Matt. c. 5. v. 25.*

#### PRATICAC

Jaincoac punitu çuen David-ten bekhatua, lehen barkhatu cioen ondoan, *Lib. 2. Reg. c. 12. v. 14. & 15. & cap. 24. v. 10.* Maïses eta Aaron etciren arribatu lur prometatuan, *Num. c. 20. v. 12.* Aiticin huntan aiphatu den Evangelioco partida. Sehien eta languilen oihuac hedatcen dire Ceruraino, hequin soldatac eta jornalac iduquitcen dituztenen contra, *Deut. cap. 24. v. 14. & 15. & Ep. s. Jacobi cap. 5. v. 14.* Satisfaccione perfet baten miraila edo exemplua Zacheoren eguiteco maneran. *Luc. 19. v. 8.*



GAUÇA BERAREN SEGUIDA

Cofesorac emaiten duen penitenciaz.

- 149 G. *Obligatuac othe gara Cofesorac emaiten darocun penitenciaren complitcera?*
- I. Bai, hartara obligatuac gara bekhatu eguiteco penaren azpian.
- G. *Nola behar du complitu?*
- I. Lejaltasun eta pietate handirequin.
- G. *Certan dago lejaltasun hura?*
- I. Cofesorac ordenatu duena fruntqui eta chuchenqui eguitean harc ordenatu duen denboran eta maneran.
- G. *Certan dago pietate hura?*
- I. Penitencia haren complicean gogoia bertcetari erabili gabe, eta Jaincoari satisfatceco desira eta guticia handi batequin, penitencia hura juntatcen diotegularic Jesu-Christoren merecimenduei.
- G. *Eguiazco penitent bat contentatcen othe da Cofesorac emaiten dioen penitenciaz?*
- I. Ez, berac bertce penitenciac hei berretcen diozcate, eta penitencia eguiten du bera bici deinoco egun guciez.
- G. *Cergatic hori?*
- I. Ceren Cofesor diren hersienec ere emaiten darozquiguten penitenciac bethi arineguiac eta chumeguiac baitire, eta ez gure bekhatuec mereci dutenaren ereduracoac.
- G. *Baldin gure penitencia ezpada gure bekhatuec mereci dutenaren ereduracoa, sofrituco othe dugu bertce munduan penitencia harc escas duenaren compligarria?*
- I. Bai, han sofrituco tugu Purgatorioco penac Jaincoac manatuco duen beçanbat denboraz, gure bekhatuec merecitu duten pena ossoqui satisfatceco eta pagatceco.
- G. *Alfer da beraz hautatcea Cofesor largoac, penitencia arinic baicen emaiten ezdutenac?*
- I. Bai, Purgatorioco penac, ceinetara Cofesor hec guidatcen baicaituzte, direnaz gueroz infinituqui eta ecin erran ahala handiangoac, mundu huntan eguin ahal detçaquegun penitencia garratcenac eta gogorrenac baino.

## PRATICAC

1. Ezgaitecin hari gure Cofesorarequin disputan harc emaiten dorozquigun penitencien gainean, bainan penitencia hec errecibi deçagun bortcharic gabe, baldin compli ahal badetçagu.

2. Cofesorac eman darocun penitenciari cofesio bakhotchcan berret deçogun cenbait mortificacionezco pratica.

3. Gure penitencia complitcen dugunean, ofri deçogun hura Jaincoari J. Christoc gure bekhatuençat eguin duenaren battasunean.

Jaincoari ofri daquioque hunelache penitencia hura.

Ene Jaincoa, orai eguitera nohan penitenciarequin batean ofritcen darozquitçut Jesu-Christo ene Salbatçaileac ene bekhatuençat mundu huntaco bician pairatu dituen sofricari guciac.

## ISTORIOAC

Conta daiteque David-ten exemplua, ceinac obedienciarequin errecibitu baitcituen Jaincoac igorri ciozcan punicioneac, Jaincoac jandanic barkhatu ciozcan hutsen satisfaccioneac, *Lib. 2. Reg. cap. 12. v. 18. & seq. & cap. 24. v. 14.* Minivetarren eta hequin Erregueren exemplua, ceinec penitencia besarcatu baitçuten Jonasec predicatu ciotenean. *Proph. Jonae cap. 3.*

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA

Obra onez.

- 150 G. *Obligatuac othe gara gure bici gucian penitencia eguitera?*
- I. Bai, eta baldin eguiten ezbadugu penitencia ezgara salbatuac içanen.
- G. *Certan dago gure bici gucian eguin behar dugun penitencia?*
- I. Bi gaucetan.
1. Da, Jaincoac hala permetituric arribatcen çaiçquigun afflicneac eta nahigabeac obedientqui eta gogo onez errecibitcea.
2. Da, obra onen eguitea, ceinac deitcen baitire obra satisfatcecoac.
- G. *Cein dire obra satisfatceco hec?*
- I. Badire hirur, barura, othoitça eta amoina.

- G. *Cergatic deitcen dire satisfacecoac?*  
 I. Ceren hetaz baliatcen baicara Jaincoari gure Bekhatuençat satisfaccione eguiten.
- G. *Cer aditcen duçu Baruraz?*  
 I. Baruraz aditcen dut, ez choilqui haraguitic abstinencia eguitea, bainan oraino gure gorphutça eta gure sensuac mortificatcen dituzten penazco obra guciac.
- G. *Cein denboraz gara bereciqui obligatuac barurcera eta mortificacionen eguitera?*  
 I. Eliça Ama Sainduac manatcen darocunean, eta gure passionen garaitceco mortificatu behar garenean.
- G. *Cer aditcen duçu Othoitçaz?*  
 I. Aditcen tut Jaincoaren alderateco pietatezco obra guciac.
- G. *Cer aditcen duçu Amoinez?*  
 I. Aditcen tut bere lagunaren alderateco caritatezco obra guciac.
- 151 G. *Noiz gara bereciqui eta guehienic obligatuac amoina eguitera?*  
 I. Gure lagunaren beharra eta pobrecia eçagutcen dugunean.
- G. *Bere lagunaren pobrecia eçagutcen duelaric hura lagunaren eta faboratcen ezduenac bekbatu handia eguiten othe du?*  
 I. Bai, baldin hura lagun eta fabora ahal badeçaque.
- G. *Berac pobre içanez, bertceri amoina eguitecoric ezdutenec cer eguin behar dute?*  
 I. Misericordiazco obrac eguinez bere laguna lagundu behar dute bere ahalaren arabera.
- G. *Cein dire misericordiazco obra hec?*  
 I. Badire bi suerte, batçuec gorphutcecoac, bertceac arimacoac.
- G. *Cein dire gorphutcecoac?*  
 I. Badire çazpi.  
 1. Da gose direnei jatera emaita.  
 2. Da egarri direnei edatera emaita.  
 3. Da biluzac beztitcea.  
 4. Da Pelegrinac eta arrotçac ostaticea.  
 5. Da eriac bisitatcea.  
 6. Da presunerac libratcea edo consolatcea.  
 7. Da hilac ehorztea.
- G. *Cein dire arimaco obrac?*  
 I. Badire çazpi.  
 1. Da ezdaquitenei irakhastea.  
 2. Da huts eguiten dutenac corregitcea.

3. Da penatan daudecinei conseilu emaita.
4. Da doloratuac consolatcea.
5. Da lagunaren hutsac eta umore gaitçac sofritcea.
6. Afruntuac eta injurioac barkhatcea.
7. Da Jaincoari othoitz eguita biciençat eta hilençat, baita gure etsajençat ere.

#### PRATICAC

1. Sofricariric edo nahigaberik içaiten dugunean, ofri deçogun Jaincoari gure bekhatuen satisfaccionetan.

2. Gure lagunaren alderat egun guciez eguin deçagun cenbait caritatezco obra.

3. Erreparti detçagun gure errentac, eta gure laneco edo tratuco irabaciac, eta hetaric eman deçagun parte bat pobren lagunceco eta faboratceco.

#### ISTORIOAC

Tobiasen exemplua, hura bethi hari cen misericordiazco obra eguiten. *Tob. c. 1.* Cornelio Centeneroaren exemplua. *Act. cap. 10.* Hautatuei eta erreprobatuei misericordiazco obrez Jesu-Christoc erraiten diotena, *Matt. cap. 25. v. 34. & seq.* Birgina erhoen exemplua. *Ibid. v. 2. & seq.* Cerbitçari inutilarena. *v. 30* eta fico fruituric ezdakharquena. *Luc. c. 13. v. 6. & seq.* Horiec guciec erakhustera emaiten dute içan gaitezquela erreprobatuac, obra onac ceren ezditugun eguin.

## HOGOI ETA HIRUR-GARREN LECCIONEA

Indulgenciez.

- 152 G. *Cer da Indulgencia?*  
I. Indulgencia da penitenciaco sacramenduac barkhatu dituen bekhatuei çor çajoten denbora batetaco penen barkhamendua.
- G. *Eliça Ama Sainduac eman abal othe detçaque Indulgenciac?*  
I. Bai, eta bethi eman ičan tu Apostoluen denboratic hunaraino.
- G. *Othe da horren exempluric Apostoluen denboracoric?*  
I. Bai, Jondoni Pauloc eman cioen Indulgencia Corinthaco incestoan erori cenari. *Ep. 1. Cor. cap. 5.*
- G. *Nola eman cioen indulgencia?*  
I. Hari bere penitenciaco denbora laburtuz eta hari barkhatuz haren contricione handia ikhusiric, eta guiristinoen caritatea consideraturic.
- G. *Norc du indulgencien emaiteco indarra edo podorea?*  
I. Indar hura badu gure Aita-Sainduac Eliça gucian, eta Jaun Aphezpicuec badute ceinec bere Diocesetan.
- G. *Cenbat indulgencia suerte dire?*  
I. Badire bi suerte, indulgencia plenarioa, eta indulgencia ez plenarioa.
- G. *Cer aditcen duçu indulgencia ez plenarioaz?*  
I. Aditcen dut indulgencia bat, ceinac ezbaitu barkhatcen bekhatuari çor çajon penaren parte bat baicen, halacoa da berrogoi egunen indulgencia, ehun egunena, urthe batena, &c.
- G. *Cer aditcen duçu berrogoi egunen indulgenciaz, ehun egunenaz, &c.*  
I. Aditcen dut lehenago guiristinoec Eliçaco Canonen arabera berrogoi egunez, ehun egunez, &c. Eguiten çuten penitenciarene barkhamendua.
- 153 G. *Cer da orai indulgencia horren efetua, Canonen araberaco penitencia harc ezdirauenaz gueroz?*  
I. Hura da Canonen araberaco penitencia haren ordain Purgatorioan sofritu behar ciren penen barkhatcea.

- G. *Cer aditcen duçu indulgencia plenarioaz?*
- I. Aditcen dut bere bekhatez eguiazco penitencia baten eguiteco bere eguin ahal guciac eguiten dituenari barkhatcea oraino so-fritceco guelditcen çaiçcon denbora batetaco pena guciac.
- G. *Jaun Apezpicuec emaiten dute indulgencia plënarioric?*
- I. Ez, ezta nihor Aita-Saindua baicic indulgencia plenarioac emaiten dituenic.
- G. *Indulgencia plenarioac ez othe gaitu dispensatcen penitencia eguitetic?*
- I. Ez, hura da choilqui lagunça bat gure flacotasunarençat, ez ordean aitçaquia bat gure lachotasunarençat guc ofensatu dugun Jaincoari satisfatu gabe egoiteco.
- G. *Eliçac indulgenciac emaiten darozquigunean ezgaitu beraz uzten edo dispensatcen gure bekhatez Jaincoari satisfatcetic?*
- I. Ez, bainan gure penitencia ossoago eta hobea içaitea gatic, hari berretcen diozca Jesu-Christoren eta Sainduen satisfaccioneac.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 154 G. *Eliça Ama Sainduac cein denboretan edo okhasionetan emaiten ditu indulgencia plenarioac?*
- I. Aita-Sainduac emaiten tuzte mende bakhotcharen hogoi eta bortzgarren urthean, berrogoi eta hamar-garrenean, hirur hogoi eta hamabortzgarrenean, eta ehun garrenean.
2. Aita-Saindu eguiten diren hastean, Jaincoaren Ispiritua bere ganat hedaraztea gatic Eliçaren ungui gobernatceco.
3. Emaiten tuzte Eliçaren premia handietan.
- G. *Nola deitcen da indulgencia plenario hori?*
- I. Deitcen da *Jubilava*.
- G. *Ez othe dire orobat Jubilava eta orai erran ditugun denborez bertcetan eta bertce okhasionetacotz Aita-Sainduac emaiten dituzten indulgencia plenarioac?*
- I. Ez, ceren Aita-Sainduac bere bulan Jubilavari emaiten baitiozca privelegio particular batçuec.
- G. *Indulgenciec nola barkhatcen dute bekhatei çor çajoten pena?*
- i Eliçaco tresor ispiritualac guri aplicatuz.
- G. *Cer aditcen duçu Eliçaco tresor ispiritualaz?*
- I. Aditcen tut Jesu-Christoren satisfaccione guciz handiac eta abundantac, Birgina Sainduarenac, eta saindu gucienac.

G. *Guiristinoec nola içaiten dute parte Jesu-Christo gure Jaunaren satisfaccionetan eta sainduenetan?*

I. Jesu-Christo gure Jaunaren, sainduen eta guiristinoen artean gorphutz mistico bat berceo (sic) buruçagiaren eta miembroen artean beçala den unioneaz eta batasunaz.

G. *Cer eguin behar da indulgencien irabazteco?*

I. Hirur gauça.

1. İçan behar da eguiazco contricione bat, eta cofesatu behar dire bere bekhatu guciac.

2. İçan behar da graciazco estatuan.

3. Lejalqui complitu behar dire indulgencia emaiten duenac manatcen dituen condicione guciac.

G. *Guciec orobat errecibitcen othe dute indulgencien fruitua?*

I. Ez, bat bederac ezdu errecibitcen bere disposicionen eredura baicic.

G. *Indulgenciac irabaz othe detçaquegu Purgatorioco arimençat?*

I. Bai, Jaincoari othoitz eguinez hei aplica deçotela indulgenciarene fetua hec bere penetan solegitceco.

## PRATICAC

1. Ezdeçagu uste içan penitencia eguitetic dispensatuac garela, Eliçac bere tresorac indulgenciez guri idequia gatic arren.

2. Estimü handi bat eguin deçagun indulgenciez, hequin bidez hain segurqui ardiesten dugunaz gueroz gure bekhatuei çor çajoten penen barkhamendua.

3. Eguin ahal guciac irabaz detçagun Eliçac emaiten dituen indulgenciac, harc manatcen dituenac lejalqui eta debotqui complituz.

## ISTORIOAC

Juduen baithaco Jubilava, han gathiboac libertatean emaiten cituzten, bat bedera bere ontasun bahituetan sarcen cen, &c. *Levit. cap. 25.* Hura cen legue berrico Jubilavaren eta indulgencien figura bat. Jondoni Pauloc Corinthar Incestoan erori cenari barkhatcen dio harc mereci çuen penaren parte bat. *Ep. 1. Cor. c. 5. v. 3. & seq. & Ep. 2. c. 2. v. 6. & seq.*

## HOGOI ETA LAUR-GARREN LECCIONEA

### Anuncioaz.

- 155 G. *Cer da Anuncioa?*  
I. Anuncioa da Sacramendu bat eriei arimaco eta gorphutceco behar dituzten lagunça gucien emaiteco ordenatua.
- G. *Anuncioac eriei nola emaiten diote arimaco lagunça?*  
I. Lehenbiceric, Harc emaiten diote eriei indarra deabruaren tentacionen eta herioaren ikhararen contra.  
2. Harc akhabatcen du erien bekhatuen barkhamendua, bekhatu hequin hondarrac garbituz.
- G. *Anuncioac nola emaiten diote eriei gorphutceco lagunça?*  
I 1. Harc emaiten du paciencia eritasunaren sofritceco.  
2. Harc emaiten du gorphutceco ossasuna, baldin hura hobe bada erien salbamenducotz.
- G. *Sacramendu hunec nola emaiten diote eriei indarra?*  
I. 1. Hequin fedea borthiztuz.  
2. Hequin bihotcetean eçarriz Jaincoaz goçatceco desira eta esperança.
- G. *Sacramendu hau cergatic deitcen da oliadura eta azquen gançudura?*  
I. Ceren hau baita guiristino batec azquenic errecibitcen duen Gançudura eta Sacramendua.
- G. *Anuncioa ecin errecibi othe daite extremitatean eta exian baiten?*  
I. Bai, asqui da arriscutaco eritasun bat içaitea, eta ezta ungui ere extremitateraino egoitea anunciatu gabe.
- G. *Cergatic ezta conbeni extremitateraino egoitea anunciatu gabe?*  
I 1. Ceren adimendua libro duenean hobequi eria disposatcen baita sacramendu haren errecibitcera.  
2. Ceren hura errecibitu gabe denbora sopra egoiten dena arriscutan jarcen baita haren errecibitceco probetchuric eta fruturic gabe, edo hura errecibitu gabe hilceco.
- 156 G. *Sacramendu hau errecibi othe deçaquegu gure bician hainitz al-diz?*  
I. Bai, hilceco arriscutan jarcen garen aldi guciez.



- G. *Cer eguin behar da sacramendu hunen errecibitcera preparatceco?*
- I. Cofesatu behar da, baldin bekhatu mortalean bada.
- G. *Baldin eria ecin cofesa badadi, cer eguin behar du?*
- I. Ensejatu behar du contricione perfet baten içaitera, behar du desiratu absolucionea, eta galdetu behar du cenbait ceinalaz edo kheinuz bederen, ahal badagui.
- G. *Eriac cer eguin behar du sacramendu hau errecibitcean?*
- I. Behar du jarri bere bekhatuez urriquitan, Jaincoaren misericordian esperança hartu, eta haren borondate sainduari ossoqui arri-matu.
- G. *Cer eguin behar du oraino eri batec?*
- I. 1. Bere eritasuna Jaincoari ofritu behar dio bere bekhatuen barkhamendutan.
2. Acceptatu edo gogo onez errecibitu behar du heriotcea, Jaincoac igorri nahico dioenecotz.
3. Obedientqui errecibitu behar tu ordenatcen diozcaten erremedioac, eta errendatcen diozcaten cerbitçuac, hetaricaco ona eta probetchua Jaincoaren ganic baicen nihoren ganic iguriqui gabe.
- G. *Cein dire guehienic eriec eguiten dituzten bekhatuac?*
- I. Laur dire principalac.
1. Paciencia escassa, eta umore gaitça.
2. Sacramenduen errecibitceco negligencia eta artha gucia.
3. Ossasunaren lehia handieguia.
4. Biciari eta bere ontasunei sopra estecatua içaitea.

## PRATICAC

1. Othoitz detçagun gure adisquideac abisa gaitçatela, noiz ere gure eritasunetan arriscutan içanen baicara, sacramenduac muga onez errecibitcea gatic.

2. Bisita detçagun eriac bereciqui pobreac eta beharrac, consola detçagun eta exorta paciencia harcera.

3. Noicic behin iracur detçagun Eliçac hagonian direnençat eguin dituen othoitçac, ungui hilcera prepara gaitecin bide hartaz.

## ISTORIOAC

Ezechias Judaco Erreguec Jaincoari othoitz eguiten dio khien deçala heriotceco athetatic, eta Jaincoac ençuten du. 4. *Reg. c.* 20. *v.* 5. & *seq.* & *Isaïae c.* 38. eta contrario Ochosias Idoloei dagote othoitez, eta hilcen da. 4. *Reg. cap.* 1. *v.* 2. Samaritanoaren Istoria da Jesu-Christoc Sacramendu huntan eguiten duenaren figura. *Luc. cap.* 10. *v.* 3. & *seq.* Anuncioa aiphatua S. Marc Evangelistaz. *cap.* 10. *v.* 13. eta gomendatua Jondoni Jacobez. *Ep. cap.* 5. *v.* 14. & 15.

## HOGOI ETA BORTZ-GARREN LECCIONEA

Ordenaz.

- 157 G. *Cer da Ordenaren sacramendua?*
- I. Ordena da sacramendu bat, ceinac Eliça-guiçonei emaiten baitiote bothere eta indar Eliçaco eguinbiden eguiteco, eta hequin ungui eta sainduqui eguiteco gracia.
- G. *Nondic heldu da bothere edo indar hori?*
- I. Heldu da Jesu-Christo ganic, ceinac indar hori eman baitcioten Apostoluei, eta manatu baitcituen hec ere bertcei eman ceçotela.
- G. *Bothere hori nola etborri da Apostoluetaric gure ganaino?*
- I. Behinere guelditu ezten seguida batez, ceinac iraunen baitu Eliçan mundu hunen akhabançaraino.
- G. *Cer disposicionerequin errecibitu behar da sacramendu hau?*
- I. 1. Behar da içan Jaincoac hartara deithua, eta ez bere baitharic han sarthu.  
2. Ezta içan behar bertce chederic Jaincoaren gloria eta lagunaren salbamendua baicic.  
3. Içan behar da bicitce erraitecoric gabecoa eta prestua.  
4. Içan behar da graciazco estatuan.
- G. *Haur bat Eliça-guiçon eguiten eztenean bere abaiden gogara eguitea gatic baicen, edo beneficioac içaitea gatic eta bere aisian bicitcea gatic baicen, hura ungui deithua othe da?*
- I. Ez, ceren haren chedeac choilqui baitire haraguiarenac eta odolarenac; hala ezta hura gai ez digne sacramendu hunen errecibiteco.

- G. *Cer erran abal daiteque bere gogoaren contra bere haurrac Eliçaguiçon eguiten dituzten burasoez?*
- I. Hequin gatic haur hec damnatcen direla, eta berac ere damnatco direla.
- G. *Nola eçagut abal deçoquegu bea estatu hartara Jaincoaz deithuac garen?*
- I.
    1. Conseilu galdeguinez guiçon abilei eta deus ezdohacotenei, gure disposicioneac hei eçagut araciric.
    2. Othoitz beroac eta onac Jaincoari eguinez, othoi eçagut araz deçagula bere borondate saindua, Samuel gazteac eguin çuen beçala.
    3. Tonsura hartu baino lehen cenbait egunez Seminario batean, egonez, han bakhartasunean Ispiritu Sainduaren arguiac gure gana hedaraztea gatic eguiazqui deithuac othe garen segurqui jaquiteco.

#### PRATICAC

1. Maiz othoitz eguin deçogun Jaincoari arimen salbamendua-  
ren cargua dutenençat, nola baitire gure Jaun Aphezpicua, gure Erro-  
tora, gure Cofesora, &c.
2. Nola gartha denboretan Apheçac ordenatcen eta consecra-  
tcen baitire, orduan are guehiago Jaincoari othoitz deçogun hec san-  
tifica detçala, Eliçaren probetchucotz eta cerbitçucotz onac içan deitecin  
**gatic.**
3. Ezgaitecin secular estatu hartan sar genden gogara eguitea  
gatic, edo gure ahaiden beldurrez, eta lehenago hetaz içan gaitecin gaiz-  
qui tratatuac, ordenac hartuco tugun baino, baldin hartara deithuac  
ezbagara.

#### ISTORIOAC

Aaron baithan agueri da cein necessario den Jaincoaz deithua  
içaitea. *Lev. c. 8.* Samuel baithan orobat, *Lib. 1. Reg. c. 3.* Jesu-Christo  
bera baithan ere. *Hebr. c. 5. v. 3. & 4.* Core, Datan, eta Abiron nola  
içan ciren punituac, ceren nahi içan çuten escua sarthu Aphezen eguin-  
bide sacratuetan. *Num. c. 16. v. 31. & seq.* Ozias nola punitu cen gauça  
bera gatic, *Lib. 2. Paral. c. 26. v. 16. & seq.* Horiec guciec erakhustera  
emaiten dute, cein arriscu handia den ordenetan sarcea hartara dei-  
thua içan gabe.

## HOGOI ETA SEI-GARREN LECCIONEA

Ezconçaco Sacramenduaz.

- 158 G. *Cer da Ezconçaco Sacramendua?*
- I. Ezconça da sacramendu bat, ceinac santificatcen baitu guiçonaren eta emaztearen arteco societate edo batasun çucena eta legitimoa, eta hei emaiten baitiote gracia bere haurren hazteco eta alchateco Jaincoaren beldurtasunean.
- G. *Cer disposicionerequin errecebitu behar da sacramendu hau?*
- I. 1. Behar da ičan graciázco estatuan, eta hartaracotz cofesatu eta comuniatu behar da bia edo hirur egunez aiticinetic.
2. Errecebitu behar da sacramendu hau modestia handi batequin, ahalquegabetasun gucietaric beguiraturic.
3. Ezda ičan behar Eliçac marcatu tuen Ezconceco trabuetaric edo empechamenduetaric batere.
- G. *Cer eguin behar da jaquiteco hea othe dugun trabu betaric bate-re?*
- I. Conseilu galdeguin behar çajo Errotorari edo Cofesor abil bati.
- G. *Ezconça hausten duen trabu batequin daquiela ezconcen denac cer gaizqui eguiten othe du?*
- I. Bekhatu handi bat eguiten du, eta arriscutan jarcen da Jaincoaren aiticinean beçala guiçonon aiticinean ere bere ezconça hautsia ikhusteco.
- G. *Non errecebitu behar da ezconçaco sacramendua?*
- I. Norc bere herrian bere Errotora ganic, edo harc bere partez hartaco eçarri duen Aphez baten ganic.
- 159 G. *Cein dire presuna ezconduen obligacioneac?*
- I. Badire bortz principalac.
1. Senharra eta emaztea elkharrequin baquean eta batasun saindu batean bicitcea.
2. Batac bercearen narriõac, hutsac eta umoreac pacienciarequin sofritlea.
3. Batac berceari ezconçaco fedea lejalqui beguiratcea.
4. Bere beharretan elkhar laguncea.
5. Bere haurrac Jaincoaren beldurtasunean alchatcea.

- G. *Cer da bere haurrac Jaincoaren beldurtasunean alchatcea?*
- I. Hura da bere hurrei inspiratcea Jaincoaren amodioa eta bekhatuaren higuintasuna, hei irakhasteaz eta instruitceaz artha içaittea, eta nola bici diren beguiratcea.
- G. *Nor dire ezconcean bekhatu eguiten dutenac?*
- I. Hec dire, Lehenbicoric.
1. Bere ahaiden borondate justuaren contra ezconcen direnac.
  2. Ez ezconceco botu eguin dutenac, eta bere botuaren dispensa ardietsi ezdutenac.
  3. Ezconcen direnean munduco chederic baicic ezdutenac, eta bihotcen juntatcearen bilha baino ontasunen bilha guehiago dabilçanac.
  4. Ezconçaco eguinbideac ikhasi gabe laçoqui egoiten direnac.
- G. *Birginatasuneco eta alharguntasuneco estatua ez othe da hobea ezconçacoa baino?*
- I. Bai, hartan sainduqui bicitceco harcen denean.
- G. *Cein behar da bada bietarik hautatu?*
- I. Jaincoac ceintara deitzen gaituen ikhusiric, hura hautatu behar da.

#### PRATICAC

1. Jaincoa consulta deçagun gure estatuaren gainean, estatu hura hainberce arriscutacoa denaz gueroz, eta hainberce nahigabe darrajoenaz gueroz, eta hortacotz aplica gaitecin Comentu batean bethicotz sarthu behar baguine beçain artha handiarequin.
2. Ungui gogoan atchic deçagun eta orhoit gaitecin Ispiritu Sainduac çuhurraren ahotic dioenaz. *Prov. cap. 18 v. 14.* Aitac eta Amac emaiten tuztela aberatstasunac, bainan den beçala erraiteco Jaunac berac emaiten dioela guiçonari emazte prudenta eta prestua.
3. Gure bihotcetic urrun detçagun sensuetaco eta lohiqueriaco edo desonhesqueriaco desira guciac.
4. Nihor esposatcean han garenean egon gaitecin modestqui, eta Meça Saindua ençutean Jaincoari othoitz eguin deçogun sacramentu hura errecibitcen dutenençat.

Sararen lehenbico çazpi senharrac punituac, ceren desohoratu çuten ezconçaren saindutasuna, eta Jaincoac nola benedicatu çuen Sarac Tobias gaztearequin eguin çuen ezconça. *Tob. cap. 6. & 8.* Isaac eta Rebecca nola ezcondu ciren *Gen. c. 24. v. 64. & seq.* Zacharias eta santa Elizabeth nola ezcondu ciren. *Lucae cap. 1. v. 5. & 6.* S. Joseph eta Birgina Maria Saindua. *Matt. cap. 1. v. 18. & seq.* Horiec erakhus-tera emaiten dute guiristinoec nola behar duten ezcondu. Jesu-Christo eta Birgina Saindua Canaco eztajetan causitceac; eta Jaun harc han eguin cituen miracuiluec guiristinoei erakhus-ten diote hec ere bere othoitcez imitatu behar dutela Jesu-Christo hequin ezconcen benedicatcen.

### HOGOI ETA ÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Othoiçaz.

- 160 G. *Cer da Othoitça?*  
 I. Othoitça da gure gogo eta bihotça Jaincoari alchatcea, behar ditugun gauçac hari galdeguiteco.
- G. *Nola alchatcen çajo gure arima Jaincoari?*  
 I. Adoracionezco actac eguinez, fedezcoac, esperançazcoac, caritatezcoac, laudoriozcoac, esquer onezcoac, galdezcoac, gueronez eta guc ditugunez ofrimenduzco actac eguinez.
- G. *Cenbat guisatara othoitz eguin deçaquegu?*  
 I. Bi guisatara; bihotcez eta ahoz.
- G. *Nola deitcen dire bi othoitz suerte horiec?*  
 I. Bihotcezco othoitça deitcen da *Oracione mentala*; eta ahozco othoitça deitcen da *Oracione vocala*.
- G. *Oracione vocalean asqui othe da ahoz othoitz eguitea?*  
 I. Ez, hari juntatu behar çazco bihotceco sentimenduac.
- G. *Obligatuac othe gara Jaincori othoitz eguitera?*  
 I. Bai, hura da guiristinoen eguinbide hersienetic bat niholere ecin utcizcoa.
- G. *Cergatic hori?*  
 I. Hirur arroçoin gatic.  
 1. Ceren Jaincoac hortaz eguin baitu berariazco manamendu bat.

2. Ceren obligatuac baicara Jaincoaren ohoratcera, eta othoitça baita Jaincoaren ohoratceco manera haguitz on bat.
3. Ceren Jaincoaren lagunçaren beharra bethi baitugu.
- G. *Nola behar da othoitz eguin?*
- I. Humiltasun handi batequin, fidancia handi batequin, eta bethi iraunez edo perseveratuz.
- G. *Cer da humilqui othoitz eguitea?*
- I. Hura da eçagutcea eta aithorcea ezgarela gai edo digne Jaincoaren aiticinean aguerceco, eta hartaz ençunac içaiteco.
- G. *Cer da fidanciarequin othoitz eguitea?*
- I. Hura da esperança içaitea, Jaincoac emanen darocula galdeguiten dioguna, baldin hala conbeni bada haren gloriarençat eta gure salbamenduarençat.
- G. *Fidancia hori cerc eman behar darocu?*
- I. Jaincoa guciz ona dela jaquiteac, eta Jesu-Christo gure Jaunaren merecimendu handiec.
- G. *Cer da bethi iraunez edo perseveratuz othoitz eguitea?*
- I. Hura da behinere unhatu gabe bethi othoitz eguitea, Jaincoa luçatua gatic arren guri emaitera galdetcen dioguna.
- G. *Cer eguin behar da oraino?*
- I. Atencione handi batequin othoitz eguin behar dugu, eta Jesu-Christo gure Jaunaren icenean; ceren hartaz baicen ecin mereci baiteçaquegu Jaincoaz ençunac içaitea.
- G. *Cer da atencionerequin othoitz eguitea?*
- I. Hura da othoitz eguitea distraccioneric bere nahitara içan gabe eta gogoa bercetan erabili gabe.
- G. *Othoitz eguitean unhatcea edo gosturic ez harcea, eta othoitcetic probetchu guti içaiten dugula uste içaitea arroçoin onac othe dira gu othoitz eguitetic gueldi arazteco?*
- I. Ez, contrario orduan are guehiago doblatu behar tugu gure humiltasuna, gure fidancia, eta gure animoa.
- 161 G. *Gure othoitcetan cer galdetu behar diogu Jaincoari?*
- I. Haren gloria, gure salbamendua, eta gure lagunaren salbamendua aiticina ahal detçaqueten gauça guciac.
- G. *Ez othe detçoquegu galde munduco ontasunac hala nola bicia, ossasuna, hauci baten irabaztea, &c.*
- I. Bai, baldin galdetcen baitugu chede eta fin on batetacotz, guciac Jaincoaren borondatearen azpian eçarriric.

- G. *Cein denboraz behar da bereciqui othoitz eguin?*
- I. Goicean, arraxean, bere lan eta accione phuruen edo principalen hastean, Meça ençutean, Oficio Dibinoac ençutean.
- G. *Gure lanen edo accionen hastean eguiten dugun othoitzça lucea içaitea necessario othe da?*
- I. Ez, asqui da choilqui Jaincoari bihotça alchatcea.
- G. *Igandetan eta Bestetan ez othe da othoitz guebiago eguin behar bertce egunetan baino?*
- I. Bai, ceren egun hec baitire bereciqui othoitz eguiteco destinatuac eta eslegituac.
- G. *Ez othe da bertce okhasioneric bereciqui obligatuac garenic Jaincoari othoitz eguitera?*
- I. Bai,
1. Da cenbait tentacione dugunean, edo cenbait arriscutan garenean.
  2. Eri garenean, edo cenbait nahigabe dugunean.
  3. Bekhatuan erori garenean.
  4. Bicitceco partidu edo estatu baten harcera goacinean.
- G. *Nola aditu behar da Jaincoaren Semeac manatcen darocuna, Behinere guelditu gabe othoitz eguin deçagula?*
- I. Behinere guelditu gabe othoitz eguiten dugu, baldin gure lan eta accione guciac eguiten baitugu Jaincoaren gloriacotz.

## PRATICAC

1. Gure bihotça garbi deçagun bethi contricionezco acta bathez othoitz eguiten hasi baino lehen, Jaincoac gure othoitzça entçun deçan amoreac gatic.

2. Astia dugunean goacin noicic behin Eliçara, han debocione handirequin othoitz eguitera guretçat, gure familiençat, eta Eliçaren behar guciencat, bereciqui goseteco denboran, agortetan, &c.

3. Ezdeçagun secular galde mundu huntaco ontasunac, gure salbamenduarençat conbeni bada baicic, eta bethi baldin Jaincoaren borondatea hala bada.

## ISTORIOAC

Othoitz eguiteco exortac. *Matt. cap. 26. v. 41. Lucae c. 18. v. 1. Othoitzac cer indar duen Jaincoaren aiticinean. Matt. cap. 21. v. 22. Marci cap. 11. v. 24. Luc. cap. 11. v. 9. Joan. c. 14. v. 13. & 14. cap.*



15. v. 7. *cap.* 16. v. 23. & *seq.* Moyseren othoitçac Jaincoa ganic ardietsi çuen bictoria Amaleciten contra. *Exodi cap.* 17. Eliasen othoitçetariç miracuiluac, *Lib.* 3. *Reg. cap.* 17. v. 1. 21. & 26. & *cap.* 18. v. 36. & *seq.*

## HOGOI ETA ÇORTCI-GARREN LECCIONEA

Jaunaren othoitçaz, edo *Pater nosterraz.*

- 162 G. *Cein da othoitçic hoberena?*  
 I. Hura da *Pater noster*, edo Jaincoaren othoitça.  
 G. *Cer da Jaunaren othoitça?*  
 I. Hura da othoitz bat Jesu-Christo gure Jaunac berac irakhatsi darocuna.  
 G. *Erraçu latinez eta escoaraz.*  
 I. *Pater noster, &c. Gure Aita, &c.* Goiceco othoitcean beçala, pag. 3.  
 G. *Gure Aita Erraitcan nori minço gaizco?*  
 I. Jaincoari minço gaizco.  
 G. *Cergatic dioçu Gure Aita?*  
 I. Bi arroçoin gatic.  
 1. Ceren harc bicia emaiten eta conserbatcen baitarocu.  
 2. Jaincoa baithan gure fidancia eçarceco haren ume beçala eta haren gloriaco primo beçala.  
 G. *Cergatic eztuçu erraiten Ene Aita, erran gabe Gure Aita?*  
 I. Ceren guciac anaja baicara, eta elkharrençat othoitz eguin behar baitugu.  
 G. *Cergatic dioçu Ceruetan çarena?*  
 I. Ceren Jaincoa lekhu gucietan icena gatic arren, halere Cerua baitagocagu haren gloriaren Thronua beçala.  
 G. *Cergatic oraino?*  
 I. Guri erakhustea gatic othoitz eguiten dugunean gure ispirituaç eta gure bihoitçac alchatu behar tugula Cerurat, ceren handiç iguriqui behar baititugu galdeguiten ditugun gauçac.  
 G. *Cenbat galde dire Jaunaren othoitcean?*  
 I. Badire çazpi.  
 G. *Esplica çaçu lehena, Erabil bedi sainduqui çure içena?*  
 I. Hori erran nahi da, içatu çaitte eçagutua, adoratua, eta maitatua mundu guciacz, eta guciac ikhara beitez çu ofensatceaz.

G. *Esplica çaçu hori chebequiago.*

I. Hori erran nahi da, guc galdetcen dugula,

1. Infidelec eçagut eta benedica edo lauda deçatela Jaincoaren icen saindua.
2. Juramentu eguileac eta blasfematçaileac gueldi daitecila haren ofensatcetic.
3. Guiristino guciec ohora deçatela bere bicitce sainduaz.

G. *Esplica çaçu bigarren galdea, Ethor bedi çure erresuma.*

I. Hori erran nahi da, manaçaçu gure bihotcetan çure graciaz, eta goçaraz gaitçatçu çurequin batean çure erresumaco gloria sainduaz.

G. *Esplica çaçu hirur-garren galdea, Eguin bedi çure borondatea Ceruan beçala lurrean ere.*

I. Erran nahi da, içan çaitte lurrean obeditua, Ceruan çaren beçala, amodio eta lejaltasun handi batequin.

## PRATICAC

1. Jaunaren othoitça erran deçagun atencionerequin eta pausu onean, hura erraitcan gogoan içan deçagun han Jaincoari galde bakhotchcan cer galdetcen çajoen.

2. Jaincoari othoitz eguin deçogun othoi conberti detçala bere juramentuez, blasfemioez edo crimez haren icen saindua desohoracnen dutenac, eta corregi detçagun juramentu eguileac, baldin badugu hartaco podorea.

3. Nahigaberie heldu çaicunean, bihotcez erran deçogun Jaincoari, *Eguin bedi çure borondatea.*

## ISTORIOAC

Jesu-Christo bere Apostoluei nola irakhatsi cioten othoitz eguiten. *Matth. cap. 6. v. 9. & seq. & Lucae cap. 11. v. 2. & seq.* Haur prodigoaren parabola, *Luc. cap. 15. v. 11. & seq.* Eli Aphez handiaren exemplua, harc eman çuen errepuestan noiz ere Samuelec Jaincoaren partez erran baitcioen cer çorigaitz cegoen harençat, *Lib. 1. Reg. c. 3. v. 18.* Eta Job sainduaren exemplua. *Lib. Job cap. 2. v. 10.* Horiec erakhusten darocute ez galdeguiten gauça gucietan Jaincoaren borondatea complitcea baicic.

## HOGOI ETA BEDERATCI-GARREN LECCIONEA

Jaunaren othoitçaren seguida.

- 163 G. *Esplica çaçu Jaunaren othoitçaren laurgarren galdea*, Iguçu egun gure eguneco oguiá.
- I. Erran nahi da, igutçu arimaco eta gorphutceco biciarençat egun guciez behar ditugun gauçac.
- G. *Cein da guc galdetcen dugun arimaco ogui hura?*
- I. Hura da Jaincoaren gracia, haren hitz saindua, eta Gorphutz sainduaren sacramendua.
- G. *Cein da Gorphutceco oguia?*
- I. Hura da, gure entretenitceco eta gure biciaren conserbatceco behar ditugun gauça guciac.
- G. *Esplica çaçu bortz-garren galdea*, Barkha detçagutçu gure çorrac?
- I. Hori erran nahi da, iguçu eguiazco penitencia baten dohaina eta gure bekhatuen barkhamendua.
- G. *Galde horrec cer erakhusten darocu?*
- I. Nola Jaincoa ofensatcen baitugu egun guciez, hala behinere unhatu gabe hari barkhamendu escatceco beharra bethi badugula.
- G. *Cergatic berretcen dire hitz hauc*, Guc gure gana çordun direnei barkhatcen derauztegun beçala?
- I. Gu orhoit araztea gatic barkhatu behar diotegula gu ofensatcen gaituztenei, baldin nahi badugu Jaincoac guri barkha deçagun.
- G. *Nolaz, Jaincoac ez othe darocu bada barkhatuco, baldin guc barkhatcen ezbadugu?*
- I. Ez, ecen galde huntan Jaincoari othoitz eguiten diogu, nola ere guc barkhatcen baitugu, harc ere guri orobat barkha deçagula.
- G. *Esplica çaçu sei-garren galdea*, Eta ezgaitçatçula utz tentamendutan erorcera?
- I. Hori erran nahi da, edo khen darocuçu tentacionea, edo iguçu haren garaitceco gracia.
- G. *Esplica çaçu çazpi-garrena*, Aitcitic beguira gaiçatçu gaitcetic?
- I. Hori erran nahi da, libra eta beguira gaitçatçu bicitce huntaco

ekhajetarić eta miserietarić, eta heriotce eternaletic, ceina baita gaitz gucietaric handiena.

- G. *Jaunaren othoitçaren akhabançan cergatic erraiten da hitz hau, Halabiz?*
- I. Jaincoa baithan dugun fidancia, eta eguin ditugun galde huntan gucietan ençunac içaiteco desira edo guticia erakhustera emaita gatic.

#### PRATICAC

1. Jaunaren othoitça erraiten dugunean, orthoit gaitecin hea othe dugun etsairic batere, barkha deçogun hari bihotz onez, eta har deçagun harequin baquetceco gogo eta deliberacione on bat.

2. Guri gaitz nahi darocutenei cerbitçu errendatceco okhasio-nea bilha deçagun, eta hequinçat Jaincoari othoitiz eguin deçogun.

3. Cenbait tentacione borthitz biciqui içaiten dugunean, Jaincoa ganat itçul gaitecin, eta erran deçogun fidancia handi batequin; *Ezgaitçatçula utz tentamendutan erorcera.*

#### ISTORIOAC

Davitec Semeiri ahapaldi gaichtoac barkhatceaz erakhutsi darocu, nola barkhatu behar diotegun gu ofensatu gaituztenei. *Lib. 2. Reg. cap. 19. v. 24. & seq.* Harcecodun gogorraren parabola. *Matth. cap. 18. v. 23 & seq.* Jaincoac eztu permetitcen içan gaitecin tentatuac gure indarrez gorago. *Ep. 1. Cor. cap. 10. v. 13.*

## HOGOI ETA HAMAR-GARREN LECCIONEA

Aingueruaren Salutacioneaz, edo *Ave Maria*z.

- 164 G. *Birgina Sainduaren ohoratceco eta haren lagunçaren galdetceco Eliçac principalqui usatcen duen othoitça cein da?*
- I. Hura da Aingueruaren Salutacionea, edo bertcela *Ave Maria*.
- G. *Erraçu latinez eta escoaraz.*
- I. *Ave Maria, &c. Agur Maria, &c.* Goiceco othoitcean beçala, pag. 5.
- G. *Othoitç hunençat cergatic dute hain errespetu handia guiristino on guciç?*
- I. Bi arroçoin gatic.
1. Ceren othoitç hau guehiena eguina baita escritura sainduco hitcez.
  2. Ceren hartan edireiten baitire laburzqui Birgina Sainduaren handitasun guciac.
- G. *Cein hitcez eguina da Aingueruaren Salutacionea?*
- I. Aingueru Gabrielen hitcez, santa Elizabetenez, eta Eliçac hei berretu diozcatenez.
- G. *Cein dire Aingueru Gabrielen hitçac?*
- I. Hauc dire: *Agur Maria graciaz bethea, Jauna da çurequin.*
- G. *Aingueruac noiz erran ciozcan hitz horiec Birgina Sainduari?*
- I. Aingueru Gabrieleç erran ciozcan hitz horiec noiz ere Birgina Sainduari eraman baitcioen berria Jaincoaren Semearen Incarnacioneco Misterioa haren Sabel Sacratuan complitceco cela.
- G. *Cer erran nahi dire hitz horiec?*
- I. Erran nahi dire, Ispiritu Sainduac bere egoitça eguiten duela Birgina Saindua baithan, eta hura bethe duela bere graciaz manera miragarri batez.
- G. *Cein dire Santa Elizabeten hitçac?*
- I. Hauc dire: *Benedicatua çara emazten artean, eta benedicatua da çure sabeleco Fruitua.*
- G. *Santa Elizabetec noiz erran cituen hitz horiec?*
- I. Noiz ere Birgina Sainduac ohoratu baitçuen bere bisitaz, erran nahi da, Mariaren bisitacioneco egunean.

G. *Cer erran nahi dute hitz boriec?*

- I. Erran nahi dute, Birgina Saindua Jaincoaren Ama dela; calitate hortan ohoratcen dugu, eta Jaincoa laudatcen eta benedicatcen dugu, ceren haren ganic eman darocun bere Semea.

G. *Cein dire Eliçac berretu dituen hitçac?*

- I. Hitz hauc dire: *Maria Saindua Jaincoaren Ama, eguiçu othoitz gu bekhatorençat orai eta gure heriotceco orenean*: Halabiz.

G. *Cergatic Eliçac berretu tu hitz boriec?*

- I. Erakhustera emaiteco cein fidancia handia behar dugun içan Birgina Sainduaren lagunçan eta arartecotasunean, bereciqui gure heriotceco orenean.

## PRATICAC

1. Içan deçagun Aingueru Gabrieleç eta santa Elizabetec cituzten sentimenduac, noiz ere Mariari erran baitciozcaten Aingueruaren salutacionean diren hitçac.

2. Considera deçagun bekhatoros ceren garen laster eguin behar dugula Birgina Sainduaren arartecotasunera haren Seme Jauna ganic misericordia ardiesteco.

3. Artha bereci batequin atencionea eman deçotegun hitz haui, *Eguiçu othoitz gu bekhatorençat... Gure heriotceco orenean*; Ceren hura baita denbora, ceinetan baitugu haren arartecotasunaren beharric guehiena.

## ISTORIOAC

Hemen erran daitezque san Luc baithan anunciacioneaz isquiribatuaç diren gauça guciac, *cap. 1. v. 26 & seq.* eta harc berac erran içan duena Birgina Sainduac bere Cusina Elizabeti errendatu cioen bisitaz, *ibid. v. 39. & seq.*

## HOGOI ETA HAMECA-GARREN LECCIONEA

Birgina Sainduaren ganateco debocioneaz.

- 165 G. *Trinitate Sainduaren alderateco gure eguinbidez lekhora, cein da debocionezco pratica guebienic maitatu behar duguna?*
- I. Hura da Birgina Saindua ganateco debocionea.
- G. *Cer arroçoinen gainean da fincatua debocione hori?*
- I. Laur arroçoin principalen gainean.
- G. *Cein da lebena?*
- I. Mariaren handitasunac dire.
- G. *Cein dire handitasun bec?*
- I. 1. Hura da Aita Eternalaren Esposa, Semearen Ama, eta Ispiritu Sainduaren Templua.  
2. Birgina da, eta Ama da, biac betan.  
3. Hura da Aingueruen eta guiçonon Erreguina.
- G. *Cein da Bigarren arroçoina?*
- I. Aingueru gucien eta emazte gucien gainetic Jaincoac hari eman diozcan gracia pare gabeac.
- G. *Cein da hirur-garrena?*
- I. Ceren harc eguin nahi baitarocu, eta eguin ahal baiteçaquegu bertce, cein nahi sainduc baino ungui guehiago.
- G. *Cein da laur-garrena?*
- I. Haren berthute miragarriac.
- G. *Cein dire berthute hetaric principalac?*
- I. Haren humilitatea, castitatea, fedea, haren obediencia, religionea, Jaincoaren ganateco amodioa, bere lagunaren ganateco caritatea, harc bekhatuarençat çuen higuinça.
- G. *Certan dago Birgina Sainduaren ganateco eguiazco debocionea?*
- I. 1. Errespetu handi bat harençat içaitean, eta haren handitasunac hainitz estimatcean.  
2. Haren Bestac debocionerequin beguiratcean.  
3. Haren ohoretan egun guciez cenbait othoitz erraitcan.  
4. Hura bere berthutetan imitatcean.

- G. *Cer probetchu atheratcen dugu Ama Birgina ganateco debocionetic?*
- I. Harc laguncen gaitu bici gareino, eta lagunça handi eta borthitz bat emaiten darocu hilcean.
- G. *Ez othe du nihorc bebinere abusatcen debocione hortaz?*
- I. Bai, eta hec dire.
1. Bere debocione itchurarequin gaizqui bici direnac.
  2. Uste dutenac salbatua içaiteco asqui dela Birginaren ohoretan cenbait Confrariotan sarcea, eta bizquitartean obra onic eguin gabe eta haren berthuteac imitatu gabe daudecinac.

#### PRATICAC

1. Birgina Sainduaren Bestac santifica deçagun debocione particular batequin, eta egun hetan sacramenduetara hurbil gaitecin.
2. Birgina Sainduaren ganateco debocioneaz gaizqui minço direnen contra sostenga deçagun Andre haren gloria eta cerbitçua.
3. Içan deçagun gure etchean edo gurequin erabil deçagun Birgina Sainduaren cenbait imagina, guc haren gana dugun debocionea guehiago berotcea gatic.

#### ISTORIOAC

Jesu-Christoc bere lehenbico miracuilua eguin çuen Canaco ez-tajetan Birgina Sainduac othoizturic, horrec erakhusten darocu haren credita cein handia den. *Joan. cap. 2. v. 3. & seq.* Jesu-Christoc hilcean Birgina Saindua Jondoni Joaniri eman cioen amatçat, eta guri haren presunan, horrec eman behar darocu fidancia handi bat Andre haren arartecotasunean. *cap. 19. v. 26. & 27.*



## HOGOI ETA HAMABI-GAREN LECCIONEA

### Arrosarioaz.

- 166 G. *Birgina Sainduaren ohoratceco guiristinoac maicenic cerbitçatcen diren debocionea cein da?*
- I. Hura da Arrosarioa.
- G. *Cer da Arrosarioa?*
- I. Arrosarioa da othoitz bat Birgina Sainduaren ohoretan eguina, ceinetan baitire, *Credo* bat, çazpi *Pater*, eta hirur hogoi eta hirur *Ave Maria*.
- G. *Nola erraiten da Arrosarioa?*
- I. Jaincoaren aitcinean garela orhoituric eta ceinaturic erraiten da *Credo* Gurutcearen gainean, eta *Pater* bihi larrien gainean; *Ave Maria* bihi chehen gainean latinez edo escoaraz.
- G. *Othe da cenbait berthute edo indar hunen berce Pater eta Ave Maria erraiteco numbre hartan?*
- I. Ez, horren sinhestea supersticione bat laiteque.
- G. *Cergatic erraiten dire bada çazpi Pater hec?*
- I. Birgina Sainduaren bicitceco çazpi Misterio principalen ohoratceco.
- G. *Cein dire Misterio hec?*
- I. Haren Concepcione tatcharic gabea, Sortcea, Presentacionea, Anunciacionea, Bisitacionea, Purificacionea eta Assumpcionea.
- G. *Cergatic erraiten dire hirur hogoi eta hirur Ave Maria?*
- I. Opinionea edo ustea nola baita Birgina Saindua mundu huntan bici içan dela hirur hogoi eta hirur urthe, hequin ohoratceco.
- G. *Cein dire arroçoinac Arrosarioa guiristinoei erran araci behar diotenac?*
- I. 1. Da, ceren othoitz hori Eliçac aprobatu eta autorisatu baitu duela hainitz mende.
2. Ceren othoitz hortan baitire hirur othoitz eder, *Pater*, *Ave*, eta *Credo*.
3. Ceren iracurcen ezdaquitenec Arrosarioan baitute prohetchu-requin othoitz eguiteco bidea.

- G. *Arrosarioa erraiten nola erabil deçaquegu gure gogo eta bihotça?*
- I. Bi guisatara.
- G. *Cein da lehenä?*
- I. Hura da hamar *Ave Maria* erraite bakhotchean Jaincoari galdetcea Birgina Sainduaren berthute bat.
- G. *Cein da bigarrena?*
- I. Hura da Birgina Sainduaren handitasunac gogoan erabilcea, hetaz Jaincoa laudatcea, eta hetaz bozcario içaita Birginarequin batean.

#### PRATICAC

1. Baldin Arrosarioac erraiten badugu behar den deçala, *Pater* eta *Ave Maria* hain bercetan erraiteac nondic unhatuco gaituen ecen, gure desirac berotuco tu, eta berretuco tu Jaincoaren ganateco gure amodioa eta Birgina Saindua ganateco gure debocionea.
2. Iracurcen ezdaquiteneç Arrosarioa erraiten içan behar dute gogoan eta bihotcean bere bekhatuen damua eta urriquia.
3. Birgina Sainduaren arartecotasunez Jaincoari galde deçoğun gracia, ez guehiago haren ofensatceco.

#### ISTORIOAC

Daviten exemplua, harc maiz erraiten dio Jaincoari othoitz bat bera, hari bortcha saindu bat eguitea gatic. *Psal.* 117. v. 1. 2. 3. & 4. eta *Psal.* 135. Ceinetan Jaincoac Israelen faboretan eguin içan cituen gauça miragarriac erranez, haren misericordia goratcea gatic, hogoi eta çazpitarainocoan erraiten baititu hitz hauc: *Ceren haren misericordia eternala baita.* Hirur haurren exemplua, hec Nabucodonozorren ordenaz labe gorri batetara khaldan cegoela arthiquiac içan cirenean Jaincoa laudatcen çuten, eta creatura guciac haren laudatcera gonbidatcen hitz batçuec berac berrogoi aldiz edo ingurunean erranez. Exemplu horiec autorisatcen dute guiristinoen debocionea, ceinec Arrosarioa erraiten othoitz bat bera hain maiz erraiten baitute.

## HOGOI ETA HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA

Gure accionen guiristino guisa eguiteco maneraz.

- 167 G. *Debozionean aitcinatceco, eta hartan irauteco bidea edo mojana cein da?*
- I. Hura da gure accione guciac diren chumenac ere guiristino guisa eguitea, hec Cerucotz merecimendu ičan deçaten gatic.
- G. *Lo eguiteac ere, pausatceac, eta bertce gure accione guciac ičan othe deçaquete merecimendu Cerucotz?*
- I. Bai, eta horren gatic Jondoni Pauloc erraiten du, nahiz jan deçagun, nahiz edan deçagun, nahiz bertce cer nahi gauça eguin deçagun, eguin deçagula Jaincoaren gloriacotz. *Ep. 1 Cor. cap. 10. v. 31. & Coloss. cap. 3. v. 17.*
- G. *Cer eguin behar da gure accione guciac guiristino guisa eguiteco?*
- I. 1. Accione hec eguin behar tugu Jaincoarençat, erran nahi da, hari placer eguiteco eta haren ohoratceco chedeaquin.
2. Accioneac eguitean orhoitu behar gara Jaincoa lekhuco dugula, eta harc egun batez accione hec jujatuco tuela.
3. Accione guciac eguin behar tugu Jesu-Christori juntatcen gaizcola, ceren hartaz choilqui ičan baiteçaquete merecimendu, eta hartaz ofritu behar diozcagu Aita Eternalari.
- G. *Bertce chederic ičan othe deçaquegu gure accionetan?*
- I. Bai, gure accioneac eguin detçaquegu comparacionera, fedezco chede batez, esperançazcoaz, edo guiristinotasuneco bertce cenbait berthuteco chedez.
- G. *Ifernuaren beldurrez, edo Parabisua gal beldurrez hari denac bere accioneac guiristino guisa eguiten othe tu?*
- I. Bai, ceren chede horiec ezdirelaric arren hain perfetac, halere Ispiritu Sainduaz inspiratuac baitire.
- G. *Baldin Ifernuric beldur içaiteco, edo Parabisuric esperança içaiteco ezbaliz bekhatu eguiteco chedean edo dispoçionean orai berean laitequenaz cer erran abal daiteque?*
- I. Hura dela dispoçione edo chede haguiz gaichto eta criminel batean.

- G. *Cein dire gure eguneco accioneac guiristino guisa eguitera guehienic obligatuac garenac?*
- I. Jeiquitcea, lanac edo travaillua, othurunçac, solasac edo conbersacioneac, loa, &c.

GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 168 G. *Cer eguin behar du guiristino batec iratçartcen denean?*
- I. Jaincoari eman behar diozca bere lehenbicico gogoeta edo phensamendua, bere lehenbicico hitça, eta bere lehenbicico accionea.
- G. *Iratçarcean išan behar dugun lehenbicico phensamendua cein da?*
- I. Jaincoaz orhoitcea, eta gueroc hari ofritcea haren borondate saindua egun hartan eguiteco.
- G. *Cein dire erran behar den lehenbicico hitça, eta eguin behar den lehenbicico accionea?*
- I. Jesusen icen saindua erraitea, eta ceinatcea.
- G. *Guiristino batec cer eguin behar du jeiquitceam?*
- I. 1. Jeiqui behar da ernequi eta laster.  
2. Beztitcean atchiqui behar du modestia handi bat.  
3. Beztitu denean belhaurrinco jarri behar da, eta bere othoitça eguin behar du.
- G. *Egun guciez Meça saindua entçun behar othe du?*
- I. Ezta bekhaturen penan hartara obligatua; bainan hura da accione saindu bat, ceina ez baitu huts eguin behar, baldin traburic ez badu.
- G. *Cer conbeni da eguin deçan, baldin Meça saindua ecin entçun badeçaque?*
- I. Bihotcez juntatu behar çajote egun hartan erraiten diren Meça guciei, eta hec ençuten tuzten guiristinoen intencionei eta othoitcei.
- G. *Guiristino batec cer eguin behar du jateracoan?*
- I. Erran behar du latinez. *Benedicite Dominus nos & ea, quae sumus sumpturi benedicat dextera Christi: In nomine Patris, & Filii, & Spiritûs Sancti. Amen.*  
Edo escoaraz: Jesu-Christo gure Jaunac digula guri eta gu harcera goacin janhariei eta edariei bere benediccione saindua Aitarren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren icenean. Halabiz.

G. *Jatean cer eguin behar du?*

- I. 1. Othurunça eztu hartu behar biciaren conserbatceco chedez baicic.
2. Jaincoari ofritu behar dio.
3. Eztu behar sobra edan ez sobra jan.
4. On laiteque othuruncetan eguitea cenbait abstinencia edo cenbait mortificacione, sensuetaco placerari edo gormandiçari ihes eguiteco.

G. *Cer eguin behar da othurunçaren ondoan?*

- I. Jaincoari esquerrac eman behar diozca ceren eman dioen janharia, eta erran behar du latinez.

*Agimus tibi gratias, omnipotens Deus, pro universis beneficiis tuis; qui vivis & regnas in saecula saeculorum. Amen.*

*Beata viscera Mariae Virginis, quae portaverunt aeterni Patris Filium.*

*Et beata ubera, quae lactaverunt Christum Dominum. Fidelium animae per misericordiam Dei requiescant in pace. Amen.*

Edo escoaraz : Çure ungui eguin guciez esquerrac bihurcen darozquitçugu, Jainco guciz botheretsua, ceina bici baitçara eta ceinac manatcen baituçu, mendetaco mende gucietan. Halabiz.

Dohaxua da Maria Birginaren sabela, ceinac ekharri baitu Aita Eternalaren Semea.

Eta dohaxuac dire Jesu-Christo gure Jaunari esnea eman dioten bulharrac.

Jaincoaren misericordiaz guiristinoen arima joanac goça daitecila bethiereco baqueaz. Halabiz.

169 G. *Guiristinoac cer eguin behar du bere lanaren santificatceco.*

I. Hirur gauça.

1. Lana hasi gabe Jaincoari hura ofritcea, eta hura eguitea penitenciazco chedez.
2. Jaincoaren amoreac gatic sofritcea lan hartan den pena eta nequea.
3. Da lanean hari denean noicic behin orhoitcea Jaincoaren presenciaz, eta Jaun hari bere bihotça alchatcea.

G. *Bere lanaren ondoan pausatceco eta aphur bat descansatceco guiristino batec nola hartu behar du cenbait axeguin edo dibertimendu?*

I. Hirur gauçari beguiratu behar diote.

1. Eztu denbora hainitz eman behar axeguinean.

2. Ezditu secular axeguinean empletatu behar oficio dibinoen erraiteco denborac.
  3. Eztu han nihor ofensatu behar, ez horditu, ez jocatu joco debecatuetan edo modestiaren contra direnetan.
- G. *Nola santificatu behar tu bere solasac eta conbersacioneac?*
- I. Laur gauçari goardia eman behar diote.
    1. Eztu sarthu behar compainia gaichtoetan.
    2. Eztu secular gaizqui minçatu behar bere lagunaz.
    3. Nihor ofensa deçaquen trufaqueriaco hitcic eztu erran behar.
    4. Eztu behar laudatu bere burua, ez bere hurcoac ere.
- G. *Cer chedez bertceri eguin, edo gueroc errecibitu behar tugu bisitac?*
- I. Hirur chedez.
    1. Adisquidetasuna eta caritatea entretenitceco edo iraun araz-teco.
    2. Onhestateac manatcen duen eguinbidearen eguitemco.
    3. Elkhar instruitceco, eta elkharri exemplu onaren emaiteco.

#### GAUÇA BERAREN SEGUIDA

- 170 G. *Guiristino batec nola hari behar du tratuan?*
- I.
    1. Abaricioric gabe, eta usuraric edo lucuraric gabe.
    2. Bertcec bere tratua ungui eguiten dutenean, hequincat in-bidiaric eta jelsiaric gabe.
    3. Çucenqui eta fede on batequin, nihor enganatu edo trompa-tu gabe, eta gueçurric erran gabe.
    4. Jaincoaren cerbitçuan eta bere salbamenduan empletatu be-har duen denborari bidegaberico eguin gabe.
- G. *Ez othe da conbeni hartaco astia duenac egun guciez iracur deçan cenbait liburu debocionezco?*
- I. Bai, hura da accione edo pratica bat probetchu handitacoa berthutean irauteco, eta bere eguinbiden eguitera lejal içaiteco.
- G. *Nola hari behar da iracurcen handic probetchuric içaiteco?*
- I. Eguin behar dire hirur gauça.
    1. Iracurcen hasi gabe Ispiritu Sainduari galdetu behar diozcagu bere arguiac.
    2. Guc iracurcen dugun debocionezco liburu beha deçagun gu-re instruitcera Cerutic igorria baliz beçala.

3. Han iracurcen ditugunac gueretçat hartu behar tugu, eta gure bihotcean conserbatu behar tugu han guehien uquitu gaituzten gauçac.
- G. *Guiristino batec cer eguin behar du etciteracoan?*
- I. Laur gauça.
1. Da arraxeco othoitçaren eguitea, eta bere concienciaren examinatcea.
  2. Da modestqui biluztea.
  3. Etcitean Ur benedicatua harcea eta ceinatcea.
  4. Da cenbait phensamendu onetan dagoela loakharcea.
- G. *Orenac joiten duenean cer eguin behar da?*
1. Jaincoari bihotça alchatu behar çajo, eta eguin Jaincoaren amodiozco acta bat, edo erran cenbait othoitz labur, *Pater*, edo *Ave Maria*, edo bertce.
- G. *Pobrecian, edo nahigabetan, edo affliccionean denac cer eguin behar du?*
- I. Guçiac sofritu behar tu pacienciarequin, eta ofritu behar diozca Jaincoari.
- G. *Cer eguin behar du tentacionean denac?*
- I. Jaincoari bere lagunça galdeguin behar dio, eta hastetic tentacioneari bortcha eta gudu eguin behar dio animo handirequin.
- G. *Cenbait bekhatu eguin dugula eçagutcen dugunean cer eguin behar dugu?*
- I. Berehala hartaz Jaincoari barkhamendu escatu behar diogu, eta eguin cenbait penitencia.
- 171 G. *Eri garenean cer eguin behar dugu?*
- I. Eritasunaz gure salbamenducotz probetchatu behar gara.
- G. *Baldin eritasuna arriscutacoa bada, cer eguin behar da?*
- I. Bi gauça.
1. Cofesatu behar da muga onez, eta ezta berantegui egon behar bertce sacramenduac errecibitu gabe.
  2. Erreguelatu behar dire mundu huntaco eguitecoac ere.
- G. *Eritasuna hilcecoa dela uste dugunean cer eguin behar dugu?*
- I. 1. Ossoqui utci behar tugu munduco eguiteco guçiac, eta goçan atchiqui choilqui Jaincoa eta gure salbamendua.
2. Gogoz eta bihotcez bederen maiz eguin behar tugu fedezco actac, esperançazcoac, caritatezcoac, contricionezcoac, eta Jaincoaren borondatera arrimatcecoac.

3. Bihotz onez barkhatu behar diotegu gure etsajei, eta cenbait nahigabe eguin darocuten guciei.
  4. Barkhamendu escatu behar diotegu guc ofensatu ditugun guciei, nola nahi ofensatu ditugun.
- G. *Eriac estatu hartan denean cer eguin behar du oraino?*
- I. 1. Penitenciazco chede eta izpiritu batequin Jaincoari ofritu behar diozca bere eritasuneco penac, doloreac, eta oinhaceac.
  2. Jaincoa othoiztu behar du pena eta dolore hec othoi errecibi detçala haren bekhatuen barkhamendutan eta penitenciatçat.
  3. Jaincoari agundu behar dio orainocoan baino hobequi baliatuco dela bere ossasunaz, baldin bihurcen badio.
  4. Jaincoaren escuetan ossoqui eçarri behar du bere burua, hala bicitceco, nola hilceco.
- G. *Eguişu Jaincoaren borondatera arrimatceco acta bat hilcera dohan batec eguin behar luquen beçalacoa.*
- I. O ene Jaincoa, çure escuetan eçartcen tut ene arima eta ene gorphutça; çure ganic errecibituac ditut, çuri bihurtcen darozquitçut: Placer duçu hil nadin? Nahi dut eta consentitcen dut, ordean çure amodioan hilcecotan: Placer duçu bici nadin? Eztut errefusatcen bicitcea, baldin çure gloriacotz eta ene salbamenducotz hala conbeni bada: çure borondate saindua compli bedi othoi ene baithan. Halabiz.
- G. *Acta horiec ez othe dire eguin behar heriotceco orenean baicic?*
- I. On da acta horiec eguitea ossasuna dugunean, hobequiago eguin ahal detçagun gatic heriotcera hurbilcean.

## PRATICAC

1. Gure accione gucietan orhoit gaitecin Jaincoaren presenciaz, Jaun haren gana bihotça maiz alcha deçagun, comparacionera orenac joiten duenean.
2. Gure accione bakhotcha eguin deçagun, eta egun bakhotcha iragan deçagun, gure biciaren azquenecoac ičan behar balire beçala.
3. Gure accioneac eguitean junta gaquizcoten Jesu-Christoren bihotcean ciren disposicionei munduan cegoieino guc eguiten tugun accione berac eguiten cituenean, eta Jaincoari ofri detçogun haren disposicione sainduac, erraiten dugularic.



Ene Jaincoa, ofritcen darotçut accione hau (*Comparacionera*, ene lana, orai harcera nohan pausua, edo bertce) Juntatcen natçajolaric Jesu-Christoc eguin nahi içan duen lanari, *edo* harc mundu huntan hartu içan duen pausuari. Eguidaçu othoi gracia haren bihotceco dispoziçione sainduetan parte içaiteco.

## ISTORIOAC

Birginen parabola. *Matth. cap. 25. v. 1. & seq.* Cerbitçari inutilarena. *v. 30.* bere eguitecoei conturic edo ordenaric eman etcioten bordariarena edo affermadorearena. *Lucae. cap. 16. v. 1. & seq.*



# LAUR-GARREN PARTEA

INSTRUCCIONEA CATICHIMA GUIA URTHECO BESTA PRINCIPALEN  
GAINEAN



## LEHENBICICO LECCIONEA

Bestez generalqui.

- 172 G. *Eliçan Bestac ordenatceco çucena, botherea eta indarra norc du?*
- I. Jaun Aphezpicuec, ceinac baitire Jaincoaz eçarriac guiristinoen guidatceco eta gobernatceco, Jondoni Pauloc irakhasten darocun beçala Apostoluen Acten hogoi-garren capituluan, v. 28.
- G. *Orai Eliçan beguiratcen diren Bestac norc ordenatuac dire?*
- I. 1. Badire batçuec Apostoluen ganic heldu direnac, halacoac dire Jesu-Christoren Besta guehienac.
2. Badire Eliça guciac ordenatu dituenac, edo harc ordudanic errecibitu dituenac, halacoac dire Birgina Sainduaren Bestac, eta hainitz Martir sainduaren eta bertce.
3. Badire bertce batçuec Jaun Aphezpicu bakhotchac bere Diocesan manatcen dituenac, causitcen den lekhuetaco usançac eta legueac beguiratuz: Halacoac dire Patroinen ohoretan, eta cenbait sainduaren ohoretan behar particular batçuetacotz ordenatuac diren Bestac.
- G. *Obligatuac othe gara azqueneco Besta hauc beguiratcera eta santificatcera berceac beçala?*
- I. Bai, santificatu behar tugu batçuec eta bertceac.
- G. *Cergatic gara obligatuac hequin santificatcera?*
- I. Ceren guiristino bakhotcha obligatua baita.
1. Beguiratcera Jaun Aphezpicuec erreguelatu eta ordenatu dituzten gauçac, eta hura den lekhuco Eliça particularretan beguiratcen direnac.
2. Bere accionetan exemplu ona emaitera, bertcec beguiratcen tuzten gauçac beguiratuz.
3. Jaun Aphezpicuei obeditcera, ceren Diocesa bakhotchecan hec baitute Jaincoaren cerbitçuco denboraren eta maneraren erreguelatceco botherea eta çucena.
- G. *Bestac certaco dire ordenatuac?*
- I. 1. Jaincoa bere baithan, edo bere sainduetan ohoratceco.
2. Guiristinoen instruitceco.

- G. *Eliçac nola Bestez ohoratcen du Jaincoa bere baithan?*  
 I. Gure Religioneco, erran nahi da, guiristinotasuneco misterio principalac ohoratuz.
- G. *Nola ohoratcen du bere sainduetan?*  
 I. Birgina Sainduaren eta bertce sainduen memoriaa edo orhoitçapena erreberrituz, hequin baithan guehienic distiaraci baititu Jaincoac bere dohainac, eta Jaincoari hetaz esquerrac emanaz.
- G. *Eliçac nola Bestez instruitcen tu guiristinoac?*  
 I. Guiristinoac orhoit araciz fedezco misterio principalez, edo sainduen accione principalez, ceinac baitire guretçat berthutearen exemplu eta exorta borthitz batçuec.

### BI-GARREN LECCIONEA

Abendoco denboracotz.

- 173 G. *Eliçaco urthea noiz hasten da?*  
 I. Abendoaren lehen Igandean.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau Abendoa?*  
 I. Erran nahi da Messiasen ethorcea.
- G. *Cer da Abendoa?*  
 I. Abendoa da denbora bat Eliçac emaiten darocuna Eguberri bestara ungui preparatceco.
- G. *Abendoac cer errerepresentatcen darocu?*  
 I. Jesu-Christo gure Jauna mundura ethorri cen baino lehenagoco denbora.
- G. *Nola hori?*  
 I. Ceren orduan Eliçac errerepresentatcen baitarozquigu Messias ethorcedin nahiz suspiraz ceudecin Patriarca çaharren botuac eta desirac, eta Messias ethorrico cela cioten Profeten erranac.
- G. *Abendoaren hastean cergatic Eliçac aiphatcen du Jesu-Christo azquenecotz nola ethorrico den Juçamendu generaleco egunean?*  
 I. Guri irakhastea gatic baldin probetchatcen ezbagara Jaunaren lehenbico ethorceaz, ceinetan bere misericordiaz baliatcen baita, ikharatu behar gaituela Jaun haren bigarren ethorceac, ceinetan bere justiciaz baliatuco baita.

G. *Elişac noiz ordenatu çuen Abendoa?*

I. Sei-garren mendearen azquenerat Macongo Concilioac marcatu çuen Abendoco denbora eta haren ungui pasatceco manera.

G. *Cer işan cen ordenatua Concilio hartan?*

I. Bi gauça.

1. Jondoni Marthiaco Bestaz gueroztic guiristinoac barur ceitecila astean hiruretan, jaquiteco astelehenean, asteazquenean eta orcilarean.

2. Abendoa Meça erran cedilla Gariçuman beçala, eta hargatic Abendoa Elişac darabilça ornament moreac, eta bere oficioetan erraiten tu Gariçumaco othoitçac.

G. *Concilio hura baino lehen guiristinoec ez othe çuten sainduqui pasatcen Abendoco denbora?*

I. Bai, bainan debocionezco edo pietatezco obrac etciren oraino erre-guelatuac Laicoençat.

174 G. *Orai noiz hasten da Abendoa?*

I. Eguberri baino lehen laur Igandez aiticinetic; bainan guiristinoen debocionea hoztu baita, utci dire abstinencia eta barura, ceinec ez baitiraute guehiago cenbait Comentutan baicen.

G. *Cer chedez Elişac ordenatu du Abendoa?*

I. Hirur chedez.

1. Patriarquec gure Jauna gana çuten debocionea eta desirac guri imitaraztea gatic.

2. Jaincoaren Semearen ethorcea ohoratcea gatic.

3. Eguberri Besta ungui ohoratcera eta beguiratcera gu preparatcea gatic.

G. *Cein dire guc Abendoa işan behar tugun disposicioneac?*

I. Badire hirur.

1. Da eçagutcea cein behar handia dugun Jesu-Christo ethor dadin gure bihotcetara.

2. Da haren desira handi bat içaitea, eta hura ethor dadin gure gana Jaincoari othoitz onez galdetcea, Patriarca çaharrec eguiten çuten beçala.

3. Da Jaun haren errecibitcera preparatcea penitenciaz eta obra onez.

G. *Jesu-Christo gure Jauna ez othe da ethorria?*

I. Ethorri da behin Incarnacionean, bainan egun guciez ethorcen da gure bihotcetara bere graciaz.

G. *Cer dire Abendoco O hec?*

I. Hec dire Antifona eder batçuec Escritura Saindutic atherajac, ceinac hasten baitire hitz huntaric O.

G. *Cer erran nahi dire Antifona hec?*

I. Hec Jesu-Christori adreçatcen çazco, eta manera eder batez es-  
plicatcen dute Jaun hura ethor dadin guc dugun desira handia.

## HIRUR-GARREN LECCIONEA

Concepcioneco Bestacotz.

175 G. *Birgina Sainduaren Concepcionea Eliçac oboratcen duen eguna cein da?*

I. Hura da Abendoaren çortcia.

G. *Cer da Birgina Sainduaren Concepcionea?*

I. Hura da bere Ama santa Annaren sabelean Birgina saindua bici içan den lehenbico momentua edo instanta.

G. *Nondic heldu da Birgina Sainduaren Concepcionea hain oboratu baita Eliçan?*

I. Ceren concebitua içan baita bekhatu originalic gabe, eta haren concepcionea baita tatcharic gabea.

G. *Certan fincatua da sentimendu hori?*

I. 1. Eliçac hartaz eguiten duen Bestan eta oficioan.

2. Ceren ezbailliteque conbeni Jaincoaren Ama Deabruaren esclabo içana licen momentu choil batez ere.

3. Ceren hura baita guiristinoen sentimendu comuna.

4. Ceren san Agustinec nahi baitu bekhatuaz questione denean, ezgaitecin niholere minça Birgina Sainduaz, haren Seme gure Jaunari çor diogun ohorea gatic.

G. *Baldin Birgina Saindua bekhatuic gabe concebitua içan bada, Jesu-Christo nola da bada haren Salbatçaille?*

I. Ceren Jaun haren graciaz Birgina Saindua içan baita choilqui be-  
guiratua bekhatutic, ceinetara bertce guiçonac beçala sujet içan beharra baitcen bertcela.

G. *Birgina Sainduaren Concepcione tatcha gabearen seguidac cein içatu dire?*

I. 1. Eztu harc eguin egundaino den bekhatuic chumena.



2. Eztu harc egundaino sentitu gaizqui eguiteco lehiaric edo inclinacioneric ere.
- G. *Cer da Eliçaren chedea Besta huntan?*
- I. Hura da.
1. Jaincoaren Amaren santificacionearen lehenbico instanta ohoratcea.
  2. Jaincoari esquerrac emaita, ceren mundura eman duen Birgina Saindua, ceina ganic sorthu baita Jesu-Christo.
- G. *Birgina Sainduaren Concepcionean cer imitatu behar dugu?*
- I. Hirur gauça.
1. Munduco corrupcioneari ihes eguiteco harc içan duen artha, etçularic arren deusen beldurric ceren içan.
  2. Penitenciazco biciarençat harc içan duen amodioa, hura celaric arren bekhatuic gabe.
  3. Perfeccionean gueroago guehiago aitcinatceco harc çuen artha handia, celaric arren jadanic haguiz perfeta.
- G. *Besta huntan cer galdetu behar dugu Birgina Sainduaren arartecotasunez?*
- I. Bi gauça.
1. Ungui bicitcen hasteco gracia.
  2. Den bekhatuic chumenari ihes eguiteco gracia, guehiago içan gaitecin gatic Birgina Sainduaren gogaraco, eta haren medioz haren Seme Jesu-Christoren gogaraco.

## LAUR-GARREN LECCIONEA

Eguberri Bestacotz.

- 176 G. *Cein egunez eguiten da Jesu-Christoren sortceco Besta?*
- I. Abendoaren hogoi eta bortzean, Eguberri egunean.
- G. *Cer da Eguberrico Besta?*
- I. Hura da Jaincoaren Semea Birgina Maria ganic sorthu den eguna.
- G. *Jaincoaren Semea non sorthu da?*
- I. Bethleem deitzen den Judeaco Hiri chume bateco Establia batean.
- G. *Cergatic sortu da Birgina Saindua eta San Joseph piajetan ciren denboran?*
- I. Guri irakhasteco guere buruac mundu huntan atchiqui behar dugula piajetan garenac beçala eta arrotz batçuec beçala.

- G. *Cer estatutan sorthu da?*
- I. Sorthu da pobrecian eta humilitatezco estatuan.
- G. *Cergatic sorthu nabi ičan du estatu bartan?*
- I. Gure orguïluaren garaitceco gracia guri merecitcea gatic, eta bere exempluaz humilitatea eta paciencia guri irakhastea gatic.
- G. *Cergatic haur bihurtu nabi ičan da?*
- I. 1. Gure flaqueciac jasaiteco.  
2. Amodio samurrago batez bere burua guri maitaraztea gatic, eta fidancia guehiagorequin haren ganat guri laster eraguita gatic.
- G. *Cergatic sorthu nabi ičan du urtheac duen gau luçenetaric batean?*
- I. Guri eçagut araztea gatic cein ilhunbe handian cen mundua hura ethorri baino lehen.
- G. *Cergatic erraiten dire hirur Meça Eguberry bestan?*
- I. Hori da Eliçaco usañça çaharraren hondar bat, ceinac solemnitate handietan emaiten baitcituen Meça hainitz; ceren guiristino guciac ecin entçun baiteçaqueten Meça bakhar bat, eta ordinariozqui Aphez batec berac emaiten cituen Meça hec.
- G. *Meça hec hirurac erraiten diren orenetan erraiteco arroçoin particularric ez otbe da?*
- I. Bai, eta hura da
1. Gauherdico Meçan Jaincoaren Semearen guiçon beçala sortcearen ohoratceco.
2. Goiceco Meçan ohoratceco Jaun haren arçainei aguercea, eta haren sortce ispirituala bihotcean.
3. Eta egunazco Meçan bere Aitaren galçarrean haren sortce eternala ohoratceco.
- G. *Gure baithan cer sentimendu eçarri behar tu gure Jaunaren sortceac?*
- I. Badire hirur.
1. Da admiracionezco sentimendua, ceren Jainco bat hain handia hain behera jautsi ičan den guretçat.
2. Fedezco sentimendu bat misterio handi horren gainean.
3. Da humilitatezco sentimendu bat haur saindu haren aitcinean.

## PRATICAC

1. Ohora deçagun particularqui Jesu-Christo bere haurtasunean, eta bereciqui eguberriren eta purificacionearen arteco denboran.

2. Probetcha gaitecin humilitatezco, pobreciazco, sofricarien amodiozco, eta bertce Jesu-Christoc sehascan emaiten darozquigun leccionez.

3. Mespreça detçagun aberaxtasunac, handitasunac, eta guere comoditaten edo aisien bilhatce banoac, Jesu-Christoc sortcean eguin içan tuen beçala.

## ISTORIOAC

Jesu-Christoren sortcearen Istoria eta circumstancia miragarriac. *Matth. c. 1. & 2. & Lucae c. 2.* Aitcinec Profetec erranac ciren Testament çaharrean. *Mich. c. 5. v. 2. Isäiae c. 7. v. 14. c. 11. v. 1. & c. 53. v. 3.*

## BORTZ-GARREN LECCIONEA

Circuncisioneco egunecotz, edo Urthaberricotz.

- 177 G. *Cer Besta Eliçac eguiten du Urthaberri egunean?*
- I. Jesu-Christo gure Jaunaren Circuncisioneco Besta, Jaun hura sor-thu cenetic çortci egunen buruan.
- G. *Cer erremarcacden duçu Besta bartan?*
- I. Hirur gauça.
1. Circuncisioneco misterioa bera.
2. Jaincoaren Semeari orduan eman citçajoen icena Jesus.
3. Urthe berriaren hasta.
- G. *Cer da Circuncisioneco misterioa?*
- I. Hura da Moïseren legueco ceremonia bat oinhace handizcoa, ceinac berezten edo distingacden baitcituen Juduac bertce populuetaric.
- G. *Circuncisionea ez othe cen ordenatua içan Juduac bertce populuetaric distingacceco baicen?*
- I Bai, hura cen halaber legue çaharreco sacramendu bat ceinac bar-khatcen baitçuen bekhatu originala.

- G. *Jaincoaren Semea obligatua othe cen Circuncisionearen legueari obeditcera?*
- I. Ez, etcen hartara obligatua, hura cenaz gueroz saildutasuna bera.
- G. *Cergatic legue hari obeditu dio bada?*
- I. 1. Ceren guizon bekhatorosaren forma hartu duenaz gueroz, nahi izan baitu jasan gure bekhatuen pena hec bere odolaz garbituz eta pagatuz.
2. Humilitateco eta obedienciacono exemplu bat guri emaita gatic.
3. Bihotceco Circuncisionea guri irakhastea gatic.
- G. *Cer da bihotceco Circuncisionea?*
- I. Hura da gure ganic khencea Jaincoari damu eguiten dioten gauça guciac.
- G. *Misterio huntan cer ohoratu behar dugu?*
- I. Jesu-Christoc egun huntan isuri duen odola, eta hura guretçat isur araci cioen amodioa.
- G. *Cer ohoratcen dugu oraino?*
- I. Jesusen icena, ceina Jaincoaren Semeari eman baitcioten Circuncisionean.
- 178 G. *Cer erran nabi da Jesus?*
- I. Erran nahi da Salbatçailea, eta icen hura eman izan çajo ceren harc salbatu baicaitu Ifernutic.
- G. *Cer da gauça miragarriric Jesusen icenean?*
- I. Bi gauça.
1. Hura da Deabruaren ikharatçailea.
2. Harc eguiten du guiristinoen fidancia.
- G. *Nola da bada Deabruen ikharatçailea?*
- I. Harc khencen baititu Deabruac, hec phoçoatcen dituzten lekhuetaric, eta Jesusen icena ecin adi baiteçaquete, non eztiren ikharan jarçen.
- G. *Icen horrec nola eguiten du guiristinoen fidancia?*
- I. 1. Ceren Jaincoac agiindua baita haren icenean galdetuco duguna ardietsico dugula.
2. Ceren Ceruaren azpian ezbaita bertce icenic, hartaz gu salbatuac izan ahal gaitetzquenic.
- G. *Cein sentimendu izan behar tugu urthe berriaren gainean?*
- I. Bedire hirur bereciqui.
1. Azqueneco urtean eguin ditugun bekhatuez eta galdu dugun denboraz damu handi eta bici bat.

2. Penitencia eguiteco Jaincoac oraino eman darocun denboraz eçagutça handi bat.
3. Eguiazco desira eta guticia bat Jaincoa hobequi cerbitçatceco urthe berri huntan, eta denbora sainduqui emplegatceco.

#### PRATICAC

1. Egun huntan gure Jaunari ofri deçogun urthe berria, haren cerbitçuan emplegatceco.

2. Delibera deçagun urthe huntan ensejatuco garela gure passionetaric cenbait edo gure usança gaichto cenbait garaitcera eta heteric bictorios guelditcera.

3. Amodiorequin eta fidanciarequin maiz erran deçagun Jesusen icen saindua, eta haren lagunça maiz galde.

#### ISTORIOAC

Circuncisionearen hastea. *Gen. c. 17. v. 10. & seq.* Gure Jaunaren Circuncisionea. *Luc. cap. 2. v. 21.* Jesusen icenaren berthuteac. *Marci cap. 16. v. 17. & seq. Joan c. 14. v. 13. Act. c. 3. v. 6. & cap. 4. v. 12. Rom. c. 10 v 13.* Icen hari cein errespetu handia çor diogun. *Philip. c. 2. v. 9. & seq.*

### SEI-GARREN LECCIONEA

Erreguen egunecotz, edo Trufaniacotz.

- 179 G. *Cer da Erreguen Besta edo Epiphania?*
- I. Hura da eguna, ceinetan Magoac ethorri baitciren Orientetic Jesus haurraren adoratcera.
- G. *Cein ciren Mago hec?*
- I. Hec ciren Gentilen arteco guiçon sabant batçuec, ceinac içar batez ičan baitciren miracuilusqui abisatuac Jesu-Christo sorthu cela.
- G. *Mago hec Erregueac othe ciren?*
- I. Opiniõ comuna da Erregue cirela, eta hargatic Besta hau deicten da, Erreguen Besta.

- G. *Cer eguin çuten Magoec Jesus Haurra causitu çutenean?*  
 I. Adoratu çuten, eta ofritu ciozcaten Urrea, Insensua eta Mirra.
- G. *Cer sinificatcen çuten Urreac, Insensuac, eta Mirrac?*  
 I. Urreac erran nahi çuten eta sinificatcen çuen Jesu-Christo Erre-  
 gue cela, Insensuac Jainco cela, eta Mirrac Jesu-Christo guiçon  
 beçala hilcen cela.
- G. *Guc cer ofritu behar diogu Magoac imitatceco?*  
 I. Ofritu behar diogu.  
 1. Bihotz bat caritatez bethea, ceinaren figura bat baitcen Urrea.  
 2. Othoitz bere batçuec, ceinen figura baitcen Insensua.  
 3. Gure penac, eta gure doloreac edo sofricariac, ceinen figura  
 baitcen Mirra.
- G. *Haur saindu hura adoratu çuten ondoan Magoac cer eguin çuten?*  
 I. Aingueru batec abisatu cituen etçaitecila bihur Herodes ganat,  
 bainan cihoacila bere herrirat bertce bide batetatic.
- G. *Cer ikhasi behar dugu hortatic?*  
 I. Penitenciaren bidez Jesu-Christoren causitceco asqui dohaxu içatu  
 garenean, ezditugula guehiago seguitu behar gure passioneac, cei-  
 nec errebela araci baicaituzte; bainan bihurtu behar garela ber-  
 thutearen eta obra onen bidez.
- G. *Cer eguin çuen Herodesec okhasionen hartan?*  
 I. Haur sorthu berri harc khoroa khien ceçon beldurrez, massacr  
 araci eta hil araci cituen Bethleemgo eta inguru hetaco haur gu-  
 çiac bi urtheco adina eta bi urthe baino gutiago çutenac, ustez  
 aguian hequin batean gal aracico çuen Magoec adoratu çuten  
 haur saindu hura.
- 180 G. *Birgina Sainduac eta San Josepec cer eguin çuten haur saindu  
 haren escapatceco eta salbatceco?*  
 I. Aingueru batec abisaturic joan ciren Egiptorat haur saindu hura,  
 berequin harturic.
- G. *Besta hau cergatic deitcen da Epiphania?*  
 I. Epiphania da hitz bat, ceinac erran nahi baitu *aguercea*, eta icen  
 hori eman içan çajo Besta huni, ceren egun huntan Jesu-Christo  
 aguertu baitcitçajoten Gentilei, erran nahi da bere burua eçagut  
 araci baitcioten Gentilei Magoen presunan.
- G. *Cer aditcen duçu Gentilez?*  
 I. Hec dire eguiaczco Jaincoa adoratcen etçuten gendeac edo popu-  
 luac, eta ceinetaric guehieneç adoratcen baitcituzten Idolac edo  
 Jainco falsoac.

G. *Cer parte dugu guc misterio huntan?*

I. Misterio huntaz Jesu-Christo hasi cen gu eta Gentil guciac deitzen federa eta bere Evangelioaren eçagutçara.

G. *Horrela deitcea gracia handia eguin othe darocu?*

I. Bai, ecen deithu ezbaguinitu, Jaun haren sorcea alfer içanen cen guretçat.

G. *Egun huntan Eliçac ez othe du ohoratcen misterio hori baicen?*

I. Bai, ohoratcen tu oraino.

1. Jesu-Christori Jondoni Joanni Baptistac eman cioen Bathajoa.

2. Jesu-Christoren lehenbico miracuilua, ceina eguin baitçuen Canaco eztajetan ura arnotara bihurtuz.

#### PRATICAC

1. Jaincoari esquerrac eman detçogun, ceren deithu gaituen federa eta Jesu-Christoren eçagutçara.

2. Jaincoari othoitz eguin deçogun conberti detçala hainberce erresuma, ceinec ez baitute gracia hori errecibitu, edo ceinec errecibitu içan duten ondoan galdu baitute heresiaren bidez.

3. Beguira gaitecin debochetico, ceina oraico denboretan sobera seguitua baita eta sobera comun.

#### ISTORIOAC

Magoen adoracionea. *Psal.* 71. *Matt.* c. 2. Inocenten masacrea, Egiptora ihes eguitea. *Matt.* 2. Jesu-Christoren Batajoa *cap.* 3. *v.* 13. & *seq.* Canaco eztajetan ura arnotara itçulia. *Joan.* c. 2. *v.* 1. & *seq.*

## ÇAZPI-GARREN LECCIONEA

Purificacioneco Bestacotz, edo Canderailucotz.

- 181 G. *Cer da Purificacioneco Besta?*
- I. Hura da Birgina Saindua Templura joan cen eguna, han bere Semea Jaincoari ofritcera, eta han bere burua ere ofritcera Moiseren leguearen arabera purificatua içaiteco.
- G. *Cer manatcen çuen Moiseren legue harc?*
- I. 1. Hebreoen ume lehenic sorthuac içanen citçaiçcola Jaincoari ofrituac, edo presentatuac bere burasoez, eta içanen cirela denbora berean hetaz berez erosiac.
2. Seme batez erdi ciren emazteac ethorrigo cirela Templuan purificatcera erdi cirenetic berrogoi egunen buruan, eta alaba batez erdi cirenac harat ethorrigo cirela laurhogoi egunen buruan.
- G. *Jaincoac cergatic eguin çuen legue hori?*
- I. 1. Juduac orhoit araztea gatic noiz ere hequin Aitac içan baitciren libratuac Egiptoco gathibotasunetic, Jaincoac hil araci cituela Egiptoaren seme lehenic sorthuac, eta salbatu cituela Hebreoen edo Juduen ume lehenic sorthu guciac.
2. Purificacione hartaz aditcera emaiteco, Adamen bekhatuaz gueroz gure sortcea lohia cela eta madaricatu.
- G. *Birgina Saindua legue horren azpian othe cen edo legue hartara sujet othe cen?*
- I. Ez, ecen lohirc deus etcen Jesu-Christoren sorcea eta Mariaren erditcea liçundu çuenic.
- G. *Cergatic bada legue hari obeditu cioen?*
- I. Humilitasunez eta exemplu ona gatic, guri irakhasteco Jaincoaren legueari obeditcen.
- G. *Jesu-Christoc cer eguin çuen Templuan noiz ere Birgina Sainduac han ofritu baitçuen?*
- I. Ordu arteinocoan ofritcen citçaiçcon acienden edo animalien lekhuhan bere Aita Eternalari ofritu cioen bere burua, ceina baitcen victima choilqui gai eta capable cena ordutic harat bere Aitaren colera phacegatceco.



- G. *Leguearen arabera bere haurraren erosteco cer eman çuen Birgina Sainduac?*
- I. Bi Columba edo usso tortoila, pobrençat ordenatua cen beçala.
- G. *Okhasione hartan cer guertatu cen gauça erremarcatcecoric?*
- I. Simeon deitcen cen guiçon çahar saindu batec, eta Anna deitcen cen emazte alhargun saindu batec han eçagutu çuten Jesu-Christo Messiasençat.
- 182 G. *Simeon çahar sainduac cer eguin çuen egun hartan?*
- I. Bi gauça.
1. Hartu çuen Jesus haurra bere besoetan, eta bozcario saindu batez betheric erran çuen Eliçac egun guciez Completetan cantatcen duen Cantico miragarri hura *Nunc dimittis*, &c.
  2. Aitcinec erran eta declaratu cituen Jesu-Christoc sofritu beharco cituen contradiccioneac, eta Birgina Sainduac hetaz içanen çuen pena eta dolorea.
- G. *Anna alhargun sainduac cer eguin çuen?*
- I. Eçagutu çuen bere Salbatçaillea, eta bere bici gucian hartaz minçatcen citçajen Israelgo salbamenduaren beguira çaudecinei.
- G. *Cein dire Besta huntaco ceremoniac?*
- I. Badire bia principalac.
1. Chirioen benediccionea.
  2. Proccesionea.
- G. *Eliçac cergatic egun huntan benedicatcen tu Chrioac, guiristinoec Proccesioean eta Meçaren parte batean escuan atchiquitcen dituztenac?*
- I. 1. Erakhustera emaiteco guiristinoec nola hartcen duten parte Simeon çaharraren bozcarioan, eta harequin batean eçagutceco eta aithorceco Jesu-Christo dela nacionen arguia eta Israëlen gloria.
2. Guri irakhasteco guc arguitu behar tugula berceac guere exemplu onez.
- G. *Cergatic eguiten da Proccesioea?*
- I. 1. Simeonen eta Annaren urratsaren imitatceco, hec joan baitciren Jesu-Christoren aitcinera.
2. San Josepen eta Birgina Sainduaren piaçaren errepresentatceco ceinetan Andre harc eraman baitçuen Jesu-Christo gure Jauna Templura.

## PRATICAC

Jesu-Christorequin batean guere buruac Jaincoari egun huntan ofri detçogun haren borondate sainduaren eguiteco.

2. Procesionea eguiten den denboran junta gaquizcon Jesu-Christori gure eguiazco arguiari beçala, eta othoitz deçagun othoi argui gaitçala guerotic guerora.

3. Imita deçagun Birgina Sainduaren humiltasuna eta obediencia, bercec seguitcen dituzten legueac guc ez seguitu beharrez errececuric eta aitçaquia alferric bilhatu gabe.

4. Anna Profetessari beçala lakhet bequigu Elicetan maiz causitcea eta Jesu-Christoz dobotqui minçatcea.

## ISTORIOAC

Purificacionearen leguea. *Exod.* 13. v. 12. & *cap.* 34. v. 19. & *seq.* *Levit.* 12. Birgina Sainduaren Purificacionea. *Luc.* 2. v. 22. Simeon çaharrac eta Anna Profetesac cer eguin çuten *ibid.*

## ÇORTCI-GARREN LECCIONEA

Septuagesimaz eta Ihautiriaz.

- 183 G. *Cer da Septuagesimaco Igandea?*
- I. Hura da egun bat, ceinetan Eliçac hasten baitu penitenciaco denbora.
- G. *Penitenciaren cer marca emaiten darocu orduan?*
- I. Badire bia principalac.
1. Orduan harcen tu doluco ornamentac.
2. Ordudanic eztu erraiten *Alleluya* bere Oficioetan, eta uzten tu denbora batetacotz bozcariozco cantac.
- G. *Cergatic egun hau deitcen da Septuagesimaco Igandea?*
- I. Ceren hitz hau *Septuagesima* erran nahi baita hirur hogoi eta hamar-garrena, eta Igande huntaric Bazcoraino contatcen baitire hirur hogoi eta hamar egunen ingurua.
- G. *Cergatic contatu içan tuzte hirur hogoi eta hamar egun hec?*
- I. Ceren hainitz lekhitan, bereciqui orientean, guiristinoac ezbaitciren barurcen Gariçumaco orcegunetan ez eta larunbatetan ere;

eta hala aitcinagoric hasten çuten Gariçuma, berrogoi egunez hec ere barurcea gatic : Orobat da *Sexagesima*, &c.

G. *Eliçac cergatic pasatcen tu egun hec penitenciam?*

I. Hirur arroçoin gatic.

1. Ceren egun hec errepresentatcen baitarozquigute Adamen egunac, ceinac baitire trabailuco eta penitenciac egunac.
2. Gariçumara gu preparatcea gatic.
3. Jesu-Christo gure Jaunaren heriotcera gu disosatcea gatic.

## IHAUTIRIAZ

184 G. *Cer da Ihautiria?*

I. Ihautiria da tristeciazco eta affliccionezco denbora bat guiristino on guciencat, eta debochqueriaco eta gaichtaqueriaco denbora bat libertinencat.

G. *Cergatic da tristeciazco denbora bat guiristino onencat?*

1. Hura baita denbora Jaincoa guehienic ofensatcen dena.
2. Eliçac guehienic desohoratcen dena.
3. Guiristino laguna guehienic escandalisatcen dena.

G. *Nola bada hori?*

1. Ceren orduan eguiten baita bekhatuic guehiena.
2. Ceren Eliçaco legueac orduan baitire guehienic mespreçatuac.
3. Ceren orduan emaiten baita exemplu gaichtoric guehiena.

G. *Nola da debochqueriaco eta gaichtaqueriaco denbora bat libertinencat?*

I. Ceren usança madaricatu batez guiristino guehienec eta cstatu gucietacoec ez baitute ahalqueric orduan Jaincoaren ofensatceaz eta hainitz crima suerteren eguiteaz.

G. *Ez othe da cilbegui Ihautirian bederen penitencia eguin gabe egoitea?*

I. Ez,

1. Ceren ez baita debochqueriiaz preparatu behar penitencia eguitera.
2. Ceren, nola Jaun handi bat hilcen denean, ez baita içaiten publicoan axeguin harceco bestaric edo dibertimendu publicoric, hala Eliçac aiphatcen darocun Jesu-Christoren heriotceac utz araci behar tu munduco axeguin eta dibertimendu banoac.

- G. *Cer erran abal othe daiteque beraz Ihautirian debochac eguiten dituzten gendez, mascaturic carricaz carrica dabilçanez, balac eta ostatuac hantancen dituztenez, eta joco debeatuetan jocatcen direnez?*
- I. Hec ofensatcen dute Jaincoa, desohoratcen dute guiristinotasuna, eta ezditugu niholere hec imitatu behar, bainan aiticic ihes eguin behar diogu hequin compainiari.
- G. *Cer eguin behar laiteque oraino?*
- I. On laiteque Ihautirian are prestuquiago bicitcea, hobequi erretiratua egoitea, eta Eliçara maizago ibilcea.
- G. *Cergatic Gariçumaren aiticineco hirur egunetan Sacramendu Saindua egoiten da aguertua edo exposatua hainitz Elicetan?*
- I Guiristinoac harat ibil araztea gatic, hec Jaincoari barkhamendu escatceco libertinec eguiten dituzten bekhatu eta crima guciez.

#### PRATICAC

1. Ihautirico soberania guciac higuin tugula erakhustera eman deçagun gure solasez, eta are guehiago gure obrez eta accionez.
2. Içan gaitecin beldur compainia gaichtoençat eta ihes eguin deçotegun ostatuei.
3. Ihautirico debochez bercec Jaincoa ofensatcen duten denboran, guc ohora deçagun debocionezco eta penitenciazco cenbait obra handi eta particular eguinez.

#### ISTORIOAC

Israelitec etçuten cantatu nahi bozcariozco Canticoric Babilonia-co gathibotasunaren denboran. *Psal.* 136. Balthasarren festina, eta haren heriotce icigarria. *Dan.* c. 5. Libertinenac *Job cap.* 21. v. 7. & seq. Hec nolacoac diren gende prestuequin comparaturic *Sap.* c. 2. v. 3. & 5. Aberats gaichtoaren Istorioa. *Luc.* c. 16. v. 19. & seq.

## BEDERATCI-GARREN LECCIONEA

Gariçumaz.

- 185 G. *Cer da Gariçuma?*
- I. Hura da baruraco denbora bat Apostoluen denboran hasia Eliçac manatcen eta ordenatcen darocuna bere bortz garren manamenduan.
- G. *Noiz hasten da Gariçuma?*
- I. Bazcora Berrogoi eta sei egun dagoela, eta hetaric barurtu behar dire berrogoi egun, ceinac baitire urthearen detchuma guc Jaincoari consecratcen dioguna.
- G. *Eliça Ama Sainduac cergatic ordenatu du berrogoi egunen barur hori?*
- I. Hirur arroçoin gatic.
1. Penitenciaren eguiteco dugun obligacioneaz gu orhoit araztea gatic.
  2. Jesu-Christoc desertuan eguin çuen baruraren ohoratcea gatic.
  3. Bazco Bestara gu preparatcea gatic.
- G. *Cer da Eliçac manatcen darocun barura?*
- I. Hura da bereciqui haraguiric ez jatea, eta othurunça bat baicic ez eguitea, bainan Eliçac toleranciaz permetitcen du colacione arin bat eguitea.
- G. *Cer da colacione hura?*
- I. Nola Eliçac ez baitu legueric eman colacione haren eçarceco, bainan choilqui toleranciaz uzten edo permetitcen baitu colacione eguitea, hala ezta legueric batere marcatcen duenic cein diren colacionean cilhegui diren gauçac.
- G. *Cer seguitu behar dugu bada colacione eguitean?*
- I. 1. Jaquin behar dugu colacione hura eztela içan behar othurunça bat.
2. Eztugu colacionean jan behar haguitz guti baicic, eta hura choilqui biharamuneraino irauteco behar eta necessario dugun beçanbat.

3. Colacionean jatea cilhegui diren janhari suertez denaz beçanbatean, hortan seguitu behar dugu gu bici garen Diocesaco usança errecibitua eta Jaun Aprezpicuez aprobataua.

G. *Lehenago orai beçala eguiten othe cen barura?*

- I. Ez, lehenago etçuten jaten egunean behin baicic arraxaren inguruan, orduan ere etçuten jaten belharric edo hostoric edo errorric baicen, eta eguiten cituzten bertce haintz mortificacione garratz.

G. *Eliça Ama Sainduac orai cer galdeguiten du gure ganic orduco mortificacione bersi eta garratz hequin ordain?*

- I. Haraguitic eguiten dugun abstinenciaz bertce alde lo gutiago eguin deçagula, axeguin gutiago har deçagula, eta obra on guehiago eguin deçagula.

G. *Cein dire obra on hec?*

- I. Amoina, erretiramenduan bicitcea, silencioa edo ichilic egoitea, othoitça, Predicuen ençutea, &c.

G. *Baruric ez eguiteco dispensa ardiezteco arroçoin justuac dituenac, cer eguin behar du?*

- I. Baruaren ordain harc eguin behar tu amoinac, baruretic ere eguin behar du eguin ahal deçaquena, eta janhari delicatu bilha eztu ibili behar.

G. *Eliçac cergatic emaiten darocu hautsa buruan Gariçuma bastean?*

- I. Gu orhoit araztea gatic ezgarela hautsic eta herrautsic baicen, eta herrautsera bihurtuco garela; eta bide hartaz mundu huntaco gaucetaric gu urruncea gatic.

G. *Cer disposicionerequin errecibitu behar da hauts hura?*

- I. 1. Humilitasun handi batequin.  
2. Gariçuman penitencia eguiteco eguiazco desira batequin.

## PRATICAC

1. Gariçuman utz detçagun cenbait axeguin, baita cilhegui direnetaric ere.

2. Gariçumaren hasteric cofesa gaitecin gure baruraren santificatceco, eta Bazco bestara hobequi preparatceco.

3. Bere gaztetasuna dela causa barur eguitera oraino obligatuac ezdirenac barur daitezque astean behin edo bietan bere indarren araber.

## ISTORIOAC

Moises nola barurtu cen berrogoi egunez. *Exodi, c. 34. v. 28.*  
Judith orobat barurtu cen *Judith c. 8. v. 6.* Ether ere, *Esther 4. v. 16.*  
Elias ere *Lib. 3. Reg. c. 19. v. 8.* Ninivetarrac ere bai *Jonae c. 3. v. 6.*  
& *seq.* Jesu-Christo gure Jauna Desertuan berrogoi egunez nola barurtu cen *Matth. 4. v. 1. & seq.*

## HAMAR-GARREN LECCIONEA

Birgina Sainduaren Anunciacioneco Bestacotz.

- 186 G. *Cer da Birgina Sainduaren Anunciacioneco Besta?*  
I. Hura da eguna, ceinetan Aingueru Gabrielelec Maria Birgina Sainduari eraman baitcioen berria hura iñanen cela Jaincoaren Ama.  
G. *Aingueru Gabrielelec berri hori eraman cioenean non cen Birgina Saindua?*  
I. Bere gambaran cen erretiratua eta othoitz eguiten hari cen.  
G. *Okbasione hortan cer berthute erakhutsi çuen Birgina Sainduac?*  
I. Hirur bertute principalqui erakhutsi cituen, berac pobreciarençat çuen amodioa, bere humilitasuna, eta bere obediencia.  
G. *Hirur berthute horiec certan ciren agueri?*  
I. 1. Ceren beldur baitcen bere castitateari bidegabe eguin ceçon Jaincoaren Ama içaiteaz, eta ez baitçuen eman bere consentimendua Aingueruac seguratu çuen ondoan baicic bethi Birgina iñanen cela.  
2. Ceren erran baitçuen Jaincoaren nescato cela, noiz ere baitcen hautatua Jaincoaren Ama içaiteco.  
3. Ceren Sacrificio bat eguin baitçuen Aingueruari erran cioenean, eguin bequit çure hitçaren arabera.  
G. *Cer guerthatu cen ondoan?*  
I. Birgina Sainduaren sabelean Jaincoaren Semeac hartu cituen gorphutz bat eta arima bat guren iduriac, ceinac juntatu baitciozcan bere Jaincotasunari, eta hori da Incarnacioneco misterioa.
- 187 G. *Beraz Birgina Saindua Jaincoaren Ama da?*  
I. Bai, harc bere sabelean concebitu duenaz gueroz, eta mundurat eman duenaz gueroz Jaincoaren Seme guiçon eguina.

- G. *Jaincoac cergatic nahi ičan çuen Birgina Sainduac çęçan bere consentimendua Sabbatçailearen Incarnacionecotz?*
- I. Mariaren obedienciac errepara ceçan gatic Evaren desobediencia.
- G. *Evaren eta Mariaren artean othe da deusic elkbarri daronsatenic?*
- I. Badire hainitz gauça.
1. Eva ičan cen salutatua Aingueru gaichto batez, eta Maria Aingueru on batez.
  2. Evac eman cioen Adami heriotceco fruitua, eta Mariac emaiten darocu bicitceco fruitua.
  3. Nola Jesu-Christo baita Adam berria, hala Maria da Eva berria.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau Eva?*
- I. Eva erran nahi da, bici gucien Ama.
- G. *Cein da bada eguiazco Eva, eta bici gucien Ama?*
- I. Hura da Maria Birgina haguitz Saindua.
- G. *Cer eguin behar da Anunciacioneco Besta ungui ohoratceco?*
- I. Hirur gauça.
1. Jaincoari esquerrac eman behar diozcagu, ceren eman darocun bere Semea; eta Semeari esquerrac, ceren nahi ičan çaicun bera guri eman.
  2. Comunionean ensejatu behar gara içaitera Birgina Sainduac cituen sentimenducac eta disposicioneac, noiz ere Ainguerucac eman baitcioen misterio hunen berria.
  3. Birgina Sainduac okhasione huntan erakhustera eman cituen berthuteac imitatu eta praticatu edo seguitu behar tugu.

#### PRATICAC

1. Adora deçagun Jaincoaren Semea misterio huntan agueri den beheratasuneco estatuan.
2. Ohora deçagun Birgina Saindua misterio hunec alchatcen duen handitasuneco estatuan.
3. Eçagur detçagun Jaincoari diozcagun obligacioneac misterio hunen bidez emaiten darozquigun graziez.
4. Birgina Sainduaren exemplua seguitceco nescatcha gaztec maitatu behar dute bakhartasuna eta erretiramendua, ihes eguin behar diote munduari, eta beldur ičan behar dire guiçonen hantatcearen.



## ISTORIOAC

Iracurri behar da misterio hunen Istorioa. *Lucae. c. 1. v. 26. & seq.* eta Birgina Sainduaren bisitacionearen Istorioa, eta Jondoni Joan-nisen sorcearena *ibid.*

## HAMECA-GARREN LECCIONEA

Arramu Igandecotz, eta Aste Sainducotz.

- 188 G. *Nondic heldu da Arramuco Igandea bain ohoratua baita Eliçan?*  
I. Ceren ordudanic hasten baita bereciquiago ohoratcen Jesu-Christo gure Jaunaren heriotcea eta passionea.
- G. *Guiristinoec cergatic egun huntan eguiten dute Procesionea Arramuc escuan?*  
I. Bere Pasionearen sei egunez aiticinetic Jesu-Christo gure Jaunac Jerusalemeco Hirian eguin çuen sarce edo entrada glorios eta triumfantaren orthoitçapenetan.
- G. *Arramu Igandearen ondoan heldu den astea cergatic deitcen da Aste Saindua?*  
I. Aste hartan guerthatu içan diren misterio handiac gatic.
- G. *Cein dire misterio bec?*  
I. 1. Aldareco Sacramendu Sainduaren ordenatcea.  
2. Jesu-Christo gure Jaunaren Pasionea eta heriotcea.  
3. Jaun haren ehorztea, handic laster phiztua içaiteco.
- G. *Aste Sainduan eta haren aiticineco astean cergatic estalcen tuzte Imaginac?*  
I. Guiristinoec bertce gauça guciei beguiac cerratuac atchic detçoten amoreac gatic, occupatuac içan ezdaitecin deusez misterio handi hetaz baicic.
- G. *Erraguçu Jesu-Christo gure Jaunaren Pasionea eta heriotceco istoriotic cerbait.*  
I. Orcegun Saindu arraxean Gorphutz Sainduaren Sacramendua ordenatu çuen ondoan Olivetaco Baratcean sofritu çuen hagonia bat hain borthitça, non içan baitçuen odolezco icerdi bat. Bere Apostolu Judasec traditu çuen eta libratu Juduen escuetara, ceinec lothu baitçuten gaichtaguin bat beçala, eta gaizqui tratatcen çutelaric eraman baitçuten Apez handiaren aiticinera.

G. *Orduan cer guertbatu cen?*

I. Eraman çuten Pilatus gana, eta han gau gucian içan cen abandonatua soldaduen insulta eta tratamendu gaichtoetara, hec eman ciozcaten çapartacoac, trufa hainitz eguin cioten, eta injurioz eta tratamendu gaichtoz, bethe çuten.

Handic eraman çuten Herodes gana, ceinac tratatu baitçuen erho bat beçala; gero berriz bihurtu çuten Pilatus gana, ceina porroca araci baitçuen açote colpez.

189 G. *Cer sofritu çuen azquenean?*

I. Buruan sarthu cioten elhorrizco Khoroa bat, cargatu çuten gurutce phiztu batez, eta borchatu çuten gurutce haren eramaitera Calbarioco Mendiaren gainera.

Han, gurutce hari bera lothu cioten oinetaric eta escuetaric itcezaturic, eta alchatu çuten bi ohoinen artean.

Azquenean bere Aitari othoitz eguin cioen ondoan bere hilçailençat, Birgina Saindua Jondoni Joanniri gomendaturic eman cioen bere amatçat, eta haren presunan guri, eta dolore eta tormentape hortan hil cen orcilarean arraxaldeco hirur orenetaco inguruan.

G. *Othe cegoquejen nahi içan balu tormenta hec guciac sofritu gabe?*

I. Bai, eta beldin sofritu baitu, guiçonençat çuen amodioa gatic eta hequin bekhatuei çor citçajoten pena jasaitea gatic sofritu tu.

G. *Beraz gure bekhatuac gatic hil da?*

I. Bai, hequin barkhamendua ardieste a gatic isuri du bere odola eta eman du bere bicia.

G. *Jaincoa ofensatcen dugunean cer eguiten dugu?*

I. Gure bihotcean erreberritcen dugu Jesu-Christoren Pasionea eta haren heriotcea.

G. *Cer eguin behar dugu consideratcen dugunean Jesu-Christoc cer tormenta sofritu içan duen guretçat?*

I. 1. Jaun hura urricaldü behar çaicu haren suplicio cruelac eta icigarriac ikhusiric.

2. Amodio eta eçagutça handi bat içan behar dugu Jaun harençat, harc gure gatic sofritu duenaz gueroz.

3. Ikxara handi bat içan behar dugu bekhatuarençat, Jaun hari bekhatua hain bertce gosta çajoenaz gueroz.

4. Penitenciazco chede batez guc ere sofritu behar dugu cerbait Jesu-Christorequin batean, gure bekhatuen barkhamendua-  
ren ardiesteco.

#### PRATICAC

1. Sentimendu horiez betheac ibil gaitecin aste Sainduco Oficioetara, hequin lucetasunaz arrancuratu gabe.

2. Maiz eta egun guciez orhoit gaitecin Jesu-Christoren Pasio-  
neaz, eta hango cenbait ponturen gainean eguin deçagun cenbait me-  
ditacione, bereciqui Meça ençuten hari garenean.

3. Nihor gutaz gaizqui minçatcen bada, nihorc traditcen edo  
persecutatcen bagaitu, sofrí detçagun guciac Jesu-Christoren exemplua  
seguituz arrancuratic eguin gabe, eta oraino othoitz eguin deçagun  
gure persecutatçailençat.

#### ISTORIOAC

Jesu-Christo Jerusalemen nola sarthu cen triumfa handian. *Matth.*  
21. *Marci* 11. & *Lucae* 19. v. 28 & *seq.* Jesu-Christo cer guisaz hil  
cen Calbarioco Mendian. *Laur Evangelisten akhabançan.* Jaun haren  
heriotcea eta haren sofricariac Profetec aiticinetic erranac guerthatuco  
cirela gure bekhatuac gatic. *Isaiae* 53.

#### HAMABI-GARREN LECCIONEA

Bazco egunecotz, edo Jesu-Christo gure Jaunaren phizteco egunecotz.

- 190 G. *Cer aditcen duçu Jesu-Christo gure Jaunaren phizteaz?*  
I Aditcen dut hil cenetic hirur-garren egunean haren arima juntatu  
cela haren gorphutçarequin, eta hartu çuela bicitce berri bat.
- G. *Jesu-Christoren Gorphutça cer estatutan phiztu cen?*  
I Phiztu cen ecin guehiago hil citequen beçala, eta ecin guehiago  
deusic sofrí ceçaquen beçala.
- G. *Cergatic phiztu da?*  
I. 1. Jainco cela, eta haren Evangelioa eguiazcoa cela frogatcea  
gatic.

2. Gure fedea eta gure esperanța borthiztea gatic.
  3. Bere gorphutcean guri erakhustea gatic, gure gorphuțac cer guisaz phiztucodiren.
- G. *Gure gorphuțac ere phiztucodithe dire bada egun batez, Jesu-Christorena beçala?*
- I. Bai, munduaren akhabançan sainduen gorphuțac Jesu-Christorena beçala phiztucodire.
- G. *Mundu huntan bici gareino ez othe deçaquegu parteric har Jesu-Christoren phiztean?*
- I. Bai, har deçaquegu ispiritualqui phiztuz.
- G. *Cer da ispiritualqui phiztea?*
- I. Hura da penitenciaren bidez ilkhitcea bekhatuaren heriotcetic, graciaren bicia berriz harceco.
- G. *Non causitcen dugu graciaren bicitce hura?*
- I. Penitenciaco eta Gorphutz Sainduco Sacramendutan; eta hargatic Eliçac manatcen darocu sacramendu hec errecibi detçagula Bazco denboran.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau Bazco?*
- I. Erran nahi da *Passaja*.
- G. *Cergatic eman diote icen hori Jesu-Christoren phizteari?*
- I. Juduen Bazcoarequin phizte harc duen iduria gatic.
- 191 G. *Cer cen Juduen Bazcoa?*
- I. Hura cen Besta bat, ceinetan Juduec eguiten baitçuten orhoitçapen bat.
    1. Aingueru baten pasajarena, ceinac hil baitcituen Egiptoaren seme lehenic sorthu guciac, eta salbatu cituen Hebreoenac edo Juduenac.
    2. Egiptoco pasajarena edo handi ilkhitcearena, eta Pharaonen esclabotasunetic Juduac libratcearena.
- G. *Horrec certan du gure Jaunaren phiztearen iduria?*
- I. 1. Bazco egunean guiristinoec ohoratcen dute Jesu-Christoren phiztea, erran nahi da, Jaun haren heriotcetic bicitceraco passaja.
    2. Berac libratcea Deabruaren eta bekhatuaren gathibotasunetic, ceinac Jesu-Christoc beñçutu baititu bere heriotceaz eta bere phizteaz; eta hala gathibotasunetic pasatu gara Jaincoaren umen libertatera.

- G. *Eliçac cergatic Besta hau ohoratcen du hain bozcario handiarequin, eta cergatic cantatcen du hainbercetan Alleluya?*
- I. Erakhustera emaiteco cein bozcario handia duen gure Jaunaren phizteaz, ceinaren hila ikhustez aiticinchean nigarrez baitcegoen.
- G. *Cer eguin behar da Bazco bestaren sainduqui beguiratceco eta ohoratceco?*
- I. Jesu-Christorequin batean phiztu behar gara, erran nahi da, harc beçala hartu behar dugu bicitce berri bat, ez guehiago hilcecotan.
- G. *Cer eguin behar da bicitce berri haren harceco?*
- I Bekhatua utci behar dugu, eta eztugu guehiago bici behar Jaincoarençat baicen.

## PRATICAC

1. Ezgaitecin ibil deusen bilha eta ezgaitecin içan deusen guticia Ceruco gauçen baicic, erran nahi da, maita deçagun Jaincoa eta haren gana guidatcen gaituzten gauça guciac, nola baitire othoitça, liburu onen iracurcea, gende prestuen hantatcea, &c.

2. Eritasunec eta bertce gaitcec gure gorphutça behartcen dute-nean, consola gaitecin, Job saindua eguin içan cen beçala, gure gorphutçaren phizteco esperançaz, ordoan içanen baita bethicotz dohaxu.

3. Bazco ondoan bici gaitecin debocione eta modestia guehiagorequin, erakhustera emaiteco Jesu-Christorequin ispiritualqui phiztu garela.

## ISTORIOAC

Aingueru funditçailearen passaja, Juduen Bazcoaren hastea. *Exodi.* 12. Itsaso gorriaren passaja eta Egiptotic ilkhitcea, *ibid.* c. 13. & 14. Job sainduac aiticinara erran çuen nola phiztuco ciren Jesu-Christo eta guiçon guciac, eta esperança horrec consolatcen çuen bere gaitz handien erdian. *Job.* c. 19. v. 25. & seq. Jesu-Christo nola phiztu cen. *Matth.* 28. eta berce hirur *Evangelisten akhabançan.* Ispiritualqui phiztea. *Rom.* c. 6. v. 4. *Coloss.* c. 3. v. 1. & seq. *Ep.* 1. *Cor.* c. 5. v. 7. & seq. Gorphutcen phiztea, *Ep.* 1. *Corinh. cap.* 15. v. 42. & seq.

## HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA

Gure Jaunaren Cerurat igaiteco Bestacotz, edo Jondoni Salbatorecotz.

- 192 G. *Gure Jauna phiztu cen ondoan denbora hainitez egon othe cen mundu huntan?*
- I. Hemen egon cen berrogoi egunez bere Apostoluequin bicitcen cela eta hequin minçatcen cela.
- G. *Cergatic mundu huntan egon cen denbora bartan gucian?*
- I. 1. Bere Apostoluei irakhasteco Evangelioaren predicatceco eta Eliçaren ungui gobernatceco jaquin behar cituzten gauça guciac.
2. Eguiazqui phiztu cela hec dudaric batere eguin etçeçaten amoreac gatic.
- G. *Nola separatu cen Apostoluen ganic?*
- I. Eraman cituen mendi baten gainera, eta han bere Discipuluen aiticnean bere berthute choilaz igan cen Cerura Arima eta Gorphutz.
- G. *Jainco beçala ere igan othe cen Cerura?*
- I. Ez, Jainco beçala lekhu gucietan denaz gueroz; bainan choilqui guiçon beçala igan cen Cerura.
- G. *Cergatic igan cen Cerura?*
- I. 1. Bere erresumaz posesionetan sarceco.
2. Bere Ispiritu Saindua guri Cerutic igorceco.
3. Ceruco athea guri idequitceco, eta han lekhubat edo plaça bat guri preparatceco.
- G. *Cergatic dioçu Ceruco athea idequi darocula?*
- I. Ceren hura baino lehen ez baitcen nihor Ceruan sarthu, eta hura behar baitcen han lehenic sarthu.
- G. *Abraham, Moisec, eta testament çabarreco bertce sainduac ez othe ciren bada orduan oraino Ceruan?*
- I. Ez, hec Limbuetan ceudecin Jesu-Christo ethor cedin beguira, eta eztire Ceruan sarthu harequin baicic.
- G. *Jesu-Christo cer hari da Ceruan?*
- I. Han baliatcen çaicu gure abocatçat eta arartecotçat bere Aitaren alderat.

G. *Nola considera abal othe deçaquegu misterio hau?*

I. Hirur guisatara.

1. Jaincoaren Semearen lanen akhabança beçala.
2. Haren gloriaren bethegarria beçala.
3. Gure esperança gucien chede ossoa beçala.

G. *Nola hori?*

- I. 1. Ceren egun huntan gure Jaunac akhabatu baitu gure eros-  
peneco lan ekhai handitacoa.
2. Ceren lehen biluci cen gloriaco estatu ossoan berriz sorthu  
baita.
3. Ceren ez baitugu egundaino içan Ceruaren pretenitceco dre-  
tcho edo çucen handiagoric, Jaun harc Ceruaz guretçat po-  
sesione hartu duenaz gueroz baino.

#### PRATICAC

1. Cerura maiz beha deçagun, eta suspiraz eta hatsbeherapenez  
egon gaitecin noiz ethorrigo othe den gu ere Jesu-Christo beçala har-  
rat joanen garen denbora.

2. Egun huntan jarraic gaquizcon Jesu-Christori gogoz eta bi-  
hotcez Jaun hura gorphutcez igan dela daquigun lekhuraino.

3. Ez deçagun guehiago deusic maita mundu huntan, eta consi-  
dera deçagun mundu huntaco gauça guciac ez direla deusic gure mes-  
precioa baicic mereci dutenic, Ceruco ontasunequin comparatcen di-  
renean.

#### ISTORIOAC

Cerura gure Jaunaren igaitearen figurac, suzco orga batean Elias  
alchatua içaitea. *Lib. 4. Reg. c. 2. Orobat Enoch. Gen. c. 5. v. 24. Eccl. c. 44. v. 16. & Hebr. c. 11. v. 5. Danielen visionea edo ikhustea. Dan. c. 7. v. 13. & seq. Gure Jauna Cerurat nola igan cen Marci c. 16. v. 19. Lucae c. 24. v. 50. & seq. Act. cap. 7. Jaun haren triunfaz eta gloriáz nola minço den Erregue David, Ps. 17. v. 11. Ps. 23. & 67. v. 5. 33. & seq. Limbuetaric athera cituen justuac Jaun harc be-  
requin daramatça Cerurat, Ps. 67. v. 19. & Ephes. cap. 4. v. 8.*

## HAMALAU-RGARREN LECCIONEA

### Mendecoste Bestacotz.

- 193 G. *Cer da Mendecosteco Besta?*  
I. Hura da eguna, ceinetan Ispiritu Saindua jautsi ičan baita Apostoluen gainera, Jesu-Christoc Cerurat igan baino lehen aguindu cioten beçala.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau Mendecozte edo Pentecozte?*  
I. Erran nahi da, berrogoi eta hamar-garren eguna; ceren phiztu cenetic berrogoi eta hamar egunen buruan Jesu-Christoc igorri baitçuen Ispiritu Saindua.
- G. *Ispiritu Saindua nola jautsi cen Apostoluen gainera?*  
I. Cerurat Jesu-Christo igan cenetic hamar egunen buruan, Apostoluac Birgina Sainduarequin batean othoitzean ceudecila, Ispiritu Saindua suzco mihi batçuen forman edo idurian jautsi cen goiceco bederatci orenetaco inguruan hetaric bakhotcharen gainera ecin ikhus ceitequen beçala.
- G. *Cer erran nahi çuten eta sinificatcen çuten suzco mihi hec?*  
I. Mihi hec erran nahi çuten Apostoluec predicatu behar çutela Evangelioa nihoren beldurric gabe, eta suac erran nahi çuen caritatearen berotasuna hain lan sainducotz Ispiritu Saindua hequin baithan phiztera heldu cena.
- G. *Cer gracia bereci eta particular errecibitu othe çuten orduan Apostoluec?*  
I. Orduan errecibitu çuten dohaina lengoaja suerte guciez minçatecoo eta miracuiluen eguitecoa.
- G. *Cer ičan cen gauça espantagarri horien ondorea?*  
I. Animos guciac betheric Apostoluec berehala predicatu çuten Evangelioa Jerusalem, eta guero mundu gucian ez tormenten ez heriotcearen beldur ičan gabe.
- G. *Ispiritu Saindua ez othe da jautsi Apostoluençat baicen?*  
I. Bai, jautsi da halaber Eliça guciarençat.
- 194 G. *Cergatic jautsi da Eliçarençat?*  
I. Haren guidatceco, hari irakhasteco, eta haren saindutceco munduaren akhabançaraino.



- G. *Ez othe da ethorcen halaber gutaric bakhotchka gana?*
- I. Bai, Ispiritu Sainduac bere egoitça eguiten du eguiazco guiristinoetan, eta horren gatic gure arimac eta gure gorphutçac dire deithuac Ispiritu Sainduaren Templuac.
- G. *Certara horrec obligatcen gaitu?*
- I. Ispiritu Sainduac bere egoitçaz consecratcen duen Templua bekhatuaz ez liçuncera.
- G. *Cer dispoçione içan behar dugu Ispiritu Sainduaren errecibitceco?*
- I. Othoitz onen eguiteco desira, eta bihotceco garbitasuna.
- G. *Cer da bihotceco garbitasun hura?*
- I. Hura da bekhatuaren higuinça handi bat, eta mundu huntaco gauçençat ez estecatua içaitea edo hetaz achola guti içaitea.
- G. *Certan eçagut abal deçaquegu hea Ispiritu Saindua errecibitu othe dugun?*
- I. Ikhusiz hea badugun amodio kharsu bat Jaincoarençat, artha bici bat haren gloriarençat, eta animo eta bihotz handi bat Jesu-Christoren leguearen eta maximen seguitceco munduco genden beldur içan gabe.

#### PRATICAC

1. Othoitz eguin deçogun Ispiritu Sainduari othoi eguin deçala gure baithan Apostoluen baithan eguin içan duena; erran nahi da, Jaincoaren leguea eta Jesu-Christoren maximac finca eta isquiriba detçala borthizqui gure bihotcetan, eta hec maitaraz eta segui araz detçagula.

2. Mendecoste aitcinean cenbait egunez bici gaitecin erretiramenduan eta othoitz eguiten, Ispiritu Saindua gure bihotcetara erakharcera ensejatceco.

3. Bilha deçagun gure baithan cer othe den Ispiritu Sainduaren gogaraco eztenic, eta hura utz deçagun eta khen gure ganic, comparacionera gueçur erraitceco usança, ez obeditu nahia, mundu huntaco ontasunac sopra maitatcea eta hetarat estecatua içaitea.

#### ISTORIOAC

Juduen Mendecoste, ceren egun harequin errecibitu içan çuten leguea Sinaico Mendiaren gainean, figura bat cen gure Mendecostereña, ceinetan Jesu-Christoren leguea isquiribatua baita ez harrizco

mahain batçuetan, hequina beçala, bainan bai gure bihotcetan, ez hec beldurrez bethetceco, bainan Jaincoaren amodioz. *Exod. cap. 19. & 20. Levit. cap. 23. v. 15 & seq.* Ispiritu Sainduaren promessa. *Luc. cap. 24. v. 49. Joan. cap. 16. v. 7. Act. cap. 1. v. 4.* Ispiritu Sainduaren jaustea eta haren ondoreac. *Act. cap. 2. 3. 4. & 5.*

## HAMABORTZ-GARREN LECCIONEA

Trinitateco Bestacotz.

- 195 G. *Cer da Trinitatea?*
- I. Trinitatea da Jainco bat hirur presunetan Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua. *Ikhus çaçu lehenbico parte bigarren leccionea* Trinitate Sainduaz, pag. 28.
- G. *Misterio handi hori esplica abal othe daiteque?*
- I. Ez, hori da misterio bat simplequi sinhetsi behar dena eta ecin concebi deçaqueguna.
- G. *Pinta abal othe daite Trinitate Saindua?*
- I. Ez, nola misterio hori ecin eçagut baiteque gure sensuez, ecin gogora daguiquegu horren imaginariç.
- G. *Cergatic bada Pintorec pintatcen dute Aita guiçon çahar ohoratu bat beçala, Semea guiçon bat beçala, eta Ispiritu Saindua usso bat beçala?*
- I. Nolazbait bada ere Trinitateco hirur presunen perfeccioneac guri aphur bat eçagut araci nahiz.
- G. *Nola hori?*
- I. 1. Pintatcen dute Aita guiçon çahar bat beçala, erakhustera emaiteco haren eternitatea eta haren çuhurcia.  
 2. Semea guiçon bat beçala, ceren gure gatic guiçon eguin baita.  
 3. Ispiritu Saindua usso bat beçala, ceren, 1. Bera figura horren azpian aguerttu içan baita. 2. Erakhustera emaiteco harc gure baithan eçarcen dituen emetasuna eta bertce berthuteac, ceinen Simbola baita ussoa.
- G. *Urtheco Besta guciac ez othe dire Trinitate Sainduari consecratuac?*
- I. Bai, hec dire Trinitate Sainduaren ohoratceco eta gu haren gana guidateco bide batçuec.

- G. *Cergatic bada Eliçac beguiratcen du Trinitateco Besta particular hau?*
- I. Bercetan içan diren escasien erreparatceco, Trinitate Sainduari pietate eta debocione guehiagorequin errendatuz guc çor diozcar-gun ohoreac eta eguinbideac.
- G. *Cein dire ohore eta eguinbide hec?*
- I. 1. Adoracionea, eçagutcen dugularic haren botherea gucien gainecoa, eta haren borondate gucien azpian jarcen garelaric.  
2. Esquer ona haren ganic errecibitcen ditugun ontasun eta fabore guciençat.
- G. *Certaz bereciqui esquerrac eman behar diozcagu Trinitate Sainduari?*
- I. Hirur gracia particularrez.  
1. Ceren creatu gaituen bere iduritacoac.  
2. Ceren erosi gaituen Jesu-Christoren heriotceaz.  
3. Ceren saindutcen gaituen Ispiritu Saindua gure bihotcetara ethorriz.
- G. *Trinitate Sainduarequin guc dugun iduria cer da?*
- I. Badire hirur bereciqui.  
1. Da Trinitateco hirur presunen idurian creatuac baicara.  
2. Presuna hei consecratuac baicara Bathajoaz.  
3. Hequin Templua baicara Jaincoaren graciaz.
- G. *Cergatic Eliçac beguiratcen du Besta hau Mendecoste ondoan berehala?*
- I. Ceren Misterio hunen Doctrina eta fedea Apostoluec munduan predicatu baitçuten Ispiritu Saindua errecibitu çuten ondoan berehala.

#### PRATICAC

1. Egun guciez esquerrac eman detçogun Trinitate Sainduari bereciqui ohetic jeiquitcean, ceren eguin darocun gracia gure creatceco, gure erosteco, eta gure santificatceco.

2. Içan gaitecin elkharrequin caritateaz juntatuac, Aita, Semea, eta Ispiritu Sainduac elkharrequin juntatuac diren beçala bere naturaren battasunaz.

3. Trinitateco hirur presunen saindutasuna imita deçagun gure accionen eta obren garbitasunaz, eta bekhatuaren higuinça handiaz.

Abrahamec nola ikhusi cituen hirur guiçon eta hetaric bat baicic etçuen adoratu, Trinitatearen figura, *Gen. c. 18. v. 2. & 3.* Jesu-Christoren Bathajoa. *Matt. c. 3. v. 16. & 17.* Ceinetan hirur presunac agueri baitire. Jondoni Joanni ere hetaz clarqui minço da. *Ep. 1. Joan. cap. 5. v. 7.* Guiçona Trinitatearen idurian eguina. *Gen. c. 26. & 27.* Hirur presunen battasuna, guiristinoec elkharren artean behar duten battasunaren Simbola. *Joan. c. 17. v. 11. 21 & 22.*

### HAMASEI-GARREN LECCIONEA

Sacramendu Sainduaren Bestacotz, edo Besta berricotz.

- 196 G. *Cer da Sacramendu Sainduaren Besta?*  
 I. Hura da Besta bat, ceinetan Eliçac manera particular batez ohoratcen baitu Gorphutz Sainduco Sacramenduaren ordenatcea.  
 G. *Cein egunez Eliçac beguiratcen du Besta hori?*  
 I. Mendecosteren Octabaren ondoco lehenbico orcegunean.  
 G. *Cergatic denbora hortan beguiratcen du?*  
 I. Ceren guiristinoac Mendecostez ohoratu duten ondoan Eliçaren fincatcea eta sorcea, justu baita ohora deçaten Eliça hazten eta graziaz bethetcen duen misterioaren orhoitçapena.  
 G. *Cein denboraz hasi içan da Besta hau beguiratcen?*  
 I. Liegen hasi cen Eliçaren hamahirur-garren mendean, Juliana deitcen cen Serora saindu batec Liegeco inguruan içan çuen bisio-neac okhasione emanic.  
 G. *Besta hau norc ordenatu içan du Eliça gucicotz?*  
 I. Urbano IV. Aita-Sainduac bere Bulan buruilaren çorcian mila ber-ehun eta hirurhogoi eta bian.  
 G. *Bula hura baino lehen ez othe cen beguiratcen Sacramendu Sainduaren Besta?*  
 I. Bai, ohoratcen çuten, eta oraino orai ere ohoratcen da Orcegun Sainduz, ceina baita Jesu-Christoc Sacramendu Saindua ordenatu çuen eguna, ez ordean solemnitare berarequin.  
 G. *Cergatic hori?*  
 I. Ceren, nola Orcegun Sainduz Eliça ocupatua baita Jesu-Christoren

Pasionean, ecin orduan erakhustera eman baiteçaque Besta huni dagocon bozcarioa.

- 197 G. *Cer arroçoin içan du Eliçac Besta hunen ordenatceco?*
- I. Badire hirur arroçoin principal.
1. Misterio hunen aldera guiristinoen fedea eta debocionea erreberritcea.
  2. Sacramendu Sainduan present den Jesu-Christori errendatcea eçagutça on batec erakhusten dituen ohore eta errespetu guçiac.
  3. Gure adoracionez erreparatcea Jaun hura Sacramendu hartan ofensatcen dutenen crimac.
- G. *Cein dire Jaun hura Sacramendu hartan ofensatcen dutenac?*
- I. 1. Hereticoac, ceinec ez baitute sinhetsi nahi Jesu-Christo edireiten dela eguiazqui eta errealqui Gorphutz Sainduaren Sacramenduan.
2. Sacramendu hura indignequi errecibitcen duten guçon gaichtoac.
3. Guiristino lachoac Sacramendu hura errecibitu nahi ezdutenac, edo epheltasun batequin errecibitcen dutenac.
- G. *Eliçac cergatic Besta huni berretu dio Procesione bat carriquetan eguiteco?*
- I. Misterio hunen etsajen contra Jesu-Christoc Eliçari irabaz araci dioen bictoriaren edo triunfaren ohoratceco.
- G. *Egun huntan cer sentimendu içan behar da gure bibotcetan?*
- I. Erregue David sainduac içan cituen sentimendu berac, noiz ere Arca eramana içan baitcen Obededomen ethetic.
- G. *Cein içan ciren sentimendu bec?*
- I. 1. Bozcariozco eta eçagutçazco sentimendu bat.
2. Religioñezco eta errespetuzco sentimendu bat.
3. Humilitatezco eta sacrificiozco sentimendu bat.

#### PRATICAC

1. Ibil gaitecin Procesionean debocionez, ez ordean curiosasunez.
2. Besta hunen Octaban, eta bertce egunetan ere eguin ahalaz entçun detçagun Meça Saindua, predicua, eta benedicionea.
3. Aste guciez cenbait denboraz egon gaitecin Sacramendu Sainduaren aiticinean, ceina maiz bakharric egoiten baita gure Elicetan, eta

han errenda detçogun çor diozcagun ohoreac, eta galde detçogun behar ditugun graciac.

## ISTORIOAC

Cein solemnitate handiarequin David sainduac eraman araci çuen Alienciaco Arca. *Lib. 2. Reg. c. 6. & Lib. 1. Paral. c. 13. 14 & 15.* Bere Semearen eztajac eguin cituen Erregue baten parabola, Jesu-Christoc preparatu darocun eta Eliçac Besta huntan ofritcen darocun festin handiaren figura. *Matt. cap. 22. v. 2. & seq. Lucae cap. 14. v. 16. & seq.*

## HAMAÇAZPI-GARREN LECCIONEA

San Leon edo Jondoni Leho Bayonaco Hirico eta Diocesaco Patroinaren Bestacotz.

Marchoaren lehenean.

- 198 G. *Cein egunez beguiratcen da San Leon Bayonaco Hirico eta Diocesaco Patroinaren Besta?*
- I. Marchoaren lehenbico egunean.
- G. *Nor da San Leon edo Jondoni Leho?*
- I. Hura da Apezpicu bat bere saindutasunaz eta bere martirioaz famatua, ceinac herri huntan irakhatsi baitu Jesu-Christoren leguea, populuac arguitu baititu fedearen arguiatz, Idolatria khendu, eta genden accioneac ondu eta chuchendu.
- G. *Nondic ethorri cen herri hautarat?*
- I. Uste dute ethorri cela Ruandic ceinetan Archiphizpicu baitcen, bere bi anaja Philipez eta Gervasioz lagundua.
- G. *Nongoa cela uste dute San Leon, eta noiz ethorri içan da Herri hautara?*
- I. Uste dute sorthu cela Normandiaco Carentan deitzen den Hiri chume batean, eta hunat ethorri cela Eliçaren bederatsi-garren mendean.
- G. *Cer chedez hunat ethorri cen?*
- I. Jaincoaren inspiracionearen seguitceco, ceinac hartaz eguin nahi baitçuen Bayonaco Diocesaco Apostolua.

- G. *Hura da beraz lehena Herri hautarat fedea ekharri duena, eta hemen Jesu-Christo eçagut araci duena, hemengo Apostolua denaz gueroz?*
- I. Baldin ez bada lehena uste duten beçala, bederen harc erreberritu du fedea, ceina causitu baitçuen casic iraunguia, gendec ceramaten bicitce gaichtoaz, eta Paganoequin nahastatuac içanez, ceinec hemen adoratcen baitcituzten Jainco falsoac, eta hargatic da beguiratua Herri hautaco Apostolua beçala.
- G. *Cer eguin çuen obra hortacotz?*
- I. Jaincoaren Ispirituac animaturic utci çuen bere Diocesa, bere Eliçaren gobernatceco norbait eçarriric ethorri cen Bayonara bere bideco cenbait lekhuman predicaturic, eta nola Jaincoaren probidenciac Bayonaco atheac idequi baitciozcan, han predicatu çuen Evangelioa.
- G. *Nola utci çuten Hirian sartcera?*
- I. Hirico habitantec adituric certara heldu cen, igorri ciozcaten deputatuac haren gonbidatcera hequin Hirian sar cedila.
- G. *Nola içan cen errecibitua?*
- I. Habitant batçuec eguin cioten asqui beguitarte ona, eta Jaincoac haren trabailuac eta zeloac benedicaturic, hainitcec hartu çuten sinheste haren predicuetan, eta aldatu çuten bere bicitcea eta bere sinhestea.
- G. *Ez othe çuen içan contra eguileric eta persecutatçaileric?*
- I. Bai, Deabruac ungui guciaren etsajac halaco hainitz alchatu çuen haren contra, eta uste dute haren bi Anajec lehenic frogatu içan çutela persecutatçaille hequin errabiamendua.
- 199 G. *Cer ekharri cituen persecutatçaille hec errabiamendu hartara Saindu haren contra?*
- I. Ceren harc bere othoitcen berthuteaz eta indarraz hauts eta herrauts eraguin baitçuen Marsen Idola, ceina publicoqui adoratcen baitçuten orduan Bayonaco Templu batean, ceinaren hondarrac agueri baitire oraino Hiri hartan.
- G. *Cer guertthatu cen ondoan?*
- I. Pena eta persecucione hainitcen ondoan, eta Bayonaco guiristinoac eta Hiria Jaincoari gomendatu ciozcan ondoan, Saindu harc içan çuen burua picatua, eta errecibitu çuen Martirioco Khoroa.
- G. *Cein lekhuman içan çuen burua picatua?*
- I. Niveco Erriberaren bazterrean, Hiritic hurbil, Espainiaco Porta-

learen campoco aldean, ceina hargatic deitzen baita *San Leonen Portalea*.

- G. *Hura hil cen ondoan cer guerthatu cen gauça miragarriric?*  
I. Herrico Istorioac dakharque; Martir saindu hura hil cen ondoan bici ičan baliz beçala joan cela haren icena duen Ithuriraino, eta han guelditu cela.
- G. *Harc fedearen arguiaz arguitu cituen guiristinoec cer eguin çuten?*  
I. Ithurria den lekhu hartan eraguin cioten Capera bat Martir saindu haren bictoriaren eta Khoroaren seculaco seinale bat beçala, eta haren gloriaren lekhucotasun eder bat beçala.
- G. *Cer eguin cen haren gorphutça?*  
I. Capera hartan ehortci çuten, eta han haren memoriao ohoratcen çuten eta haren Thombarat ibilcen ciren inguruetaco populuac ere.
- G. *Gueroztic cer mudança içatu da han?*  
I. Eliça guiçonec eta Hirico cargudunec eraman cituzten Hiritat Saindu haren erlequi preciatuac, beldurrez Gorphutz sacratu hura eror cedin Hereticoen escuetara, ceinec profanatcen baitcituzten lekhu saindu guciac.
- G. *Erlequi hec orai non dire?*  
I. Orai dire Andre dena Mariaco Eliça Cathedralean khacha aberats batean sarthuac, ceina baitago Khoroan Jaun Apezpicuaren Cadiraren gaineco aldean, eta handic jausten tuzte populuaren behar handietan Jaincoaren coleraren phacegatceco Hirico eta Dioscesaco Patroin Saindu haren arartecotasunez.
- G. *Non da eçarria San Leonen Burua?*  
I. Hura da cilharrezco buru aberats batean sarthua Jondoni Petriren Caperan, eta handic atheratcen dute guiristinoen debocioneari aguertua uzteco, edo Procesionean eramaiteco Saindu haren Besta egunean eta bertce Besta principaletan.
- G. *Saindu haren ganateco guiristinoen debocioneac othe dirau oraino?*  
I. Bai, hequin bihotcetan fincatua da adimendura helcen diren denboratican, eta berretcen da hequin adinarequin batean.
- 200 G. *Guiristinoec cer eguiten dute San Leonen gana duten debocionearen erakbusteco?*  
I. 1. Hari hedatcen diozcate bere othoitçac eta bere botuac.  
2. Haren arartecotasunera laster eguiten dute gaitz edo miseria



publicoetan, eta haren burua eramaiten dute Procesiorean, lagunça laster bat Cerutic ardiesteco.

3. Haren Besta egunean Procesiorea eguiten dute hura martirisatua ičan dela uste duten lekhura.
4. Saindu haren ohoretan alchatu dute Confrario eder bat, bere Patroin Sainduaren ganateco debocionea bethi iraun arazteco, eta Jaincoaren aiticineco haren lagunça handia Hiriaren gainera hedarazteco.

G. *Cein ičan dire San Leonen berthute principalac?*

- I. 1. Arimen salbamenduco zelo edo artha handi bat, ceinac eraguin baitiozca trabailuric den handienac hec Jesu-Christori irabastea gatic.
2. Fede eta animo borthitz bat Evangelioaren predicatceco den arriscuric handienen beldurric ičan gabe.
3. Paciencia eder bat contradiccionetan eta persecucionetan, ceinen erdian bici ičan baita, eta ceinac sofritu ičan baititu Jesu-Christoren icena gatic.

G. *Cer erran nahi da Mendecostez Bayonan urthe guciez eguiten den ceremonia hura, ceinetan Hirico Jaun Senticac eta Tresoriera joaiten baitire San Leonen Portalera, barat eraman arazten baitituzte Loreac eta Erribanac, hec arthiquitcen lurrerat osticatuac içaiteco; handic badobaz Hirico Etchera, handic berriz biburcen dire Jaun Cargudunecuin batean Portale berera, han causitcen tuzte Chirio edo Flambeu phiztuac, eta hec Jaun Cargudunec eramaiten tuzte Andre dena Mariaco Eliça Cathedralera?*

I. Ceremonia hura eguiten da.

1. Gu orhoit arazteco San Leoni deputatuac igorri ciozcaten egunaz haren othoiztera, sar cedila Hirian eta han predica ceçala, eta hori uste dute guerthatu cela Mendecoste egunean.
2. Jaincoari esquerrac emaiteco Bayonaco Hiriari eguin ičan dioen graciaz Predicari saindu haren igorceaz.

G. *Cer erran nahi dire osticatuac içaiteco lurrerat arthiquitcen tuzten lore hec eta erriban hec?*

- I. Hec erran nahi tuzte eta sinificatcen tuzte Paganotasuneco supersticioneac eta banitate guciac, ceinac ičan baitciren utciac eta abandonatuac Herri hautaco gendez San Leonec predicatu cio-tenean.

- G. *Cer erran nahi dire Eliçarat eramaiten tuzten Chirio edo Flambeu phiztu hec?*
- I. Hec erran nahi dute fedearen arguia, ceinaz Herri hauc içatu baitire arguituac, eta ceinac khendu içan baititu Paganotasuneco ilhunbeac.
- G. *Ceren gainean fundatua da San Leonen predicatceaz eta haren martirioaz dioçuna?*
- I. Herri hautan bethi dirauën tradicionearen edo istorioaren gainean, ceina baita errecibitua Aita ganic Semea gana, leinutic leinura, Hirico eta Diocesaco estatu gucietaço gendez, Eliça guigoñez eta laicoez, populuez eta Cargudunez, cein istorioaren hasteric ezbaita causitcen, eta ceina hargatic içan behar baita eguia bere hastean eta ethorquian.
- G. *Nola bada hori?*
- I. Ceren adimendua duenic eta arroçoina aditcen duenic ezbaita causituco uste içanen duenic populu batec guciac hainberce mende huntan bethi sinhetsi içan duela, nola saindu bat Leon deitcen dena ethorri içan den Herri hautara Fedearen predicatcera, hemen martirioa sofritu içan duen, &c. Populu harc seguitu eta praticatu içan tuela ceremonia batçuec hain seinalatuac istorio hura ahanztera ez uztea gatic, baldin gauça hala guerthatua içan ezbaliz; eta hala adimendua duenic ezta nihorc içanen aithortuco ezduenic istorio hunen funsa eguia dela, hunen circunstancia guciac ez jaquina gatic arren.

## PRATICAC

1. Jaincoari esquerrac eman detçogun, ceren igorri darocun San Leon gure arguitcera Fedearen arguiez.
2. Bici gaitecin Saindu harc predicatu darocun fedearen arabera, eta fede hura ezdeçagun gueçurta gure accionez.
3. Saindu haren Erlequiençat içan deçagun debocione particular bat eta haren arartecotasunean fidancia handi bat.

## ISTORIOAC

Judas Machabeoren visionea, ceinetan ikhusi baitçuen Onias Aphez handia Ceruan Jaincoari othoitz eguiten Juduen populu guciarençat, eta Jeremias Profeta Jerusalemeco Hiriarençat orobat othoitz

eguiten, eta ceintaz Oniasec baitcioen : *Huna bere Anajac eta Israelgo populua eguiazqui maite tuena. Lib. 2. Machab. c. 15. v. 11. & seq.* Visione horrec erakhusten darocu ceren esparança iñan behar dugun San Leonen Ceruco lagunçatic.

Moises bere afliccionean Jaincoari minço çajo Patriarquen berthutez eta merecimenduez. *Exod. cap. 32. v. 13.* Salomon David sainduarenez. *Lib. 2. Paralip. cap. 6. v. 42. & Ps. 131. v. 1.* eta hirur hau- rrec labe gorian Ceruco lagunça nahiz Jaincoari aiphatcen diozcate Patriarquen berthuteac, *Dan. c. 3. v. 35.* Horiec guciac irakhasten da- rocute Jaincoari aipha eta ofri detçogula San Leonen merecimenduac miseria publicoetan, Jaun haren coleraren phacegatceco, eta haren misericordia gure gana hedarazteco.

## HEMEÇORTCI-GARREN LECCIONEA

Jondoni Joanni Baptistaren Bestacotz. Errearoaren hogoi eta laurean.

- 201 G. *Nor cen Jondoni Joanni Baptista?*
- I. Hura cen guiçon bat Jaincoac igorria Juduei Jesu-Christoren eçagut arazteco, eta Jaun haren ethorcera guiçonen preparatceco, eta hargatic da deithua Jesu-Christoren aitcinguidaria.
- G. *Cein dire saindu haren ohoretan Eliçac beguiratcen dituen Bestac?*
- I. Badire bia, haren sorcecoa eta haren hilcecoa.
- G. *Cergatic Eliçac beguiratcen du haren sorceco Besta?*
- I. Ceren saindu hura sorthu baitcen graciazco estatuan, bere Amaren sabelean santificatua iñan cen ondoan.
- G. *Cergatic oraino?*
- I. Ceren hura sorthu cenean eguin iñan baitciren hainitz gauça miragarri san Lucquen Evangelioaren bigarren capituluan aiphatuac diren beçala.
- G. *Erraguçu gauça miregarri hetaric cenbait?*
- I. 1. Aingeru Gabrieleac haren sortcearen berria aitcinec eman cioen eta prometatu cioen haren Aita Zacarias.
2. Santa Elisabethec bere çaharcean miracuiluz haur hura concebitu çuen.
3. Jesu-Christo bere Amaren sabelean oraino cerratua cegoela-

ric haur hura santificatu çuen sorthu baino lehen, noiz ere Birgina Saindua joan baitcen bere Cusina Elisabeth ikhusterera.

- G. *Cergatic eguiten tuzte bozcariozco suac saindu haren sorceco egunean?*
- I. Complitua içan dadin gatic Aingueruac erran çuena, içanen cela bozcario Jondoni Joannisen sortcean.
- G. *Cerc emaiten çuen bozcario hura?*
- I. Jesu-Christo hurbil içaiteac, ceren haren aiticinean ethorri beharra baitcen Jondoni Joanni.
- G. *Saindu hura cergatic deitcen da Baptista?*
- I. Ceren harc içan baitçuen ohore Jesu-Christoren bathajatceco Jordanean, eta batajatcen baitcituen Juduac, hec Messiasen errecibitcera preparatceco.
- G. *Jondoni Joannisen bathajoac barkhatcen othe cituen bekhatuac?*
- I. Ez, hura cen choilqui ceremonia bat, ceinaren bidez Jondoni Joannisec preparatcen baitcituen Juduac penitenciarara bere bekhatuen barkhamenduaren errecibitceco, eta bide hartaz hec dispostatceco Messiasen ethorcera.
- G. *Nola bici içan cen Saindu hura?*
- I. Bici içan cen desertuan, bethi cilicio suerte batez beztitua, eram çuen bicitce bat penitenciazcoa eta mortificacione harrigarrieneco, etçuen behinere edan uric baicen, etçuen jan chirristaric edo larrapoteric baicic eta cenbait bas ezti aphur baicic, &c.
- G. *Nola hil cen?*
- I. Presundeguien eçarri çuten, eta guero burua ebaqui cioten Herodesen manuz.
- G. *Cergatic hori?*
- I. Ceren libertate saindu batequin miçatu baitcen Prince haren bicitce escandalaz bethearen contra, hura bici baitcen adulterio eta incesto public batean.

## PRATICAC

1. Munduari ihes deçogun, eta bici gaitecin prestuqui eta cenbait mortificacione egunez.

2. Gende handien amoreac gatic ezdeçagun deusic eguin Jaincoaren leguearen contra eta guiristinotasuneco eguinbide handien contra.

3. Eguin ahal gucia eguin deçagun bertcei eçagut arazteco eta maita arazteco Jesu-Christo gure Jauna hala gure instruccionez, nola gure exemplu onez.

## ISTORIOAC

Isaiasec aitcinec aiphatua aitcinguidariaren ministerioa. *Isaïae c. 40. v. 3. & seq. Malach. c. 3. v. 1. Marci c. 1. v. 2. & seq. Matt. c. 3. v. 1. Luc. 3. v. 4. Joan, cap. 1. v. 23.* Jondoni Joannisen sortcea, eta orduco gauça miragarriac, haren bicitceco manera. *Matth. c. 3. v. 4. Marci c. 1. v. 6. Lucae cap. 1. v. 5. & seq.* Haren berthuteac. *Matt. c. 11. v. 7. Lucae c. 7. v. 24. Joan. c. 1. v. 19.* Haren heriotcea *Marci cap. 6. v. 14. & seq.*

## HEMERETCI-GARREN LECCIONEA

Jondoni Petriren eta Jondoni Pauloren Bestacoz. Erearoaren hogoi eta bederatcian.

- 202 G. *Cergatic egun batean berean eguiten da Jondoni Petriren eta Jondoni Pauloren Besta?*
- I. Ceren hec egun berean sofritu baitçuten martirioa Erroman, eta bere odolaz consecratu baitçuten Erromaco Eliça.
- G. *Jaincoac cergatic nahi içan çuen Erromaco Eliça hequin odolaz içan cedin consecratua?*
- I. Ceren Hiri hura behar baitcen içan munduco Eliça gucietaric principalena eta lehena.
- G. *Cergatic hori?*
- I. Jondoni Petriren Cadira gatic, ceren Jondoni Petriri Jesu-Christoc eman baitcion Eliçaco aitcindaritasuna.
- G. *Cer da Erromaco Eliçaren aitcindaritasuna?*
- I. Hura da munduco Eliça gucien amatçat Jaincoac eçarria, eta eguiaren beguiratçaille principalena.
- G. *Cer da oraino aitcindaritasun hura?*
- I. Ceren harequin batean battasuna eta unionea beguiratu behar baitute munduco Eliça guciec.
- G. *Nor cen Jondoni Petri?*
- I. Castaz eta nacionez Judua cen, Galileaco Hiri chume Betsaida deitcen den batecoa, eta oficioz arrançalea.

- G. *Nola deitzen cen?*  
 I. Simon, Jonasen semea.
- G. *Cergatic deitzen duçu beraz Petri edo Piarres?*  
 I. Ceren Jesu-Christoc bere icena Simon aldatu baitcioen eta deithu baitcuen *cephas*, ceinac erran nahi baitu *Piarres* edo *Harria*.
- G. *Jesu-Christoc cergatic horrela aldatu cioen bere icena?*  
 I. Erakhustera emaiteco hura hautatu çuela bere Eliça haren gainean fincatceco harritçat. *Ikhus çaçu lebenbicoico partean hama-bi-garren leccionea, Eliçaz pag. 53. eta ondoçoetan.*
- G. *Nor cen Jondoni Paulo?*  
 I. Hura cen Ciliciaco Tarsecoa, Erromaco Citoien sorthua, Gamalielec Jerusalemen alchatua eta instruitua legueco ciencian.
- G. *Ondoan cer eguin çuen?*  
 I. Hainberce zelo içan çuen Juduen leguearençat, non uztez legue hura ofensatcen çutela Apostoluec bere predicuez, lagundu baitcen Jondoni Esteberen martirisatcen, ceinarequin batean alchatua eta instruitua icena (sic) baitcen.
- 203 G. *Cer eguin çuen oraino?*  
 I. Nola guiristinoen odolaren eta biciaren ondoan bethi baitcebilan, Aphecen Princeac eman ciozcan letrac Damasco Hirira joaiteco, han causituco cituen guiristino guciac preso harcera.
- G. *Cer guerthatu cen okhasione bartan?*  
 I. Damasa joaiteco bidean cen denboran argui distiatcen çuen bateg betbetan jo çuen eta arthiqui çuen lurrera.
- G. *Cer guerthatu cen ondoan?*  
 I. Aditu çuen boz bat, ceinac erran baitcioen; Saul, Saul cergatic persecutatcen nauçu.
- G. *Cer ihardetsi çuen?*  
 I. Ihardetsi çuen; nor çara Jauna?
- G. *Cer erran cioen Jaunac?*  
 I. Ni naiz Jesus çuc persecutatcen duçuna.
- G. *Cer erran cioen orduan Jondoni Pauloc?*  
 I. Jauna, cer nahi duçu eguin deçadan?
- G. *Jaunac cer manatu cioen?*  
 I. Igorri çuen Damasco Apez Ananias gana, ceinac instruitu baitçuen guiristinotasuneco eguiez, eta içan cen bathajatua.
- G. *Cer eguin çuen ondoan?*  
 I. Lehen guiristinoen persecutatçaile cena, eguin cen Evangelioaren defendatçaile eta sostengatçaile borthitcena.

G. *Jondoni Paulo cergatic da deithua Gentilen Apostolua?*

I. Ceren Jaincoac manatu cioen beçala Gentilei, erran nahi da, Paganoei bereciqui predicatu baitiote Evangelioa.

G. *Cer heriotce suertez hil ciren Jondoni Petri eta Jondoni Paulo?*

I. Jondoni Petri gurutceficatu çuten buruz behera, eta Jondoni Paulori burua picatu cioten.

#### PRATICAC

1. Imita deçagun Jondoni Petri (sic) Jesu-Christorençat çuen amodioa.

2. Bai halaber Jondoni Pauloc Jaincoaren graciarençat içan çuen lejalatasuna eta fidelitatea.

3. Ezgaitecin behinere urrun bi Saindu hauc utci darocuten doctrinatic.

4. Saindu handi haui othoitz eguin deçotegun Eliça guciarençat, eta bereciqui paganotasunean oraino bici direnen conbersionearençat.

#### ISTORIOAC

Jondoni Petri bertce Apostoluac baino lehen bethi icendatua da, baita sant Andres haren anaja çaharragoa baino lehen ere, hura içan celaric arren Jondoni Petri baino lehen deithua Apostolutasunera. *Mt. c. 10. v. 2. Marc. 3. v. 16. Luc. 6. v. 14. & Act. 1. v. 35. & 40.* eta horrec eraflhustera emaiten du Jesu-Christoc aguindu cioen aiticindaritasuna. *Matth. c. 16. v. 18. & seq.* eta ceina eman baitcioen haren fedearen errecompensatçat, *ibid. v. 16.* eta haren amodio handiaren saritçat, *Joan. c. 21. v. 15. & seq.* Jondoni Pauloc persecutatcen du Eliça eta conbertitcen da. *Act. cap. 7. v. 57. cap. 8. & 9.*

## HOGOI-GARREN LECCIONEA

Birgina Sainduaren Assumpcionecotz. Aboztuaren hamabortzean.

- 204 G. *Cein egunez beguiratcen da Birgina Sainduaren Assumpcioneco Besta?*
- I. Aboztuaren hamabortz-garren egunean.
- G. *Cer erran nahi da hitz hau Assumpcionea?*
- I. Erran nahi da Birgina Sainduaren heriotzea eta hura Cerurat alchatcea.
- G. *Birgina Saindua arima eta gorphutz alchatua içan othe cen Cerura?*
- I. Guiristinoen sinheste comuna da, Birgina Saindua hil cenean ilkhi cela Thombatic han usteldu gabe, eta içan cela Cerurat alchatua arima eta gorphutz.
- G. *Ceruan cein lekhatan içan cen eçarria?*
- I. Bere Semearen escuinean, Aingueruez eta sainduetz gorago eta Jaincoaz bertce guciac baino gorago.
- G. *Cer dignitate du Ceruan?*
- I. Han da Aingueruen eta guixonen Erreguina.
- G. *Cer eguiten du han guixonençat?*
- I. Han da hequin Abocat eta hequin gucien Ama.
- G. *Cergatic uste dugu Jaincoac eguin dioela fabore hura haren Cerurat alchatceco arima eta gorphutz?*
- I. Haren dignitate halto eta saindutasun handia gatic.
- G. *Cer da dignitate hura?*
- I. Hura da Jaincoaren Ama içaitea, ceina baita creatura choil bati eman daquioquen dignitateric handiena.
- G. *Certan dago haren saindutasuna?*
- I. Hirur gauça principaletan.
1. Haren bici gucian ezta içatu haren baithan bekhatu actualic batere, ez benialic ere.
  2. Etçuen içatu bekhatu originalic ere Theologoen sentimendu comunaren arabera, ceina baita Eliçaz autorisatua haren Conceptioneco Besta beguiratuz.



3. Haren bihotça ičan cen Jaincoaren amodioric beroenaz gorritua, ceina bethi berretu baitcen hura hil artean.
- 205 G. *Cer sentimendu guc ičan behar dugu Birgina Sainduac bere Assumpcionean errecibitu çuen Gloriaren okhasionean?*  
 I. Bozcariozco eta fidanciazco sentimendu batçuec.  
 G. *Cergatic bozcariozco sentimendu bec?*  
 I. Ceren Birgina Saindua gure Ama denaz gueroz, alegueratu behar baicara hura hain ohoratua ikhustez.  
 G. *Cergatic fidanciazco sentimendu bec?*  
 I. Ceren Birgina Saindua gure Abocata denaz gueroz, nahi baitarocu eman bere lagunça bere Semearen aldean.  
 G. *Cergatic eguiten da Procesione bat hain solemnela Assumpcioneco egunean?*  
 I. Hura da Luis hamahirur garrenaren debocione bat, Franciaco Erregue harc egun hura hautatu çuen bere presuna eta bere Erresuma Birgina Sainduari ofritceco, eta haren arartecotasunez Jaincoari Seme Dofin baten galdeguiteco.  
 G. *Cein ičan cen Dofin hura?*  
 I. Hura ičan da Luis hamalaur-garrena dohaxua eta triunfanta, ceina ethorri baitcen mundura haren Ama hogoi eta hirur urthez agorra egon cen ondoan.

#### PRATICAC

1. Birgina Sainduari othoitz eguin deçogun gure heriotceco ore-necotz, eta maiz erran deçogun debocione handi batequin: *Maria Saindua, Jaincoaren Ama eguiçu othoitz gu bekbatorençat orai eta gure heriotceco orenean. Halabiz.*

2. Besta hunen Octaban bereciquiago segui eta pratica detçagun Birgina Sainduaren humiltasuna, haren castitatea, eta haren bertce cenbait berthute.

3. Othoitz eguin deçagun bereciqui Erreguerençat, Erreguina-rençat, eta hequin familiarençat, eta Religione Catholicoa erresuma huntan othoi conserba dadila.

#### ISTORIOAC

Judithen Istorioa, harc libratu çuen Juduen populua, eta ičan da gloriaz bethea; hori da Birgina Sainduac bere Assumpcionean içatu

duen gloriaren eta triumfaren figura bat. *Judith. c. 10. & seq.* Salomonec nola errecibitu çuen Bethsabee bere Ama, ceina jar araci baitçuen Tronu baten ganean berearen aldean; hori ere figura bat da Jesu-Christoc bere Amari Ceruan eguin içan dioenarena eta hari eman içan dioen botherearena. *Lib. 3. Reg. c. 2. v. 19. & 20.*

## HOGOI ETA BAT-GARREN LECCIONEA

Birgina Sainduaren Nativitateco edo sorceco Bestacotz. Buruilaren çortcian.

- 206 G. *Eliçac cein Besta beguiratcen du Buruilaren çortcian?*  
 I. Birgina Sainduaren sortcea edo Nativitatea.
- G. *Birgina Saindua bekhatuan sorthu othe cen bertce guiçonac beçala?*  
 I. Ez, sorthu cen graciazco estatuan, eta bethi bici içan da bekhatu benialic ere eguin gabe.
- G. *Nor içan dire Birgina Sainduaren abaideac?*  
 I. San Joaqhim eta Santa Anna içan dire haren Aita eta Ama.
- G. *Cer familiataric cen?*  
 I. David Erregueren familiatic.
- G. *Nola bici içan da?*  
 I. Haren bicia içan da pobrea, gordea, humila, eta bethi ocupatua Jaincoaz eta bere eguinbidez.
- G. *Cer içan da guehien seinalaturic haren berthutetan?*  
 I. Harc bere lehenbico urthetan haguitz gaztea celaric Jaincoari eguin cioen promessa, bere bici gucian beguiratuco çuela Birginatasuna, ezbaicen ordurainocoan horren exempluric.
- G. *Cer erran nabi du edo sinificatcen du hari eman cioten icenac Maria?*  
 i. Erran nahi da Andrea edo Andre nausia.
- G. *Cergatic eman cioten icen hori?*  
 I. Ceren nola baitcen hautatua Jaincoaren Ama içaiteco, hura içan behar baitcen munduaren Andrea eta Nausia Jaincoaz lekhura.
- G. *Cer eguin behar dugu Besta huntan Eliçaren Ispiritua seguitceco?*  
 I. Hirur gauça.

1. Da Birgina Sainduaren saindutasunaren ohoratcea eta imitatcea.
2. Bai halaber hura beçala berthutean eta Jaincoaren gracian bethi aitcinatcea.
3. Da hura beçala trabailatcea gai eta digne bihurcen Jesu-Christo gure baithan errecibitceco.

## HOGOI ETA BI-GARREN LECCIONEA

Jondoni Micaelen eta Aingueru Sainduen Bestacotz.  
Buruilaren hogoi eta bederatcian.

- 207 G. *Nor da Jondoni Micael?*
- I. Hura da Aingueru sainduen aiticindaria, eta hargatic da deithua Arcangelua.
- G. *Eliçac ordenatu baititu bi Besta Jondoni Micaelen ohoretan, cergatic du hain debocione particularra haren alderat?*
- I. Ceren Eliçac hura baitagoca bere lagunçat eta arartecotçat, lehenago Juduen populuarençat içan cen beçala.
- G. *Eliçac ez othe tu ohoratcen halaber Aingueru guciac Jondoni Micaelequin batean?*
- I. Bai, eta hequin Besta ere ohoratcen eta beguiratcen du Saindu hunenarequin batean.
- G. *Gure Aingueruen artean cein dire guehienic ohoratcen ditugunac?*
- I. Hec dire gure Aingueru beguiraleac.
- G. *Cergatic hec ohoratcen tugu?*
- I. 1. Ceren hec baitire Jaincoaz igorriac gure salbamenduaren Ministro içaiteco, eta Eliçaren eta guiristino baxhotcharen lagunceco.
  2. Ceren hequin lagunçara laster eguiten baitugu biciaren edo salbamenduaren arriscutan garenean.
  3. Ceren hec ofritcen baitituzte gure othoitçac Jaincoaren Tro-nuan; eta hala Eliçac bere eçagutça marcatcea gatic haren du egun bat gracia hortaz Jaincoari esquerrac emaitco.

- G. *Cein dire gure eguinbideac gure Aingueru beguiralen alderate-coac?*
- I. Badire hirur principalac.
1. Hequin aitcinean errespetu handi bat içaitea.
  2. Hec eguiten darocuten lagunçarençat eçagutça handi bat içaitea.
  3. Hequin lagunçan fidancia osso bat içaitea.
- G. *Aingueru sainduetan cer imitatu behar dugu?*
- I. 1. Hec Deabruaren gainean içan duten bictoria.
2. Jaincoaren ordenei eta borondateari berehala obeditea.
  3. Hec beçala ensejatcea behinere ez ahanztera bethi Jaincoaren aitcinean garela.

#### PRATICAC

1. Jaincoari esquerrac eman detçogun ceren eman darozquigun Aingueruac gure beguiratceco eta gure lagunceco.
2. Ezdeçagun behinere eguin hequin aitcinean, baldin guiçon batec ikhusten baguinitu, haren aitcinean eguitera ausarta ezguindezquen gauçaric.
3. Gure Aingueru sainduei othoitz eguin deçotegun gure othoiçac ofri detçatela Jaincoaren Tronuan, usain oneco incensu bat beçala.

#### ISTORIOAC

Jondoni Micaelen combata Deabruaren contra. *Apocal. cap. 12. v. 7. & seq. Ep. s. Judae v. 9.* Harc laguncen tu Juduac, *Dan. c. 10. v. 13. & 21. & c. 12. v. 1.* Aingueru beguiralençat, *Exodi cap. 23. v. 20. & seq. Tobiae c. 5. v. 5. & seq. Judith c. 13. v. 20. Psal. 90. v. 11. & 12. Dan. cap. 3. v. 49. Zach. c. 11. v. 12. lib. 2. Mach. c. 11. v. 6. & 8. Matth. cap. 18. v. 10. Act. 10. v. 3. & seq. Hebr. cap. 1. v. 14.*

## HOGOI ETA HIRUR-GARREN LECCIONEA

Saindu gucien Bestacotz, Hacilaren lehenean.

- 208 G. *Cer da Saindu gucien Besta, Hacilaren leben egunean Eliçac beguiratcen duena?*
- I. Hura da Besta bat Eliçac ordenatua Saindu gucien ohoretan.
- G. *Eliçac cergatic ordenatu du Besta hura?*
- I. Hainitz arroçoin gatic.
1. Urtheco bertce Bestetan eguin ahal içan diren hutsac erreparatcea gatic.
  2. Besta particularric ezduten Sainduac egun hartan ohoratcea gatic.
  3. Gu berthutera guehiago lehiarazteco, hainberce Sainduren exempluac, eta hec goçatcen duten dohaxutasuna guri betan proposatuz.
  4. Jaincoaren alderat ararteco ahalic guehiena guri emaita gatic, eta bide hartaz Jaincoa ganic gracia handiagoac ardiestea gatic.
- G. *Noiz hasi içan dire Besta hunen beguiratcen?*
- I. Eliçaco çazpi-garren mendearen hastean Bonifacio IV. Aita-Saindu cen denboran, harc Birgina Sainduaren eta Martir Sainduen ohoretan consecratu baitçuen Pantheon, hura cen Templu bat, ceinetan Paganoec adoratcen baitcituzten Jainco falso guciac.
- G. *Besta hau ez othe çuten ordenatu Martirençat baicic?*
- I. Bai, eguia da hastean Martirençat choilqui ordenatu çuten, bainan guero Gregorio III. Aita-Saindu cen denboran hei berretu ciozcaten Cofesorac, ondoan Birginac, eta azquenean Saindu guciac.
- G. *Bertce mudançaric cer guerthatu içan da hortan?*
- I. 1. Hastean Besta hori etcen beguiratcen Erroman baicic, bainan 835. garren urthean Gregorio IV. Aita-Sainduac Francian cen denboran ordenatu çuen erresuma gucicotz, eta Franciatic hedatu cen Eliça gucira.

2. Berretu cioten barur bat Besta hunen bezperacotz, 862. garren urthean; eta azquenean Sixto IV. Aita-Sainduac eman cioen Octaba bat, eta Besta hau eguin çuen urtheco Besta buru handienetic bat.
- G. *Besta hau cergatic da urtheco Besta principalen herroncan?*
- I. Bi arroçoin gatic. Ceren hau baita Jaincoac berac bere Saindu guciequin Ceruan eguiten duen Besta eternalaren imagina bat.
    2. Ceren Besta hunec comprenitcen baititu Sainduen bertce besta guciac.
- G. *Cer chedez balia abal gaitezque Sainduen exempluaren seguitcera lehiatceco?*
- I.
    1. Gogoan erabili behar dugu, Sainduac ere guc dugun beçalaco naturaleça bat çutela.
    2. Hec ere gu beçala flacoac cirela, guc beçalaco tentacioneac eta dificultateac içaiten cituztela.
    3. Gu ere izpiritu beraz animatuac garela, lagunça berez borthiztuac, Nausi beraz instruituac, eta errecompensa berera deithuac.
    4. Guciec badugula Ceruan Saindu bat gure adinecoa, gure estatucoa, gure inclinacioneac cituena, ceinaren exemplua seguitu behar baitugu, edo ceina gure contra alchatuco baita Jaincoaren jujamenduan, baldin hura imitatu içan ezbadugu.
    5. Nola hequin Saindutasuna ethorri baita hec bere pasionen borchatceco eta trabuen garaitceco içan duten animotic eta artha handitic, gu ere hequin exempluaz baliaturic ungui enseja gaitecin hec beçala Saindu içaitera.

#### PRATICAC

1. Sainduac ohora deçagun bere glorian, eta Eliçarequin batean bozcario handi içan deçagun hequin bictoriez eta hequin triunfez.
2. Deliberacione on bat har deçagun Sainduac bere berthutetan imitatuco tugula.
3. Fidancia handi bat içan deçagun hequin arartecotasunean, hec direnaz gueroz Jaincoaren adisquideac eta haren Gortheco Princeac.

## ISTORIOAC

Tobias guiçon Sainduac berthutera exortatcen cituen bere emaztea eta bere adisquideac, Sainduen umeac garela consideratuz. *c. 2. v. 18.* Jondoni Pauloc bere denboraco Juduei nola bici behar çuten irakhas-teco, legue çaharreco Sainduen exemplua segui ceçatela gomendatcen cioten *Hebr. c. 11. v. 12.* Jesu-Christoc çortci dohaxutasunac propo-satcen darozquigu, perfeccionerat arribatceco hainitz bide beçala *Matt. 5.* eta perfeccionerat exortatcen gaitu *ibid. v. 48.* Eliasen exempluac erakhustera emaiten du den saindutasunic gorenera arribatcea eztela imposible, *Ep. S. Jac. c. 5. v. 17.* Centeneroaren exemplutic agueri da arriscuric guehiena dela diruriten estatuetan ere salba gaitetzuela. *Act. 10.*

## HOGOI ETA LAUR-GARREN LECCIONEA

Hilen edo defuntuen egunecotz. Hacilaren bian.

- 209 G. *Eliçac ceim egun hautatu du guiristino hil diren guciençat othoitz generalen eguiteco?*
- I. Saindu gucien bestaren biharamuna, ceina baita Hacilaren bia.
- G. *Cergatic Eliçac hautatu du egun hura?*
1. Bi arroçoin gatic. Eliçaco miembro gucien artean den battasuna edo unioinea erakhustea gatic.
2. Hei lagunça guehiago eta handiagoac içan araztea gatic, egun hartan hainberce presuna elkharrequin juntatuz Jaincoari hetaz othoitz eguiteco.
- G. *Hilençat othoitz eguiteco usança haguitz çabarra othe da Eliçan?*
- I. Bai, usança hura Eliça bere beçain çabarra da, eta legue çaharrean ere eçagutua içan da.
- G. *Saindu gucien bestaren biharamunean hilençat eguiten den orhoitçapena haguitz othe da çabarra?*
- I. Bederatci ehun eta çortci garren urthearen inguruan hasia da, orduan sant Odilon Clunico Abadeac ordenatu çuen bere Ordenaco Comentu gucietacotz; eta gueroztic Aita-Sainduac aprobatu çuten Eliça gucicotz.

- G. *Cein hilençat egun bartan othoitz eguin behar dugu?*
- I. Sainduac direla segur ezgarenençat eta Purgatorioan direla uste içan ahal deçaquegunençat.
- G. *Ez othe deçaquegu othoitz eguin damnatuac direnen arimençat?*
